

TXOMIN PEILLEN

NINA WAITA

ARUPU BATEN ITZALEAN



TXOMIN PEILLEN

**NINA WAITA**

**ARUPU BATEN ITZALEAN**

**Utriusque Vasconiae**

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du*

© Txomin Peillen

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko azaroa

ISBN: 978-84-944061-0-2

Lege-gordailua: SS-662-2015

Azaleko irudia: Marie-Thérèse Olivier

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 0033559592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

## AURKIBIDEA

I. ARGIA IKUSI NUEN EGUNETIK .....	9
II. HILTZAILEEN URTEAK .....	45
III. <i>KICHWA WASI</i> .....	61
IV. EGUZKI ETA LURREZ EGINAK GARA .....	71
V. JAIEGUNAK .....	77
VI. ZALDIEKIN ERE ESKOLATZEN DA .....	83
VII. BI HANKATAKO LAGUN MINA .....	97
VIII. AMAMAREN BIZITZA ESKOLA .....	105
IX. AMA GAMONALEKIN HIRIRA .....	121
X. RIOBAMBAN ERE ZAKURRAK OINUTSIK .....	137
XI. ADISKIDE BAT .....	189
XII. HASERREA GAINDITZEN .....	209
XIII. EGE ERAKUNDE BATEKIN .....	233
XIV. ETXEAN HIRUGARREN BAT .....	255
XV. GEHIEGI DAKIGU .....	261
XVI. WAMOTEKO TRENAK TXISTUKA DEITZEN NAU .....	275
XVII. GIZONAREN BILA .....	301
XVIII. BIZITZA OSOAN GARA IKASLE .....	307
XIX. MENDI GAINETAN LAINOPE .....	319
XX. NINA NORA HOA? .....	331
XXI. AMERIKAR INDIGENEN BILTZARRA .....	345
XXII. ARUPU ZUHAITZAREN ITZALERA ITZULI HAIZ .....	357

## *Eskaintza*

Ekueadorreko indigena gogaideei  
Euskal Herrira bizitzera etorri direnei.  
Ramiro Reynaga ketxua idazleari  
Euskaldun honek

# I

## ARGIA IKUSI NUEN EGUNETIK

Argia ikusi nuen egunetik gomuta galkorrek inguruka dabilzkit. Nire lehen urteez oroitzapen lausoak ditut. Gertakariak neba txikiari begira gogoratzen zaizkit. Haren lekutik gure anaiak zer ikusten du? Adobezko hormak. Atetik egunaren argia, gauaz kandelarena eta neguan su garrak. Etxekoen aurpegi horiak. Zurezko solairua. Lurrezko zorua. Kabletan zintzilik *punchuak*.

Nina nauzue. *Nina* sua da gure hizkeran. Mendi goiengan jaiotzen. *Sangay puna*, garaiera handiko sumendiaren magal galbidetsuan. Punganin herriko *ayllu* erkidegoan sortu nintzen. Larru zurizko umeak gela argitsu zuri batean jaiotzen omen dira, ni aldiz menditar larru horizko neska nintzenez leiho gabeko etxean. Lehorte aroan, ketu gela ilunxkoan, indigena ama kementsu batek argira eman ninduen.

Zer entzuten nuen? Pidruren gisa belarrietan suaren txinparta hotsak. Egurra karraskaz. Etxekoen ahotsak. Etxekoak *runasimiz* goxoki mintzaten: bai, gure ketxuera ezpainen artetik haizea legez isurtzen da eta erreka uren marmar hotsak egiten. Noiz zen ez dakit: Amama Mircid sehaskakoari abesten jardutan.

Kanpoan: eguraldiaren durrunda, abereen oihuak, argi hastean oilar goiztiarraren dei ozena.

Eskua luzatuz amaren larru leun biguna laztanduko nuen eta haren *chuku* gozoa edoskiko, aldiz nire oin behatzak eta esku hatzak ere ukitzen omen nituen. Hamaka sehaskako artilearen goxoa leuna litzaidaken, baita zintzurrian ura edo esnea isurtzen zirenean arago. Ke latzak, batzuetan, begi gorrituetan negar ura ekartzen. Horiek gehienak gure anaia gazteenari, nebari begira birbizitu ditut. Ez nuen, eta nebak ez zuen, luzaro begiraten atetik zetorren argi hotzari eta sugarrari so jarraitzen laketago zen.

Oroitzen naiz gure anaiak ispilu txiki batean bere aurpegia ikusi zuenean oihu ahulaz hasi zenekoa: *Hirus! milliy!*, itsusi! nazkagarri! Hitz horiek jadanik ikasiak baitzituen! Alferretan, saiatu nintzaion nebari ahoskarazten *sumak*, “polita” hitza, miraila begi aurrean jartzen nionean, *Hirus!* berresaten zidan.

Haztamuka, katanarrez ibiltzen ikasi nuela hankabiko baino lehen eta haztatuz gauzak ezagutzen amak kontatuz baizik ez zaizkit gogoratzen. Laster ikasi nuen kanpoan zegoen *yanuna uku* sukaldearen bidea.

Nire oroitza urrunenean etxetik irteten hasi nintzenean, gure mendi goi malkar eskergak, gure lurrak eta gure harkaitzak, baita *Sangay* ketsuaren gailur itzalean *paramua*, ikusi nituen. Mendien atzetik, haien gainetik eguzkiaren argi-begia distirutzen hasten eta gure lurraren mugak argituz ilunabarrean itzaltzen ikustean, argiaren ederra zitzaidan begietan itsatsi.

Eguraldi epeletan, eguzkitan eta eguteraan jartzen nintzen egun beroetan etxearen itzalean. Neguan, eta negu hitza berehala ikasi nuen, leiho gabeko gure etxe txikian sutondoan garra bezainbeste kea botatzen zuen

suaren bazterrean kikilduak beropean gelditzen ginen *rit'i lasu*, elur jasa geldi zedin arte.

Biziko lehen harridura Sangai gure sumendiaren suminaldia izan zen. Bazirudin lurra lehertuko zela hain zen durunda gaitza sortu eta sumendia berotu eta suz argitu. Eta neska txikia nintzela herria hautsez estali zigun, goi mendietan paramo zati bat erre, eta bere barrenetik bota zituen harriekin larre batzuk galazazi. Txikia nintzen eta uste nuen herri guztietan gure Andetan bezala horrelako sumendi kaltekorrak bazirela. Jakina, gure lurrak txiki izan arren ez ziren denak antzu, lekuka eskolan irakatsiko ziguten sumendien hautsak emankorrek litezkeela. Halere, Sangay sumendiak beste suminaldiak eduki zituen eta guk hauts errautsen artean bizitzen jarraitu genuen.

Biziko nire bigarren izua amets goxo batekin hasi zen: ohe lastairan norbaitek zabu-zabuka kulunkatzen al ninduen? Itsumustuan amamak besoetan hartu eta kanporatu ginen. Etxearen azpitik, trumoi antzeko burrunba egiten zuen: bazirudin gurdi txundigarri antzekoa lurpetik igarotzen zela. Amak esplikatu zidan lurrikara zela eta horrelako kasuetan etxe puskak buruaren gainean hartu nahi ez bagenituen kanporatu behar genuela. Geroztik, ohitu behar izan dut urtean sarritan izaten ditugun lurraren dardara horiei.

Handik urte zenbait auzoko ibar batean itsuskeria handiagoa gertatu beharra zen: lurrikararekin mendi zati handia higitu, eten eta zirristatu baitzen ibarraren beheko alde lur jauzte batek zerratu zuen; zoritxarrezko egun hartan sekulako uholdea zen eta oztopo horren atzean ura gora igo zitzaien eta deitoragarriena ibar hartan ehunka jende ito.



Halere, Sangay mendia sutan jar litekeela ikasi nuen eta haren muturretik errauts beroak eta sufre hodei zikinak irteten ikusi behar nituen.

Horretaz amamak kontatu zidan:

- Begira mendi horiei: mantso, lasai, egonkor eta iraunkor irudi, kontuz gizon gose lokartuaren moduan, mendiak lurrikaraz esnatzen direnean hondagarri ditun. Gainera, bazekin herriaren goiko aldetik eta urrutian ere sumendiak baditugula.
- Amama, ez al dut egunero gure mendia harri urtu isurtzen ikusiko?
- Nina, sutan ez keetan ikusten dun eta sutan ere ikusiko; urrunegi joan gabe mendi batzuek, hala nola *Kutupaxi* eta noizean behin gure *Sangay* mendiek, beren mutur erpinetik sufreakin nahasian harri urtu laba botatzen ditun. Noizean behin, hemendik ikusten dugun Salasaka herriko *Tungurawa* sutan jartzen dun eta jendeak alde behar din, harri urtu kaltegiea mendiaren ahotik isurtzen delako. Ez dun esana ez zaigula guri gertatuko.
- Amama, zergatik jendeak bizi gara horrelako lekuetan?
- Bai, Nina, alde batetik inguruan lur joriak baldin badira eta gosez ez hiltzeko, jendea hor lekutzen eta irozotzen dun. Gure kasuan, espainolek beste lurrak kendu dizkigutelako, hemen gaitun. Bestalde, zorionez ez dun urtero mendia haserretzen.
- Eta, amama, jendeek zergatik ez dute horren aurka zerbait egiten?

- Guk ezin dezakegu mendi bizien kontra deusik: mendia gu baino gorago, nagusiago dun eta ezin dinagu hari agindu, ez eta sumendiak tapatu.

Hasieran, ez nuen ulertzen jende batzuk Chimburazu edo gure Sangay erpineraino, zertara igotzen ziren... ezer ez dagoen leku hartara eta sufrea kirasten zuen gunera

Amama andreak behin baino gehiagotan, aipatu zigun nola lurpe bidez Tungurawua eta Sangay bi mendiak elkartzen ziren, gurutzatzen ziren eta elkar maiteegiz sutan jartzen edota ikaritzen lurrak eta orduan lurpeko *auki* izakiek, omen, eskapatzen.

Amamak irakatsi zidan, hain maite nuen urtaro ederra, lehen uda zela, urrian: belar berdeak argia hartzen zuen, erraz ebakitzen zen, eta eskuan hartzea goxo zen; zuhaixketan kimuak eta hostoen begiak ere ernatzen ziren. Lehen hosto berriak jatea gustatzen zitzaidan *ukalipu* zuhaitzarenak izan ezik. Elurra urtzen, gesaltzen zen heinean lurra belzten. Berehalaxe, aienatuko, zimelduko ziren loreak sortzen ziren. Amamak esan zidan lore bat edo beste har nezakeela, haatik horik guk bezala bizidunak zirela eta aholkatu bakean utz nitzan larregi bildu gabe non ez zen etxe abereei emateko. Horiek ziren eduki nituen lehen pozak.

Loreak biltzearekin gelditu barik errepikatzen nuen *waita*, eta neba zaharrenak beste izen hau ipini zidan. Horrela, *puya* eta *chukilaga* loreen usnatzen, biltzen saiatzearekin, ustez eta tximeleta zela, gure txori txikiena kolibria loreetako nektar edaten ikusi nuen. Hau kolore loretsuak! Burua zeru urdin paregabea, zati bat beltz, lepoa txuri eta mokoia luze; hegalak astin-

duz ia geldirik airean, ez zen loreen gainean jartzen. Amonak zion, maiz edertasunak alde txarra zuela: gure mendietan soilki bizi *chimburazu pichiku* hori liraina delako hiltzen eta saltzen baita, galtzen ei da.

Ez genuen gogoko, gure barazkien kalteetan, udan ere, gauaz eta goizez bazterrak izotzez zuri agertzen zirenean eta gero lehortea etortzen, lurrak hutsaltzen. Elurra burrustan urtzearekin erreketako ur hotzak margo urdin arrea hartzen zuen, eta ur jauzi gardenak kantuz jarduten.

Hurrengo urteetan handitu eta herritik kanpo antz eman behar nien sugeak bezain narrasti, isil, ilun eta kaltekor diren zelaietako ibai otzanei. Gure latsak, gure errekek eta gure ur gaitzituak, ordea, ez ziren isil. Bazirudin norbaitek hitz egiten zuela, ahots ozen eta argiz: ura zen harri sudurren eta bizkarren gainetik joatean, gur-guraz mintzatzen zena. Amamak zion *apu* izeneko izakiak hor bizi zirela eta urpean apuak beren artean berriketa eta jardunaldiak edukitzen zituztela.

Haien hobeki entzuteko, ahoz behera etzaten nintzen eta batzuetan, nire muturra urean sartzen ura zuzenean edateko; *apuak*, ordea, urtero joaten ziren ez dakit nora eta maiatzean latsak agortzen; errekek irailan berriz hazten eta gizontzen hasi arte, urpeko izakiak ez zitzaigun agertzen; orduan ez zitzaigun damutzen obratu genituen ur gordailuak. Amamari galdetu nion zergatik ez genituen apuak ikusten eta ihardetsi zidan gure begientzat gardenegi direlako.

Ur ispiluaren jokoak gogoko nituen urmael handi geldietan nire burua ezagutzen nuen eta makila inarrosiz nire buruak suge handi baten antza hartzen zuen. Ur hartan hodeiak ibiltzen ikusten nituen eta argiaren mirailak batzuetan erdi itsutzen ninduen.

Behin, urean amamak aipatu kaiman edo horrelako bat ur azalean igeri zegoena ikusi nuen. Amamarekin itzuli ginen eta hark urrundik esan beharbada halakoa zitekeela, aita jaitsi eta barre zotinka aldarrikatu zuhaitz enborra zela: urean sartuta aitak kaiman egur ederra sutarako atera zuen. Amamak geroxeago baieztatu zuen badirela munduan kaiman edo gizon antza daukaten zuhaitz enborrak.

Ez nuen ura beti adiskide izan, behin sukaldean ur irakinez gardostu nintzelako. Haatik, hiru hilabeteko lehortearekin, elurrak lurpean utzi gordailua etxetik adinon urrun iturri begi moduan irteten zen. Geuk ere umeok, neurri guztietako pegarrak eskuan, egunero edateko ur bila iturrira joaten ginen. Lan hori ez zen esklabotasuna, gure onurako baitzen eta astiroki egiten genuelako. Atzerrian eta zelai herrietan gure ur garden horietaz usu amets dut, geroztik; zenbat aldiz hiriko bizitzan iturri freskoen apetak ez nau egarritu!

Landareetan sapa gorantz zoan, abereetan berdinki odola berotzen eta irakitan bailitzan jartzen. Mendi goietara igotzeko lehia zuten ardiek, wanakoek eta llamerek; batzuk ere eskapatzen ziren. Gu ere umeok haize epelarekin beroaren gozoaz irabiatzen ginen. Udaberri laburrean, Izadiaren berpizte eder hori urte luzetan gozatu dut. Nerabe garaian, udaberrian, ez dakit izadiaz, eguratsaz ala mutilez amorostenenik nintzen: denborarekin hiruen gozamen aldiak epelduko ote zitzaizkidan? Orduan erabili nituen hitzez oroitzen ez banaiz, gehienetan ikusiez eta eginez bai. Ordu latzetan ukendu lasaigarria izan zaizkit orduko haur gomutak.

Eduki nuen beste egundoko izu larriena izan omen zen hegazti batek, sai handi batek emana, etxearen al-

botik hegoak astinduz hegaldatu zenean eta buru gainetik hegan eginaz joan zitzaidanean. Amamak barrez esan omen zidan:

“Ez beldurtu *wamanek* eta *kundur* saiek ez ditizten hire antzeko txitak harrapatzen eta eroaten”.

Aurki, lurrikarak eta sumendiak eta saiak baino kaltegarriago direla gizon mota franko ikasi behar nuen. Gure izadia lehendik ezagutu nuena, urtero berriki antzean aurkitzen nuen eta ez ninduen aspertzen.

Gurasoek lan handia, lan urri eta toila zuten gure udaberrian mendi alorrek txikiak eta sakabanatuak zirelako. Bestalde, gurasoak gora eta behera oinez ibiliz lan zatarrean bezainbeste nekatzen ziren. Urak behera eramane lurrak gora biltzen zituzten, hots muga altxa egiten: hau da aitzurraz hautsi beheko muga lurrak zaretan jasotzen eta igotzen; gero aitak lurra iraultzen zuen, ama ondotik zokilak, erpilak apurtzen eta area batekin xehatzen eta amamak ereiten. Geroago, astoa izan genuen eta beranduxeago mandoa laguntzaile. Auzokoek behi uztarrikoak zeuzkaten eta noizik behinka prestatzen zizkiguten.

Gure *charga* txikiak, gure alortxo mailakatuak, baratzak antzo ziren garbi. Gure gurasoek artoa, kinoa, papak (patatak), txautxa berdeak, babak, okak, purutu beltzak eta ollukoak ereiten zituztenean *Tarpuna Pacha* aroa zen. Aitak goizero eta arratsero zeruari begirakune luzeak egiten zizkion erein giroaren zain. *Killpakui p'unzhay*, ereite egun handia genuen, afari on batekin ospatzen genuena.

Ereintza egun hartan *Tayta Chimburazu* eta *Mama Tungurawa* sumendiei otoitz egiten genien euria ekar

zezaten eta surik ez bota. Chimburazu isildua, batzuetan urrutian ikusten nuen laino urdin gandu baten kapela jantzia eta gehienetan *tayta* zaharra zenez elurrezko ile zuriekin ageri.

*Kinua*, kinoa belarra gure mendietako laboreak gure gurasoei lan handiena eta zehatzena eskatzen zioten. Gero, ikasi nuen bezala kanpotarren arroza eta gure artoa baino eurrez hobea da eta izotzari iraunkorrago, jasankorrago dela kinoa hori. Aspaldiko bizi guztien iturria delako lurra *ñaupa* izena gaineratzen zaio, halaber, kantuak dionez lurrak eman indarrez *ñaupa kinua* belarra bihurtzen da.

Otsailean uda iritsi arte txingor eta kazkabarra egiten zuen, izotzaldiak ere baziren, horregatik azkenik ereiten zen arto hozbera. Garagarrak, oloak, papak eta zekaleak nahiz emankorrago izan, lekurik ez denen egiteko; hori geroago ulertu behar nuen.

Artoak lan franko ematen zuen, artajorrak, arto bakantzeak, arto ondozkatzeak eta bana banaka bu-ruen biltzeak. Lan horietan gai ginen laguntzeko. Artaburua ez genuen zoritu-eta, umotu-eta biltzen gehiena zuri zuria alea esnetan zegoeneino egosirik *mut'i*, berehalaxe edo erretan *hank'a* jaten edo saltzen. Artoa ekoizpen ona zen, *ayllu* lurretan behereko gure soro zabalgunetan ereiten zena; garia ere bai, han erein zuten handik hamar urte: hazia erosi edo kinoarekin trukatu behar genuelako; ogiari aitak *capricho* zeritzon.

Neba zaharrena, Tuñuku, goi mendira ardiekin eta lllamekin, lehen *punako* bazka haietara joana zen. Aitak aldizka mendian, aldizka lur lanean beharrak nekatzen zuen. Hala ere, goiko mendietan elur urtzearekin anai zaharrena etxe aldera itzultzen zitzaigun. Udaberrian

gure etxetik gorantz harkaitz borobilek ardi antza har-  
tzen zuten, zuritzen: landare narrastariak artilea irudi  
lore zuriz estaltzen zituzten haitz beltzak. Uda zetorren  
otsailetik apirilera, bero eta euritearekin eta *Sisana*  
*Pacha*, loratze aroarekin.

Neguan, maiatzean, lehortea zetorren; baratzeko  
landare minberak egarrituak zaintzeko euritean erre-  
katik garaiz bete adreiluzko patin handitik genuen le-  
hortean ura ateratzen.

Zurezko zurubiak gora patinera igotzen ginen, erdi  
bete burdin suil batekin edo balde batekin, umeok ura  
ateratzen eta ekartzen. Gurasoek ura lurra sotilki ga-  
raztatzean banatzen zuten. Sarritan, urarekin jostatze-  
negi ginenean gurasoek dei gogorrekin epelak esaten  
zizkiguten.

Urarekin beste harremanik izan nuela gogoratzen  
zait, neba gazteagoaren eta auzoko ume aspergarrien-  
gandik ihesi erre kara nindoan, erre kaka *apu* izakien  
entzutera, baita urtegi txikiak egiten eta gainetik egu-  
rrezko zaldainak pasatzeko ere. Nire gisara amari erre-  
kako lixiba-tokia atondu nion edo harena apurtxo bat  
hobetu.

Haurrek belar txarrei gerra egin behar genien, *Jall-*  
*mana Pacha* garaia zen. Behar ez zen lekuan sortzen  
zitzaigun *ichu* belarrak igitaiaz mozten genituen. Amak  
eta amonak, abereentzat zaretan biltzen zituzten belar  
txar haiek, ez guk, eskuko larrua harramazkatzen zigu-  
telako. Gure belar txikiagoekin jokoa zen, zeingehiago-  
ka, zeinek meta handiagoa bildu. Berehala, ohartu nin-  
tzen beste haurrek, harroki puztuak egoten ziren basa  
belarrak, hautatzen zituztela eta meta handienarekin  
beti irabazten. Uzten nituen egitera. Txikinak lan txiki.

Bestalde, aintzirak *llulluch'a* algaz betetzen zirenean umeak haien biltzera joaten ginen, jaietan haragi lehortuarekin jateko. Baratza bi zatitan geneukan: bi lerro azenario, lau ilara brokoli eta bigarren taulan kipula, amak erein eta guk zaindu egiten genuen.

Gure lana zen, abereak zaintzea, txerriak, oiloak eta pintada *gallinetak* haztea, bazkatzea. *Kui* karraskariak ere bai gure gain. Hurbilean, ardiak larratzea eta zaintzea gogoko genuen. Nik arrautzak biltzea.

Kuiak nire lagun minak ziren, haien hiltzea eta jatea luzaro ukatu nuen eta negu osoan etxeko nire txokoan banituen; halere ezinikusi askori ohitzen gara eta besteen gisa, haatik gure gurasoak oraindik bizi zeudeneino kuia erreki jaten ikasi nuen, ezen ahorako betiko olo *mazamorra*, arto *mut'i* eta baba zopa baino goxoagoa baitzen.

Txerrien bazkatzea mutilei uzten genien, eta nebak txerriekin jostatzen ziren: ezin-ase horiek itoka jaten zutelako, hautatu lursagarra, txerrien *kuchipapa* zaharra, bi urdeen artean askara botatuz biak gatazkan has litezen.

Haatik, etxeko andreak txerriei egiten zieten beste tratua ez zitzaidan gogoko: andreak txerrikume beltz-beltzak soka batez oin batetik lotuak, buruz behera, Riobamba hiriko txerri merkatu ospetsura saltzera zeramazkiaten. Amamari txerritxoek behargabeko min edukiko zutela erranik, hark irriño batekin esan omen zidan, min balute kurrinkaz hasiko lirateke; Gainera, bizitzan jendeei gertatzen zitzaizela horrela isilik buruz behera egotea. Mingarria ere zitzaidan nola txekor ederrak sudur mintzetatik lotuta eroaten zituzten. Halere, ama merkatutik *txiringito* batean erosi zekor



bihotz edo gibel batekin zetorreanean, eta *ollukoekin* adelatzen besta handia genuen.

Udako egun luzeetan, azaroan eguzkia zeruaren kolore aldaketekin ortziaren margolari bilakatu ohi zen. Leinuruek, izpiek hodeiak margotzen zituztenean, zeruaren eskolan koloreen izenak amamarekin honela ikasi nituen: *Yana* zen beltza, gauaren antzekoa, *puka* gorria sargoria, garraren koloreko eta amaren pon-txoa bezala, *ankas* urdina hodeirik ez zegoenean legez, *kumir* berdea belarra irudi, *killu* horia neguko belar lastotuaren gisa. Ostertza, lantzean behin, harkaitzen margoz gris *uki* jartzen zen, bai eta *puka yana* ere more gorri ilunabarrean.

Tipulak biltzen genituen, otarretan lehortzera jartzen eta jarraian txirikordatzten. Ume esku traketsekin tipula txikiak ematen zizkidaten txirikordatzera eta nik harroki, txiki-handi gogoz, handiagoak ere lotu nahi nituen, horregatik kipula handiekin kilimon eta eteten zitzaizkidan kordak. Txikietara itzuli behar.

Lehortearen azkenetan, *Pallana Pacha*, uzta garaia zen. Bazen lana: garagarra edo garia zori zenean ebakitzen, mandoz etxera ekartzen, larrinean eta lur gogorrean hedatzen. Gero azaoak deslotu eta lastoen buruen gainetik lotutako astoak maneatzen, aurizkitzen, ostikopetzen zituzten, hots eultzia egiten. Nahikoa haize zenean, otar bahe batekin haizatzerekin ahotza eta alea bereizten. Uztaren azken egunean *Inti Wayna Kapak* dantzaldia ematen genuen eguzki jaunaren ohoretan, eta *runa wamani* gure sineste zainak *llampu* irina banatzen zigun, harekin ahoa eta bularra igurtzi genitzan, zati bat mendiari emanaz eta bukatzeko ezohiko afaria egiten.

Afari gau batean amamak kontatu zigun ereiten eta landatzen genituenak nondik eta nola iritsi ziren:

“Landare guztiak baziren zeruan eta azeri harroa kondor baten bizkarrean igo eta ortzira joan zen. Han ikusitakoez ase eta bete ostean gaizki jokatu zen eta lotsagarriki ohildurik lurrera erori zen eta azeria lehertu: sabelean zeuzkan landare onak lurrean sakabanatu ziren, erein eta hazi”.

Bazen askotariko zeregin eta larrazken laburrean, udazkenean uztak egitean gurasoek ez zuten atsedetik hartzen, egun argiz artaburuak biltzen, kinoa ebakitzen. Lan gehiena, igitaiaz egin behar zuten eta artoa, lllamarik ez zenean behintzat, soin gainean ekarri. Urte batzuk geroago lanean lllamen lekuan zama garraiatzen mandoa erabiliko genuen. Gure mendi alor zatikatuetan ezin ditugu barazkiak hotzarengatik diren bezala gorde, oroitzen naiz horregatik nola puskatu-eta hiru egunez, hotzean eduki ostean idorrazten genituen *chuño* jateko.

Auzo hurbileko lau etxe sakabanatuak herritik bazter ginen; bat, gertuena lehen auzoa edo *markana* zen. Gure ohitura zaharrez, konpaitasunez lotuak ginen bi etxeak. Gure artean, zernahi hodei tartekatu arren, edozer aurkako gogoan eduki, elkar laguntza ahaide-tasuna baino finkoagoko lotura zen. Hala, bakoitzak bazuen *Markan tayta* eta *Markan mama* eta bera ere besteen *compadre* zen. Lanak maiz *ainy* lankidetzan, unean uneko, egiten genituen. Elkarrekiko txanpon kaxa diru laguntzarako bagenuen; gainera, ez genuen jairik ez eta otoruntza handirik antolatzen auzo *markanak* gonbidatu gabe.

Haurtzaroan ez ginen inoiz so egile hutsak. Ez ginen etxera eskuak hutsik itzultzen, egur abar txikiak baita egur haustearekin sortu ezpalak biltzen genbiltzan. Eukaliptoen azpian horrelako abarrak aurkitzen genituen eta sutarako beste zarbastekin batean; lehenik, sudurrarekin euren usaina gozatuz, eukaliptoaren frutak ere sutarako biltzen genituen. Gurasoek aizkoraz zuhaitz bakanen behereko adar iharrak inausten zituzten. Bazekiten zein ziren moztu behar ez ziren zuhaitzak; bestalde, urtero aitak bizpalau landatzen zituen eta haien ureztatzea guri gomendatzen.

Arto lokotzak ere, buruska aletuak erretzeko gordetzen genituen. Sastraka lehortuak, *llureta* eta *tula* zuhaixkenak gurasoek biltzen zituzten ez zietelako landare idortu horien arantzek guri haina min ematen. Hamar urte geroago herrixka guztietan gasa sartuko zen. Orduan, eukaliptoen ezkurak ala artaburuen buruxkak eta orstoak izan jostailutzat geneuzkan.

Artista iaioena zen Tuñu neba alanbrez eta egurrez edozer tresna kopiatzen zuelako, bai eta, ez dakit nondik ikasirik ere, soldaduen arma bezalakoak egiten. Orduak emango zituen trukesa, aliketa eta mailuarekin latetako burdinekin ibilgailuak asmatzen.

Iltze, egur eta mailuekin berdin zer nahi animalia egiten zigun anaia horrek. Bestalde, lasterkari hobereana, eta joko hori, elkarren arteko lehiaketa hori, etxe atzeko sastraken artean bukatzen zuten. Txikiegi nintzen lasterka ibiltzeko, eta nexka jokoetara behartua: andui baten gainean eseria, arta buruxkailekin, arto hostoekin, artabizarrekin eta pintada bipildu lumaz nire andrakilak egiten nituen.

Uztaila gehienak hodeitsu, euritsu eta elurtsu ziren. Hasieran euria gogoko nuen, xehe xehea euri

bisutsa, langarra, txarrakaz xehe eta zirtzil aurpegian hartzen nuenean, aitzitik euri jasa erauntsi haize suminkorrarekin zetorrenean eta atertu gabe egiten zuenean ez nuen hainbeste gustuko. Euriak gure etxeko hormetan zirti-zarta musika jotzen zigun. Ordudanik, besterik ikusiko nuen, hala eta guztiz ere itzuleran begientzat gure mendiek beti lainotsu eta hodeitsu izaten jarraiki eta argia goizago ubeltzen.

Igandetan aitak, noizean tanta, noizean trago, *asua* edo jaietan *chicha* tanta edaten zuenean kanpora zoan edalontzi hondoa husterak emanaz lurrari *Pacha Mamari*, euria ongi har zezan. Eta eguzkia agertzen zenean Inti agurtuz denbora berean *Taita Chimburazu* eta *Mama Tungurawa* mendiei diosalak egiten zizkien.

Hotz aroa luzea goizik zetorren, haize hotzak aurpegiak gorritzen, hostoak zirimolaka eta inguruka haize horrek dantzan erabiltzen eta airoski jasotzen. Saiatzen nintzen orbelak nora joango ziren sumatzen. Laino beltzak agertzean etxera sartzen. Zalaparta biziak guk barruan olgetan eta txantxetan etxea biziartzen genuen. Aita nekatua zetorrenean amama Mircid andreak, *apamamak*, isilarazten gintuen.

Laster, lehen hodeiekin *papakara* euri eta elurrezkoa, gero *rit'i* elurra marra-marra, tai gabe, gelditu barik eta atertu gabe jaisten ziren. Ez zen elurra euriaren gisa erortzen: lehenik, airean egoten herabe izan balu legez lurtean bere lumak zikintzea, apur baten haizearekin hegan edo zurrunbiloka dantza egiten zuen. Zuhaitzek elurrezko eskularruak janzten zituztenean zuhaitz adarrak izar txikiz zipriztindurik argitzen ziren.

Lur beltzak elur mehea hartzen zuen eta kolore grisa, lehenik. Ondoko elurraren ore txuri hori gogoko

zitzaidan, elur geruza harro zegoeneino, ez elur bustia zenean. Elurrean zulo bat zenean, argi urdin ederrekin galda-galda dirdiratzen zuen. Hurbildik ikustean elur maluten lumak kristal antzekoak nire larruaren edo soinekoen gainean urtzen ikusten egoten nintzen. Aitak bazekien ehuntzen zituen jertsetan luma antza horien marrazkiak egiten. Bai, negu osoan, uztail-ago-rrilaldian gurasoek ehundegi lanean ziharduten. Amamak eta amak, urtean barrena, irun artileak, ehuntzen. Aitak neguko jantzi eta soineko *awana* ehundegian egiten zituen merkatuetan zenbaiten saltzeko.

Laster, ordea, elurra lodiegiz hastiagarri bilakatzen zitzaigun eta etxe inguruan lohitzen. Hotzarekin elurra lei bilakatzen zenean horma labainean zirriatzea joko ederra genuen, laket zitzaigun; oinetako higatzaila zelako ez zitzaien gurasoei gogoko.

— Ume txarrok! *Ujata, hushut'a* alpagatak suntsitzen badituzue, besterik ez duzue izanen eta elurrean oinutsik ibili beharko zaizue! Elurpean ehortzi baino lehen zatozte barrura!

Guk ere, laster, elurrean jostatzea uzten genuen. Ospelak, azkordinak gure esku hozberatuetan agertzen ziren eta gantz geza batekin igurtziz amamak sendatzen zizkigun hatz eta behatz hoztuak. Sarritan, elurra geu bezain gora zen eta *maguei* landareen hosto muturrak baizik ez ziren agertzen. Arkume eta bildotsak etxera sartzen genituen.

Elurra ez zitzaien gurasoei gustatzenegi, etxe inguruan haize zakarrekin batean, kabalekin lan nekeak ematen zizkielako. Halere, elurrak lurra izotzetik gerizatzen eta udaberri epeleko urtzearekin ur erreserba

ederra egiten zuen. Amamak zion, elurra bere aroan maitagarri, aroz kanpo nazkagarri zela, baita gaineratzen zuen gertaera gaiztoen artean, noiz nola, on egile zitekeela elurra... hala nola gizona.

Negua. *Achachai!* zer hotza! Hotza zer zen ia urte osoan bagenekien egunaz erretzen baginen, paramoan gauaz hormatzen ginelako, alabaina iraileko negua! Hortzak ikara sutondora sartzen ginen umeok eta garren dantza gustukoa genuen, baita abar txikiak jaurtikitzen su txinparten eragiteko. Beti nenbilen su biltzen, su zirikatzen, hauts eta ilaunak kentzen, ilinti egiten, hots sutik sarturik.

Orduak emango nituen suari eta txingarrei begira. Amamak, *Nina Nina*, Su-Su izena merezi nuela, zion. Ez dizkizuet gure izenak oro eman nahi, zeren bakoitzak lauzpabost izen genituen, *Pagri Yayak*, apaizak elizan emana Nina, bestea herrian zerabiltena, auzoek ezagutzen zutena. Azkenik, etxean gure artean sekretuz gordetzen genituen izenak. Amak ere aitortu zidan aitarekin beren arteko izen bereziak zeuzkatela.

Dotrina ikastea zail izan zait ulertzea amamak kontatu ipuina, nola *Tatacha Kristok* behin hagin bat gutxiago zuen gizon bati *chihuaku* hegaztia igorri zion hagin bat ahoan ezar ziezaion. Lumadun gosetia, ordea, arto jateko bidean gelditu zen eta hagina galdu, baita ezin idoroz arto alea gizonaren ahoan ipini: gerroztik eta horregatik jende guztien haginak usteldu eta hortzetan txantxarrak eduki genitzake.

Beste hau ere ez zen Elizaren dotrinakoa Ezkontzen harrokeriak erakusteko kontatu zidan nola artzain gazte batek anderetzat lurrera jatera eta bainatzera jaitsi izar bat hartu zuen. Azkenean, izarra ortzira itzuli

zen, mutilak jarraiki; neskaren aita den eguzkiak, ostera, erre zuen artzaina.

Neguaren luzea irauteko amamak gure nazioko ipuinak kontatzen zizkigun, *Pacha Mama* lurrarenak eta lurraren errespetua, eta lurrak ematen dituen bizidun guztien begirunea, horregatik gure herria, herria baino gehiago da *ayllu llakta*, lur gehienak eta bazkak elkarren arteko jabetasunean daudelako.

Orain arte, egundainokoan ezagutzen ez nituen gizon larri zuri batzuek, han beherean bizi ziren kolonoek, ez omen zioten Pacha Mamari begirunerik; amamak zionaz, antzina herriko gizonak esklabo hartuta ibarraren hondoko oiha ederrak egotzi, bai eraitsi egin eta beren kastako jende txuri batzuei hala garbitu lurrak eman zizkieten. Amamak zion:

“*Manam kanchu sach'a!* Ez dinagu gehiago oiha; horregatik ikusi dunan moduan, neguan berotzeko, amak neba zaharrenarekin ordu luzeak ematen ditin mendian sastraketako adar iharrak biltzen, bai eta horregatik ere, zoritxarrez gure abereen gorotza, ongarriztapenari kenduz, berotzeko erdizka lehortzen dinagu. *Yura* gutxi zegonan eta ez aski gure mendietan.

“Lanean jartzen ez bagara eukalipto madarikatu horiez at, *yura* zuhaitz hitza ere, ahaztuko dinagu. Zuhaitz birlandatzen hasi ditun gitar jende argi batzuk, baina dirurik ez eta ez dinagu aski zuhaiztu”.

Amamari galdetu nion gure jendeak zergatik ez ziren lur ohointzaren aurka jartzen eta jazartzen? Hark zion, gitarrek ez zutela horretarako nahiko armarik, ez eta nahikoa jende. Arma zer zen erran zidan eta burdin tresna hilgarria zela ikasi nuen. Banekien, auzoan ezkuntuan horrelakoa bazutela ehiza galgarriak urruntzeko

edo hiltzeko, zizpa eta eskopeta eta Tuñu gure anaiak burdin alanbrez faltsuak egiten baitzituen. Auzoko horiek, nahiz *wanaku*, nahiz *lluyachu*, hots basa-llama ehizen hiltzeko ere armak erabiltzen omen zituzten.

— Mintza zaitez, otoi, amama jende zuriez.

— Zuriak, indigena guztiena zenaz, jabetu zitunan.

*Pacha Mamari*, gure asaben lurrari ere lekuka goitzarrena, laidoa egin diten: beren arrazako bati eman eta gaur egun sarritan, alorrak irauli gabe, goldatu gabe eta belardiak garbitu gabe lurak alferretan ditun. Gainera, gureak ziren barruti batzuetan sartzetik debekatu gintiztenan mendietan zokoratuz egon gaitizten.

Antza denez, *apamama* lakoak egoera horri errendituak ziren. Beste kezkarik banuen, ordea, zera biziaren laburraz eta amamari galdetu nion erantzun liezadan:

— Amama zer da zahartzea?

— Begira nire begitarteari. Zimurrez zimeldua. Adinarekin jende guztiak gauzen moduan hitz egiten gaitun. Hi ere, urtetik urtera halakak tuko haiz.

— Ni ere zimurtuko?

— Bai, Nina. Kontuz, ordea, ez dezanala, bederen, hire gogo utz zimeltzera. Naretasuna ikasi behar dun. Bizitza eguraldia irudi izanen zain: ateri, euri, ekaitz, eta oskarbi. Guk, dagoeneko, hiru gerrate jasan ditinagu eta niretzat bakkea gudu-eten luzea baizik ez dun, oskarbi laburra eta ateri kezkarria.

— Eta ez zahartzeko eta ez hiltzeko zer egin behar nuke amama?



- Emetxoa! Hiltzea ekidinezina dun, zahartzeak luzaz hiltzetik zaindu hentzake, halere, azken batean, joan behar.
- Eta zahartu eta zimurtu baino lehen hil banendi?
- Hori ez dezanala hire esku har. Pacha Mamak garaiz deituko hau.

Baldin Pacha Mama biziaren iturria bazen, amandreak oroitarazten zigun hilen lekua zela ere. Goizik heriotza aipatu zidaten eta txiki-txikitik hila erakutsi. *Charkivay* minduri eresia entzun nuen, bai eta behin auzoko neska txiki baten *jachimayshay*, hilen bainuan lagundu. Tontor batean zegoen zurezko gurutzeekin gure aylluko hilerria; ez zen eliza ondoko Tayta Diusen *kanpusantu* delakoan. Zerutik hurbilago zen gure ayllukoen hilerria erakutsi zidaten eta goizik ulertu nuen ezin zela lurpean sartua, berbera eta berriz erraz irten. Hau dena, geroago amamak gogoratu zidan.

Nire lehen hila, ahizpa txiki maitea izan zen. Hitz egiten ikasi baino lehen, sabeleko gaitz batek eroan zigun. Aitak *chaskibay* erosta honela abestu zion, atabalak, antara eta pinkillu musika-gailuek doinua ematen zutela:

Oi! Politena!  
 Oi! *Sangai* lorea  
 Oi! Mendiaren itxaropena,  
 Goizegi joan lorea,  
 Frutarik eman gabeko lorea,  
 Amaren eguzkia,  
 Itzali haiz.  
 Ez haiz aitaren makila izanen.

Hire ahotsa,  
Hire irria,  
Hire gorputza izoztu ditun.  
Isil ditun errekak,  
Goibel ditun mendiak,  
Beltz ere Pacha Mama!  
Oi! Sangay lorea!  
Goizegi joan lorea.

Amamak ere ahaztu zaizkidan bertsoak eman zitu-  
tuen, eta gero errekara joan ginen ahizpari *jachimays-  
hay* bainuaren ematera, artoski ikuzi eta orraztu nagusi  
berri bati bere burua aurkeztu behar balu bezala. Ama-  
rekin eztabaidatu ondoren amamak behartu gintuen  
apezaren elizkizun nahikoa garesti zena ordaintzera,  
gure ahizpa txikiak zerura joateko meza izan zezan.  
Mestizoek, *choloek* basatien hilerria zioten gure ayllu-  
ko doanik zenera, mendikora eroan genuen ahizpa.  
Geroago, lau urtez eskolatu ondoren gaztelania ikasten  
hasi nintzenean, F. Benitezek Pacha Mamaz eta herio-  
tzaz idatzi *ayarachi* abestia ikasiko genuen antzina no-  
lakoak ziren ehorzketak:

Urteren errezel atzean  
bizia joatean,  
etsipen eta desamodioak,  
igo direnean,  
gure asaben gisa  
nahi nintekeen  
buztin lurrezko ontziaren  
sabel ilun freskoan  
hil hauts ehortzia egon.

Buztin erre gogorreko,  
muino berdeen arima,  
hi haiz arbasoen  
giza lur eta odola.  
Hiregana nauk itzultzen  
Buztinean ontziratzen  
Higan hilik sartua  
hire hautsak maitatzen.

Handik urteak, eskolara joan nintzanean, *escuela indígenan* kontatu ziguten lehenago lurrontzia lur amaren sabela delako, hilak beti lurrontzietan, makurturik, plegaturik ehorzten zituztela gutarrek. Lurrontzi handirik ez zenean hila erretzen zuten hautsak lurrontzi txikian gordetzeko.

Andereñoari adierazi genion erretzea itsusia zela, eta hark idatziz iruzkindu: hobe ote zenez, usain zatarra sortuz, usteltzea, zomorroek eta mikrobioek leher-tuta desegitea edo sai hegaztien bazka izatea? Nolanahi jendea errauts bihurtzekoa dela, lurretik sortua delako. Behin, bedatse argitsu batez amamari esan nion:

- Ze argi ederra! Eta hilek ez dute gehiago ikusten. Hau zoritxarra!
- Gaixoa! Alde batetik ez ditene gehiago pentsatzen eta bestetik begiak galdurik ez ditene ikusten.

Gure bizigiroa, gure ingurugiroa den lurra ume koskorra nintzanean ikertzen nuen. Lurra eskukatzen nuen, haztatzen nuen. Esku batean hartzen omen nuen harea, hondarra eta ukabila tinkatuz, beste eskuan isurtzen edo eskua zabaltzen eta atzen artean kurriarazten. Lurra lodiago zenean harresi txikiak, “ene

etxeak”, nire inguruan eraikitzen ei nituen. Handitzearekin amari ikusi nion tankeran, buztin lur horia harturik urarekin lantzen, oratzen, leuntzen ari omen nintzen. Buztinaz kanpo beste zer edozer ipini behar zen eta nire lurrontziak, hondarraren erabilera ikasi arte, eta orduan ere suan eta labean berdin belzten eta lehertzen ziren.

Korrale ondoko zoko batean nire baratzetxoa eratu nuen, lur apur bat bildu, ardien altxirria, arkorotza lardatuta, urez busti eta pozik nengoen han erein baba bakanak ernatzen zirenean. Zoritxarrez, nire ortutxoa abereen batek edo nire haurride axolagabeko batek iraultzen zidan, non eta ez zuen eguzkiak erasaten eta erretzen. Luzaro gabe utzi nuen nire baratz egitea. Gogoan sartu zitzaidan lurrontzi eta ortua egiteko, helduek beren sekretuak bazituztela.

Etxearen ezker aldetik ohartu nintzen zuhaizka bat zegoela. Txikia nintzen eta handi begitandu zitzaidan: hosto berde txiki estuak zituen, lore hori txikiak, fruta txiki gorriak. Amak abisatu ninduen ez zirela ez lore, ez fruta horik jan behar. Geroxeago aita ediren nuen landare horren hostoak murtxikatzen eta murtxikatzean, kare zuri puska batekin mastekatzen. Amari galdetu nion zergatik aitak hori egiten zuen:

— Zuen aitak, nekatuegi denean eta min handia duenean bai eta gose gorriarekin denean hosto horik murtxikatzen ditin.

— Nola deritzo, ama?

— *Kuka.*

— Eta nik ere jan nitzake.

— Ez hik ez, gizonentzat ditun.

— Eta eritzen banaiz erremedioz har dezaket?

— Kasu horretan, agian, bai.

Handik urte zenbait, amamak aitortu behar zidan berak koka zerabilela, halere ondotik gaizki sentitzen zela historik ez zuenean. Kontatu zidan aitak Perun ikasi zuela hartzen, gure mendietan hazi arren, ez dugulako perutarrek adina murtzikatzen.

Gaualdietan, eguzkiaren eraginaz, mintzatu zitzaigun amona, alegia ekiak zituela udaberriko epel laburrak, udako bero luzeak eta larrazken neguko aro luzeagoak agintzen. Gizon batzuek diote Eguzki hori, Eki hori, *Inti tayta* gizona ere dela, amama, ordea, ziur zen *yachaj tayta* jakintzaren aita dugun txamanak baieztaturik denbora berean andrea, *mama* ere dela eguzkia, eta lurra eguzkiaren alaba dela. Nolanahi, lore horiaren itxura izanik ere, eguzkia noiz nola, sua eta kea dariola ikusi nuen. Agertzen eta desagertzen zenean argia eta hodeiak maitagarriki gorritzen edo oritzen zizkigun, ekiak.

Zahar batzuek zioten, biak, eguzkia eta lurra benetako jainkoak zirela, ikusten zirelako, on egin zezaketelako; beste sinesteak asmakeriak, bai, beste ustekizunak ametsak, benetan ikusezin hutsak zirela. Eguzkiari kasu eman behar zela, ez zela gaiztoa indartsua baizik: haren garrez lurra erre litekeela eta jendea ere. Hori dela eta *Pacha Mama* eta *Inti Tayta* gabe ezin zela gure jendea bizi. Ilargi betea hain gogoko nuen, elurra bezain zuri baita bere begi beltzekin ere maitagarri.

Neguan auzokoek, berotzeko edo, dantzak ikasten zituzten eta sutondoan soinekoak atontzen, ezen zeinek ederkiago, *Pacha Mama* Ama Lurraren ohoretako ospakizuna *Corpus Christi* egunean eta batean eman behar baikenuen; ondoren, Neguko Sanjuana

eta Inauteria ere ospatu behar genituen. Mutil gazteak atabala jotzen entzuten genituen, flautak eta txirulak soinu lasai batzuk txistukatzen. Amamak zion Eliza onaren begirunez *Pagri yaya* apaizaren Corpus Christi elizkizunera joanen ginela, *Taita Dius* agurtzera, ondortik gure mendiko Inti Raimi jaiera... indar guztien beharra baitugu.

Santiago egunez kriolloek santu militarra ospatzen zuten, nola nahi guretzako *Apu Llampu*, Tximistaren Jauna, *apuen* jauna genuen, ezen gure izadiaren errespetua dator lurreko gauza eta izaki guztiek beren bizia eta beren gisako arima *apu* bat baten jabe direlako.

Amamari galdetu nion:

— Nondik etorri dira larru zuri gaiztoak? *Mai manda?* Nondik etorri?

— *Watun kucha manda, Mamakucha manda*, itsaso handiaren aldetik, munduaren beste bazterretik. Itsasoa? *kucha*, itsasoa egun batez, agian, hik ere ezagutu behar dun.

— *Mana maima hatun kucha, mana munani chu*, ezetz itsas aldera ez naiz joanen, ez naizela joan nahi; handik baldin badatoz gaiztoak.

Horiek, askoz geroago, amamak oroitarazi zizkidan, hain zuzen Wayakillan (Guayaquilen) eman egotaldia aipatu nionean. Halatan ere, handik berehala gizon zuriak ikusi nituen; batzuetan, Sangay mendira igotzen ziren mendigoizale jatorrak ziren.

Atzerritarrak omen ziren. Uste nuen, haurkeriaz Pacha Mama jauresteko igotzen zirela, eta amak azaldu zidan beren indarren mugak frogatzeko, egiaztauzeko eta ezagutzeko zebiltzala. Bazihoazen eta ez ziguten kalterik egiten, begikoenak mendigoizale horik

genituen. Beranduxeago ere, noizean behinka, kanpotar turistak azal zurikoak, *Yurak kara* jendea artilezko soinekoen eroatera etxera etortzen ikusi behar genituen; turistek beren eskuetan zuten kaxa batekin gure irudiak hartzen zituzten, hala ere ez zizkiguten gero merkatuan egiten zizkigutenean moduan argazkiak saltzen. Maiatzetik irailerainoko neguan denek uzten gintuzten: indigenok gure artean bizi ginen.

Gaiztoenak, jende zurien artean, gure kriolloak genituen. Amamak zion: ez erran *monoak* direla, itsusiegi dun. Agintzaile bai, langile ez. Ñagi-Ñagi bizi dira eta gu garela alferrak aldarrikatzen dute. Amamari galdetu nion kriollo zatar horik etorri baino lehen, non geunden, nola ginen? Herrian kanpotarrak ginenez erran liezadan? Amonak:

- Aspaldi handian, lurralde honetako lehen bizizale bakarrak gintunan, antzina herri honen jabe osoak.
- Eta nola jabetasuna galdu?
- Otso zatarren moduan, gure herritarrak baino txit hobeki armatuak, hispano gizon zuriak urrango Europatik etorri zitunan.
- Baina, ez al ginen gu haiek baino jende gehiago?
- Bai, benetan eta banatuegi gintunan. Garaitu omen gintiztenan, lur onenak kendu, urrezko gauza ederrak lapurtu. Bestalde, beren artean ez zitunan gizon armatuak baizik, aldiz gure arbasoak arrisku gehiagorekin borrokatzen: andre, ume eta gaztetxoak tartekatua gudukatzekeo traba zitunan eta txit nekea zunan armaz kontra jartzea. Ezin bihurrituz, ezin erasoz geldiaraziz mendietara ihesaz iraun dinagu.

Gure ibarrari begira, dagoeneko gure mundu txikiak hiru sail zituela ikasia nuen. Gu, mendixka batean, etxe bakarti batean bizi ginen, beherago gure Punganin herrirka bazen, eskolarekin, apaizik gabeko eliza txikiarekin, *Llakta Wasi* udal etxe batekin eta lauzpazortzi etxe eta gero behereko zelaietan kolonoen etxeak.

Eremu hau aldapatsua, nekea, udan lehorra. Sangay herrialdean txiroki bizi gaituzue elikatzeko doia biltzen. Sumendiak direla-eta, lurrikarak direla-eta halere, *Kariwayusu* mendiaren bestaldean *Salasaka* naziokoak gu baino gaizkiago dituzue eta ozta-ozta jatekoa biltzen: osteka lan bila erbesteratzen. *Utavaluak*, berriz, denak baino sotilago, iaioago ziren eta dira. Salerosle onak direla bide aurreztu diru mordoarekin Pacha Mamako izan ziren lur asko, hala nola Ibarra eskualdean, kolonoei erosten ei dizkiete indigena erkidegoari, *aylluari* itzultzeko.

Gure herrirka etxe multzoak lurraren kolore ziren eta buztin zohiz eraikirik; teilatuak noizean maguey eta lastoz, noizean teilaz eginak. Etxe sakabanatu bakanek eta herrirka bilduek gure *ayllu* edo erkidegoa osatzen zuten. Ayllu burua eta arduraduna *mallku* zen baina gure ararteko eta eskubide zaina *jilagata*. Gure egitura nekez gordetzen genuela, handitu nintzenez, jakin nuen. Antzinako kazike edo *kuraka* delakoen ordezkariak *Cabildo* karka ezdeusak hartzera behartu gintuzten. Gure mendiko lurretan Aylluko Biltzarra zuen agintzen, hori dela-eta hor gazte eta zahar, emakume eta gizakumek denek boza geneukan.

Goiko mendi arriskutsua denena da, bakarrik etxe inguruan aldapa terrazaz moztuta, harri lubetaz eutsiak,



bakoitzak bere solo txikiak ditu eta bat edo bestek ordoki handiagoa. Horiek *tupu* edo etxe lurak dira. Behereko lurretan eta garai batean, halere indarrez gu baino gehiago zirenak, zuriak, *gamonal* jabeak hiru etxeetan bizi ziren. Liberal Bahamontes, Martinez de Larrea eta Jorge Pujol kolono etxeak genituen. Haien arbasoek behereko lur hoberenak, lauenak, ordokienak ostu zizkiguten 1860 urteko legeaz baliatuz, jabetu.

Gure arbasoek auzitegira bidali zituzten gure jabetasun kontratuak, horregatik epaitu zenean ez ziren agiriak aurkitu. Ez omen zizkieten gure gizonek idazkiak eman. Hacenderoek beren lurak hautatuta eta armada hor zegoela, gutarrek kontratu idazki berri murriztuak ontzat hartu behar izan zituzten eta horretarako ordaindu. Joko hori lapurretak ordaintzea deritzogu. Gainera, bi urtean irauten zuten lehendakari liberalek ahaleginetan zebiltzan gure lurren mugak finkoak eta zuzenak ez direla aldarrikatzen eta banaketa legeztatu nahiz.

Han, beherean kriollo zenbait, ez du aspaldi, gure nazioko batzuen bizkar oso maltzurki bizitu ziren. *Wasipungu* jasangaitzean sartzen zenak, lur erosteko zuriari dirua jesaten zion, baina txanpon hori ezin itzuliz osoki, bera eta bere ondokoak etxalde hari, ugazaba hari, zorregatik loturik zegoen. Lur txiki edo *wasipungu* lur txiki baten jabetasunaren trukean gizonak *runitu* arrapatan bilakatzen.

Kolono horiek gure etxeak baino hagitx handiago zirenetan bizi ziren. Dena dela geroxeago, Martinez de Larrearen lurak gure aylluak berreskuratu zituen, militarrek haien etxea erre zutenean. Han genituen, anitzez geroago, gure artoak eta gariak.

Amamaren gazte garaian, gure Ayllu Biltzarretan liskar gogorrak izan zituzten gazteen eta zaharren artean, zaharrek zioten nekazaritzan aritzeko eskola beharrik ez zela eta gazteagoek aldiz kriolloei buru emateko eskolatu behar genuela, bestela *indio tonto* eta berriz lapurtuak izanen ginela.

Gure etxea, behereko aldetik, harrizko oinarriak ditu, goiko aldetik berriz adreilu pezuz da eta kanpotik lastoz, *ichhu* belarrez eta lohiz emokatua, perbokatua. Behin, ahoa zabalik, auzoko gizonezkoei eta andrezkoei zohi adreilu haien egiten begiratu nien. Andreek ura eta lurra ekartzen zuten eta gizonek harrizko ontzi zabal batean ostikoka aurizkitzen, zanpatzen; jarraian beste gizonek lurrean zeuden molde batzuetara isurtzen zuten ore zingira hori, zurezko plaka batekin tinkatzen eta leuntzen, eta eguzkian buztinezko peza horik sikatzera, lehortzera jartzen. Adreiluak eguzkitan idortu-eta jarraikian hormak egiten zituzten *killukaka* morteroarekin.

Ez ziren bakarrik etxeak hala, udal etxe zaharra *Llakta Wasi*, eta eskola hala ziren, nahiz bi horien hormak kanpo aldetik gisu eta hondarrezko emokadura, perbokadura batez estaliak ziren. Geroago, ikusi behar nituen zementuz eta hormigoiez eraiki etxeak eta zeinen desegokiak diren, udan beroegi, neguan hotze-gi. Egun batez modari eta kanpoko indarrari jarraikiz gure Punganin ere horrelako etxez hornituko da. Oxala! Lurrikaretan erortzea gerta ez dakien.

Geroztik, udarekin, herritik urrun bizitzearekin horrelako jazoerak ahaztuxe nituen, bestalde, gaur egun erraten dizkizuedanak erdizka gogoratzen ditut eta gainera egiten nituen galderak neba zaharrenak eta amak

errepikatuak, oroitzapenekin nahasten zaizkit. Orobat da. Adinon argi gogoratzen zait, gure etxean artilea lantzen zela, amama goruan haria egiten arratsetan, aita eta aita-amak ehundegian eta kanpoan artile zatiekin nire gisako panpinak egiten eta hariak gurutzatuz nire gisako ehun itsusiak ehuntzen.

Gurasoak jende isilak eta apalak genituen eta errepikatzen ziguten jendartean haiek legez jokatu behar genuela. Etxeko zarata egile bakarrak hiru neba arrebak ginen gatazkan hasten ginenean. Kanpoan ere ez zen horrenbesteko isiltasunik: gu marraz eta llamak borrokan, *kisha! kisha! kisha!* korraletik uxatzen nituen. Lantzean behin, kiska-kaska ardiak buru talkan ari entzuten genituen. Horrela, erdi nasai bizitzen iraunen genuen.

Behin batean, larru beltzekoa ere begietsi nuen. Uste nuen ipuinetan baizik ez zirela. Frantsesa omen zen, amamak esan zigun Ekuador izeneko gure estatuko itsasaldean larru antza beltzeko *moreno* jendeak *Yana Kara* delakoak bazirela, hala nola *Wayakilla* itsas portu aldean.

Jakingarriena zitzaigun amama Mircidek Amazonako oihan zabaletan gure Sangay sumendiaren bestaldean, zuhaitz baizik ez zegoen aurkintzetan egon zenak kontatzen zizkigunak: han omen inoiz ez da elurrik, beti bero dago; han benetan ikasten da, atertzea zer den ahaztuz, euria egun luzetan irauten. Txalupek ibai oparo eta basatietan hulez estalirik dantza dagite. Egurra non nahi daiteke, haatik bero latza eta hezea jasangaitza omen da. Morroien erdiak eltxoek eman *perniciosa* sukarrekin eritu eta gure aylluko bat ere ibi lokatzetan ito omen zen eta aipatu gabe hainbeste gizon zauriekin itzuli zirenak...

Txit jakingarria izan zitzaidan jakitea ba omen zirela jendearen antzeko animalia suminkorrak, bi oinetan ibilki, basoetan bizi: buztan luzeko giza antzekoak, ziminoak. Baziren *wakari* tximu gorriak ere eta haiek ezagutu beharrez zebilen Lady O'Connor Chatterton ingeles anderea, bere Lawrent Boarder arlote batekin.

Bestalde, gauaz irteten ziren tigre antzeko jaguar handiak abere eta basa ehiza jatera. Jaguarrak, gure mendietara zetozen pumak baino ankerrago omen ziren. Gure iguanak baino hogeitaz handiago ziren aligator gizajaleak ibaietan ikusi omen zituen amamak bai eta lekuka jendea iratzarri barik odoletik xurgatzen zizuten saguzar banpiroak bazirela, eta gu ahoa zabalik, adurretan jartzen, haren entzuten. Han ikasi zuen saguzar mota horrek ez duela nahikoa odol edaten jende baten hilarazteko, nondik nahi den, larrua ederki urratzen eta ausikiaz gaixotasunak ematen.

Ez dizuet luzaro aipatuko zelan eta zertara joan zen Amazonako oihan eta *tembladera* lekuetara amama. Nagusiak Amazonan baso saila erosi eta bere azken lau *wasipunguak* baso-mutil bidali zituen, harik eta oihaneko zuhaitz gehienak egotz zitzaizten. Amama guerea sukaldari, erizain andere eta jantzizain zeukaten. Amamak zioskun lurra hain bustia zela, urez blai non eta etxetxoak habe zango batzuen gainean eraiki behar zituzten.

Hasieran, amama beldurtia izan zen entzun zuelako etxetik joan baino lehen anakonda suge berdea eta *migala* armiarma hiltzaileak zeudela. Bestalde, amamari ez jazo arren, oihanean oinetan eta batzuetan buruan zuhaitzetatik erori izain edo xintximari izugarriak aizkolariei larruari lotzen zitzaizkien eta odola zurruputzen,

baita banpiroak baino kaltegarriagoak bilakatzen ziren suge motak baziren txiki izan arren horzkatuz gizona hil lezaketenak. Umeak ikara goxo batekin sutondoan biltzen ginen horrelako itsuskeriarik ez zela gure herrian pentsatuz.

Alabaina, tximino lapur eta nazkagarriez kanpo baziren basa ehiza goxoagoak nola sudur luzeko tapirrak, gizona bezain luzeak, haur baten goratasunekoak; gero, zuhaitzetan kolore guztietako papagaio, papagai-txoak eta tukan moko handikoak. Airean bazebiltzan tximeleta handi ezinago ederrak amamak bazekien isilpean harrapatzen zituzten mestizoez saltzen zituztela, nahiz bertakoek hilen arimak zirela zioten. Sorgin orratz eta haize orratzek, itxuraz dotore hegazkada baldarrez, eguzkiaren errainuetan dantza egiten ohi zuten; eguzkiaren izpi horik, xomorro horiek sortzen zituztela zirudien edo eta hangoek halaxe esaten omen zuten.

Eltxoak aldiz oihanaren jaun eta etxeoandre ziren. ‘*Etxekandreek*’ zuten odola xurgatzen arrautzen erruteko ugaztunen odola beharrezko baitzuten. Hor ere amama entzunaz ikaratzen ginen.

Gure hizkuntzako batek kontatu zion jenio txarrrak gauaz irteten zutelako, ez zutela neskek eta andreek gauaz kanpoan ibili behar. Amonak ihardetsi zion bazekiela gizonak gauaz basoan ibiltzen zirela. Gizonak, orduan, kontatu zion mutil gazteak gizon mailara igotzeko zelango frogak jasan behar dituzten eta geroago oihanean gauaz ibiltzeko gai izan:

“Mutilari *allawaska* drogatik tantaka ematen zaion, eta azkenik gizon izateko adina heltzen zaionean gehitzen, baita azken azkenik droga tragoa eradaten; or-

duantxe, gaua kanpoan eraman dezan. Gaztea, txalupa batean eroaten omen ditin eta oihan beltzean askatzen eta uzten. Lokartzen denean bere ametsean ur jauzia ikusi behar din, bai eta ur jauziaren gainean urrezko zisku handia. Ez bada izutzen gizona dun, sugeak ikusten baditu, aldiz, ez dun nerabetasunetik sendatu.

Gainera, herrira itzultzeko eta bizirik irauteko zaharrengandik ikasiak aplikatu behar ditin. Aizkora edo labana bakarrik daukala zepoakaz, arrantzan ibiliaz, fruta jangarriak bilduz, hots bere janaria erdietsi. Ordurako, mutila lehen urtetatik minari ohitua zegonan biluzik bizi-eta ehunka aldiz eltxoek ziztatua izan zelako; horrez gain, oinaze jasaten ikasteko gizonak belaunetan zakua inurri ausikitzailuez beterik jartzen dizkiotelako. Denak ez ditun oihaneko egotalditik gizon itzultzen, gehienek, ostera egiten dutenek, oihan arriskutsuan bizitzen iraun lezakete, *sacha runa*, *ch'unchu*, hots, oihan gizon ditun”.

Lan sailetan bi mestizo kontramaisu ba omen ziren. Bi gizonak beren banbu eta egurrezko *lodge* delakoan zuten, ohea, eltxo sarea, dutxa ximplea eta guzti zeukaten, eta langileak berriz, barraka luze batean hamakak nola nahika ezarriak. Egoitza guztiak zurezko txanka luzeen gainean eraikiak ziren, ura eta airea azpitik igaro zedin eta narrastariak albait ez igo.

Gizonak leher egiteko lana omen zuten, beroarekin eta argi zegoeneino eta dena dela langile horiek eltxoen artean harria bezala lo egiten ziten. Behar urria eta galgarria zen: zuhaitzak erortzen zirenean adar ukaldi latzak hartzen zituzten, gihar eta larrua zauritzen eta hezurak arrailtzen eta pitzatzen; orduan, alegia ez zirela ezertarako on eta besterik gabe zaurituak beren herrira bidaltzen zituzten antzera ferratzera.

Berriz, *misti*, mestizo anitz hiritarrak izanki ezinduak laster baztertuak ziren, gure menditarrak ez. Oihaneko *shuarrek* basoa guk baino hobeki ezagutzen zutelako gure taldean bost sartu zituzten. Arazoak izan zituzten kontramaisuek ez baitzuten pausatzen zirenean haiengandik ukaldirik onartzen.

Behin, bi gizoni eman zieten gaizki jarri zuhaitz baten egotzi edo botatzeko agindua, aldapa batean zuhaitzaren azpitik arpanarekin eraisteko. Shuarrak esan zuen ezetz berak oihana ongi ezagutzen zuela buztin lurra zela eta azpitik egiten bazuten buru gainean hartuko zutela zuhaitza eta itsuski zaurituak izanen zirela. Bi kapatazak haserretu omen ziren eta lurrera bota zuten shuarra eta makila ukaldika zauritu, oihuka: “Oraintxe itsuski zauritua egonen haiz!”

Iluna etorri zen, lagunek jakinik zauritua bildu zuten. Amama oroitzen zen kapatazen alkandora zurian odola, eta lurrean jauzika utzi zituzten lokatzean aztarnak, halaber ohartu zen shuar zaurituaren eta shuar lagunaren begiez mestizoek berriro zigortuko zituztela esan zutenean.

Amamak baso-mutil kolpatua barrakaraino lagundu zuen eta besoan enplastu eta lotzeko oholtxoak ipini zizkion, aurpegia garbitu, hautsitako haginaren adurra sikatu. Amamak zion shuarrak gure auzo nazio diren gure gizonen antzeko begitartea eguzkiak errea eta zimurtua omen dutela baita ketxuera antzeko hizkuntza, mintzatzen. Ahaztuak eta joanak ziren shuarrak eta lana azkenean nekez eta pekez bukatu zen. Lana ote zen zuhaitz sarraski hura? Eta, azken egunaren ospatzeko *misti* kontramaisuek beren arteko afari on eta edari hobeak irentsi zituzten.

Biharamun goizean, ordea, gizon batek zaflatzaile azotedun horien lodgetik sugea ateratzen ikusi zuen, eta atea irekitzean lauzpabost bazirela konturatu. Barruan... bi kontramaisuak suge edenaz hilik zeuden. Langileek harrapatu sugeak kalitu zituzten.

Garbituxe eta beste ospakizun barik kaxa batean atzerabideko kamioi batean kargatu zituzten. Lagun batzuek shuarren sorginkeria zitekeela uste izan zuten; beren artean ustekizuna gorde zuten berak kide edo egile hartuak izan ez zitezen. Amama herrira itzuli zenean haziendako bi wasipungu zaurituak ez zuten inolako saririk izan eta huasipungo lurra galdu, istripuak beren baldarkeriaz eta ezaxolaz gertatu omen zirelako.

Amazonan, kanpotar langileak sartu-ala gaixotasun ugari garatzen zen eta hangoek zioten lurraren barruko sua atxikitzeke lurpean bizi den *Amaru* sugea haserretzen zela eta makinek haren lurrak zulatuz edo bide handiak egitean inarrosiz errabiatzen zela eta gaitzak igortzen. Gau dantzari batzuek, *dantzago* izenekoek, tigre jauziak ematen zituzten, beren ostikoekin belardiak berdetzen eta arto aleak gogortzen omen dituztelako.

Atzo balitz bezala amamaren kontakizunez gogoratzen naiz, eta beluago eskolan idazten hasi nintzenean bildu. Amamak zion benetako amazonar indigenen gisa ikasi behar genukeela izua menderatzen eta oinazeak jasaten.

Amamari iruzkindu genion harrigarria zitzaigula herri haietan haurrak larru gorritan egotea. Hark, lehenik eta behin, hotzik ez zegoela, bai eta aroari egokitzeko herri haietan larrua baino hoberik ez zegoela. Halatan ere, kontaktzen zigun lekuka ebanjelikoak eta



misiolari katolikoak sartu bezain laster indigenak janztera behartzen zituztela, iparamerikar edo europar arropa higatu barregarriak erabiltzen zituztela: kristauek behartsuentzat bildu kaletar zaharkeriak ez zirelako jende eta adineko jendeentzat egokituak.

Okerrena zen, geroztik jakin nuenez, hirietako kolegiotako barnetegietara haurrak nahitaez bidaltzen zituztela eta dituztela. bistan da, gazteak honela hezi ondoren ezin direla bizi guraso ehiztari eta arrantzaleen moduan, ez eta basora itzultzeko, ez eta areago basoan bizitzeko gai; horrela eskolatzen direnak prestik daude edozein peontza lanetarako edo txabola barriada eta favelletako langabeziarako.

Amazonan, amamak mirestenenik zituenak zuhaitz handiak, landare berde-berde jarraitzen zutenak urte osoan, basa bananondoak, baita ibai oparoak, lantzean behin gaindituz: eremu zabalak estaltzen zituztenak. Hala ere, gaineratzen zuen izadia ez dela gure nahitara ibiltzen, leku batean ur gehiegi, bestean gutxiegi eta kontrola bagenez bakoitzak bere neurrira egiteko izugarrizko gerrak gertatuko lirатеkeela.

Beste behin, kontatu zigun *shuar* indigenek antzina, *tsantsak* egiten zituztela: beren etsaien buruak moztu, hustu, lehortu-eta eskegirik gordetzen zituztela etsaigoaz babesteko. Buru ehiztari hoberenek andre bat baino gehiago edukitzen omen zuten. Orain, *tsantsa* buru moztu faltsuak, buztinez ehiza larruz, ahuntz edo tximino larruz estalirik egiten dituzte eta turistei saltzen. Amamak ez zekien zergatik kriolloek Jivaro zeritzen, *shuarrak* ziren. Geroztik, jakin nuen amamak ikustatu lurralde zati handia 1940.urteko gerratean Peruk kendu zigula.

## II

### HILTZAILEEN URTEAK

Egun batez, mendiari begira nengoela amama deitu omen nuen errateko mendian tximinoak zetozela. Gure amandrea irten zen: tanpa-tanpa, gizon antzeko batzuk, mendiak larrazkenean euripean hartzen duen koloretako jantzi eta soinekoak zituzten. Amonak berehala esan:

— Sar gaitezen barrura! Horik tximinoak baino gaiztoago ditun, gizon armatuak ditun, *Puna milliay runa* Mendiko Gizon Gaiztoak.

Aita kanpoan zegoen nonbait ardiekin eta atea giltzatu gabe utzi genuen sar zedin. Eurek, gaiztoek beharrik gabe indarka atea hautsi ziguten. Basa gizon tarro mukerrek aurpegian gutarrek ez duten ile eta bizar luzeak zeuzkaten. Belar usteldu kolore jantziak zituzten eta oinetako beltz handi batzuk: hortaz gogoratzen naiz. Eskuetan burdinazko armak zeuzkaten, sartu ala guri buruz mehatxuka zuzenduak eta urte hartan hori ere hamaika bider errepikatu omen nuen.

Ulertzen ez nuen hizkuntzan oihuka eta txilioka hasi ziren. Amak eta amamak erran zidaten: “Kanpora! Kanpora!” Utikan hortik! ziotela. Etxean sartzean bir-

jinaren irudi aurrean ezkerreko ukabila altxatuz agurtu zuten. Eta esan omen zuten. “Non dago etxeko nagusia?”

Izaturik etxe atzera tarrapataka joan ginen ezkutatzer, eta haurrok aldapa gora ihesaldi bat abiatu. Ahots zatar batek jaits gintezen agindu zigun eta lehen baino ikarago dardaratuz jaitsi. Noraino iritsiko ziren gizon horien aginduak? Amamak esan zigun ez gintezen areago higi.

Gure kitxuak haize goxoaren gisako soinu gozoa baldin badu Mendiko Gaiztoen hizkuntza erabat zakurren zaunka zitzaidan, *kastillasimi* omen zen. Handitzearekin gaitzizenez *allkusimi*, zakurren hizkuntza zela ikasi behar nuen. Ez nuen orduan mintzaira hori ulertzen. Zintzurra karrakatuz hitz egiten zuten zuri horiek, hori zen *hablar cristiano*.

Une honetan, hitzez ez baitzait erabat gogoratzen, gertaerez bai; nonbait bost urteak nituen. Aita, gure *Tayta* heldu zen oihurik gabe amak *Ñatak!*, kasu! Gizon tzarrek beren burdin iskiluekin aita zemaitu zuten. Aitak lasai, mehatxuari nare itxura emanaz.

Euren buruzagi irudi zuenak aitari gogorki zuzendu zitzaion geroxeago amamak itzuli eta oroitu hitzekin:

- Zer nahi duzue?
- Janariak
- Sendi baketsu eta txiro honi errieta gogorrik ez egin, lehenik.
- Zu higitu zaitetz bestela inarrosiko zaitugu!
- Jendeak bazarete ez duzue sendi baketsu txiro bati errietary egin behar haurrak txiki dira eta andreak errespetagarri.

— Askatasunaren izenean etxean dauzkazuen kinoa ale, baita papa eta baba erreserbetarik eman

— Ezetz! Ez ditugu emanen.

— Ez badizkizue ematen ehundegia kaskaildu dizuegu eta erreko, edozelan indarrez gura duguna hartuko. Ez denborarik galaraz.

Bi gizon etxea ikertzen hasi ziren.

— Estimatu behar duzue askatasunaren alde darabagun borroka zintzo hori. Mendiko Gizonak populuaaren alde gudukatzen garelako, eta horrelakoak garelako.

Hori dela eta, gu jende txaparroak, kaxkarrak izan ki eta jende horik gu baino handiago, luzeago, gotorrago eta indartsuago, lanean higitu gabekoak baitziren eta baitira, morrosko haietako batek aita lurrera jaurtiki zuen. Beste basagizon batek korralean zegoen makila hartuz aita astintzen hasi zen eta beste bi aitari ostikoka (geroztik aita herren, urgun egon zen).

Aitaren kontra jartze hori zigortzeko abisatu zioten lau ardi hil eta hartu behar zizkigutela haien Bidexka Argitsuari, *Sendero Luminosori* emateko. Aitak besterik gabe lau ardiak hil eta gizon amorratu horiek ardi hilak gure bi llaumen bizkarrean lotu zituzten eta denak eroan.

Zerbait erran nahi izan nuen. Amamak *upallai!* isil hadi! Inork ez zuen haien aurrean negarrik, nik baik eta horregatik amak agiraka hartu ninduen. Amonak kontatu zigun badirela *Wakakunaka* negar egileak ezkututzen direnak eta halako bat behin urtebetez negar egiten ari izan zela “*Ŋa shuk wata wakailla kausashka nin* eta ondoren negarrez zimurtu zen”.

Joanak ziren joan gaiztoak gu behartsuago utziz. Amamak aholkua eman zidan ez nezan jende zurien eta besteen aurrean ere negarrik egin, zeren izterbegiari atsegin ematen baitzitzaion eta etsai denari erdeinu apur bat pizten; sorgor, entzungor eta hotz egon behar zela. Uste nuen gutarrok ez genuela negarrik isurten, agudo ikasi behar nuen isilpean amorrus malko ugari egiten dugula.

Gurasoei galdetu nien, nor ziren, nondik zetozen larru txuri eta zuribeltzatu horik? Berak, Mendiko Gaiztoak direla, dirua armetan ipintzen dutelako ez dutela lapurtzen duten janaria baizik bizitzeko; alegia “*aukay*” guda eginaz, mundu hobea ekarriko omen digutela. Mundu hobea? Jada nabaritzen nuen gizartean ongi eta gaizki nahasketa korapiloa ezin bereizia dela. Haatik, amari galdetu nion:

- Zergatik gaizto dira?
- *Wawa!* alaba! Guztien gisa, guk ere denok gaizto kutsua badinagu, zalantzarik gabe gizonezkoek bizikiago.
- Baina guk ez dugu inor zaflutzen, jipoitzen.

Erantzun zidan eta beti gogoratuko zait ez al nuen gure neba gehiena auzoko mutiko batekin haserrez borrokan ikusi?

- Baina, makila gabe, ausakan, ama!
- Egun batez alaba, hi ere gaiztakeriaz edo nahitaez indarraz baliatuko haiz. Kasu!: *ama shuwangui*, ez dezanala ebats! Ez dezanala gizon horiek bezala egin. Hori, guri indioei zuri diruzaleek ez diguten barkatzen.
- Ama, ez zaituztet horrelakorik egiten ikusi. Ama, ez al da inor bakearen egiteko?

- *Manam yachani!* Ez zekinat!. Nola erran. Gobernuren Armada, mendiko gudari horien aurka gudukatzen dun.
- Eta hori dela eta, hiriko gudariak guretzat hobe?
- Ez Ez! Ez ditun horregatik kalekoak hobe, gaiztoago baizik. Hirikoei *ihertzitu* esaten zaie. Wamote aurkientzako herrixka batean, alegia Bidexka Argitsuko gorriak aterbetu zituztela armadakoek hango gizon guztiak atxilotu-eta hil ditizten eta ondoren beste jendeak kanporatuz herriari su eman. Zuzenaren zaintzaile hiritar horik ere ez ditun onbeharren zerbitzuan. Beste herri hura erre zutenean, nola sutan zizekan begira barrez egon ziren eta eskapatu zen batek kontatu zigun herrian sartu zirela soldaduak oihuka: *El mejor indio, es el indio muerto.*
- Baina... hori ez duzu zuzena, ama.
- Zer den zuzengabekeria argi dun, zuzena ez zekinat? Horrelakoak zintzotasunaren eta zuzentasunaren izenean egiten ditizten. Alabatto, ez dun erreza esatea zeinek daukan arrazoa. Mendiko Gaizto horik, ez dutelako irabazten, ditun gaiztotzenago. *Votad matando*, zioten, hala ere Hiriko Gaizto armadak oraindik jende gehiago hiltzen din eta diruagatik ditun gudukatzen...
- Baina nork agintzen diete?
- Alabatto maitea, guretzat bi txuri kasta horik, puma eta otso ditun, guduka edo *aukuay* tartean hartuak gaitun. Esaerak dio, otsoak llama umea jan lezakeela, pumak, ordea, behia ere. 'Indioak' garelako, hispano eta kriollo horiek

mesprezatzan, gutxien eta gorrotatzen gaitzen. Eurentzat animalien mailan gaitun, bazterretsiak *Ni burro es bestia, ni indio es gente.*

Garai hartan hiriko langileak ez ziren hobeki errespetatuak, amama neskame zenean *iberzitu* armada nola jokatu zen behin kontatu zigun: Wayakillan *Azucarerako* langileak greban jarri zirelako manifestatu ziren egun batean armarik gabe zeuden gizonak bildu eta kolore guztietako hirurehun gizon, ziplo eta seko, portuan hil zituzten. Amamari, hasperenekin sarraski itsuskeria horik gogoratzen zitzaizkionean, gizonak ehizak balira akabatzea, kalitzea, askori bizitzeko gogo kaskartzen ziotela zioskun. Amamaren esaldi horiek jendeez neukan irudi ederra lausotu zidaten.

Amonak zionez kriolloentzat jende mailak daude, goiko aldean larru zurikoak, beherago mulatoak, beherago beltzak, beherago mestizoak eta geu, azkenik indioak, jendeen azpiko ehiza mota. Amonak argitu zigun 'indio' hitza hain dela erdeinu esaldietan baidik erabilia, guk nahiago dugula *indigena* hitza usatu. Indigenok, etsaiak baditugu. Kasta guztietan, ordea, lurjabe handi ez direnen artean, omen, adiskide zenbait ere. Gero ikusiko. Gainera, gure mendietan eta menditarrentzat ez zen berehalakoan bakerik izango. Gure amamak berretsi zidan, lehen aldian, gaizki aditu nuena:

— Ez zekinat ez, noiz *Mana aukuary*, 'ezgerla' biziko dugun.

*Sendero Luminosoren* bisitatik landa estualdi larrian bizitu ginen. Lehen urtean, ordea, kinoa gehiena ostu baitziguten iraultzaile haiek, *markan* auzoek

zerbait eman ziguten urteko janaria eduki genezan eta guk ordaintzeko moduan arkume bi. Bi llama handien galtzeak gurasoei bi urtetarako lana nekeagotu zieten, ezen beste lau abereak oraindik gazteegi ziren guri laguntzeko.

Baratxe-baratxe, gure artilezko soinekoak Riobambako merkatuan, eta kriollo ez ziren urruneko arrotz bisitariei adinon saldu genituen. Ama eta amama eta auzokoak beren *punchu* kapaz jantzirik, manta batean jertse, lepoko eta txanoak bildurik, eta beste ekoizkin txikiekin ezkerreko sorbaldan kargatuta Wamoteko merkatura saltzera joaten ziren. Oraino ere, lehen bezala, *borsalinoa* buruan eta zama bizkarrean, ehunka andre merkatura doaz.

Ile hobe zutelako, ardiekin batean llama mota txikia, alpaka, *pakucho* hazten genuen. Abere horik nahiago nituen, llamen alderantziz gaiztoak ez zirelako. Behar ere, *Senderokoek* alpakak utzi zizkiguten. Bizardun haiek ez ziren ohartu, abeltegi batean eta belararren atzean zeudela alpakak, ez llamekin batean.

Handik lau urte, urtaldi onekin eta uzta oparoekin diru apur bat irabazirik beste bi llama handi ordari erosi genituen eta auzoek lau ardi eman. Gainera, *Istadunidusetan* egon osabek jazoera jakin zutenean eman diruekin gure bizitza apurka-apurka hobetuzen. Horrela, ontasunetan gertatu galerak sendatu baziren aitaren zangoa ez zen osatu maingu egon zelako.

Ordudanik, gure mendi maite haserrekorrak ez gintuztela gaizki egileengandik axolbean jartzen jakinik, ez nintzen maiz etxe aurrean eguzkitan egoten. Amamaren ondoan sukaldaritzan laguntzen edota koi-lara batekin saltsakari, saltsak dastatzen, aitamen on-



doan ehundegian, halaber ardietan zegoenean, aitarekin. Inoiz bakarrik, mendiari begira Hiriko Gaiztoak eta Mendiko Gaiztoak noiz etorriko ziren, erpai eta erne nengoen.

- Amama, Hiriko gaiztoak aipatu dituzu, zer da *hatun llakta*, zer da hiria?
- *Wawa! Manam yachani!* Alaba! Ez zekinat! Ez naun, inoiz, horrelako lekuan egon. Zurien etxeetan bai, behere horretan.
- Zuen ama, ordea, bai, hirian egon dun, hura ere ez ongi, Riobamba hirian. Gaur egun, zuen bi osabek, gringo herrian ibilitakoek Riobamba hiri hartan etxe ederrak dauzkaten gure bi etxe metatuak irudi. Lehendanik kriolloak zitunan nagusi hirian eta haien etxetarik erosi ditizten.

Etxeak metatzen zirela jakiteak harritu ninduen. Amamak zion guk geneukan bizitegi bakarraren gaintetik beste bat eraiki zitekeela eta bien artean esku zuru-bien antzeko eskailerak eraiki. Amamari eskatu genion ahal bezain laster horrelakoak begietsi nahi genituela. Hark erantzun. Merkatuta joango ginenean eta jarreraian Wamoteko *runa simi* ikastetxe berrira jaitsiko bi solairutako etxean sartuko ginela.

Hori entzunik, guk galdezka lur ikara gertatzen zenean zer behar zuten horrelako etxe handi batean goiko bizizaleek? Amamak hiltzeak gertatzen zirela azaldu zigun eta behean zaudenak goikoen antzera zapalduak zirela. Berak berretsi zigun gure herrixkan udal etxeaz eta eskolaz kanpo ez dela etxe handirik, aldiz behean hirian bazeudela handiagoak zirenak. Amak ere zioskun osaben etxean ikusi berri zuela telebistaren kristalean irudi bizi bat, argazki bizi baten antzekoan

hamar etxe baino gehiago metatuak zirudiena burdinaz eta kristalez eraikiak. Aitak ere zion, horrelako etxe itzelak Wayakilla hirian ikusi zituela, hogeit solairutakoak.

— Eta etxe horietan jendea bakean bizi da, beldurrik gabe?

— Ez beti. Auzoen arteko errietak eta iskanbilak baditun.

— Osabek halako hiri handiak, etxe itzelekin eza gutu ditizten. Gringoen hirietan *Chicago* eta *Nubaiorken* lanean egon ditun. Diru ederra irabazi diten *Yonin* bulego etxe itzel haien kanpotik garbitzeko lanean.

— Eta neskarik ez da hara joaten?

— Ez gure herritik lehenbiziko gizonak ditun, han ibiliak. Han osabek diotenez Andetako Salasaka eta Cañariak ditun lan urri eta oso arriskutsu horietan ari diren gehienak. Hire neba zaharrenak, etxekogaia izan arren, horrela egin nahi liken beste osaba bat oraino lan horretan dabilelako. Gainera, behin erakutsi zizkidatenan, ez dakit nondik ekarri aldizkari batean etxe moderno delakoen irudiak.

— Amama Mircid, ez nauzu sekulan horrelako etxe menditsu batean hirian biziko.

— Nork daki?

— Amama ez dut joan gura. Ez dut inoiz zuek lako etxeke on eta amultsurik idoroko.

Ama Karmin entzuten zegoen eta gaineratu zidan:

— *Ushushi!* Agian, hire bizitza hemendik kanpo garatuko dun. Agian ere, hire neba zaharre-

na *Istadunidusetara Yonira* erbesteratuko dun, bihar edo etzi edo noizbait, haatik, bazekinat zahartuko garenean, ezinduko garenean seme-rik ez zaidala beharbada laguntzera itzuliko, hi bai, nire *ushushi*, ene alaba.

— Bai ama bai, ez naiz herri urrunetara joango.

Gogotik igaro zitzaidan, une hartan, aylluko nes-  
kak ez zirela erbestera bizitzera joaten ez eta une hartan  
joan nahi; galdezka hasi eta jakin nuen andre ezkondu  
bakan batzuk Europara edo Ipar Amerikara joan zirela.  
Hiria zela, Mendia zela, denetan gizon gaiztoak tal-  
dean ibilki aurkituko nituela gogotik igaro zitzaidan:  
ideia horrek urduri utzi ninduen.

Goiz batez, gure haur zerua benetan goibeltzen  
hasi zen, gure herrixkaren sarreran *ihertzitu* armada-  
koek, alegia gerrillariekin ibili zela, bi presoei jasoarazi  
zutoin urkabe batetik, gure aylluko gazte bat zintzi-  
likatu zutenean edo hobeki erran, guri izua emateko  
tiroz odolustu ondoren eskegita eman zutena. *Waman-*  
*ek, kundurek* eta beleek ukitu baino lehen, gauaz hila  
eraitsi genuen.

Guretzat, bakea *mana aukay*, 'ez gerlan' bizitzea  
baita, noizik behinka, ezer gertatzen ez den abagunean,  
urteak daramazkigu bakeaz eta eguneroko borroketara  
itzultzen. Urteak joan ziren eta azkenekoz, *Bidexka Ar-*  
*gitsuko* gerrillariak Perura joan; zoritxarrez, gobernua-  
ren *ihertzitu* madarikatua oraindik gaizki egiten gure  
lurretan dabil bando baten edo bestearen alde.

Banekusalako lorrin egile gaiztagin guzti horien  
artean andrezkorik ez zela, gizonez iritzi txarra barne-  
ratu zitzaidan; hala ere, etxe guztietan senar-emazteak  
ikusten nituen eta amamari galdetu nion:

- Nik ere egun batez ezkondu behar nuke, ez?
- Agian, bai.
- Baina, gizonek izutzen naute, amama.
- Alabatxo, gizona nola haizea gerta liteke: senarra egun batean bero, bestean epela, noizik behin hotza eta berriz haste. Gizon arrunta hobe dun bakartasuna baino, batik bat indigena garenean: besteen begietan andrea, neska baino pixka bat gorago dun.

Goizetik arratsera gizona eta hi ere bestelakatuko zarete. Ezkontza eguraldia irudi dun, neska. *Chay runa allichana mana, allichana imacha*, ez zekin gizona ona ala txarra izanen den. Erabaki gabe, nahikoa denboraz begiratu eta entzun behar dun. Baina, entzun! haize basatiak, haize bortitzak, ezagutuko ditun eta haiengandik urrun ibili, halaber, horrelako ekaitz gizoni ihes egin, ezen azken horiek bizia ezin eramana, edonori ezin nozituia ekar diezaiokeelako. Nolanahi, hire ilea goizegi zuri ez dakinan, ez dezanala gizonik hire gogoaz osoki jabetzera utz, ez hadila senar baten edo beste inoren eskumakila bilaka.

Amama Mircidek, orduantxe, beti gomutan edukiko dudana atera zidan irudi polita, alegia gizona, senargaia oilaskoa dela: *gazteegi* denean bigunegi, beroegi eta zabarra, hots haragi txarrekoa, *zaharregi* oilasko zahar, hotzegi eta gogorregi, aldiz *bien artekoa* hautatuz ez dela aukera txarra. Sarritan, geroago, andreen artean gizon eztabaidatuko dugunean, amamarena kontatuko diet eta irribarre ederrik eragingo.

Galdera batek kezkatzen ninduen senar emazteen arteko neska-mutilen arteko, maitasuna bai ala ez aipatzen zenean. Horrelako zerbait izan zen autua: abes-

tietan kontatzen zena, ipuina ote zen? Auzoko neska batek esan zidan abereak erausi, arkara, edo susara direnean so egin nezan nola estaltzen ziren, amodioa zela. Hau itsuskeria! Ama Karmini ez nintzen atrebitu galdetzera, nire betiko legez amama Mircidi, bai. Errealitatea ote zen, gauzatzen zena?

- Maitasuna animalia arrek eta emeek gainkatuz, estaliz egiten duten itsuskeria hori al da?
- Hori baino gehiago dun edo behar liken.
- Amama, zer da maitasuna?
- Norbait ikusten denean pozik izatea, harekin egotean atsegin eta baketsu izatea.
- Bai, halaxe da gu bien artean amama. Ezkontzeko diote maitatu behar dela.
- Bai, horrela izan behar liken.
- Eta irauten du?
- Iraunkorra izan behar liken
- Eta nola iraun lezake?

Ondotik amamak kontatu zidan geroago idatzi behar nuen maitasun ipuin ederra, nire bizitzaren ardatz eta lilura emailea izango zaidana:

“Menditarrok badinagu amodioaren zuhaitza: *arupu* zuhaitza arrosa kolorekoa. Arupua zer den bazekin, gure etxe atzean baitago bat, zuhaitz txiki gorrixka. Arupu izena maitasunarekin lotua dun.

“Lehenago, bazunan *Aru* inka printzesa gaztea. *Aru* ederrak *Apu* artzaina ezagutu zinan. Elkar ikusi eta maitemindu zitunan. Gurasoek, ordea, *Aru* aitonen seme batekin, kazike aberats batekin ezkon zedin nahi zuten eta hitzemana zioten. Neskak ez nahi.

“Artzaina joan zunan aitonaren seme ezkongai harekin borrokatzera eta zauritu zinan. Aitonen seme horren morroinek, orde, artzaina larriki kolpatu. Orduan, Izadia bi maitaleen alde jarri zunan Aru eta Apu bere gerizan hartuz, izadiak haize zurrunbiloa igorri. Haizeak, ortzirantz, bi maitaleak mendira eroan. Han Apu hiltzen ari zela, Aruk bihotzean gezi baten zauria nabaritu zinan. “Apu senar maitea hiltzera zoaz, zu zauritu zaituen geziaz hiltzera noazu”. Biak desagertu zitunan, eta itzali ziren leku berean arupu izeneko zuhaitza sortu. Geroztik dioten, zuhaitz horren azpian maitemintzen direnak bizi guztirako eta betirako maitasuna bizituko dutela”.

Sarritan, ipuin eder hori nire buruari berresan behar nion; handitu eta bizi behar nuen, apika, maitasuna zer izan behar lukeen jakiteko. Orduantxe, gogoan hartu nuen baldin maitasuna hobari nahi banu, aldez aurretik hausnarketarik gabe ez nintzela maitasunaren oihanean sartuko. Eskoletan ibiltzen hasi nintzanean, amonari aitortu nion, mutil batzuen edertasunari sentibera nintzela eta ziur nintzela edertasuna maitasunaren ate nagusia zela. Amonak beste ipuina kontatu zidan larru edertasunaren eta maitasunaren mugak irakasteko:

“*Wambra hirus* delakoak, zekinan bezala izaki indartsuak baina itsusiak ditun. Zernahi egiteko gai, beren gorputz ezainak aldatzea izan ezik. Behin, *wambra hirus* neska batek buruan sartu zinan gizon eder eta dotorearekin ezkondu behar zuela.

“Eta gizon ezin ederragoa harkaitz baten gainean topaturik lortu zinan hura gogatzea, eta denborarik galdu gabe bere gorputza eman. Delako gizona *kundur* hegaztia zunan. Bere lumadun itxura berriturik hegalez wambra itsusi hura mendi goienera eroan zinan. Gaixo wambra gaztea! hango sai hegazti usain zatarra! hango hotza!

“Wambra zatarraren etxeko zakurrek, ordea, kondorrari sumatu eta lurrez jarraiki zioten. Bien iheslekua edirenik, gurasoengana itzuli zitunan patadunak eta etxekoei adierazi non zeuden biak. Kondorra bere haragi ustel habian ez zegoen batean, wambra alaba berreskuratu zuten; etxera eraman eta han, alabak usain zatarra, kiratsa zerion lumadun haurra sortu zinan. Hori dun ederraren ate okerra eta edertasun nahiaren ordaina!”

Oroitzen naiz beste aldiz ala geroago kontatu zidaten, behin, amamaren erantzuna galdetu nionean zergatik hiltzen ginen:

- Hiltzea ez dun arazoa, hilak ez din areago minik. Ongi bizitzea, ongi zahartzea, ez gaixotzea eta zuzen bizitzea baizik ez ditun arrangura.
- Ez baitakit gaixotuko eta zahartuko naizenez, nola behar dut bizia mailatu?
- Hil arte ezin dun bizitza epaitu. Beharbada luzaroegi bizi gaitun?
- Baina hil baino lehen zernahi egin nezake?
- Bai haurra, bai, jendea *Puia* landarearen antzekoa dun, ondoko haurrekin adarkatzen dun,

eta azkenik, lorea eman ostean landareen moduan, herio lorea ematen din, hil behar din.

Amamak zion, bizitza joan ahala eta bakea jadetsita hauteman daitekeena: urte ederrak izan zirela eguneroko borrokakoak, ezen gure amonak zion, bi jendeek, senar-emazteek elkarrekin pentsatu egitasmoan irabazten dutenean atsegina bikuntzen dela, eta aldi gaiztoetan galtzen denean, artegatzen denean, sarritan bien artean hobeki jasaten. Geroztik, haize dagianean jasaten dut haizearen hotza, haren epela, haren beroa, laztana balitz bezala, ezagutuko ditudan gizonak haizeak gogoan, haize basatiak, haize oldartzaileen, bortxatzaileengandik ahal bezain urrun egongo naiz.



### III

#### *KICHWA WASI*

Hiritarrek zioten geu *Runasimiz*, gizonen hizkeran hitz egiten genuela. Menditarrok *Kichwa* hitza nahiago genuen eta eskolaren atean irakur zitekeen izena *Kichwa Wasi*. Aitak, hasieran, pozik eskolaratzen ikusi ninduen berak ez baitzuen inolako eskolarik eduki; amak ezagutu ez zuen eskola mota berriagatik harro, ezen herritik urrun joan gabe, lehen mailan, gure mintzairako *escuela indígena* ikastetxean sartu nintzelako.

Amamak kontatu zidan bi urte igaro zituela ibarra-  
ren beste muturrean gaztelaniazko eskola batean, *escuela fiscal*, *iskuyla* delakoan, lurrean jarria, libururik gabe, libreta txiki batekin, noizik behin goizetan kla-  
seak ematen zituen militar izandako *ladino* mozkor  
batekin. Amonak zion, etxeko nekazari lanengatik ez  
zela inoiz zintzoki eta behar bezala eskola hartan ere  
ibili. Giza gaixo amonak uste zuen gaztelania gabe ezin  
zela bizi, berak espainola zitzimutzikatzen zekielako,  
eta kriolloen mundu hori, aitortu gabe, miresten zue-  
lako; ketxuerazko eskola horretaz susmoak zituen, ale-  
gia pentsatuz egiten zela gu amerindiarrok ezjakinta-  
sunean eradukitzeko eta jende zurien mailara igo ez  
gintezan. Amak aldiz, eskola maisu *chapetón* zatarra

jasan zuelako bi urtez, gogo onez gure hizkuntzako eskolara bidali ninduen.

Ikasteko gogo handia neukan, eta beharbada, amaren ipuinekin hartu ganora. Bestalde, amak esan zidan indigenon ezgaitasuna eskolarik ezetik zetorrela eta berdin gure eskola hartan gaztelania ikasiko genuela. Osterantzean, jakin nuen eskola horik, erdizka atzerrian bizi zen gure errege baten ondoko aberats okituak, urgazten zituela. Atahualpa erregearen ondoko omen den jaun horrek, denbora berean, behartsu diren gutarrak diru kaxa baten bidez apurtxo bat laguntzen ei ditu.

Eskolako lehen urteetan gure hizkuntzan baizik ez genuen ikasiko. Sei urteak nituela gure etxe baztertu-tik, ia egunero, aylluko eskolara jaitsi behar izan nuen. Neba zaharrenarekin eskolaraino bost kilometroak egiten genituen: ardien ondotik maldetan ibiliak, ez zitzaigun kostatzen oinez ibiltze hori.

Haatik, bideak lokatzez edo leiaz labain zirenean amamari hileta jotzen nuenean ihardesten zidan, betiko irriñoa ezpainenetan, «ez ditun bakarrik bideak lerrakor, besteekin harremanak ere». Eta eskolara beluska iristen ginenean andereñoak zion, tenorean heltzeko beti goizago abiatu behar dela, abiatzen denak ez baitaki bidean zer idoroko duen.

Andereñoa maitagarria zen; gu baino biziago, gure herrixkako jendeak baino haziago, handiago. Denborarekin, jakin nuen hirian jaio zela eta *Kitun* bere lanbidea ikasi. Izanik ere neska ederra irakaslea ezkongabea zen. Ez zukeen ume beharrik etxean, eskolan hainbeste ginelarik. Lehen bi urtetan izan ezik, mutikoek goizean eta neskek arratsaldean eskola geneukan. Mutilek

arratsaldez teknika irakaspenak eta kirola zeukaten, guk goizean teknika ariketa horik. Igandean izan ezean egunero eskola bagenuen.

Hasieran, gustatu zitzaidan gehiena, hizki marraztea izan zen, lumaren kirrizka paperean, baita paperaren, tintaren eta liburuen usain bereziak. Paretetan gure etxean ez zeuden irudiak baziren eta geuk ez geneuzkan liburuak eskukatu nituen. Eskolara joateko amak janaria eta eskolako beharrezkoak eramateko, ehunean llama ilezko bi zaku, bi *shigra* solido josi zizkigun.

Ikasgelak beirazko leihoak zituen, bakoitzak mahaia eta aulki luzea geneukan erdizka lagun batekin. Lehen egunetan, miretsirik, leihoko argiei, sarritan, begiratzen nien. Andereñoa hortaz ohartu zen eta iradoki zidan berari begira niezaiola ez zelako leihoa irakaslea.

Lagun batzuekin muturtu nintzen, ume gorri neska horik irakasleak bizkar eman eta gero kalakan hasten baitziren. Une laburrean, ordea, irakasleak diziplina zehatza irakatsi zigun eta lasaiago jarraitzen nituen ikastaldiak.

Lagun batzuekin beste ahakarrik izan nuen: denak menditarrak izan arren, batzuk ziruditen edo antza ematen zuten aberatsago zirela, behiak zeuzkatelako artzain seme ginenak erdeinatzen, zapuzten eta gaitzitzenak jartzen zizkiguten. Amari galdetu nion nola zitekeen horrelakorik? Berak ihardetsi, bizitzarekin harrokeria horik galduko zituztela, ezen bizitza beste maisu eta andereño gogorragoa delako.

Lehen eskolan gure jende ingurumena eta gure mendi ingurugiroa ezagutzen ikasten genuen. Begira-

tuz, entzunaz, ukituz, probatuz eta usainduz munduaren ezagutza hobetu behar genuen. Marraskia izan zen gure ezagutzaren kontrola. Andereñoak eskatu zigun gure etxea eta eskola-etxea ipiniz marraskia egin gengan eta bien arteko bidea marrartzuz. Gauzatu nuen lehen zirriborroa kritikatu zidan:

- Bai eta zure etxetik abiatzean non daukazu eskola ezkerretik ala eskuinetik?
- Eskuinetik.
- Eta zergatik ipini duzu eskola ezkerrean?

Bigarren zirriborroa, bereholakoa:

- Zure etxetik eskolara bideak marra bat baizik, bihurtune bat baino ez du egiten? Ez al da mendi bide txigorra, ez al da *chakiñan* bat
- Bai andrea. Ez dakit zenbat.
- Zenbatuko dituzu eta bihar marraskian eman-go.

Biharamunean, nire bideko bost marrak baziren, bai eta kasu egin nuen *ukalipitu* zuhaitzak non ziren biribiltxo batez seinalatzeko, bai eta errekaen marraskia egin. Horretan ez ginen gelditu. Marratzu behar genuen ibar osoa. Harriduraz ez genituen neurriak errespetatu: mendia lar zabalago izanik ere, kriolloen lur zelaiek orrialdearen erdia baino gehiago betetzen zuten. Gure mundua ikasi behar genuen. Ondotik, landareez eta animaliez ikasgaiak genituen, askotan kanpoan ibiliz edo gu eurretaz mintzaraziz.

Munduaren geografiaz ikasi genuen eta horrek bidaiatzeko ametsa piztu zidan. Amamari aipatu nionean erantzun zidan inork ez dakiala, handitu arte eta zahartu arte, non bizituko den, zer herritan. Guztiz

ere, hainbeste ezinikusi zekarzkiguten Estatu Batu handiak, *Yoni* non zeuden ohartu ginen, bai eta gure kolonizatzaileak etorri ziren Espainia txikiagoa ere. Irakasleak azpimarratu zigun mapetan lurrak handitzen direla ikusgarri izateko, globo gehiena itsaso delarik. Bagenekien gure herria baino hotzagoak, beroagoak bazirela, baina sumendiek kalterik egiten ez dutenean, leku anitzetan haize eta itsaso oldartuek itxes eta hondamendi latzak ekartzen dituztela, ikasi.

Gogoratzen nuen haurtzaroan nola ikusten nituen koloreak eta eskolan gure kulturaren berezitasunak erakutsi zizkiguten. Mestizoek eta kriolloek, sarritan, beste ikuspeirik zuten: esate baterako guretzat *puka*, gorria gaitzaren eta gaiztakeriaren gerizpean jartzeko margoa da ez odolarena; *kumir*, berdeak lasaitasuna eta bakea dakar; *killu*, horia eguzkia da eta denei biziaren emaile; morea, *yara puka* goibeltasuna kentzeko eta jendea alaitzeko margoa; zilarra *qullqi* begi ona eta azken margo horretako zerbait soinean edukitzea onuragarri da. Gure ikur ikuskerak ez dira menturaz hobeak, gureak dira, ordea.

Begien heziketa horretan irudiak erabili zituen andereñoak. Behin, argazki bat erakutsi zigun. Zer ikusten genuen? Oharrak ziren gure etxetan ez bezala, zorua zurrez, aulkiak lerroan, leihoak bazirela, errezelik gabe. Eta inork ez zuen, etxe guztietan geneukalako, gela hartan paretan zegoen santu irudi bati jaramonik egin. Irakatsi behar izan zitzaigun ez genuela paretan zegoen Mercedeko birjinaren irudia hauteman. Jaki-na, gelaren erdian zegoen ume beltz nabarmena ikusi genuen halere gure ohar bakarra izan zen buruko gabe zegoela.

Irakaslearekin eztabaida eduki genuen. Kolegio lagun batzuek guri, txikiei zioten poncho eta borsalino kolonizatzaileek behartu zigutela; bai, gain ezarri zigutela beren morroin esklaboen nazio ezberdinen ezagutzeko. Mutil gazteek ez zuten areago gogorik heldutasunean indigena janzteko, neskek orain arte, bai. Andereñoak, lehenik iharduki zien Inkaren garaiko irudietan, zegoeneko soineko biak agertzen zirela.

Afrikako edo Asiako merkatu anitzetan, erraz bereiziko genituela jantzi desberdinetik zer etniako diren beltzak eta larru horiak esklabotasunik izan ez den jendeen artean. Jantziek adierazi nahi lukete: nazio horretakoa naiz eta nire hizkuntzan hitz eginiezadazu. Ezen nazio bat jendeez egina dela, bestei erosotasun hoberenak hartuz, bere berezitasunak gorde behar ditu, ez modan dagoen jende-ardien gisa, modaren menpe gringo vaquero uniformeaz denak berdinki jantzi eta sasi-englisha haginaren artean marruskatuz, hori esan zingun, *yuyachikak*, andereñoak.

Gazte horiek ordea, ez zuten ulertzen kriolloek eta mestizoez ez zutelako gure bestelakotasun horik onztat ematen. Ulertu behar genuen gazte horien kezka, gazteek berek ere askotan, telebistan ikusten dutena gringoen mundu eredu dela, horregatik gringo haien jantziak nahiago zituztela eta dituztela.

Jantzien hori ez zen gaizkiena, ordea, janzkera ez baita bizitzaren azala baizik. Gazte zenbaitek honela jokatzeko zutena kaltegarri, beren indigenatasuna ezkutatzen nahi zutelako; gazteen artean, batik bat mutilek, ez zekiten larruak beti salatzen duela azeria. Nahi ala ez, aitortu behar zaigu Estatu Batuak aberastasunaren eredu bilakatu direla eta munduaren erdiak, tximino-

keriaz, haien antzak hartu nahi lituzketela. Irakasleak zionez, gringo gehienek ez zituzten besteen jantziak ontzat hartzen, besteen erdeinua eta ezaxola zutelako.

Gu, txikiagoak, oinetakoak eta txanoak izan ezik, kaletarren, moduan erdizka janzen genituen, zurien arropak merke zirelakoan; horregatik, gaur egun ere, gutarik anitzentzat, gizon eta emakume helduen seinale ederrenak *punchu* kapa, *pollera* azpikogona eta *bursalinu* ginbaila izaten jarraitzen dute eta egun batez, guk ere, neskek behintzat, jantziko genituen ohorezko soineko horik.

Eskola horretan jadanik gure aurrekoen eta *Tawantinsuyuren* handitasunaz kanpo, irakasten ziguten nola oharkabean gure kultura munduan egunero sortzen genuena zela; sortze horretan baziren egiten genituen lanak, bai eta herriaren barrena ematen ziren urrats, ekimen eta ekintzak. Brontzezko larru jendeak ginenak besteak bezainbeste ginela erakutsi behar genuen eta berehalaxe gure libretetan idatzi genituen K. Palshisakaren hitzak:

Ordua heldu duk  
Amerindiarrok ikas dezagun  
Amerindiarren tankeran.  
Kultura berrerroste batengatik  
Hik ere ikasiko dun, ikasiko duk.

Bai, gure arbasoen benetako ospakizunetarik landa, elizara joaten ginen, batik bat, Corpuseko elizkizuna ospatzeko, ezen gutarra zen abadea eta harentzat ohore handia zen egun hartako ospakizuna. Ondoren, apaiz hori, indigena jantzietan *punchu* eta *bursalinu*, gure eguzki jaia ikustera zetorren. Anitzetan entzuna

zukeen: *Qué desgracia de pueblo, en él que hasta el cura es indio!* Goitzarren honez eta bestelakoez amamak eta amak, kalera bizitzera joan baino lehen, abisatu ninduten, esanaz irainak barne hoztasunez hartu behar zirela eta hoberena zela ez sentibera agertzea.

*Escuela indígena* horretan eztabaidak eduki genituen zer den mestizoa? Batzuentzat gure nazioko koloreak eduki arren, gure moduan ez direnak bizi, besteentzat gure arrazako izan arren hizkuntza galdu dutenak, edozelan denak indio eta mestizo, kriolloez gaitzetsiak ginela, hots zaku berean sakaturik, *cholo*.

Gure artean bazen halako mutil barrabas amorratua, haizeak jota, handik urte batzuk nerbiotarik gaitxotuko zena; hark zion, mesprezuz mestizoek ez dutela gure hizkuntza ikasten, larruz antzeko izanik ere, ikasteko ezgai direlako. Guzti hau ez zuen irakasleak entzun. Amamari aipatu nionean ihardetsi zidan mutil hori ez zela ez ketxua jaguar izateko gai, ez eta erdal zakur ere, zorigabeko gaztea baizik.

Eskola horretan amamak irakatsiak aditu behar nituen. Munduko kezkek eta azkenik gabeko nahaske-tek hiru iturri nagusi dutela. Morokilen hiru iturriak agortzen ez diren bitartean ez dela indigenentzat bakterik. Zer egin behar zen orekara heltzeko, plomuan egoteko, erdi bakera iristeko, aholkatu zigun:

*Ama shura!* Ez lapurtu, ez ebats. Indigenei ez zaigu zilegi. Zerbaiten, norbaiten beharra duzunean eskatu behin eta berriz, edo lanaz irabazi. *Ama qilla!* Ez izan alfer, zeren atsedena beharrezko bada alferkeriak aspertzera, gaizki egitea darama eta batzuetan, osasunez gaizkiago bizi-tzera ere.



*Ama llulaku!* Ez gezurrik erran. Hobe isilik ego-  
tea, ez dakizula aitortzea edo galdera gogorak  
ez entzuteko gisan jokatzea.

Kontatzen dizkizuedan gehienak nire indigena es-  
kolako koadernoetan irakurri ditut. Amak berriki eka-  
rri dizkit, ezen amamak idazten ikasi ez zuelako gure  
idazlanak altxorak balira gordetzen baititu. Horrega-  
tik, lehen eskola horretan ikasiak bizi guztian oroituko  
zaizkit. Orain, hiru aholkuak irakurtzean konturatzen  
naiz nagusiek morroiei ekantzen dizkienak direla.

Ama Karmin, horretarako ez bero izan arren, be-  
randuago jakinen nuen arrazoiengatik, amamak eskatu  
zuen elizako dotrinara joan nendin. Amak zion apaiz  
batekin izan zituen harreman txarrak gogoan zituela,  
ez nuela gizon batek irakatsi dotrinaren arriskua hartu  
behar.

Amamak aldiz, hamar bat elizaz arduratzen zen in-  
digena abade zahar arean atsegin eman behar geniola.  
Amonak gaineratu zuen geure indio nazioen alde na-  
barmendu dela Eliza eta ez zein nahi: Leonidas Proa-  
ño apezpikuak Quitoko katedralarentzat zen diru bat,  
indigenei emanarazi eta *Fundación Pueblo Indio del  
Ecuador* antolatu.

Aitor dezadala ez ninduela dotrinak, ez hotz, ez  
bero jarri. Kanpotar usaina bazuen. Katekesi horre-  
tan Elizaren misterioak ez ziren geure legenda ederren  
mailara iristen: zer arraio zen adardun satan hori! Zer  
arraio hegoak bizkarrean, zeruan kantuz dabiltzan se-  
xugabeko aingeru horik!

Haatik, gure kulturean jadanik ikasi nituen balo-  
reak eta eginbideak, katekesi horrekin, bermatu ni-  
tuen. Herritar gehienek, aldiz, Birjina andreen sufrika-

rioen irudia zelako begirune eta maitasun handi zioten: gurea irailako Mircideko Andre Maria zen. Urteen joatearekin, gogoan geldituko zaizkidan bakarrak Inti Tayta eta Pacha Mamak errealitatea osatzen dutelako nireak ziren, ezen Birjinaren eramankortasuna nire aiurriarekin ez zetorren bat.

Bitxiena izan zitzaidan sinestea eukaristiarekin “Kristoren gorputza jaten” nuela ezen bestalde giza haragi jatea itsuskeria delarik, gero apaiza kristoren odola edaten! Historia urrunegi joaten zela zion aitak eta ez zuen inoiz jaun hartu nahi izan. Aitak irakatsi zidana izan zen ez zuela inoiz otoitzik egin zerbaiten eskatzeko ezen berak ez baitzuen egundaino ukan jainkoari ala birjinari eskaturikorik, bere eskuei eta buruari eskatua baizik.

Noski, egundoko eliza itzela daukagu Wamoten, leiho biribilek ongi argitua, dorreduna, kupuladuna hiru nabekin, 28 harri habekin, gure izerdi eta lanarekin eraikia, baina denbora berean inguruko herri txikietan eta orain Wamote inguruan, gure jendeak ilunpean, hotzean eta bustian bizi behar.

Denborarekin ulertu dut eliza katolikoak geure nazioen aldeko duen politika jarrerak bi aurpegi dituela, bata benetan karitatezkoa, bestea protestante ebanjeliko totalitaristak Andetako jendeez jabetu ez daitezzen. Edonola, ez dute, Amazonan bederen, katolikoek ebanjelikoak indigenen artean sartzea oztopatu ahal izan eta gaur UNIEIDE eta FEINE elkarte irmo eta eraginkorrak dituzte... oso eraginkorrak gringoen diruekin.

## IV

### EGUZKI ETA LURREZ EGINAK GARA

Ama Lurraren eta Eguzki aitaren jaiera joateko mendia soinu betetzen zen: etxe baten aurrean *ty-nia* danbolina, *bunbua* jotzen zituzten, beste batean *pinkullu*, *antara*, flauten saioak. Jantzi egile andreak bazebiltzan, *kabuyaren* izpien egiten, jarraian espartin-nen egiteko. Urte hartan, Ingapirkara *Inti jai/Corpus Christi* ospatzera joan behar genuen. Lehen txangoan, oraindik eskola txikian nengoen, orduan anitz entzun eta zerbait ikasi nuen.

*Ingapirka*, gure herrirka bezain gora, hiru mila metroekin, Kañari nazioan dago. Izenak Inkaren harresia esangura du. Ingapirkaraino lehenbizikoz joan nintzenean, gain zelai batean, hiri koskorra izana harresiz inguratu gotorlekua ikusi nuen. Hango harri landuek ederki iraun dute.

Machu Pichuz kanpo, Ingapirka berriki gure amerrindiar erresistentziaren sinbolo ederrena bilakatu da; harrizko tenplu osoa ikusi nuen Ingapirkan ibili ginean. Harrizko etxeak zoritxarrez triskatuak, mendi lehorretako argi gardenak edertuak non nahi sakabana-tuak, nolazpait izadiak edo jendeak suntsituak omen ziren. Eguzkiaren *Wallika Wasi*, edo *akla* birjinen ten-

plua da mendi kasko haren gainean eta han geroxeago ikasi behar nuen abestia entzun nuen lehen aldikoz, ez osoki ulertu ezen ez bainuen urte bi baizik eskola eta Machu Pichu zer zen ez nekielako.

Han zegoen museoko andre jakintsu batek historia iruzkindu zigun, lehen *Hatun Kañar* zela hiriaren izena eta horko *Wallika Wasi* hori, *usñu* edo eguzkiaren tenplua zela. Gero, aipatu zigun gure kultura berpiztea, gure sineste nagusiak zein genituen eta zein izan daitezkeen, gero museoko gauza zahar eder batzuk erakutsi. Kanpoan jaia hasi zen, gero, abesti eta dantzen artean baita dantza kantatuekin ere.

Helduen alfabetatze sistemak *Makak* izena dauka indigena hezkuntza irakasten duenak eta abestiak, kixua eskolak ereiten duen hazia gorai patzen du, haien ohoretan eta esker onez, gure Wamoteko ikastetxe-koek kantatu zuten, F. Sarango Loja, kañari ikasleak idatzi abestia:

Makak Ikastetxeari  
Ametsa daukadala suzi-argia  
laster nator zuregana  
txori *ollantay*.

Txistu batek  
haize antzean narama:  
Hemen nago,  
Hemen gaude hirekin.  
Machu-Pichu gogoan,  
Ingapirkan gogoetatsu  
eta berriz aldarrika.

Oi! *Eguzki jainkoa*  
Hiregana, osotasunera

itzultzen nauk,  
Hiretzat itzultzen nauk.

Hirekin ere ni neu nagon,  
Hireganatzen naun *Pachamama*.  
Hire sabelaren gozoa irrikitzen  
Eta kinoa belarra lurretik sortzen  
Duena haiz.

Izarrak ugaritu dituzten  
Azkengabeko hazitxoekin nator.  
Hazia ondotik etortzen zait.  
Biharrak deitzen nau.

Hiretzat naiz naizena  
Nire *ñaupa Pachara* itzultzen naun,  
Nire larretara atzera noa  
Ezen GEROA naizen  
Ez beste.

Ulertu nuena zen alde batetik Pacha Mamari eta  
bestetik Inti eguzkiari zuzendua zela, goresmena. Beste  
himno bat, geroztik ikasi behar nuena eman zuten:

*Ikasleak gaituzue*  
*Makakeko ikasleak*  
*Indigena bikainak,*  
*Indigena bikainak!*

Ordua heldu da  
Indigenok ikas ditzagun  
Guri buruzko jakituriak.

Ordua heldu da.  
Horregatik gaude hemen  
Denak etorri baikara.

Ordua heldu da  
Ongi ikas ditzagun  
Gure nazioari buruzkoak.  
Lehengo nazioen gisako  
Kultura berrerosten  
Ikasi behar duk,  
Ikasi behar dun.

*Ikasleak gaituzue  
Makakeko ikasleak  
Indigena bikainak,  
Indigena bikainak.*

Jar gaitezen jar  
Gure kulturaz birjabetzen.

Ez zen hizlaririk ez eta elizan bezala predikurik izan. Gure artean irriak, barreak, eta hizketak bai. Gure abestiak, gure olerkiak ez ziren hartan egon, kan-tu hau ere kolegioan ikasi behar nuen eta han lehen aldiko entzun:

***MAMA PACHA, TAYTA INTI***  
*(Lur ama, eguzki aita)*

Lur, Lur, Lur  
Noren ama haiz?  
Aita, aita  
Eguzki, eguzki  
Denen ama naiz.

Pacha, Pacha, Pacha  
pikunapak mamata kanki?  
Taita, Taita  
Inti, Inti  
tucuipak mamai kani.

Lur, Lur, Lur  
Noren jana haiz?  
Aita, aita  
Eguzki, eguzki

Pacha, Pacha, Pacha  
pimantatac micuita charinchi?  
Taita, Taita  
Inti, Inti

niretzat daukak janari beharra.	ñucamantami mikuita charinqkuichik
Lur, Eguzki Lur, Eguzki	Pacha, Inti Pacha, Inti
Oraintxe izanen dugu bizitza berria.	Kunan Kai puchapika kausaita ticrashishun
Jadanik laurehun urtez jasan ditugu. Espainiatik etorri ziren Amerindiar jakintza Suntsitzera.	Chuscu Patsac yalli Wata yallishkami karkanchik Españamanta sahmushpa runa yuyaita huakllichirka.
Jainkoaren hitzarekin Hedatu zuten gezurra.	Apunchikmanta huillaspa paicunapak llulaiwan.
Indigena guztiok Jarrai dezagun bat egiten.	Tukui mashikunawan Tanta rishpa katishun
Gure indigena jakituria Jarrai dezagun garatzen.	Ñucanchik runa yuyaita ñaupakman ricushishun
Geu Makakeko jendeek Dugu indigena jakituria Garatzen jarraitzen.	Ñucanchic runa yuyaita Makakkunami Ricushikun.

Perutar anai batzuk hor zeuden beren musikarekin eta haien *qechwaz* entzun genituen kantuen artean, arinagoak, goxoagoak, usoaren *Waynu* hau ikasi genuen, geroago:

Kanta'zan *urpi chayiay* kanta  
Maitasun txori polita,  
Kanta'zan, kanta zoritxarra.  
Ez badun abesten *urpi chayay*  
Entzun gabez hilko natzaik.

Lurren gainetik hegaldaka  
Hoanean maitearengana,  
Ez ahaztu maite haudala  
Eta itzuliko hatzaidala  
Bazter orotan nire bila.

Nirekin hator *urpi chayiayi*,  
Bide luzeko laguna,  
Kanta'zan *urpi chayiayi*  
Maitasun txori ederra.

Dena ezin konta. Horrelako egun bete! Begi be-larriak ez zekitelarik nora zuzendu. Peruko *Kuskun* ne-guko Donibanez, jai ezinago ederrak egiten zituzten, benetako Inti Raymiak tamalez turismoak kutsatuak omen ditu.

Jai eder txiki horretan, perutarrekin, bost amerin-diar nazio bildu ginen eta zein hobeki jantziak, zein hobeki soinu egile, dantza emaile: hor zeuden Azuay eta Kañar herrietako Kañariarrak, Inbaburako Utava-luak, Tungurahuako Salasakak eta gu Sangay eta Chim-burazukoak. Gu ere han ginen, Ingapirka kañariarren lurretan izan arren, gure eskualdetik ez baita hain urrun. Garai batean, itsasontzitik etorri hispano-putreak eto-rrri arte, Wayna Kapak erregearen agintepean antzina *Tawantinsuyun* bizitu ginelako denak, berriz indigena guztiak biltzea, hau zerbait eder litzateke!

Etxeetan, herrixkan prestatu jaiak hasi zen *Waynu* bikote dantzak gelditu gabe ematen ziren, eta tartean gizonek alkohol edaten. Lau egunez, gau eta egun jen-deak zetozen neguan sartzea ospatzera. Musika tresnek tai gabe jotzen zuten; kantoï zenbaitetan nazio bereizi batekoak bildurik, su baten inguruan, beren *Yarawiak* bat batean egiten eta abesten zituzten.



## V

### JAIEGUNAK

Gogaituak zaude engoitik, irakurlea, gure deitoratze eta zinkurin harresiarekin. Egunerokotasunak honelako bake aizun aspergarria ematen digu, lantzean behin, gure demonioak eta urduritasunak lehertzeko jai-uneak behar ditugu: Inauteriak ditugu Wamoten.

Bat batean, Pidru gure anai gazteak, hamabost urte geroago, Guayaquilgo portuan bizituaz gogoratzen zait. Arroztasunaz ere atzerritar sentitzeaz autuan sartu gine-nekoa. Nebak zion ez zela, beharbada, European Ekua-dorren baino arrotzago nabarituko: arroztasun hori, dagoeneko, Quiton eta Wayakillan egiaztatu baitzuen.

Behin, portuan, gure mendietako musika entzun omen zuen. Kamioia utzi eta hurreratu. Itsasoratu baino lehen, utavalu musikari baten despedida zen. Lagunentzat, kaian bertan, azken musikaldi bat ematen zuen. Alboan zeukan bertako kaletar batek nebari itaundu zionean nongo atzerritarrak ziren honelako musika arrotza jotzeko, nebak erantzun zion hemengo otavalo indigenak, hemengo lehen biztanletarik zirela eta kanpotarrak beste guztiak.

Pidruk, beste behin, Inauterietan zarrastada bera izan zuen. Bazekien, ordea, jaietan zebiltzan more-

noak, beltzak hemengoak zirela, manifestatu zirenak dantzan, ordea, portukoak baino beltzago, Choca ibarrekoak omen ziren. Beltz horik antzina jesuitek mouroin ekarriak eta haien ondokoak kalean ikusi zituen. Jai edo ospakizun haren aldi bat baino ez zuen ikusi. Konpartsa bat zetorren haren aurrean aurpegia estalirik eta jantzi ederretan *Itsas jainkosaren alaba*, emakumea zetorren, haren atzetik, gizonak. Beltz ugari zen plazan gelditu ziren eta gorputz enborra agerian, praka motzez jantziak, atabalen eta bonboen musika soilekin, batzuk abesten zutelarik kantu monotonia, besteek ikotika dantzan zegiten.

Gorputz osoa izerditan ipini arte biraka hasi zen gizon bat eta lurrera erori. Jendea hurreratu zitzaion eta zutitzen lagundu gabe galdezka egiten hasi, beren horrelako gaitzaz, horrelako bihozminaz, edo hilen berri jakiteko. Beltzak lurrean bitsa zerion eta ikara izan arren ahots ozenez erantzuten.

Han begira zegoen mulato bati nebak galdetu zion, zer gertatu zen? Hark, beltzen erlijioa, *camdomblé* afrikarra zela, eta gizona azti iragarlea. Nebari gogoratu zitzaion gure inauterietan ere honelako zerbait gertatzen zela eta ezteietan ere, ikusi. Taldea urrundu zen. Biharamunean portuko Malecón kaildean, berriz gizon beltzak itsas beherarekin lore koroak itsasora botatzen ikusi zituen eta hondartzara bainatzera joan omen ziren, beren Itsas Jainkosa *Yamaya* andrearen ohore baita denbora berean beren askatasun eguna ospatzeko.

Wamoten ohiko gisara hasi da Inauteria, aurtan: etxetik irteten denari baldea urez beterik burura botatzen zaiolarik, gero gure artean edozer txasko egiten

dugu elkarri. Ez da ezer kanpoan utzi behar teiltuan edo zuhaitz bati zintzilikatua ez bada aurkitu nahi. Hiru egunez mutilek neskekin nabasikeriak eduki ditzakete, laztantzen, musukatzen eta nahi duenak gehiago.

Inauteriak berriz, lehengo gisara, Riobambara jaitsi ere egiten dira, aurretik kontatu nizuen ohituraz; herrian bertan erdi drogatu dantzari mozorrotuak andre ahots batekin, gertaera iragartzen hasten direnean umeak izutzen dira eta izutzen ginen; gazte batek edo bestek barre karkailaz hasten zen. Trufa, ordea, takaz isiltzen zitzaien: gogoratzen zait iragarritako gertaera anitz gauzatu zirela.

Aurten, iazko eran, politikaren kritika egiten dute kantari gazteek eta dantzari mozorrotuek, haatik jende handiki horiek guztiek merezi al dute aipatzea? Diote, urtero negua datorren gisa politika gizonek gure mendietako hotzak izuturik edo, Floridara edo Kaliforniarara doazela. Bestalde, infernuri baldin bada, politikan ereindako gezurrak eta gauzatu ohointzak, denbora luzean erantzun beharko lituzketela.

Dantzari batzuek gringo itxura hartu nahi dute horretarako sabel zorro handirik ez delako gure artean eta artilez betetako saka bat sabel soinekoen azpitik ezarri behar; halaber, gringo andre baten itxura hartu nahirik gizentasuna irudiarazi nahi duten mutilek; mutil talde horik andrezkoz jantzirik Warmitucushka delakoak, pelikuletako vampen gisa gizonak zirrikatzen dabilta.

Batak eta besteak, sasi ingeles batean berba egiten dute eta iparramerikar azentua edukitzeko ahoan papa batekin mintzatzen. Estatubatuarrekiko gaia ez da

urtero berdina, behin banana zela, beste behin Bush haien lehendakari latza, gure petrolioia dela-eta edo ebanjelikoak. Erljio gaia sori zaie eta apezarena egiten duenak, protestante artzainarekin liskarrez betiko erotikazko gai eta debeku barregarriak dituzte.

Beste zenbait kriolloen karikatura zegiten, Los Reyes ziren *monoengandik* hartu gaitzespena irribarrez bihurtzen diete gure andetarrek. Bada zer egina zurien harrokeriaz, alferkeriaz, beti gaixorik izateaz iseka, inkeinu eta eskarnio egiteko. Gazteago ginenean, eta amaren garaian gutxiago, gure gizonak horrelako zerbaitengatik horrenbeste esatera ez ziren ausartzen.

Batzuek, gure gazte garaian bezala, animalien mo-zorroak ipintzen dituzte, azeriak, jaguarrak, otsoak, pumak eta zakurrak agertzen dira; mo-zorroak larruz, zurrez, oihalez, latorriz eta paper murtxikatuz egiten zituzten eta egiten dituzte urte batetik bestera mutilak “nortasunez” aldatzen direlarik. Animalia horiek edozein jenderen txuliatzea jomuga dute. Gure Cabildo-koak gaizki erabiltzen badituzte, beren buruez txantxa egiten dakite ehiza horiek. Inauteri horietan andreak noiz jokatuko gara?

Gomutetan nintzen gure haurtzaroan Inauterietan berriz bestelakoa zela gure jaia, konpartsa berak irteten ginela. Hauste asteazkena baino lehen otsaila azken edo martxo hasieran erokeria laburra pizten zela: hiru egunez igande, astelehen eta asteartetan lan guztiak uzten. Orain bezala, lehen goizetik etxetik kanporatzen zen lehenak, besteei suila urez beterik burura botatzen zien, urtean, osasuna eduki zezaten.

Egunaz egiten zen gehiena edari eta tabakoen artean dantza zen *Waynu* bikote dantza kantatuak eta

jirabirakakoak, andreek lau bat gona azpiko inguruka zerabiltelarik. Gauaz oilar borrokak baziren gizonezkoen enganio. Entzierroa barregarria bada ere, orain gogoko ez ditudan eta ikusi nahi ez ditudan zezen korridak ematen dituzte eta jendea eroturik odol jai hartara doa. Gizartearen irudi, zezenak ez du bizirik ateratzeko eskubiderik, militarren aurrean manifestatzaile zibilak duen baino guttiago.

Bigarren egunean gure herrikoa eman ondoren Riobamba, gure hiri nagusira jaisten ginen batzuk mozorrotuak, besteak ez parada egitera bazoatzen. Lorez eta frutaz zamatu hiriko karroak bazebiltzan. Kriollo neska zurbilak aldiz beren muselinazko gona farfaildun zuriekin, eta eskuan ekitakoa, nabarmentzen ziren. Harro harroak aurrean martxa irekitzen zuten. Haizeak gona hegal farfailak jasotzen zizkienean, beste guztiok irri barre karkailak egiten genizkien.

Ondotik, gure andreak zetozen *pollera* soinean eta borsalino ginbailak buruan. Kriollo haiek baino itxura koloretsuagoa geneukan eta urrats astunean, baina traza serioagoan ibiltzen. Gure andre batzuk kobrezko *tupuak* lepoan, besteak maskuiluz *chakirak*. Aberatse-nak urreztatu ukaraiak zituzten eskuturretan eta lau lerrotan urrezko perladun lepokoak.

Hirugarren egunean, azken batean:. Hauek dira pitin bat gogoratzen zaizkidanak. *Carnavalak* ez du irauten. Jende oste batez jarraikia, Karnabalen hilkutxa karrikan dabil gizon baten sorbaldetan eramana. Txarranga batek eta bozgorailuek mendiko musika martxak eta dantzak jotzen dituztelarik, aurretik zulatu hilobi batean bultzaka erdi sartzen da gizon bat eta haren gainean hilkutxa ipintzen, honela urteko karna-

bala ehortzia da eta zuloa estali ondoren hilobi buruan zurezko gurutze zuritu ederra ipintzen zaio xingola eta paperezko edo egiazko lore koroa batekin apaindua.

Gero, *ya se van las alegrías junto con el carnaval* entzunik eta iluntzean *pukllayik* egin eta etxera sartzea. Bonboak isiltzen dira, azken *chiwawa* panpinak zartzatzen. Berriz egunerokotasun borrokara.

Bagenekien ebanjelikoak jartzen ziren lekuetan gure Chimborazo lurraldean ere, jendeei debekatzen zietela “pagano jai” egitea. Uste dut gure jaiak, gaur egun arte, haien eragozpenei erantzun hoberenak direla.

## VI

### ZALDIEKIN ERE ESKOLATZEN DA

Arin joan ziren herriko lehen eskolako urteak eta dotrinakoak. Batzuk Wamoteko eskualde kolegiara joan ginen. Gure sorterritik nahikoa urruti zegoen herria hirurogeita hamar kilometrotan, eta etxera gauero ezin sar.

Ikastetxera joan nintzenean, ez nuen han bertan bizi ziren ikasleen bizi moldea hartu: ez egunero etxera sartuz, ez eta urrunagokoen gisara barnetegian egoitza edukiz. Izeba Juanaren etxean, hirixkaren bazter batean lekutu ninduten. Ez ziren baldintza ederrenak, hala ere herrimin batekin gogoratzen ditut orduko urteak.

Lo egiten nuen gelan bi zaldi nituen auzo lehenak. Berehalaxe, usainari ohitu nintzen, ezen horrez kanpo zaldiak hor zeuden arte su beharrik ez, haiekin logela goxoan nengoen. Ohatzeak, oharkak, oholezko koltxoia eta lastaira gaisetik: nire ohea. Dena franko gogorra zen; geroztik esan didate bizkarrarentzat txit ona omen dela. Amak *wanaku* ileaz ohe estalkia ehun zidan eta lekua freskatzen bazen soinekoak ohe estalkiaren gaisetik jartzen nituen.

Ez uste zaldiak auzo hutsak baizik ez nituela, gelakideak, lagunak nituen. Esker onez ezagutzen nin-

duten eta irrintziz agurtzen. Etxeko akura doanaren, janariaren eta logelaren trukean haien zamaltzaina nintzen. Zaldizain zeregina nuen, jaten ematea, eradaten eroatea, lantzean behin bilo zarbatsuak karrakatzea, hots haien osasunaz arduratzea. Ez nuen barrundatzen egun batez Sangay mendira igotzeko erabiliko zirela 'nire' zaldia. Izebak barrez zion zaldizale bilakatu nintzela eta zaldia geroko gure gogoko gizonaren irudia dela; eta nik nion, gizon franko baino ederragoak zirela eta ez zidatela ikastetxeko mutilek bezainbeste txaskorik, ez eta txantxarik egiten.

Mutuleria txistuka ibiliagatik, herriko karrketan nenbilenean neska gutxik ikasten zutena ikasi nuen, zaldira igotzen eta itzegoten. Bai zangalatraba zamalkatzen nintzen zaltuts eta ezproirik gabe. Bestalde, ez zen nire erokeria edo apeta haien albotik igarotzean zaldiei etengabe berba egiten banien, ezen bainekien behin gure herriko gizon bat bere zaldiaren albotik tutilik esan gabe pasatu zitzaioa. Zaldiari saihetsa ukitu eta zaldi kilimakorak, izutuak, harriduraz hormaren kontra tinkatu eta hil zuen buruzagia. Lagunek *charlana* deitu ninduten.

Gure zaldia ez ziren filmetan ikusten diren neurri handitakoak. Mehe ziren, zaintsu, bizi eta giharrean ez zeukatena fintasunean edukitzen. Jaten zuten lasto eta *ichua* belarrak ez zituztelako gizentzen ezin zuten beste antzik izan. Zaldien bizkarretan lerdin-zerdin igoaz eta itzegoaz mendian genbiltzan, zamak ere garraiatzen ere zizkiguten. Lur goldatzeko ez ziren nahiko tenkorak. Wamoteko ikas urteak amaitu zirenean eta menditik joan nintzenean, izebak jakinarazi zidan zaldia nire arreten garbaitan-edo ez zirela antzina la-koak. Jakite horrek burgoitu ninduen.



Neguan, ordea, Wamote hiru mila metro gora delako, elurrarekin eta izotzarekin, ezin zen eskolarik eman: behartu oporrak genituen. Gainontzekoan, ez nintzen aspertzen: izeba saltegian laguntzen ez nuen, nolabait ere zaldi lanetan edo irakurtzen edo marrazki egiten egunak joaten zitzaizkidan.

Wamoten merkatu eguna, iskanbila eguna genuen. Goizetik kamioiak Wamotera zetozen haruntzhonuntz zebiltzan, traktoreek eta gurdiak trafikoa oztopatzen zuten, zeian txosnak eraikitzen eta ez dakit nongo indigena, agian boliviarrak, iguana ihartuz inguratua, sugea lepo inguruan eta sorgin erremedioak saldu beharrez megafonoz oihuka zihardun.

Herriko gure egun gehienak tren makina txistuz markatuak ziren: egunean bi bider beribil baten deia-darra zegian autoferroaren soinua eta bizpalau aldiz tren arrunten txistu ozen eta kirrinkariek belarriak zulatzen zizkiguten. Tren arruntak salgai eta jendeez ton-torreraino gonburu beteak zetozen, autoferroa berriz gehienbat turistekin, ongi eseri eta bidean erosotasunez bazkaria har zezaketen antolatua.

Lau urtez iraun behar zuten Ikastetxeko ikastaroeak eta amak esanik, izebari etxean lagundu behar nion. Goibel utzi ninduen amak izebari iradoki zionean ez nentzala alferkerian bizitzen utz. Baldintza horiengatik, denbora neurtzen ikasi nuen eta geroztik nire ordutegia zeharo-meharo egiten. Ez nuen nahi ikasleen artean azkena egon, ezen zegoeneko elurrarekin edo aro gaitzarekin edo lurreko lan batean laguntzeko, herriko lehen eskolara ez ginelako behar bezala joan; lehen mailako eskolan heina ez nuen jadesi eta batik bat, *Kipu I*, matematika liburuarekin arazoak izan.

Wamoten berriz, klaserik ez zenean, izebak zuen ostatus eta janari saltegian lan egin behar nuen. Era berean, hortik kanpo etxeko andre lanetan lagundu. Ez nuen lagunekin olgetan eta ametsetarik ibiltzeko hutsarterik. Eskola lanen egiteko epe laburrak nituen bostetarik seietaraino; zenbait aldiz izebak arratsen makinaz josten zuenean eskolako ariketa eta egitekoak amaitzeko haren argi meheaz baliatzen nintzen. Izan nuen arazo txikiena *longak*, indigena lagunak nire zalditegira ezin nituela gonbidatu. Gainera, azken bururaino ez zuten jakin zehatz-mehatz non lo egiten nuen.

Amak zegoeneko, andere lanetara ohitua ninduen, haatik berritasunak ikasi behar. Kanean argindarra kanpotik zetorren eta mozten zenean bertan egiten bazekiten. Etxeko elektratresnak erabiltzen ikasi nuen, baita telefono eta beste katxarro batzuk. Telefonoa, erraztasuna izanik ere ez nuen gehiegi gustuko; hitzak galtzen direlako: hariak ahazkortasun-lekura daramatza. Hitz egiten dudanean jendeari begiratu nahiago dut, bai eta buruz buru hitz egin edo idatzi. Elektrikargia pizten ikasi nuen, izebak argi giltz berdinarekin itzaltzen irakatsi.

Izebaren etxean komertziorako joera garatzen jarri nintzen, gureak ez diren hizkuntzak entzuten eta kanpotar jendeak hurretik ikusten hasi ere. Amak aholku eman zidan ez nezala gutarren jakituria gal. Ikas nezan gure jakitatearen barruan kanpokoak baliatzeko hautatzen; atzerritarren bizierak eta pentsaerak ez har eta jendartean beti zazpi begiekin ibil.

Amaguaña, irakasle andreak erakutsi digu Ikastetxean ez dela nahikoa mundua eleez jorratzea, kanpoan lan egiten ikasi behar dela, elkartu behar dela,

ekimenak eta egitasmoak gauzatu, gotortu, gauzen aldarazteko eta hiriko *barriada* txabolategietara joateko ordez beste biderik bilatu behar dela.

Ikasle kritikari handienak, hiri eta kalezale handienak hartuz, andre horrek *utavalu* salerosle baten katxarro zaharrarekin, Riobambako miseriategiak, *barriada* delakoak bisitatzea eroan zituen eta gero, han ohartuez txostena idatz zezaten eskatu. Halere, une honetan lagunen artean kriolloak eredu hartzeak jarraitzen du; bestetzuk Ekuador gaitzetsiz eta telebistan ikusten duten Ipar Amerikaz ametsetan daude. Mutil gazte frankorentzat atzerrira joatea da beren bizitza hobetzeko irtenbide eta itxaropen bakarra.

Aitortu behar dugu atzerritik gutar batzuk adinon aberasturik, datozela, horregatik, behin, *Kichwa Wasira* horrelako “grindioa” ekarri ziguten hango bizitza konta zezan. Elbarrituen eta hilen argazkiak erakutsi zizkigun. *Rasca cielos*, etxe itzelen garbitzen aberasten ziren batzuk eta beste zenbait ere hiltzen; zauritzen zirenak lan eta laguntza gabe gelditzen. Ez dakit albiste horiek zer edo zer aldatuko dutenik; Ipar Ameriketatik, baita berriki Espainiatik idazten digute lana badutela, nahiz herrimina duten. Herrian etxe ederra eraikitzekeo dirua bildu arte ez direla atzerako.

Gure nazioen harrotasuna, gure benetako historia irakatsiz ikasi genuen: *Ecuador* hitza edozer izan daitekeela eta munduaren ingurua egiten duen gerria dela, gure herriaren benetako izena *Tawantinsuyu* zela. Hirurehun urteez *chapetón* hispano horien aurka, usu gudukatu ginen eta gerrilla ere; kriolloen esaerak zion koldarrak ginela, *el indio afloja*, beren dirudun armadarekin, haur eta andreak hilaz garaitzen gintuztelako.

Gure historia ikasten genuenez, ohartu ginen, zelan mende guztietan espainolen aurka borrokatu ginen: hamaseigarren mendean Tupak Amaru I, eragin handiko buruzagia zelako, nola traidoreki atxilotu eta hil zuten; nola hamazazpigarren mendean langileak eta menditarrak usu matxinatu ziren, hamazortzigarren mendean Tupak Amaru II, arma gutxiekin, garaitzatik hurbil aurkitu zen eta nola Cuzcon, *Kuskun*, espainol torturatzaileek, tormentatu eta hil zuten.

Hogeigarren mende hasieran, Tránsito Amaguaña, burubide handiko andreak, baketsuki, indigenenganako duintasunaren eta errespetuaren aldeko lehen urratsak eman zituen. Indigena higikundeetan lehen emakumea izan bazen, geroztik haren jarraibidetik beste emakume buru batzuk, nola hogeigarren mende azkenean Pacari andre ministroa nabarmenduko ziren; hogeitau urteak nituela izengabeko hamaika andre protesta egile ezagutu behar nuen, baita haiek sortuko zuten emakumeen koordinakuntza ere.

Gaztelaniazko klasetan genituen irakurri gure nazio indigenei buruzko gaurko gorabeherak. Programan jarri ziguten, gaztelania klasean, Jorge Icazak idatzi *Huasipungo* eleberria; liburu horretan, ikasle lagun batzuentzat gertaldi berriak baldin baziren amamarekin eta amarekin ikasiekin gehiena ezagutzen nuen, adibidez, nola nagusiak astean aukeratu bost egunez, “musu trukean”, ugazaba horrentzat esklabo lana eman behar zuten *wasipungu* jendeek.

Eztabaida izan zen, zelan gure arbasoak ez ziren kriolloen aurka bihurritu, zergatik haien erdi esklabo jarri ziren gure arbasoak, eta hor ikasle bakoitzaren izaerak azaleratu ziren: lagun bortitzak, otzanak,

memeloak, sineskorak, herabeak, uzkurak, geldoak sinesgaitzak eta erdibidekoak. Gehienok atal bat edo beste, erabat gurea egiten genuen eta aitortzen genuen haatik ez ginela inoiz horrelako *wasipungu* sistemetan sartuko. Ekuadorren behintzat, duela berrogei urte legeak *wasipungu* uztarpea galarazi omen zuen, halere amamak azkenak ezagutu zituen.

Ikasi genuen *wasipungu* egoerak jarraitzen zuela, nolabait Ekuadorretik kanpo, gutxi gorabehera milioiez goiti direla Hego Amerika triste honetan, esklabo edo erdi esklabo bizi direnak, eta gehienak jakina indigenak: hau da Argentina iparraldeko Guaraniak, Txileko Maputxe asko, Boliviako meatzari zenbait, egoera latzean eradukitzen dituztenak.

Indigenak ez garelako beti gure zilborrari begira gelditzen, denbora berean munduan 30 milioi jende esklabo egoeran bizi zirela ikasi genuen, gehienak Asian eta Afrikan, gehienak ere haurrak eta denak, zintzotasunaren sinbolo den NBE delakoan, kide diren herrietan. Jarraian, badabilta agintari handiak demokraziaz eta askatasunaz hitz egiten eta gehiago dena garapena, ekonomia eroki haztearekin beren beregi gizartea nahasten.

Irakasleak nolabait Nazioarteko Indigenen Biltzarrean bildu zituen dokumentuekin erakutsi zigun gizon zurien neurri gabeko gaiztakeria, nola Patagonian argentinarraren baso-mutil eta petrolio lanek, azken oihan eta azken indigenak akabatu zituzten, nola Amazonako *Yanumamiak* eta Brasileko beste basoko indigena talde zenbait, *ch'unchu* delakoak, urre biltzaileek saraskitzen. Ez du aspaldi hildako indigena batek 60 \$ balio zuena. Nolanahi, susmo txarrik izan ez zedin

eta norbaitek gobernuko gizonei sala, irakasleak zion Ekuadorren indigenen egoera ez zela hain itsusia.

Amamak dagoeneko kontatu zidanak, ez bakarrik Amazonan, beste amerikar herrietan jarraitzen zuen, jendeak hilaz edo gorputzak hausten ez zirenean arimak egiten zirela: honela haurrak gurasoei kentzen zitzaien alegia eskolatzeko, zibilizatzeke eta benetako desindiatzeko. Hori bera obratu zuten, ez du aspaldi, Québeceko frantsesek beren menpeko indigena batzuekin, eta Amazonako estatuak berenekin segitzen. Hori da zibilizatzea, Mendebaldeko euro-amerikar eredia inposatzea, eta denbora berean hizkuntza kolonialak espainola, frantsesa, ingelesa, edo portugesa ikasten behartzea.

Ikasi genuen, eskolatik kanpo, Chiapasetan Markos komandantearekin Quiché naziokoak beren biziera, pentsaera eta hizkera salbatzeko armak hartu zituztela, bai eta Bolivian indigenen matxinadak eta grebak zeudela.

Gure eztabaidetan bi mundu zeuden orokorki, neskena herrian egoteko gertu egoten zena eta mutilena gehienak atzerrira lan egitera joateko joera baizik ez zuena gogoan. Aitortu behar da Ameriketako beste indigenen egoera hitsa jakiteak ez gintuela gehiegi herrian egotera bultzatzen. Madarikatuak ote ginen? Hobe zen, izan ere, atzerriko errealitatea aurretixek jakitea, eskarmentuekin ez etsitzeko.

Liburutegian Icazaren beste bi liburu, lehen lerro-tik azkeneraino eta bizpahiru aldiz irakurri nituen eta erdi ulertu *En las calles* eta *Cholos*. Handik hamar bat urte Quitoko eskola horretako beste idazleak irakurriko nituen.

Bigarren eskolaz oroitzapen ederrak ditut. Wamoten zen Kitxua Ikastetxea. Ostegunez herrian merkantua da eta turistak jendeen jantzien argazki egitera datoz. Behin, gogoratzen naiz horrelako andrea bere senarrarekin ikastetxean agertu zitzaigula, galdezka, zer ikasten genuen: geuk gure hizkuntzan irakasgai guztiak eta bi kanpotar hizkuntza, gaztelania eta ingelesa. Gizonak azaldu zigun Frantziak eta Espainiak menperatuta ere, eurek ere *País Vascon* beren hizkuntzan irakasten dutela. Egun batez, gure atlas txikian ez baita agertzen, liburu hobe batean, *País Vasco* hori zer daitekeen, non dagoen jakin behar genuke? Europan dagoela uste dut, ez bada kanpotar hark asmatu herria?

Herrian, ikastetxean genbiltzanok, elkarrekin biltzen jarri ginen. Neskak alde batetik, mutilak bestetik eztabaida berdinetan genbiltzan. Gazte anitzen gisa gure lurraldetan zer zebilen gaizki ikusten genuen, haatik ez ginen gai irtenbiderik sortzeko.

*Cabildokoak* genituen begiko lakarrak; gizon horien agintekeria ezin genuen areago jasan: denak zaharrak genituen eta kriolloek kazikeen lekuan ipiniak. *Kumunaren* gizonak eta *prisedintia*, jende zurien bel-durrez herrixka gehienetan aldaketa guztien aurka genituen. Guk genion, haiek ez zeukaten eskola geneukala gaztelaniaz eta gure hizkuntzan ere. Ez ginela *Indio tonto*, erresistentzia gabeko horietarik izanen.

Zaharrekin geneukan arazo nagusia igandearen erabilera zen. Ez dakit hitz jokoz edo Domingo, *minga* egun nahi zuten eduki. Ez ginen *minga* lankidetza horren etsai, ostera guretzat igandea kirol eguna zen. Hasieran men eman genuen ahal bezain gaizki lan eginez. Ez zirudin konponbiderik izango zenik. Geroxea-

go, zein izan zitekeen *minga* lana jakinik, aste gorrian egiteko gai ginen igandetan libre izateko. Zaharrek, ordea, burua gogor eta *mingaren* helburua betarazteko igande goiza itxarotea pentsatu zuten; igande goiz batez, txirrundulari ziren neska mutilak goiz-goizetik, argitzearekin ospa egin zuten, orobat bizikletarik ez zutenak gauean mendira eskapatu.

Neska gazte eta andreak taldean biltzen ginen; Wamotekoa ez izanik ere hamabost urterekin taldean onetsi ninduten. Adin horretarik aurrera denak biltzen ginen. Gure arazo batzuk lanaz, elkartasunaz, eskolatzeaz hitz egiteko, eta mutilen alde jarri ginelako amore emanda, zaharrek etsi eta igandea kirol eguna bilakatu zen.

Gobernuak ipini Cabildo horiekin harremanak ez ziren ez naroki ez txit onak; gobernuari itzalik ez egiteko, ekimenen baztertzeko beren “Herriko Etxe ederrean” areto nagusia ukatzen ziguten. Helduak alfabetatzen zebiltzan “Colegio Makak”ekoak ere begi gaiztoz ikusten zituzten eta gogoz gaindi aretoak irekitzen. Orduan, zuen Fernando Sarango Lojak hau idatzi:

*Makak ikastetxeari*

Ametsak su hazi,

Laster nator hiregana.

Ollantay hegazti ziztu batek

Haizea legez bulkatzen nau: hemen nago.

Jadanik hirekin gaude

Machu Pichutik begira,

Ingapirkan hausnartzen,

Nirea denarentzat itzuleran,



Niretzat itzultzen.  
Eta ni, berriz oihuka:  
Oi Eki Jainkoa!

Hirekin naiz, neu  
Eta ondoren Pacha Mama  
Hire sabelaren gozoa irrikatzen  
Eta kinua bezala hazten.

Gaur azkengabeko haziak dauzkat  
Izarrek ugarituko dituztenak  
Ereintzak jarraitzen nau  
Biharra ere deitzen.

Hiretzat naizena naiz  
Nire Ñaupá Pachara etortzen,  
Nire pajonaletara itzultzen,  
Ezen ez naizelako  
GEROA baino.

Halaber, Ekuador osoko emakumeen elkarteak *Minga* delakoak nekez erdietsi zuen udaletxean bilerak egitea. Herriko etxea, arrautza kuskua hutsa guk bete nahi genuen. Beste autu txikiak neskek eta Makakekoek genituenak, azalezko baziren ere, aipatzen genituen, hots gure mutilak ez zirela gure jantziekin ibili nahi, gure musikak eta ohiturak baztertzeko zituztela. Gure *chupa* janari onaren ordean, mestizoen *sopa de fideo* nahi *kinua* janari aberatsaren ordean, kriolloak bezain zuri eta ahula zen arroza eta noski guztia koka-kola batez itoak. Edozelan, Koka-Kola gurea da... erdizka, kokaren aldetik behintzat, gure menditarrek landatzen dutelako, aldiz sulfitoak eta amoniakoa gringoek gehitzen dituztena baitira.

Hirian ibili zen batek kontatu zigun hobe zela koka kola edari droga gabetu hori, gaur egun hirietan larregi edaten ziren garagardoak eta whisky delakoak baino: ezen edari berriak gure herrixketan ere salgai agertu ziren. Tuñu Atupaña horretaz arduratzen zen eta zion hori ez litekeela ezer, gaur egungo gazte zenbaitek *runasimi* gure hizkuntzaren ahalke eta lotsarik ez balute. Honelakoei gure iseka zen esatea berezko larrua kolorez aldatu arte ez zirela pozik biziko.

Arazo batzuetan arrazoi apurtxo bat zuten mutil gazteek: badakigu biztanle ugariegi garela Andetan mendi antzu goietan denak bizitzeko eta utzi dizkiguten lurak, sarritan, hutsalenak direla. Nekazaritzarenganako urruntze edo arbuio horri buru emateko *paramu* kooperatibekin nekazarien irabaziak hobetzea kausitu bada, lurak lehorteen menpeko ditugu eta ez dira emankorrak, ez eta nahiko zabalak, ez-urte txarrak onak baino sarriago. Gure menditar nekazarien ekoizpenen salmentak behera ari dira eta denbora berean elektrizitatea, gasolina eta gasa gora. Eguneroko gorabeherak ikastetxeraino iristen eta sartzen zaizkigu.

Bestalde, bi urte guztiz aldatzen diren gobernu guztiek gure *ayllu* lur kolektiboen aurkako legeak indarrean jarri nahi dituzte, jabe pribatuek daukagun apurra kendu nahi digutelarik eta behin, legeak utzia atzera emanarazi nahi.

Okerrago dena, Amazonan ehizatik bizi direnek beren lurren jabetasun eskubiderik eta agiririk ere ez baitute, lurak galtzen. Jakina, liburu gehienetan gertaldi ezezkorrak ziren agertzen, baina, gure hizkuntzan geuk egiten ditugun lan baikorrak eta emaitza ederrak ere aipatzen zaizkigu. Ez dira, noski, gure liburuak

ederrak nahiz gure ekintzetan laguntzen gaituztenak *Auto educación indígena* egiten.

Praktikak arratsaldeetan gu baino anitzez zaharrago ziren Makak alfabetatze taldeekin egiten genituen: zabortegeiak ikuskatu, gaizki zulatu erretenak, gaizki landu lurrak eta gaizki baliatu urak; eztabaidatzen zelan hobetu eta ahal genuenean zerbait egiten. Gutariko zenbaitek nekazaritza ikasketak nahi zituzten. Zaharrek eta Cabildoak gure harremanak gaitzesten zituzten: zioten iraultzaile hazia omen ginela.

Gogoan horrelako basa indarra frogatzen nuen. Nire buruaren ala inposatu gizartearen aiherrez? Haurtzaroan egunaz ameslari nintzen, orain aldiz gauaz gehienbat. Luzaroan oroituko zaidan ametsa bospasei aldiz ikusi dut: gona gorria latsatzen ari naiz eta ura gorri isurtzen dit, batean ama, bestean amama agertzen zaizkit eta haiek garbitzean ura eta gona berde ateratzen. Ez nuke nahi nire geroaren irudia izatea.

## VII

### BI HANKATAKO LAGUN MINA

Honela zuzendu zitzaidan bigarren urtean izeba “Azkenean, zaldiez kanpo, bi zangotako laguna egin dun”. Bai, bigarren urtearen erditsutan herriaren beste buruan gutar familia bat kokatu zen, eta neskatila bat eskolara etorri. Nahiz etxean diru zerbait zeukaten eskola lagun hori gaizki jantzia zen, bost axola zitzaion. Nola adiskidetu ginen? Berak, nik bezala zaldiak miresten zituelako eta haietaz hitz egiten hasi ginelako.

Eskolako beste lagunei aipa ez zezan eskaturik, izebaren etxera ekarri nuen. Egun hartan, zaldien goxotasunaz eta adimenaz berba egiten genuelarik izeba hurbildu zitzaigun esanaz “Kontuz neskak ez uste sineskorra eta malgua delako zaldi bat argia denik; askotan astoak adimen gehiago du, askeago da, ez zaio ezin duenik eginarazi. Mendi elurtsuan ez bada aurrera joan nahi eta gizonak aurrera oinez jo nahi badu, gizona eta zaldia dira elurrak estali amildegian jausiko eta ez astoa”.

Thani, ene neska lagunak bazukeen zeren negar egin. Behin baino gehiagotan zigortua izan zen, etxean idatzi behar ariketak ez zituelako egin eta eskolako jolastorduetan klasean lanean jarraitu behar zuen. Aitor-

tu zidan, eta andereñoari ez esan, etxeko atean lo egiten zuela, aita mozkorregia zenean bi haurrak kanpora ohiltzen zituelako. Kasu horietan ikusten nuen zurbil zurbila eskolara iristen zela.

Haren bizitzaz inor gutxiri aitortuak aipatu zizkidan. Dirua zuketean etxean, aita kanpoan lanean ari zen-eta. Thanik uste zuen salerosketa ilun batzuetan zebilela. Pozik zegoen aita aste beterako joaten zenean, etxean zegoenean aitak ama jotzen zuelako. Hor zegoenean, mozkorrean salda hotzegi zela eta amari aurpegi-ra botatzen zion, janariak gatzil, geza edo gaziegi leihotik kanpo aurtikitzen.

Hor zegoenean baldin ama mahaian esertzen bazen bi eskuekin mahaia hartu eta altxatzen, uzkailtzen zuen gainekoak lurrera igorritz, emazteak adalatu zuen otorduekin ez zuelako mahaian egotea merezi. Hor zegoenean, emaztea ohean apur bat atsedean hartzen idorrotzen bazuen, zaflakoz jaikiarazten zuen eta amak ihes egin behar ostikoka eta ukabilka ez erabilia izateko.

Non ikasi ote zituen basakeria horiek egiten? Armadan ibili zenean? Lehen aldikoz nituen entzuten. Benetan bera gaixorik eta etzanik zegoenean giza tzarrak ez zuen andrea jipoitzen edo behintzat eskuz jotzen, irainez baino. Thaniri galdetu nion ama zergatik harekin egoten zen? Neska jadanik ni baino helduago zen eta ulertu zuen aita barik, amak lanik eta dirurik gabe seme alabekin eskale ibili beharko zuela.

Thanik berak ukaldiak biltzen baitzituen markak erakutsi zizkidan. Behin, ordea, ez zen ene lagun mina eskolara iritsi eta gure izebaren etxean aurkitu nuen, izebak gorputzeko zauriak eta aurpegiko ubelak sendatzen zizkiolarik. Thanik zion ezin zuela itxura horretan

lagunen aurrean agertu. Izebak zinegotzi baten bila bidali ninduen Thaniren etxean larrialdi bat bazela jakin zezan.

Gizona franko laster etorri zen baitzekien lagunaren aita mozkorra kalean eroria aurkitu zutela. Thani koitaduak orduan xeheki kontatu zigun gertatua. Lau gizonek mozkorra etxera hiltzorian zitekeela—eta ekarri zuten. Ohean etzanda honelako azken arnas hasperen itsusia zirudiena eman zuen eta bat batean isildu. Gorputza hotz zeukan. Thaniren ama izutua, galdua eta isilik, negarrez eta alabak aldamenetik esan zion “Ama oraintxe salbatuak gara, demonio horrek ez gaitu gehiago joko!” Sendagilea etorri zenean esan zien onik aterako zela, konorte bat izan zuela eta egin zion indizioarekin osoki iratzarri zen.

“Sendagilea joanda, aita jaiki zunan. Gela giltzaz itxi. Entzun gintuela pozten, eta porra eskuan amaren jotzen eta gero ni lurrera bota eta ostikoka ukaldika. Leihotik irten nindunan. Ama ez zekinat zertan den?”

Ama anbulatorio handira eraman behar izan zuten eta aita ere bai, ezen Thani ene lagun minaren atzetik abiaturik, ahotik aparra zeriola kalean jausi zen aita eta eskumuturra hautsi. Horrela, lagun mina gure izebaren etxean eduki genuen eskolaldia bukatu arte. Garai hartan, amamak gizonen esanaz oroitu nintzen, eta saiatu nintzen esaten, gizon mozkorrak baizik ezagutu ez zituen nire lagun minari, gizonen guztiak ez zirela gaiztoak eta Thanik ihardetsi, bizi guztirako gizonen guztien ase zela. Geroago jakin behar nuen indigena emakume askok bortxaketak, ezkontza behar-

tuak, gizonen indarkeriak eta poligamiak nozitu behar ditugula.

Gure etxean egon zen garaian hitz aspertu luzeak genituen; batzuetan gauza arinak eta barregarriak aipatzeko eta barrez hasten ginenean luzeak eta alaiak ziren. Gai serioagoak aipatzen genituen hilekoak, haurdunaldiak, bortxaketak eta emakumezkoei kreatzaile anker batek utzi oinazeak eta urduritasunak. Thanik zion, gizonek horrelako sabel oinazerik nozitzen ez dutenez, andrezkoen bekaitzez, elkar hiltzen dutela eta emakumeak jotzen eta bortxatzen beren indar soberakinak xahutzeko.

Thani, goiz helduarekin, harreman goxoenak ikasi nituen; atseginerako hark irakatsi aho eta ezpainen erabilera, baita laztanak gerorako eredu izan zitzaizkidanak. Musika gabe baina kantuz slow eta tango irakatsi zidan.

Dena dela, beste mundu bat erakutsi nahiz Thaniri gure mendiko bizitzaz, sinesteez eta ohiturez hitz egingen nion; denbora berean, hiri handian bizitu zelako, harekin ikasi nituen kaletar ohitura bitxiak; emakumeen aurkako indarkeriak bazirudin hiritar anitzen-tzat arruntak zirela. Thani ni baino zailduagoa zen. Ez zen oroitzen noizbait negar eginik. Edo aspaldian izan behar zuen, bere lehen urtean. Halere, aitak zion hain zuzen neska gaiztoa zela ez baitzuen negarrik egiten. Aita oinazegile sadikoa baldin bazen alabak ez zuen haren biktima izan nahi.

Izebarekin gaia aipatu genuen. Gertatu zirenekin izeba berme eta kabildoaren oniritziarekin Thani bere amamaren etxera bidali zen. Horretarako hiri-zainek idatzi txostenak eta lehen mailako epaile baten

erabakiaz, legezko bilakatu zen joanera hori. Honela galdu nuen ene lehen lagun mina, haren maitatzen hasia nintzelarik. Hirugarren urteko mutil lagun zirikatzailek galdetu zidaten zergatik Nina-Thani bikotea dibortziatu zen. Erantzun nien “Ez, zuetarik batekin bikote berri egiteko”.

Kichwa Wasiko ikasketak bukatu nituen. Banekien goiz edo berandu kriolloekin biziko nintzela, baldin eta hirira joanaz nire irritsa eta harrotasuna ase behar banitu. Ez ninduen eskolak halakatu, amamak kriolloez zuen iritzia bizituz frogatuko nuen. Gure amonak jabe haien etxe handiak, altzari ederrak, ispiluak, irudiak, erosotasun paregabeak ederresten zituen eta nik euren karrerak.

Halatan guztiz ere, ez zuen ulertu berarekin eta beste langileekin zergatik hain latzak, oihesak izaten ziren kolono horik. Nire ustez, zuriak honela beren sasi agintea gorde nahi dute. Koloniarekin irabazi abantailak independentziarekin ez dituzte utzi gura eta gobernuan ia bakarrak izateak hobe ezina ematen dieten botereari, indarrez, armada eta polizia lagun eusten diotelako.

Haatik, amamak euren bizimoldea miresten bazuen ere funtsean berak zionez, hamaika arrazoi eta akia-kula bazuen jendeekin jendetasunez jokatzeko ez zekiten kasta horretako zurien gaitzesteko. Oroitzen nionean amamari zelan gure ziminoen gisa gure kriolloek sudur minbera duten, honelako zerbait iharduki zidan:

- Ez diton bakarrik sudur minbera, belarriak ere luze horregatik haien artean, isilik egotea, murtik gabe, baliatuko zain. Begia ere luzea diton, hire zeregin bereziak eta besteekin harremanak



maiz haien bistatik kanpo edo urruti egin beharko zaizkin. Ez aberats horien fidantza larregirik eduki. Haiek sinetsi eta lokatzez betetako aintziran ito hintekeen.

Amamari galdetu nion zergatik ez litezkeen egoerak alda. Ez zekiala. Ez zela aztia. Zerbait zekiala larru zurikoak ez direla hain *mono*, besterik direla: haiek *waman* eta *kundur* sai talde txikia, aldiz gu, menperatu *bele* saldo izugarria ginateke? Waman jaio direla eta waman hilko, berdin gu, agian, bele jaio eta abar? Ez diot amamari ihardetsi. Ez dut sinetsi. Amamaren irudi horik ez zitzaizkidan batere gustatzen. Indigenok, eskolarekin, gora egiteko gai ginenez jakiteko, nire buruari galdezka eman nintzen?

*Utavalu* indigenak, gure anaiak gora ari zirela jakin nuen, aldiz Amazonako anaiak behera, lekuka nortasuna eta askatasuna galtzeraino. Gutarrak eta batik bat Salasakak Estatu Batuetan, *Istodus Unidus* delakoetan zebiltzan, zurien sos ederrik irabaziagatik hona itzultzean, urte haietan ez ziren, ordea, agintean sartu.

Noiz arte izan behar genuen indigenok erdi herriar? Amonak ez zukeen horretarako erantzunik. Edozelan, orduko gogoetek ondoko urteetan lagundu ninduten, alabaina eskarmentuak eta gorabeherak baino hoberik ez delako ez nituen amamaren eta amaren jarraibidea eta jokabideak hartuko. Ez nintzen belea izanen. Ikastetxean jadanik bizitza ekaizdun itsasoa dela zioskun irakasleak. Ezin dela isolagailuz inguratu bizi, ez genuela betegintzarretan ametsik egin behar ekaitzik gabeko itsasorik ez delako.

Laugarren urtean Ikastetxeko diploma bikain aipuearekin ukan nuen eta etxera ekarri. Askazgoan le-

henbiziko diplomaduna nintzen. Harroa nintzen. Ahaztu zitzaidan besteek ez zutela nire abantailarik eduki. Ez zen erdieste hori denen poza izan. Amama Mircid txundituta egon zen, “zelango notak ditunan gaztelaniaz!”, gaineratu zuen “neu legez gaztelania irakurtzen ez dakitenek agintariak aisa atzipetzen ditizten”.

Ama, berriz, ez zen iritzi berekoa, nire kitxuerazko eta ingelesezko notak goraiatu zituen. Amak iradoki zieten, agian on litzatekeela nonbait ikasketa gehiago egin baneza. Aitak, gutxitan berba egiten zuenak bi emakume goresleen berbeta moztu zuen eta osteratu:

- Beste ikasketak hirian? Zeinek ordainduko dizkio, neska honi?
- Lanaren artetik ikas litekek, gizona!
- Emakumeok! Gaur egungo eskola berriak gazteak erotzen ditizten eta Ikastetxetik jalgitzean ez dute ofiziorik ikasi nahi.

Ama Karminek adierazi zion, eskola edukitzeak hirian bizi zenari abantaila handia ematen ziola; eskolarik gabe morrontza eta peontza latzenak zirelako lan bakarrak. Aitak iharduki zigun:

- Ea zer egin behar dun diploma batekin, bulego batean egun osoa eman, erdia berbetan, bestea paper belzten? Aire hartu gabe? Agintari baten kapritxo lan galtzeko arriskuan edo berdintsu langabezian egoteko? Eskola da gazteria alferkerian eta harropuzkerian haztea.

Ez nion aitari erantzun, alde batetik sumatzen nuelako neska nintzelako horrelako bekaitza eduki zezakeela; nahiago zukeen gure anaia zaharrena, agian, diplomaduna izan zedin; bestetik jakinaren gainean

nengoen Wamoteko lagun gehienak, aita edo zer esanik ere, beren diplomarekin saiatuko zirela elektrikari, mekanikari, iturgin, hargin edo salerosle lanbideak ikasten.

Aitari eman nion ihardespren bakarra izan zen garai honetan ofizio baten ikasteko irakurtzen eta idazten jakin behar dela. Honela ere, egokitze gaitasuna ikasten zela. Ez zela bakarrik eskuekin lan egiten. Lana hobetzeko berrikuntzak irakurriz ikasten zirela. Eta azkenik, kontsolatzeko gogoratu nion salerosle ofizioaz, merkataritzaz eta ostalaritzaz izebarekin, arean bai, ikasi nuela. Aitak nahiago zukeen ere, agian, herrian ezkon nendin ordu txarretan beragandik hurreago bizitzeko.

Arte horretan, bi nebak isilik egon zitzaizkigun. Eta ama Karminek sesioa bukatu zuen burdin zali batekin azpiletik *puku* bana *arekinu* emanaz, aitari *chicha* ona eta *kuka* hosto batzuk eskainiz. Amarentzat ez nintzen Wamoteko urteetan laguntzaile handia izan eta laster, hirira joanaz, ez nuen zuzenean batere lagunduko, gora nahiz eraikitako apetaren horma nekez hausten delako. Orduan, Thani ene lagun minaz ahaztu zitzaidan eta urteetan ez dut haren berririk ez eskatuko, ez jakingo. Nolakoa naizen!

Lanerako bidea hartzera nindoalako, nerabearoa hor nolabait amaitu zitzaidan. Lehenbizikoz, baldin pazientzia apur bat baduzue, nire kaletar bizitza aipatu baino lehen eta nire bizitza luze-laburrekin aspertu gabe, amamaren eta amaren eskarmentuak kontatuko dizkizuet gure gizartearen historiakoak direlako. Norberak bere gorabeherak bizitu behar dituen arren, askotan, bi andre horiek bizitu goibeherek lagundu behar nindutelako. Horretan amaitzen dira orduan idatziz bildu omen nituen oharra.

## VIII

### AMAMAREN BIZITZA ESKOLA

Gure amonak guk baino bizi latzagoa jasan zuen. Gorriak ikusi zituen txiro ziren etxe batean sortu baitzen. Amamaren etxean ez ziren lur onen jabeak; erkidetzako mendi bazkak bai. Txerri hazteko berriz artorik eta kinoarik ezin erein, beraz eskean ibiliz urina, urdaia bildu behar eta trukean arrautzak eman. Izan ere, etxean hamaika haurridetarik beti lauzpabost izan zituzten eta geratzen zen arrautza bat hiru zatitan emanik hiru ahoek erraz irensten zuten. Ez zuten etxe hartan *morocho* sekulan jan, artorik ez eta esnerik ez zutelako. Ezin zituzten umeak etxean luzaro eduki.

- Eta amama herritik joan omen zinen?
- Bai eta ez zunan gure etxe hartan lo egiteko lekurik ere: haurride larregi gintunan. Erdiak beste etxeetan arrotz eta langile bizi behar.
- Noren etxera joan zinen bizitzera?
- Zazpi urterekin gure ibar hondoko ordekan ikusten zen larru txuri horren etxera, Liberal Bahamontes kolonoaren haziendara. Jakin bazekin, ezkerreko mendixkaren gainetik han beherean, ordokian zegoen etxe hartara joan nindunan.

- Eta zertara *apamama*?
  - Haurtzain jarri.
  - Haurtzain?
  - Bai, nini zain. Ez zekin, baina jende handi horik ez ditun zikindu eta nekatu nahi haur aldatzen, garbitzen, janarazten eta zaintzen; farras soraio hutsak ditun. Liberal Bahamontes militar izanaren etxean lanean hasi nindunan. Nagusiek gurasoei agindu zieten lan horren trukean, loa, jana etxe hartan edukiko nituela, eta ni pozik.
  - Eta zure ardurapean haur anitz?
  - Bi ume trakets, tzar eta maltzurak zaindu behar. Txikienak, hasieran, amorrarazten ninduen: mainontzi eta beratz, etengabe negarrez eta lurpeko beldar zuri, guri, gizona irudi, alde guztietarik lodi-lodia eta beti gose zunan. Ninia sehaskatik ateratzeko argalegi nindunan, nekez biberoi emateko aulkiraino neraman; noiz edo noiz, Susana neskame zaharrak laguntzen nindinan. Nina, han lau urte eman nitinan eta lau urteez badirudi nini ergel, lelo horrek ahalegiak egiten zituela bere haur oihaletan, bere xarretan txiza eta kaka egiten hamar bider alda nezan. Eta egundoko oihuak buruzagi batek haurra lardastua aurkitzen bazuen!
- Beste haurra, lau urtetako ume plaga aspergarria: ahal zuenean niri peiatzeko eta zitalkeria egiteko jenio txarra zeukanan, eta noski hark obratu astakeriak, etxeko andreak eman azote ukaldiez, ordaintzen nitinan, nik.
- Etxe horietan umeek beti arrazoi zuten ala?

— Bai, batez ere, zaintzaile «indioa» zenean. Haien mailan ez gaitun ezer.

Etxe hartan ez zioten amamari jateko ematen ogi gogortua eta ura baizik. Amonak txerriei ematen zizkieten *kuchipapa* patatak lapurtzen zizkien; hau ikusi eta neskame zahar batek, isilpean, gosea kentzeko papa egosiak ematen zizkion.

Behin, ugazaba andre zantarrak patata haien jaten aurkituta alegia txerriei lapurtu zizkiela, senarra deitu zuen amamari sekulako zafraldia eman liezaion eta beste irain aldraren artean muturrekoak, belarrondo-koak banatu.

— Oraino, aurpegian ikusten ditunan orbainak eratzunarekin hark eginak ditun.

— Eta zuk zer egin zenuen?

— Isilik egon nindunan. Nagusiek kanpoa eman.

— Han, kanpoan egon zinen?

— Ez, haurra, ez. Ordu zen handik joan nendin, ezin aipa ditzakedanak biziturik. Bestalde, beste lan baten egiteko, hamabi urteekin neskame txiki izateko adina neukanan. Neskame zahar hark, adiskide hark Bahamontesenean harremanak nola halakatzen ziren oharturik, zegoneko beste leku bat aurkitu zidan.

Hamabi urteekin amona, Martinez de Larrea krio-lloaren etxean, neskame txiki, *servicia* jarri zuten: goizeko bostetatik arratseko hamarretaraino andrezko baten lan guztien egiteko. Ura putzutik atera, gosaria gertatu, hamaiketakoak adelatu, ondotik ontzien harria. Auzuneko bokata tokira errandona, zur aska betea sorbal-dan arropa garbitzera joan; eta neguan ur hotzarekin

igurtzi eta igurtzi eta eskuan tinko- tinko garbitu eta lauskitu lixiba. Bazkariak, afariak zerbitzatu, geroago soinekoen, maindireen lisatzea eta amamaren oharra:

- Aitortu behar dinat, etxeakoandre izateko bigarren etxe hartan franko ikasi nuela, horregaitio gelditu gabe, tupusteko aginduen betetzeko iradu minean ibili behar.

Amamak oroitzapenak atalka kontaktzen zizkigun eta denborarekin xehetasunak ematen, nola jaten zuen, nola janzten, nola lo egiten eta abar. Gertaldi biltzen saiatu naiz. Behar bada nire oroimenetik pitxi ederrak ezabatu zaizkit.

- Bigarren etxe horretan hobeki jaten ninan. Nagusiek, jabeek, papa eta baba baizik ez zigutenan eskaintzen. Geuk zelanbait beste janari bideak aurkitu genitinan: maiz nagusi batek edo bestek ez zuen janaria gustuko edo ez gose eta hondakina, ia osoa,– kiskil horientzat indioentzat gehiegi – erdi hortzikatu *sobras de mesa* delakoak, txerriei eman behar genitinan. Noski, janaria zerritegira eramaten genitinan, han berean, ordea, zerri askara bota baino lehen hoberena bereizten eta hartzen, han bertan edo geroxeago jaten gorde genuena.
- Eta dirua bazuten ugazaba horiek?
- Etxe hartako jabeak jende zekenak zitunan. Merkatura arrautza saltzera bidaltzen gintiztenan, osteran diru guztia eman behar. Gazteegi omen nindunan ordaindua izateko, eta horrela lana ondo ikasi arte, hamaka tzar batean lo, soineko zahar eta janari eskas trukean ibili be-

har ninan. Behar ere, ez zitunan konturatzen, mutxikin zikoitz horik, arrautza erosle bakanez eskupekoz erreal batzuk ematen zizkigutela eta batzuetan *sucre* txanpon bat edo beste. Bestalde errekadu eta enkargu eginaz, esku ugariengandik ere irabazten ninan.

“Gutarik bat ez zunan indigena, beltza zunan. Ez zunan gaiztoa hiritar ausarta baino, lotsabarikoa: arrautzak biltzen genituenean bat hartu, zuloa egin eta gordinik irensten zinan, nagusiek zerbitzarietara inoiz ematen ez ziguten arrautza gozatuz. Zoritxarrez, leku berera botatzen zitinan oskolak kaletar hark eta etxeko andereak kuskua idoro.

“Geu, amerindiarrok, laidoen artega ohituraz isilik egon gintunan. Mulato neskak ukatu. Denak zigortuak izan gintunan eta astean behin jaten genuen bakailaoa, *morenari* izan ezik, hilabetez kendu ziguten.

“Morenoak ez ditun besteak baino gaiztoago. Kriolloen moduan, frankok mestizoak eta indioak jende zozotzat, garatu gabekotzat ikusten eta irizten gaitizten; berak kaletarrak izanki beren arrazakoak miren dituzten, baita larru zurikoak ere bai. Badirudi munduan eroso bizitzeko, zenbaitzuk besteak azpitik eduki behar dituztela; gaur egun arte indigenek ez geneukan azpiko jenderik, baldinba, horretarako eguna etorriko zaigun, ustekabea. (Denborarekin gure artean ere esklaboak izan genituela jakin behar nuen)

“Beltz andrezko gazteek, hagin ederdunek, gu baino eske handiagoa zinean eta areago dena beren bidea nagusi zurien ohetan *karishina* egiten bazekiten. Andre zuriak baino iaioago omen zitunan beltzak, ohe jokotan trebeago eta gu baino erakargarriagoak. Aldiz,



gure jendei, bortxatuz umeak egiten zitiztenan eta umeek aita nor izan zuten ahaztu egiten zinean.

“Gure *morena*, azkenekoz, ezkondu zunan, edo hobeki erran ezkondu egin zitenan; izan ere, kriolloa ez dun inoiz bere koloreko ez den batekin ezkonduko, nahiz harekin atsegina hartu, eta badaezpada, mulato umea egitean zuriari kargatzea ezin. Horregatik, ohaidea gordetzeko eta berak haur bati bere izena ez emateko ugazabak ohaidea mulato batekin ezkonarazi zinan. Morenari dotetxoa eginaz eta denbora berean haren zerbitzu bereziak ordaintzen jarraituz gizartea ez zunan iraultzen. Bi larru ilunekoek ezkerreko haur azal argiagoa edukiko zitenan eta kriolloen artean ez jakinarena egingo.

“Beltzarekin elkar zirikatzen genuen. Hark zion onddo txikiak ginela, txaparroak, lapiko ontzien antzean motz eta biribil, hots *malformados*; bera luzea eta mehea zelako hala zion eta iharduki nion larrua ikusi eta gu indigenok ogi ongi erreak ginela eta hura *mal cocida* larregi errea, amaren labean ikaztua.

“Hark, beti lutuzko aurpegiak erakusten genituela, ez genekiela irriz hortz erakusten, baina, oro har, gure artean kriollo nagusiez genuen txuliatze eta narritatze eta iseken artean, irribarre gehienik egiten, ezen kriolloak, ogi erre gabekoak, ogi gozogabekoak, jende gezak zirela, genion.

“Garai hartan txukun, garbi eta lanean erdotz egon behar nindunan eta maiz arropa higatuak garbitzen ibili. Gaur egun, gogoratzen zaidan, nola lan txikiz, eskuartez, eskupekoz bildu diru etekin apurra gordetzen nuen etxera helarazteko. Zuhurki andre amerindiarren ohorezko borsalino kapela erosi gabe egoten nindu-

nan, etxetik ekarri artilezko txano zaharra nerabilelako. Buruzagiek soineko zaharrez eta iruntzitara jantzi arropez barre egiten zidatenan.

“Hasieran, behartu ninditenan ortozik erraz nencilena, euren oinetako zahar estuegi, trinkoegi batzuekin ahate baten urratsean ibiltzera. Gaur ere, nahigabe txiki horiez gorritzen naun, isilik egon beharrez betirako minberatu nindutelako.

“Kriollo zuriek, zeinek ez ziguten *chola* delakoei jaramonik egiten, zeinek ahal zutenean erdeinatzen. Nagusiek behintzat berek eman izenez deitzen gintiztenan, Mircid nindunan, Chimburazuko birjina izenez: haserre ez zirenean halaxe esaten zidatenan.

“Etxeko ume mukizuek eta gazte harroek ordea, agintzen zigutenean *Pincho! Indio!* ziotenan arbuio eta irain deia irentsi behar. Apika, etxeko bat edo beste hobeki portatuko zunan gu ginen *rosca* horiekin, hala ere giroa halaxe zunan eta beste enparauen moduan egiteko, denek gogorki hitz egiten zigutenan”.

— Ez naiz hara joango, amama!

— Ez dun arriskatzen etxea suntsitu dun. Besterik jasan behar izan geninan. Gure despentsa zokoan irabazi janaria jaten genuenean, ugazaba andrea sartzen zenean, ez baginen zutitzen eta nagusiari eskerrak ematen, hark zionan *Indio comido, indio ido*.

— Zer gaiztoak!

— Ala gu ginen astoegiak, gaizki ikasiak? Jakina, ez genekinan gaztelaniaz ongi eta eurek kitxua ez ikasi nahi; aurki ulertzen ez genuenean, hiru egun behar genuela zerbaiten ulertzeko

eta men egiteko ziotenan *El indio acata a los tres días*.

- Eta zuek isilik?
- Bai. Zer irabaziko genuen, menpetik ezin atereaz ginenak? Zer probetxu, erantzunaz: entzungor hobe?
- Behin eta aste betez, etxean egon zitzaigun kanpotar jaun zuriak gurbilki hitz zidan, gure hizkuntzaz, gure sinesteez begirunez galdera luzeak egin zizkidanan eta isilpean eskupez poliki ordaindu. Buruzagiak horretaz ohar-tu zitunan eta galarazi zidatenan gizon hari erantzutea, alegia arraza txarreko zuria zela, alemana, eta European herri gaizto horretako jendeek, Frantzian 1914.urtean hasirik, auzoei gerra egiten zutela eta gure estatua alemanen aurka jarri zela. Ikusita nola tratatzen gintzitenan kriolloek, gaizto/on kategoriak ez zizkidanan argiago agertu”.
- Igandez, behintzat, atsedena bazenuten?
- Bazekin gure mendietan, igandetan ere, ez gaitun elizkoiegiak. Etxeko birjina irudiak baiditinagu hura izan zelako, gure gisa, benetan apaldua. Etxe aberats hartan goizeko mezara joan behar gintunan: horretarako begirale batek laguntzen eta zaintzen.

“Geuk, ‘indiook’, elizaren sarreran egon behar geninan zutik. Aitor dezadan ezer guti ulertzen genitinan kantuen ematea gustatzen zitzaigula: eguzkipean izerditzea baino goxoago zitzaigula uda betean eliza beltzetan egotea; baina, orduan, meza laburregi zunan eta lane-ra bizkor itzuli behar.

“Andre zahar batzuk, omen bekatu larriak gauzatu zituztenak, elizara belauniko narrasartzen zitunan. Berriz, kriollo andreak metatzen Niño Jesusen irudi aurrean zegoen kristala musukatzeke. Edonola, igandetako meza ezinbesteko horrek ez zidan fede gehiegirik eman, bai misterioz betetako katoliko erlijio delako hori aberatsen, ugazaben zerbitzu bat gehiago zelakoan. Argentinatar mutik zirikatzailer batek Jainkoaz abesti batean kantatu zigun *Preguntitas sobre Dios* hura:

*Que Dios vela en los pobres tal vez si y tal vez no,  
Pero es seguro que almuerza en la mesa del patrón.*

Halere, bagenekien Eliza katolikoa gure indigena nazioen adiskide bakanetan zela, eta ez kantu horrek diona. Gure mendietan behintzat apaizak ez ziren ausartzen, beren sineste korapilatsuak zeharo inposatzen, ez eta gureak kentzen, Birjina eta Kristo kontutan hartzen genuenez geroz.

Amamari galdetu nionean kriollo *gamonal* alferrek zelan pasatzen zuten denbora; erantzun zidan, aste guztiz behin, arratsez eta gauaz izaten zituzten *guatequetarako* erreserbatzen zituztela beren indar pausatuak. Guatequeak nola joaten ziren kontatu zidan amonak. Arratseko zortzietan bataren edo bestearen etxean Europatik ekarri janariekin afari handia egiten zuten. Ongi jaten zuten baita naroki edaten Whiski, Vodka, Champagne eta zaharrek zigarro puru erretzen.

Dantzan hasten ziren hamarrak aldean eta orduan dantza biziak Charlestonak ematen. Gure amonaren-

tzat belarrietarako doinu alaiak ziren eta ematen zituzten dantzak gure inauterietan demonioek egiten zituztenen antza handia zuten. Ondoren, aieru eta urrats bitxi mantsoak ziren valsak ematen zituzten eta morroinek leiho aurrean pasatzen ikusten zituztena; krio-llo zaharrek zioten *corrida inmovil* zela, haiek dantza geldoago eta dotoreago hori nahiago zuten.

Gauerdi inguruan, jendea sailkatzen zen: gizon batzuk, mozkor sofa batean etzaten, andre batzuk beste gela batera joaten kafe edatera, erretzera eta edatenegi eta eritzenegi zirenak kanpoan, lorategian goitikara. Andre eta neska, gizon eta mutil zenbaitzuk, ordea, beren buruei argiago eusten zuten. Orduan, tangoak jotzen zituzten eta leihotik eta tarteka terrazan zeudela zerbitzariak ikusten zuten nola estuki loturik, zutik larru jotzea irudikatzen zuten. Gauerditik landa bikote berriak sortzen ziren eta lorategira joaten. Otseinak beren eginbeharrengatik ukuilutik irteten zirenean, bidean topatzen zituzten tangoan zutik egin ihakintzako, etzanik egiten.

Batzuk diote hordien ahotik egia irteten dela. Uste dut andreek ere, gisa batez edo bestez, txit gehiago dakitela; eta ustekabeen belarri luze eta begi luze bilakatu zitzaigun amonak bazekien, isilpean, zein zeinekin ibiltzen zen. Neskame zaharrak ere zion amonari, bazi-rela andre zahar batzuk benetako gurasoen eta leinuen zerrendak atxikitzen zituztenak; adibidez Pujoleneko hiru haurretarik bi beste bi gizonak eginak izan omen zirela. Bahamontesenean bat ei zen horrelakoa. Ezinbestekoa zen horrela jakitea, ezen beren artean, ibar berean ezkontzeko ohitura zutelarik gerta ez zedin haurride-erdi, senide erdi zirenak elkarrekin ezkontzea.

Harriduraz, adierazi nion amonari ez nuela ulertzen nola ez ziren senar adardunak sasi amorante horietaz mendekatzen eta ihardetsi zidan, bakan gertatzen zela ezen senar adardunek beren andreei adarrak egiten zizkietelako eta nolakoak! Horregatik, ezin zirela senarrak bertutearen izenean agertu.

Niretzako, garai hartan, jokabide horiek txit zatazarrak zitzaizkidan, alabaina amonak bere esperientziak zituen eta erantzun zidan hobe zela horrela haur egitea, haur eta jende hiltzea baino, hobe zela bizia ematea, kentzea baino: egun batez nire eskola koaderno zahar batean, idatzi nuen amonaren esanaz gomutatu behar nuen.

Ez zen horretan bukatzen amonaren esperientzia eta kontakizuna: bitartean handitu eta indartu baitzen, neskame txiki garaiko lan luzeak amaitu ziren eta lan trakets gogorren garaia etorri zitzaion:

“Hamalau urterekin *neskame handi* sartu nindunan, gizonekin lur lanera joan: goizetik, behien esnea eraitsi ondoren, zare batekin, aitzur edo laia batekin, edo sega batekin alorrera. Gizonek idiak uztartzen zitiztenan eta geu bi neskak idi deitzen ari ginela, gizona goldeari eutsiz ildoak zuzen zula zitezen atzetik gidatzen. Lurra gurea baino gizenago eta erabil gaitzago zunan, zokil eta zotal gogorrek aitzurraz hausten genitinan. Laia gutxitan generabilen, arto sailetan edo zuhaitz artean lur iraultzeko baizik ez. *Costatik* zetozenak zioten basatien tankeran lanean jarduten genuela, eurek traktoreak eta goldatzeko makinak erabiltzen omen zituztelako.

“Lan urriena belardi eta soroetan harri biltzea, haitz bizi muturrak haustea eta harri zaborrak zare beltzetan buruan eraman eta bideen harriztatzea, zunan. Goiz eta arrats, izerdia aldatu gabe, lanean. Batzuetan etxeko *wasipungu* morroinekin aitzurrarekin eta lurra baztertuz, lur bide berriak egin behar genitinan. Hori ikusia nindunan, nola *minga* elkarlanean jarduten ziren Punganineko gizonak eta gazteak: denek baliatzeko, ez wasipunguen *mita* hori bezalakoa beti lurjabe baten probetxurako. Jakina, geroztik bizkarreko mina badinat eta ikusten dunan legez, gerriko minez, zelan eskuaire baten eran bizkar makurtua nabilen.

“Neskame eta morroin handiek lan garbi batzuk bagenitinan: kotoi bola txurien eta kafe gerezien biltzea; azken lan hori ez zunan hain nekeza, nola nahi ere aspergarria. Kafe gereziak lehortu ondoren, aletu, urkuldu behar. Denak elkarrekin biltzen ginenean, batzuek *iskuyla* laburrean ikasi gaztelaniazko kantuak abesten zitiztenan eta mintzaira txabakano batean istorio irringarriak kontatzen.

“Eguraldia zein nahi izanik ere langile andana lur lanera behar. *Runitu* langileen burua, mestizo kontra-maisua makila edo azotea eskuan zebilenan, arnas edo atsedean hartu nahi zuena joaz. Gisa horretan, batik bat hiritik etorri langile mestizo baldarrak eta beltzak gaitoxten zitunan; eri bai eta noizean ere, baten bat hotzez edo eguzki kolpez hil omen zunan. Bai, hirietan biziz ez zitiztenan izadiak sendoenak, gotorrenak hautatu.

“Txundigarria, harrigarria zunan zer oihu, negar eta erosta bazen, ugazaben artean zakurtxo bat edo

biga bat hiltzen bazen edo gauza eder bat hausten, morroina hiltzen zenean, ordea, “Ken hortik! Ken zinkinkeria hori!” ihardukitzen zitenan. Sentiberatasuna jendeekin erabiltezinik, patadunak behar.

“Nina, ez ninan tresna maneiatzean lar ikasi; moda zaharrean genbiltzanan. Sega erabiltzea baizik ez ninan ikasi, gure mendi aldapatsuetan igitaia usatzenago baikenuen. Aitzurra eta laia ere haurtzaroan, noizean behin, erabili nitinan nire indarren neurrira. Golde brabantea, berriz, auzoko etxean lanean aritzen ikusia nindunan.

“Han nengonan azken urtean, ugazabak abisatu gintinan tramankulu berriak ekarriko zituztela, gu baino hobeak, erdotzagoak eta langileagoak. Erosi bai, halere gure kriolloek garai hartan ez zekizkitenan ibilazten. Bai kriolloek ahoa handi eta atzaparra txikiegi zitenan. Kanpotar “Tekniko” bilatzen hasi zitunan.

“Hor, lur lanetik kanpo, gehienik ikasi nuena etxe-koak ez ziren gizonekin bizitzen izan zen, laneko lagun batzuk ez baininduten bakean uzten nire gorputzarekin atsegin hartu nahiz. Adinon sendoa, azkarra eta kementsua izan nindunan bihurritzeko.

“Banekinan haurdun gertatu eta *ayllutik* joan beharra izanen nuela, baita haurra ez zatekeela aita batez ezagutua izango. Gizonei errenditu banintz, lana galdu eta langabeziarengatik, behar niken Riobambako hiriko karrketan eskean ibili. Eta banekinan neska goseti batzuk, besterik ezinez, gauero gizon askori gorputza salduz diru zerbait biltzen zutela. (Azken puntu hori ez nion, orduan, amamari ondo ulertu, gorputzaren saltze hori eta ez nindunan ausartu galdetzera, baina Thanik kolegioan azaldu).



- Zori hobez, aittitta ezagutu ninan. Gizona topatu eta Punganinera itzuli gintunan. Hire aitona gurea baino etxe hobe zeukanan, sortu haizen etxe hau dun.
- Zer irabazi zenuen amama herrira itzuliz?
- *Wawa!* Haurra! Mahaian zurien ‘janari onak’ galdu eta hemengo sanoak berreskuratu; gero gure etxean gintunan, gure herrian, gure kasta-koen artean, eta hainbeste gaitzesten gaituzten hispano zuri horiengandik urrunxko, errespetu eta bake apur bat.
- Baina, han beherean ez al da hemen baino beroago?
- Bazekin, eguraldi bero zatarrak, bero sapak egiten ditin ibar hondo hartan ere eta edonoiz eta edonola lanera joan behar, hemen berriz gure ayllun zenbait aldiz gaixorik nengoenean ez joatea irabazi ninan.
- Hori bakarrik, amama?
- Geu, indigenok zerbait izatekotan, gure aurrekoak ehortziak diren lurrera itzultzea ohorea dinagu. Pacha Mama dinagu azken egoitza maitagarria. Hil baino lehen gure mendietara erretiratzeak heriotza itxaroteko kemena ematen din. Gure lur hau gorde eta salbatu behar dinagu.
- Horregatik ditugu, entzun dudanez, garai honetan gure antzinako lurak kriolloei erosi nahi?
- Bai haurra, bai *wawa*. Nire gaztaroan ezin horrelakorik, nagusi zuri burutsu eta maltzurak genitinan, gure egun hauetan beste kontu: oraingo kriolloak hirian laketago ditun.

Amonak, Ña Mircidek kriolloen neskeagoan egundainoko mirespena hartu zieten. Guk baino aberatsago direnak argiago omen direlako. Sarritan, areto haietako edertasunak aipatzen zizkigun: gure aulkien dobleak ziren besaulkiak, zur beltzez eginak, eta koltxoi itxurazkoak belusez estaliak; zilarrezko ontziak, lurrontzi koloredunak, lorez edo animaliez apainduak, hots portzelana eta zeramikak; baita hormetan zintzilik jende harroen kolorezko irudi handiak urrezko markoetan distirutzen omen zutenak.

Mirestenenik zituenak baldosa zoruairen gainean hedatzen ziren Persiako tapizeriak, nahiz eta horiek otseinei makilaz jotzearekin lan nekea eman garbitzen eta errautsa kentzen, eta zeinen eder haien urrezko ingurudun ispilu handiak. Amonak uste zuen ez genuela horrelakorik edukitzea merezi indigena hutsak ginenok ez ginatkeelako gai altzari eta ontzi eder egiteko.

Gure amona ez zen konturatzen mendeetan erdi esklabo eta musu trukean guk lan eginaz, alfer horiek aberastasunak bildu zituztela. Bai, gure nazioen antzinako bizia *Wayakañan*, negar bidea izan zen. Batzuek diote, Inkaren garaian ez ginela hobeki bizi; denborarekin ikasi behar nuen, bederen, ederland egiten jakin zutela gure arbasoek, eta ez ginela denbora haietan mendietan zokoratuak bizi. Amamaren ustez, eta lurraldeko lehen nazioa izanik ere, kanpotik etorri arrotz horiengandik isilik jarki behar genuen. Garai hartan ez nuen gogoan amama eta amaren moduan behera jaistea edo hirira bizitzea, antza denez gure mendietan ez zen izatekotan bizitza hain latza.

Entzungor eta otzan menpeko bizitzea onartuko nuenez? Nekez. Ala ikasiko nuen kriolloen gisa ama-

rrutsu, zuri eta maltzur izaten eta ahal guztiz haiek edukitzen zuten gaitasuna lortuz? Geuk, indigenok jasaten eta jasango genituen gaitzespenek nire handinahia areagotzen zuten: ez nintzen behereko mailetan egonen eta urte luzeetan gizartean goranahi hori nire kezka bakarra izango zen. Bestalde, ez nituen utziko erdeinuaren narriadurak nire larrua zimurtzen.

- Eta ama zergatik joan zen hirira?
- Ez zunan zuzenean kalera bizitzera joan. Nire bigarren buruzagi andre ohiak Martinez de Larrreakoak, Ña Mirciden alaba, *‘servicia’* neska-metzat nahi zinan. Nire aurreko etxeko andrea eta etxeko jauna zahartu zitunan, baserrian lauzpabost urte eman ondoan, gazteek hirira bizitzera behartu zitiztenan; denek kriollo baserriko etxea utzi eta Riobambara joan zitunan.
- Ama Karminek berak nik baino hobeki hangoak kontatuko dizkin, alabaina ordukoz gure denboratik, bizimoduak anitz aldatu zitunan, zenbait aldiz okerrean, besteetan onean, horrela delako lur honetako gurpilaren etengabeko ibilera zanbulutsua.

## IX

### AMA GAMONALEKIN HIRIRA

“Ez dakit zer merkatutan amak, hire amamak, etxeko andre harekin nire joanera hitzartu zinan. Edonola, ez nindunan neska izuti antzean joan, basa ehiza baten errezeloekin baino. Etxe handi hura ibarraren beheko aldean zegonan. Martinez de Larrea kolono etxe zabal hura. Atzeko atetik sartu nindunan. Neskame zahar batek etxeko andrea deitu-eta han kanpoan lehen hitzekin, andrea *allaku-chan* “zakur egiten” hasi: *has aprendido a hablar cristiano?* hitzekin hartu nindinan ugazaba andreak. Zer begitartea! Ni, entzungor.

*“Has aprendido a caminar con zapatos?* Ni, etengabeki, isilik, oinei begira. Ez al zuen ikusten asteme horrek, ez nintzela oinutsik eta oinetan oskiak nituela.

*“No sabes responder chola, pero tienes que aprender a acatar en menos de tres días.* Ni, mutu. Gogotik igarotzen zitzaidanan nola kaletarrek, ezin ulertuz, astoari ez obeditzea egozten dioten. Astoak badaki noiz eta nola lan egin behar duen, gizonkerietan erori gabe. Ez nionan andreari

erantzun indigenok ez garela gerturik edozein agindu betetzera, baldin ez baditen, guk uler-  
tzeko gisan hitz egiten eta eskatzen zaizkigune-  
tan dakigulako zein lan alferrak izanen diren.  
Guk isilik egon behar.

“Hona ongi etorria: *“Tendrás que perder éste olor a humo de eucalipto y de boñiga seca de tu choza, y te aconsejo una limpieza semanal total y una limpieza cada día de la cara, de las orejas, del sexo y de los pies”*. Guztiak, jadanik, hire ama-  
marendandik ikasi nituela, ez nionan erantzun:  
utzi behar nionan ugazaba andre hari irakasle  
ona zelako irudipena. Eta haren erretolikak isi-  
lik entzun.

“Horiek guztiak, doinu monotonoan esan  
zizkidanan. Zuen amamaren garaitik zahartua  
zunan, oihu egiteko ezindu andrea. Bestalde,  
etxalde horretarik joanak zitunan gazte arratoi  
ausikilariak. Hasierako erdeinuak eta isekak be-  
rehalakoan isildu zitunan. Batzuetan ere, etxe-  
ko andreak, ugazabandre horrek begi onez ikusten  
zuen egiten nuen lana. Aitor dezadan amama  
Mircidek ikasiak, irakatsi zizkidala eta bereha-  
la mundu horretan bizitzen eta egokitzen ikasi  
nuela.

“Erran zezakenat Martinez de Larreako andre  
zaharrak senarrarengandik eta seme alabengan-  
dik ez zuela inolaz ere pozteko harremanik edu-  
kitzen. Bere grinak aipatzen ez zizkigun arren,  
gogoko zitzaionan andre zahartuari, lehenago  
behin ere egingo ez zuena, sukaldera etortzea eta  
gurekin irri karkaila batzuen egitea. Batzuetan,

*rosca* hitzaren orde, *doña* berbarekin zuzentzen zitzaiguan eta guk *warmi*, etxekoandre esaten.

“Etxajauna ez zunan arbuiorako ere on, goizean edaten hasi berrian, bai errea, eguerdirako animalia ohekoi lokartua zirudin. Bazkal eta, ron puroz ase, arratsaldea lotan ematen zinan. Hor ere “indio txiki” eskumakila izan ez balu ez zunan erraz etxean ibiliko. Eguna txabusinaz jantzirik joaten zitzaion. Haren lixibak ez zinan lanik ematen. Haren gorputza, azala eta barnea, alkoholak desegina zunan, ezindua eta burua ez hobeki.

“Sarritan, gure ugazabak lilura gaiztoz edo eldarnioz bere gelan arratoiak eta sugeak ikusi ohi zitinan. Eta guk ezin ohildu buruan zeuzkan piztiak. Errieta egiten zuenean kanpora bota nahi gintinan denak, eta makila altxatzen zinan, gure onean eta haren kaltetan zangoak ez zitinan mingaina antzo erabiltzen. Arratserako ugazaba hori ez zen ezeren ahoskatzeko gai.

“Ez zen bakarrik ugazabaren gorputza aienatua zena, haren etxaldea ere apurka-apurka aurritzen, lorrintzen zonan. 1929.urteko ekonomia krisiak kanpoan zituzten diruak xahutu eta suntsitu zizkietenan. Hiru neskame baizik ez gintunan. Nagusiak ez zitunan areago oporretara joaten Floridara. Ez zitunan, antzinako moduan, auzoak eta hiritarrak bisitara etortzen. Ez zunan areago bazkari handirik egiten, ez *guatequerik* izaten; beraz lana ez zunan amamaren garaian bezain neketsua. Bestalde, ez geninan lur langileen arreta handirik, gutxitu baitziren.

“Gertaerak, aurki, argitu zitunan. Isilpekoak ere jakiteko baitira, behingoan bagenekinan diru arazoak sortzen hasi zitzaizkiela. Lehenik, jakin geninan senide gazte guztiak, alegia ikasketa egitera, Ipar Ameriketara joan zirela. Han, alaba drogazaletu eta hil zunan. Semeak aberas-kume alfer bizitza eramaten saiatzen zitzairen Floridan, eta Miamiko gal gune joko-etxeetan gurasoek igorri azken diru ederrak xahutzen. Aita ez zen gai haurrei zertan eragoten ziren galdetzeko eta frogak igor ziezaieten eskatzeko. Biek ere kiskilkerietan ibiltzeko lehia ere galdu zitena. Etxea zalditik astora zoan.

“Gure jaiotetxe indigenan araua dun jendeak jendeekin, abereak abereekin eta horretarako gure katu eta zakurrek belarren eta abereen estalpean lo egiten zitena. Egunaz, etxe inguruko animalia horik lagunak izan zitezkeen, zaindaria, abere lanetan laguntzaileak, ehiztariak, eta ez beste. Martineztarren etxean, ordea, egoera txundigarria ikusi behar nina, egunaz katu eta zakurrak etxe barru-barruan eta gauaz ere.

“Ez nuen berehala ulertu katu-zakurrek gauaz etxean non lo egiten zuten; neskame zaharrak argitu nindinan: ugazabak zahartzearekin piztia horiek nagusiekin lo egiten zutela. Kontatu zidanean ihardetsi nionan, beldurragatik logelan edukitzen zituztela, eta neskameak, ez hori bakarrik bi katuk andrearen ohe barrenean lo egiten zutela eta zakurrak nagusiaren ohe gainean.”

Guretzat, menditik gentozen basati omen ginentzat, jende horien jokaera barbarokeria handiagoa

eta benetako abrekeria iruditu zitzaigun. Neskameak entzuna zuen abereekin ohean lo egiten dutenak ugari direla Frantzian eta Ingalaterran. Bagenekien, Ekuadorreko aberats askoren gisa European ibili zirela nagusiak. Handik ekarri zituzketen ohitura horik, baita ardo edateko eta gure aurrean frantsesez hitz egiteko ekanduekin batean?

Han nengoen hirugarren urtean Martineztar seme bat etxera itzuli zitzaigun, ile zerlo luzea begietan eroria, ia hezur huts bilakatua, ezindua, estu larri eta gaixo. Sendagileari entzun nion azaltzen zegoen ginoan ezin zitzaiola *tabes* gaitza sendatu.

Neskame zaharrak bazekien zer zen *tabes* gaitz hori eta argitu zigun gaitz hori sifili tratatu gabekotik zetorrela. Eritasun horrekin hezurak eta larrua lehenik ukituak, azkenik nerbioak eta orduan eria zabu-zabuka badabil eta ezin du zangoen erabilera koordinatu eta azkenik paralisiaz hiltzen. Neskame zaharrak ez zekien zein izan zitekeen gaitz hori kutsatzeko arrazoia prostitutez kanpo eta hilabeteren buruan Miamitik zetorren seme hau ere lurperatu zuten. Bazirudin leinu guztia usteldua zela. Seme bat, ordea, osasunez sano egon zen, eta diru egiten zuen negozio ilun zenbaitetan bazen ere eta uste genuen etxe hau berriz goratuko zuela.

Senar emazteen sesio eta eskatimetan sekretu gehienak entzuten ziren; morroinek bagenekien japoniar, italiar eta alemanen aurka, aliatu delakoek gerrate itzelaren denboran, mila bederatzi ehun eta berrogeitik aurrera, ugazabak ederki aberastu zirela, bai eta gerla amaitu eta ekoizpenak gaizkiago saldu, batez ere kakaoa eta ondotik bananondoak gaixotu. Martineztarrak etxaldeak zituzten kostalderantz; bakarrik eguraldi hobeagatik gure ibarrean lekutu ei ziren.



Haien egoera ulertu ondoren, garbi zitzaidan aire ona ez dela nahikoa osasun edukitzeko. Senitarteko belaunaldi berria usteltzen ari zelako, itsasaldeko lurretan lehen bildutako altxorraren azken ihintza idortzen ari zen. Martinez de Larrearen lur anitz zorpean zeuden, bahituak.

Seme bat Kolonbiara itzuli zitzaien eta hor ere drogaren eskuratzeko eurrez diru beharra zuen. Aita aguretuak ez zuen nahikoa aginterik, jadanik gaztean ez zituelarik zuhaitz okerrak zuzendu, gaurko egoerara ez zeukan ez indarrik, ez larderiarik seme alabak lanean jartzeko eta aisetasun ekanduak galarazteko. Etxeko andreak, berriz, neskameei baizik agintzen ahal zuenak ez zuen, behin ere, mainontzitu umeei zerbait adierazteko eskubiderik eduki.

Geu, langileok ez ginen egoeraz alaitzen, nahiz eta lehenago gutarrei bota irain eta gaitzespenak, aldian aldiko gure ugazabek haurrengandik biltzen zituzten. Lana jasangarriago izanik ez genuen nahi etxe hori eror zedin. Arean, etxeko nagusiak baino argikiago etxaldea nora zoan ikusten genuen.

Egun batez, Bahamontes auzoko kolonoarekin etxean sartu zitzaizkigun jazarritako soldaduak etxeko jaunaren ikustera, eurek atondu *alzamiento* horretan sar zedin; gure agureak ez zuen ia borrokarako balio, eta dirurik ere ez zezakeen eman estatu kolpe laguntzeko. Oldartu bandokoek gure ugazabak beste gisaz erabili zituzten, gure auzoko Bahamontes buru beroak galdetu zien, non zebiltzan etxeko gazteak, ala baka- rrik indio horien artean bizi ziren? Gaineratu zuen: Kontuz! *El que con Indio anda, anda solo.* Hau ere ja- san behar genuen zakur baten burua zeukan, buru ur-

din zatar horrengandik, ahotsean zaunka soinua egiten zuenarengandik.

“Bai, bi Gerrate Itzelak Europa aldean, aspaldian, bukatuak ziren: bost axola etsaia urrungo lurretan kanpotarra denean. Hemen gure herri zorigabeko honetan geroztik erdi militar urdinak miliziano gorrien aurka eta alderantziz, estatu kolpeek jarraikiz gabilta eta gertatuekin miseria jende xumeetan garatzen. Hiru motatako gerra gizonak bagenituen baita lapur armatuak gaineratuz lau, ibar batetik bestera gure bizitza moldeak nahasten zebiltzanak.

“Jazarpen hori ez zen lehena; besteen gisa dirudunen artekoa zen. Ez zen benetako matxinada, ez eta iraultza; bagenekien horiek irabazten bazuten gure ezintasuna ageriago izanen zela. Lagunek zioten su horretarako egur ekartzen zutenak beste atzerritarrak zirela, ez espainolak.

Bitartean, bando horik gure herrixketara gudukarako gizonen bila ibiliko zirela beldur ginen. Eta horrela egin zuten. Gure mutil indigenak erreboltaiekin edo euren aurka, lur bidetan ibiltzera behartuak ikusi genituen. Gure ibar ederrean bataren edo bestearen uztak erretzen, kriolloa zer bandotako zen jakin bezain azkar. Gure mendi garaietatik zetozen albisteak ez ziren batere hobe. Gudukatzean, lehen lerroan jartzen zituzten gureak, trebetasunik gabe gure indigena gazteekin besteek balak gasta zituzten.

Soldaduteria zuri hori, berriz, barregarria zitzaidan: ez ziren txitean- pitean edo asto buztankaz baizik argudiatzeko gai eta beren ganbada ozena asetzeko, eraberritu gabeko likiskeria eta mozkorzeria kontatzen baizik ez zekiten. Zein amaren semeak ziren? Muzin

gabe urruntasuna eduki behar genuen haiekin ezen ostikoak eta beste arin botatzen baitzituzten.

“Kanoia, haurtzaroan urrutian entzun nuena, benetan zer zen gure kostuz ikasi genuen: trumoiaren antzeko burrunban gure lagun bat zauritu zuen; kanoi suntu-pa hark jaurtigailua bota zuen eta etxeko *galpón* bati su eman. Tzarragorik bazen, behin gure etxe atzean ere *zambo* bat, alegia gudukari ihesi zoala, zuhaitz bati lotu eta tirokatu zuten esanaz *El que afloja tiene de Indio!*”

“Gudu tiroketa batean horrelako basatiak besteen ehizak izango ziren, txandaka. Hainbat gaiztoago haientzat. Hala ere, guretzat horien ibilerek ez zuten bazterrik: berriz etorriko zen bandoa edo beste armada edo lapurrak, batak bestetarik bereizten ahal baziren.

“Martinezenean ez genuen hasieran gose handi-handirik jasan, oraindik errenta batzuk gelditzen zizkielako ugazabei. Txarrena izan zen soldaduak etxean eduki behar izan genituenean. Zuzen azaltzeko, gizonak ukuiluetan sakatu zituzten, buruzagi handiak etxeko logeletan. Harritu ninduen izan zen abisatu nindutenean aitzindari txiki batek, sarjentu batek nire logelan bizi behar zuela; kanpoan hain arriskutsua izan ez balitz kolonoen etxetik ihes egingo nuen.

“Nina, pentsatzen ahal dudan bezala, ez ninan lo handirik egiten, hasieran. Bai, etxeko lanak erkindua izanagatik, gizona lo zurrungaz hasi arte ez nindunan lokartzen. Pixkanaka eta ez zekinat zerk halakatua lehen bezainbat lo egin ninan. Ez nindunan halere gizon hari fida, ez baitzidan ez begiratzen ez eta so egiten logelan zegoeneino, bakarrik besteekin batean zerbitzatzen nunean behatzen zidan. Zer buruera zeukan gogoan?”

“Nina, lagunuen aurrean indigenok zaragarra izan bagenu bezala, ez zizkigunan larregi gerturatzen gu-

dariak, halere behin, soldadu mozkorra saiatu zunan gure logelan sartzen: Alonso sarjentu gelakideak ukabilka eta ostikoka lurrera itsuski botatu zinan. Horrek ziurtasun apur bat eman zidan. Alonso sarjentuari eskerrak eman nizkionan. Harrigarri zitzaidana, soldaduei janaria eramaten nienean ez baitziren inoiz nitaz trufatu, ez eta ere sarjentu haren gelakidea nintzela eta, neskame lagunak, ez eta ugazabak arranguratu.

“Nina, egun batez, goizean kafea utzi nienean soldadu odol egarberei, lauzpabostek aipatu zidaten untxi edo azeri ehizara zoazela. Apur bat arriskutsua begitandu zitzaidanan. Ehizatik itzuli zirenean denak algaraz zeudenan, Paco delako bati *enhorabuenak* ematen hiru tiroz, hiru hil zituelakoan. Zorionak, jokatu apustua irabazi zuelako. Ron puroa ekar nezan, hiru botila ordainduko zidatela. Eta nik non zeuden untxiak. Haiak untxirik ezean Pacok hiru *indio*, hiru *rosca* hil zituela. Horrela ikasiko zutela zeinekin ibili. Paco horrek bere poza erakusteko sorbaldak altxatu eta horrelako ez tul bat eman zuen; leloa zen gizon horrek otso baten aurpegia zeukanan, ezpain mehea, irribarre egiten ez zekiana, horditu gabe erruz edan zezakeena.

“Nina, banekinan haien aurrean ez nuela negarrik isuri behar. Galdetu nienean purua ordain zezaten eta botila ekarri nienean, soldadu batek bere bizkar zorrotik odolez busti txanoa eman zidan eta barruan, gure herriko neskek darabiltzaten belarritakoak bazitunan. Nire buruaren ezintasuna ez ninan hitzez erakutsi.

— Eta ama, beraz, zer egin zenuen?

— Neska, ezin nindunan gure herrira itzuli. Txanoa erre ninan eta hilen lore deritzon landare horren azpian hautsak lurperatu.

- Eta belarritakoak?
- Riobambako erakustetxean, baditun hil on-tziak eta behin, gertaerak kontatuz, hango zaindariari eskatu nionan belarritakoak horrelako lurrontzi batean sartzea. Orduko zaindariak baietz onetsi zidan eta geroztik han ditun museoan esku odoltsu lizunetarik atera nituenak.
- Eskolatua zirudin eta irakurtzen zinan. Alonso buruzagi horrek jokabide ederra izan zinan. Itsuskeria horren ondoko gauean Alonso delakoari hiru indigenekin agitua kontatu nionan eta biharamunean delako bost gizonak etxetik joan zitunan, inork ez zekien nora.

“Geroztik eta aste betez bake zerbait eduki genin soldaduekin. Alabaina, etxekoan ‘adiskide’ omen ziren soldadu horik janari hoberenak eskatzen zizkiguten eta etxean zein neskame, zein nagusiek geroago eta gaizkiago jaten. Azkenean, Alonso gizon goxo maitagarria ere joan zunan. Taldeak lekuak garbi utzi zizkiguten. Eta haren joanera aipatzen zutelarik neskame lagunei kontatu nienan, nola gutxiespenez edo adeitasunez Alonso gizon horrek ez nindinan batere ukitu. Lagunek irribarre egin zidatenan:

- Ez huen arriskatzen: Alonsok ez ditin andrezkoak maite, mutilzalea dun.

Ama Karminek horrelako jokaerak aditu omen zituen herrian aipatzen. Amari gogoratu zitzaion bi urte eraman zituela eskolan eta espainol maisua neskekin txit gurbila eta errespetuzkoa zela, baina, neskalagun mingain gaizto batek bere ezten hitzekin adie-

razi zion, mutilak bai ukitzen eta laztantzen zituela. Ez zion amak, orduan, batere sinetsi, eta ustekerien zorroan sakatuz, neskak maisua gorroto zuelako halaxe hitz egiten zuela iritzirik. Amamak kriolloen mundu horretaz aholkuak eta albiste ugari emanagatik, amari horrelakorik, gizon mutilzaleen hori, erraten, ez zitzaion ausartu. Neskame zaharrak ere etxeko seme bat aipatzean horrelako zerbait adierazi zion.

Osterantzean, beste talde okerragoak etorri zatzaizkieten, ordenaren izenean eta gobernuaren izenean zertorren armada. Estatu lardaskatu honek Arosamena eta Ibarra diktadoreak txandaka gobernuaz jabetu zirenean, eskuin eta ezker, *azul* eta *colorado* bandoek ohointzez, bazterrak birrintzen, aienatzen ibili zitzaizkien.

Estatu kolpekoak, denbora laburrez egoten zitzaien; ez zen, ordea, talde bat joaten Martinez de Larreatarren etxetik zerbait eraman gabe, lekuak zikin utzi gabe, eta gaitz zitzaien neskameei lapurrak ez zirela frogatzea. Geroago, handik hamar urte *Senderoren* aurka egiteko aitzakian armada multzo handia etorri zitzaien, ordenamendu ipintzera esan gura baitu kalte ugariago egitera. Ama, ugazabekin Martineztar buruzagi gamonalekin Riobamba hirira bizitzera behartua izan zen.

Langile gizonetarik bat noiz edo noiz hazienda etxaldean zebilenean, ugazabei kontatu behar zien soldaduek eta bide lapurrek ezin eramana apurtzen zutela. Burdinazko, zurezko guztiak hartu ondoren, teilak arpilatzen ibili zirela. Edergailutzat nagusiek erosi azal ederreko liburuak, han ahaztuak, berehalaxe su izekitzen ikusi zituen. Baserri hartara itzultzerik ez zegoen, beraz, hirian bizitzen ikasi behar zuten nagusi eta sehi morroinek. Ez zen garaia intziri eta ausiabarretan sartzeko.

Kalean, izan ere, ez zen areago baserriaren antzeko erdi isiltasunik, ez eta erraztasunik, Martineztarrek neskame zaharra kanporatu zuten, ama eta beste gazteagoa geratu, eta haren hitzez:

- Nina, franko gaizki jaten hasi gintunan eta gure sukaldari potoloa argaldu. Janari urria garestitu eta ugazabentzat agur! baserriko oilasko, txerriki, indioilarki, txahalkiak, adios! Maiz, denentzat ez zunan bakailaoa baizik edo jai egunetan nonbait baserri batean edo mendietan lapurtu oilaskoak. Saltzaileak *pollo asado* zionan, guretzat *pollo robado* zunan.

“Karriketan, oraindik, asto gurdiak, zaldi gurdiak zebiltzan kamioiak ere bai. Banekinan zer ziren beribilak. Ez zitzaizkidan gogoko haien usain okaztagarria, euren karraska hots aspergarria. Zer izua, etxeko txoferrak lehenbizikoz hirira lagundu ninduenean. Ikusi ninan beribil ederra Rolls-Royce zahartua, behin edo beste, etxeko jaunaren eskuetan, mozkorregiz eta zangoz erdi elbarritua ez zunan gai izan areago gidatzeko baita orduan, ez zunan gehiago gidaririk izan Martinez de Larrearenean.

“Riobamban, gure nazioaren hiriburuan, ordea, geroago eta kamioi berri eder ugariago zegonan, gehienak soldaduz sortatuak zebiltzanan, kamioi zaharragoak salgai eta jende metatu garraiatzen. Zaratak burtzorutzen eta usainak zintzurra minberatzen zizkidatenan. Gaua zunan bakearen une bakarra, eta isiltasunik ez zinan sei ordu baizik irauten.

“Niretzat itsusia zen hainbeste nekazari txiki, gure koitaduak ikustea lan merkatuaren erdi esklabotasunean; goizean goizik menditik jaitsirik eta lauhunetarik ehunek eguneko lana lortzen eta besteak lanik gabe etxera mendietan gora itzultzen, biharamunean berriaz jaisten jakiteko lan itxaropen zer edo zer edukiko zuten. Zuri batek oihu zeginan: bost hargin eta hogeitauri lur zulatzaile behar ditut.

“Zerrenda bat zeukatenan, zerrendakoak bildu eta gero, bat edo bestek bere besoak egun baterako saltzen zitenan. Nina, goizetik indigena, *runitu* gizagaixo argalak ikusten nitinan bizkarrean zama astunak eramaten edo kamioietara igotzen. Oinutsik ibiltzen zitunan batzuk, besteek beren modura larruz josi *ujata* oinetakoekin edo gurrpil gomaz josiak, edo kartoiez egindako batzuekin.

Eguraldi beroetan, hirian haizea sartzen ez zelarik, peoi batzuk eguzki galdatan, eri erortzen zitunan eta honela jornala galtzen. Jen-deak oro ez zitunan lanean ari ez eta nahi ere. Oroitzen naun, amak sailkapen hau ohi zuela, badirela:

*Chakukrumakuna* (Ahalegin zaleak)

*Shaikushkarunakuna* (Sortzez alfer ezgaiak)

Maiz bazunan lan merkatuan kaletarra kartila eskuan kontatzen zenbat zaku altxatzen zuen langile bakoitzak. Emakume beltzak ere ikusi nitinan, behin, adreilu metatuak buru gainean eramaten. Zer mundua! Une hartan sartzen zitzaidanan bihotzean herrimina.



Kalean berriz lehengo erdeinuak entzun behar genitinan, gu baino apalago zirenengandik ere: mulatoen eta mestizo zenbaiten irainak ere. Azken horien nabaskeriagatik protesta egiten nuenean, erraten nuelarik “zuek ere kolonizatuak zarete” erantzuten zidatenan, ¡*Se despierta el Indio!* Ez nekinan garai hartan, benetan uste baino goizago esnatuko ginela, indigena gisa iratzarriko ginela, elkarte, kooperatiba eta tarama sortzen hasiak ginen arren.

Orain, eskulangile kooperatibak, lanbide eskola batekin loturik, batik bat, utavaluen artean zitenan arrakasta, gurean oraindik ehundegi batez kanpo, nekazaritzagan amesten geninan. *Solidarmundo* elkarteak ere prezio hobetan erosten dizkiguten indigena baserritarrei, kinoa, tea eta kafea. Noiz arte?

“Soldadu haien artean sexu harreman eskaintzak ez zitzaizkidanan falta, ezen animalien azpiko izanik ere, besterik ezean, indigena neskak nahi haina on gintunan jende horiei atsegin emateko. Ezezkoa nionean, ¡*Deja de hacer la India!* ziotenan. Ez nienan erantzuten, amak aholkatua betetzen baino: kontuz erori gabe! Hiri ere, Nina, etorriko zaizkin eskaintzak eta eskaerak, gainera gu baino lirainagoa haiz”.

Amamak kontatu ez zidana izan zen, aipatu ezinezkoa, etxeko kriollo seme batek haurtzain zegoenean, hamabi urte zituela bortxatu zuela, eta etxeko jaunak amama zigortu, ez haurride bortxatzailea; eraso horrengatik, denbora berean, zen amama Bahamontes

etxetik Martinez de Larrea etxera joan. Beluago, jakin behar nuen ama ere ezkontzeko bezperan eliza gizon batek hartu zuela. Handik bi urte, deabru batek deiturik sotanaduna ustekabean amildegi batera erori zela eta hil.

Ugazabei kontatu zien, behin amak goizean merkatura zihoala bost gizonek inguratu eta lapurtu zutela. Bat ezagutu zuen. Ez zituen salatu, lotsagorriturik, gizon horik gure mendi nazionekoak zirelako. Ez ziren Martineztarrak harritu horrelakoak, omen, lehenago ere gertatzen zirelako, matxinada edo gerla izanik ala ez. Amak iradoki zion utavalu salerosleari nagusiarentzat kontua ireki zezan eta hamabost oroz kontu hori etxandrearari ekar zezan, lapurrengatik kanpoan dirurekin ez ibiltzeko.

Azken buruan, kriollo jazarri batzuek gobernua hartu zuten. Hogei urteak zituen amak eta uste zuen, berriz, kriolloen baserrira itzuliko zela, zorrak ordaintzeko Martineztarrek lurra saldu zituzten, eta gure herritar batzuek erosi. Bai, gure Pacha Mamatik antzina lapurtu lur lau eder zenbait berreskuratu zituzten; ezen erosleek herriko erkidegoari, aylluari eman zizkioten. Hala ere, ez zen denen biziarazteko lar.

- Orain, bazekin, alaba maitea, joan den astean, han Miamin bizi den Martineztar kriollo aberatsari, Ipar Ameriketara egon gure herriko gusu batek etxe suntsikinak eta lurra erosi dizkiola. Dolar metarekin itzuli dun Dimitiriu eta inguruko kriollo gastatzaileak baino apur bat aberatsago dun.
- Beraz, ama honelako gertaera batengatik jai egin behar genuke.

— Ez neska. Jai! jai! jai! hitz hori baizik ez dakizue gazteok.

Esan behar da gure jaietan ez ditugula kriolloen moduan, oraindik, diruak jokoetan edo prostibuloetan edo droga gogorretan lar galtzen, halaz ere, batzuetan aurtenbehin ohartu gara gure indigena jai ederrak mozkorraldi, *chuma*, bilakatzen direla.

— Ama, Pacha Mamarengatik alaitu behar genuke, ospatu!

— Neska ez dinagu goizegi alaitu behar, ez zekinagu zer den geroa. Bakarrik bazekinagu zer gorabehera bizitu dugun iraganean, egunerokoak nahikoa badin gure arta merezitzeko. Gainera, bazekin yurakruztarrekin gertatu dena: hango indigenak ez ditizten utzi nahi landugabeko lurrak lantzeraz eta paramilitarrak erabili, andreak bortxatuz eta gizonak hilaz izuarazteko.

— Ez zara pozik, ama?

— Ez neska, alabaina ez dinagu *Pacha Mama Corpus* besta ederragoa baizik eginen Ingapirkan. Ea, denborarekin Pacha Mamarekin kriolloek baino hobeki egiten dugun ala ez?

Erosi eta hurrengo astean laskitu, txikitu Martineztarren etxearen zuzikin hondakinak eta ukuiluak sutan erre zitzairen. Nork sua emanik? Bekaitzek? Ala han sartu zitezkeen etxegabekoek, ustekabeen etxeko azken zurrak erreaz?

Jarraian, gure herrira gure sortetxera ezkontzera itzuli zen ama. Gertaldi gehienak amak, ni hirira bizitzera joan baino lehen, kontatu zizkidan.

## X

### RIOBAMBAN ERE ZAKURRAK OINUTSIK

Orain arte, etxetik joan baino lehenekoak, haurtzaroaz, eskolaz, amama Mirciden eta ama Karminen bizitzaz mintzatu natzaizue. *Apamama* ez zait gehiago mintzatuko: zaharkuldua zen amona. Hilabeteko ez-tul txarrak harturik udaberri goiz batez galdetu zigun, arupu zuhaitzaren gerizpera eguzkiari begira kanpora genezan eta hor, ez-tul batean, odola zeriola, azken arnasa eman zuen. Azken hitz garrantzitsuenak, hiltamuan zegoela, izan genituen:

— Ez gaituzue erosoki eta goxoki bizitu; gu baino gaizkiago daudenak badituzue, eta jakin dugu baita ikasi behar duzue, atsegin bakunez baliatzen. Atsegin handiegiak nahi direnean jendeari gogoia erretzen zaio eta nik, gaur egun, ditudan baino oinaze handiagoen artean hil daitezke. Irrikatu behar dena bakea duzue.

Amari esan diot, goiz edo berandu, herritik kanpo, nonbait estatuan hil banendi eta etxera ezin ekarriz baleude, nire hilobi zuloan ontzi bat herriko lurrez beterik jaurti lezaten. Amak ihardetsi dit, agian, hori betetzeko egokiena baratzen zitzaidan anaia izanen zela, bera baino eta hoberena nukeela herrian hiltzea.

Amamaren eta amaren, horik guztiak, kontatzen dizkizuet lagun maiteak, horregatik ez dakit besteen eskarmentuak nahikoak diren, hiru akats dauzkagunean, mendietan jaio, emakume eta besteen «indio» izatea. Alta, agi denez eta gaur egun badakigu, geuregeurea dela herri hau, burua gora ibili behar dugula. Isilik? Isilik? Ez dugu areago isilik pairatuko, bizirau-pen bidetik aurka eginen diegu, indar bortitzari nagusi bailitezke adimena eta elkartzea.

Azkenean, hamaika aldiz aldarrikatu ondoan ez nintzela inoiz ez hirira bizitzera joanen, gogoan hartu hori hautsi dut. Nahiko eskola badut, hango morrontza laburra izan dadin. Bestalde, zer gerta ere hirian bultzagarri Estadubatuetan egon osaba *grindioa* izango dut.

Non biziko naizen? Riobamba hiri gilbortsuan biziko natzaizue. Menditik iheslaria, bai, mendiko alaba indigena eskergabekoa naizela uste izango duzue? Ez dakit. Edo hiri hau ere gurea dela erakusteko, handi haize batek Nina neska indigena harroputz txiki hori jo duela. Ez. Uste dut nire neurrien eta gaitasunen arabera hiritik herriari eta etxekoei hobeki diruz lagundu ditzakedala. Hori diot berresan amari, joan den astean Riobambako bidea hartuz.

Esku batean maleta, bestean janari poltsa, osaba Jusika Kuji Kutujuanen etxera iritsi naiz. Etxe zuritua du bi solairutakoa eta aurrean lorategi txikia. Lorategira sartzen naiz. Bat batean, andre bat leihoan agertzen da oihuka eta zakurra haginak erakutsiz zaunkaz. Ziztu bizian ateko burdin langa zerratzen eta kalera banoa.

Zer, ordea? Une luzexkan eduki abegi “ez txit onaz” sor eta lor gogoa gatzatu zait. Txunditua nago. Ez dut

amore emango. Kalearen bestaldean eta osabaren aurretan, harri landuzko horma hondakin baten gainean jartzen naiz. Aitor dezadan, ezinez ez diodala osabari abisatu zein egunez etorriko nintzen eta gaur egun kanpoan dagoke. Non ote? Etorriko da, etorriko da, hamar aldiz esanagatik, burmuineko min txiki batekin burua hutsik nagozue. Helbide okerrean al nago? Buruaren zirkulitik gogoeta erregarria heltzen zait: eta etxean balego eta ez balu atea ireki nahi izan? Kanean nengoke.

Asmo arraroa gogotik igaro zait, han hor nonbait inon gelditu gabe ibil banendi? Ez zait aisa izanen errespetatua izatea. Gainera, lan egin behar eta horretarako garbi garbia izan ez erroi batek eraso bezala, beraz, horretarako halabeharrez logela bat eduki. Buruz makur gogoz ez, lurrari begira nago irtenbidea pentsatzen. Ukalondoa belaunean eta eskuaz buruari eutsiz. Osaba kanporatu arte hemen egongo naiz. Itzal bat aurrean. Esku bat sorbaldan. Kontuz!

— Nina, zer zabilta hemen, kanpoan? Zer gertatu zaizu?

— Osaba, etxe horretako leiho batean neskame dirudin andre bat kexu bizian agertu zait eta mastin oraren zaunkek ez naute hitz egitera utzi.

Osabak dio, ordu horretan neskamerik ez dagoela etxean. Etxandrea zitekeela. Gogoan neukan, orduan, emakume indigena horrek egin zidala inoiz zuri bati egingo ez ziona: bai, gu ere, batzuetan indio tontoen joko horretan sartzen gara. Ondoren, zelango begirune eskatu kriolloei, geronek geure nazioetakoak errespetatzen ez ditugarik.

Osabak lasaitu nau: etxean berak du agintzen, ez haren andre indigenak. Lorategian gaude. Ateko zakurrarekin aurkezpenak egin-eta, etxean sartzen. Etxeko andrea ez zaigu agertzen. Osabak emaztearekin duen ahakarra entzuten dut. Ezkon izeba hori, musin-musin egongelara datorkigu.

Lehen abegi hori uste dut luzaroan ez zaidala gogotik ezabatuko. Andrearen atralaka bukatu ondoren, zergatik ez dudan nire etorrera telefonoz gaztigatu, aurpegira bota dit. Ahaztu al zaio ez gaudela *Istaduni-dusetan* Andetan baizik, harreman moduan astean behin, noizbait kamioi kulunkaria Punganinetik Wamotera jaisten dela, eta Riobambarako trena han dagoela eta hori gogoratu dio senarrak.

Logelara laguntzen nau, harro harroa bera. Sabaipean gela txukun garbia badut, urez ikuzteko konketa; behean komunak eta dutxa. Zer behar dut besterik, etxean horrenbeste ez nuelarik. Haatik, lehen gauean, zakur harrera hura gogoan, ez naiz berehala lokartu. Iratzartzean erabaki dut gosariaz kanpo ez dudala etxe horretan apairurik hartuko. Ezinbestean, osabaren etxean lo. Osabaren andrearen berba latzek salatzen dute hura baino gazteago naizelako zerbait bekaizkeria dagoela hor.

Nire indigena soinekoak gorde ditut, *pollerak*, *anako* eta guzti, herrira itzuliko naizenean janzteko eta zurien jantzi itsusi eta kolore gabekoetan, jadanik apur bat ezagutzen dudan hirira sartu naiz. Osabaren etxean logela edukiz, nire ustez jaioterriarekin daukadan beharrezko lotura ez zait etengo.

Lau egunen buruan, osabak aurkitu salerosketa etxe batera, ehun eta oihal saltegi batera lanera noa.

Han lan eginen dut. Nagusia hor dut aitzinean. *Turcoa* da. Beranduago jakinen dudanez arabiarra, *Turco* bakarra da salerosketa sail horretan, auzunean saltegi txiki asko *utavalu* indigenen eskuetan daudelako.

Gizon gurbila, adeitsua dirudi, lodikotea eta biboteduna, patxadan bizi, halere begi zorrotza. Ordu erdi badu ugazaba berriak saltegia erakusten eta irakasten didala. Sumatzen diot anitz agintzen eta guti mugitzen denetarik dela. Jadanik, ulertzen ez diodan bere 'turko' hizkuntza batean bi aldiz hitz egin du. Aurpegi serioa darakutsa, telefonoan. Ulertu ez arren urrundu natzaio. Bukatu eta hurrantzen zait.

— Badakizu lanbidean, zeregin berri batean abiatzen denean, egiteko aspergarrietan jarduten ikasi behar dela; lehen eta behin, saltegia erraztatzea, garbitzea egingo duzu. Lehenik etaikusiko dudan epean, horrela egonen zara.

— Bai, jauna, bai.

Jakin banekien salerosle horiek beti hori eskatzen dutela jakiteko etorri berria gai denez obeditzeko. Ezin zaio erantzun: "lan baten ikastera etorri natzaizu, garbitzen eta erratza erabiltzen aurretik ikasi dut". Isilik egotea, lantzean behin, bide egiteko balia daiteke. Eskatzen zaidan lana egingo dut. Begiak zabalik egin behar direnak eta behar ez direnak ikasiko, ezen baitakit mundu maltzurtean barruratu naizela.

— Eta zergatik uste duzu garbiketa egitea eskatzen dizudala.

— Jauna, horrela ikasten delako ez zikintzen eta nahaspilatu gabe gauzak beren lekuan ezartzen.

— Beren lekuan ipintzen?



— Bai jauna, zuk aukeratu eta zuk ohi dituzun lekuetan.

Bekokia zimurtu zaio. Zirkin arraroa egin du, be-  
tozkoz, hori iharduki dudalako, obeditzen banekiela  
ez zozoki menpetzen uler zezan. Isilik egoteak, haatik  
ez itsu, zer edo zer ekar dezake. Ugazaba berriak zer-  
nahi oihal saltzen du. Bada, ordea, gela bat giltzatua,  
garbitu behar ez dudana eta behin bakarrik lagun bate-  
kin hara sartzen ikusiko nuen. Ezikusiarena egin nien.  
Ez zen bakarrik oihal saltzez bizi jabea, gizonen arteko  
zerbait edukitzen zuketean.

Gogoan hartu nuen dendan ohiko bezeroen izenak  
eta abizenak ikasiko nituela. Zein-zein zen jakin. Nire  
sailkapena egin. Une hobeak lasaiki igurikatuko. Ha-  
sierako ezagutza joko hori jakingarria eta dibertigarria  
izango zitzaidana, banekien. *Turcoak* laster ulertu du  
saltegi ikasbide zertxobait eduki dudala; gaineratu diot  
herri ñimiño bateko eskarmentuek ez dutela hagitzen ba-  
lio hiri handietan eta aholku beharra izango dudala.

Bigarren egunean dendan sartzean usainei ohitu  
nintzen: hor zeuden kotoiek belar lehortu usain arina  
zerioten eta artileek ardiarena. Gero konturatuko nin-  
tzen oihalen adelatzean erabili aprestoek beste urrin bat  
zeukatela. Sudurrarentzat ezin jasan salgairik ez izatea,  
ez zitzaidan batere gaizki.

Ehun horik, menditar margoen zale nintzena-  
rentzat gehienetan hitsak ziren eta sarritan, erosleri ko-  
loregabeko hauek saltzen. Lehen egunetan, kanpoko  
argiak eta ilunak ez nituen gogoko, aitzitik argiaren  
izpi zenbaitek oihaletan egiten zituzten jokoak arraro  
zitzaizkidan eta ume bat banu hortik abiatuz ipuinak  
idatz natzaioke; bitartean lan edukitzea eder.

Dendaren geografia berehala ikasi nuen, non eserlekua, non mahai luzea, bai eta non ipini nezakeen nire josteko makina. Leioa zabal zen alabaina argi hitsa zerion. Nonbait entzuna nuen edo irakurria ezinbestekoa dela oihalak egun argiz eroste, baina saltzea? Hirira etortzean uste nuen dirua dela bide askeago izanen nintzela, baina hemen eskolan bezalaxe eta gehiago ordutegia badago. Hemen ez da ikaslerik, ez irakaslerik errege diren erosleak baino eta naizen menditar uzkur eta eskolatu harroarentzat erronka handiegia, ote?

Wamoteko merkatu egunetan bakarrik kamioi batzuen usain zatarra iraun behar genuen eta bozinen zarata, Riobamban berriz egun guztiz eta berandu arte tutuen hotsak, diesel gaizki errearen usain sarkorrak. Gogoeta horik bazter utzi-eta amaren erranaz oroitzen naiz, alegia andere batek lanbidea ikasi behar duela baita bakarrik bizitzen edo familiaren arduradun bakarra izaten jakin, ez dela bizitza osoan gizon baten besoengan kontatu behar.

Burupe bero batez eduki nituen ikasketengatik apalduxea nintzelako gogoeta ezabatu eta zer den baikoitzaren askatasuna noraino doan, ikasi behar. Goi-zero, lanera joatean, gure kale izkina erratzaz garbitzen duen Aparecida *zamba* beltza agurtu ohi nuen eta halako batean, hark:

— Zelango aurpegi zurbila eta ez txit ona daukanan goiz honetan!

Eta irri zuri batekin ihardetsi diot, txuri-txuria ez eta *blanquito*, inoiz ez naizela izango: pitin bat makala nagoela, oka, goralarría, baita sabeleko mina goizetik abiatu zaizkidala. Bi aste badu lanean nagoela. Ezin naiz gelditu. Lana gal nezake. Alta, izan daiteke gaixo-

tasunagatik erabatekoan lan galtzea. Aparecidak aholku batzuk eman dizkit:

- Hik daukanan gaitza, begizko, begi gaizto bate-tik letorkeen edo barru-barruan sartu zainan errai jale *cangrejito* baten kausaz.
- Menturaz neska, hala ere sendagilea laster ikusi-ko dinat.
- Ez du balio. Mingo, nire lagun beltzak badaki bien sendatzen. Bihar edo etzi Guayaquildik etorriko zait.
- Eskerrik asko. Hire lagunaren aholkuek ere ur-gatziko naiten.

Sabeleko oinazeagatik lana ez zait erraza izan. Ezin zaie bezeroei mutur luzea egin, haatik nire onerako oihal saltegietan jendea ez da minutu guztiz dendan sartzen. Bazkaria ez dut urdailean gorde. Ezin dezaket honela iraun. Ez dut hemen gure indigena sendagile *kallawayarik* ezagutzen.

Medikuarengana joango naiz eta bitartean *kuka* murtxikatuko. Goizean goizik ospitalera noa. Gosaria ere ez dut urdailean gorde. Nire txandan berantetsi dut, zutik. Ez dakit burua edo paretak diren inguruka, biraka hasi.

- Eseri! Traza txarrean zaude. Zer daukazu?
- Urdaila egonezinik eta sabela laxoegi.
- Egon al zara inoiz kostaldean?
- Ez, ez jauna.
- Aspaldi badu Riobamban bizi zarela?
- Bi aste, jauna.
- Eta txorrotako udal uretik edaten al duzu?
- Bai, bai! Besterik ez.

— Udako bi hilabetetan ez dezazula hiriko urik edan, non ez den egosia edo klorodun pastillaz garbitua.

Sendagileak han bertan pilula bat eman dit, besteak farmazian erosteko. Lehen loperamidak berehalaxe sabelari eragin dio. Zelan edo halan lasaiago joan naiz lanera.

Aparecidak, Mingo beltz laguna ezagutarazi dit. Mutil kankailu, luze, argal-margala. Aitortu diot zurien sendakuntzaz baliatu naizela. Mingo aldiz, *curanderoa* izan arren, gaixorik dago. Nire sabeleko eritasunaren antzekoa daukala dirudi eta erremedioak partekatu ditugu. Mingo, luzaroan itsasoan ibilirik *Wayakillako* portuaren bero galdatan hartu izerdi patsetan eta janari urriarekin bizi, zamaketari lanetan bularreko min senda gaitza harrapatu zuen. Atoi ontzi batean lan egi-teak ez dio osasuna hobetu.

Laneko bigarren ikas urratsa izan zen nagusiarentzat oihal peza astun eta ehunak eraikitzea, hark motz zitzan. Indartsuak garelako indigenak, gauza toil moneiatzen, eskukatzen jartzen gaituzte. Nagusia adinon alferra zen eta laster, ez bakarrik altxatu neurrira moztu behar nituen oihalak baita paper batean idatzi kalitatea eta luzetasuna. Hasieran baldin bezero aldikal kobratzera bazetorren, laster bakarrik utzi ninduen eta arratsen genituen nik egunean egin kontuak eta kaxa kontrolatzen.

Bezerorik ez zegoenean erakusleihora beha egoten nintzen; laster mutil bat agertu zitzaidan, ez ehunei begira niri baino. Lehenbiziko burutazioa izan nuen diru kaxarekin interesatua zitekeela; berehalaxe ohar-tu eta ulertu nuen lapurtu nahi izan balu aspaldida-

nik obratua zukeela; gainera lanetik irteteen, osabaren etxera joatean indigena galaiak beste espaloian jarraitzen ninduen.

Jarraikian, mutila aurretixek ibiltzen zitzaidan itsumustuan gelditzeko. Geldi eta itxaroten zuen, zeren haren aurrean igaro nendin arte. Aspergarria, gogaikarria zitzaidan indigena galai lotsor, uzkur, zirtzil hori eta bigarren astean kalabaza gogorki eman nion: utzi zezala niri begiratzea eta karrikan jarraitzea baldin ez bazuen nire familiako gizonengandik zapraldirik bildu nahi.

Erakusleihotik besterik nekusan: noizean behin kalean, bere tanta edanik, aldaroka zetorren beste gizon bat. Ez nuen hartaz barre egiteko gogorik, ezen gure aitaz gomutatzen nintzen eta merkatuetan nola txolindu ondoren, etxera zambuluka zetorren eta biharamunean *chuchaki* handiarekin narrasta lanera. Orduen luzetan eta hasieran aldarte franko nuelako auzuneko jende askoren itxurak ezagutu nituen, gero denborarekin eta lanean haien barrenekoaz zertxobait gehiago ikasi behar nuen.

Ez nuen denborarik galtzen kalean. Eguraldi itsusia zenean ere, lanetik landa liburutegian ordubete ematen nuen. Bai, Wamoten ikasi genuen ingelesa, zer edo zer irakurtzen nekien, hobetu nahi nuen eta oharkabean *Yonietara* joateko zerbait amets piztu zitzaidan. Ezetz berresanik ere eta mendiko herrimina piztu arren, kapelapeko asmoa buruan bazkatzen ari zitzaidan. Ingelesezt hitz egiteko liburuxka erosi nuen eta gogoz ikasi; turistekin mintzatzen ausartu nintzenean ohartu nintzen, ordea, idatzia eta ahozkoa gauza bi direla. Ahoskera hobetu behar nuen.

Behin edo beste, Parque 21 de abril tontorreraino igo nintzen behereko argi faltsuak eta zaratak utzirik, goiko ikuspegira. Benetako argia behar nuen inguruko menditik zetorrena. Argi gardena behe lainoen gaintetik distiraz nagusitzen zena. Astia izan banu, ikasle garaian bezala, egunsentiaren argi-zirrintak edo ilunabarrerekoen ikusteko atsegina hartuko nuen: goizeko argia Tungurawua, Kariwairasu edo Kapak Urku mendien atzetik agertzen, arratseko argia berriz herabeki ohera joaten. Parkeko muinotik jaistean mendien herri minak kentzen zidan goian eduki nuen gozamina. Aitor-tu behar dut hara igo nintzela bizpahiru aldiz Thani neska lagunarekin ikasi musu eta laztanak mutil batekin egiaztatzeko; ez nintzen Thani bezain trebea: mutila laster bistatik galdu nuen, bigarrena *Yonira* joan.

Zertarako Punganinetik jaitsi nintzen? Lehenik lan sariaren erdia amari bidaltzen diot eta nahi haina gelditzen zait bizitzeko, ezen bizi naizen osabaren etxean ez baitut etxe alokairu, ez etxeko gasturik ordaintzen. Diru altxor txikia biltzen hasi naiz, ezen nire lan soiltasunaren trukean neba gazteak dakarzkidan artilezko eta llama ilezko jantziak, jantzi horietarik franko gure etxean ehunak direlako edo josi ditudanak aldartetan eta merkatuan, gure kontu saltzen baititut;. Osabaren andreak mespretxuz ematen nion etxean egin jerseyia hartzea ukatu zidan, baina osabak eskaini nion artilezko txaketa gogo onez onartu.

Ohikoan, 'indio' soineko eta buruko horien erosleak kanpotar turistak izan nituen eta haiekin ingeleraz trebatzen saiatzen nintzen beti. Gehienak ez ziren ingelesdunak eta nik baino gaizkiago hitz egiten zuten. Generabilen hizkuntza txabakano mordoilatuarekin

eta keinuekin elkar ulertzen genuen. Atzerritar anitzek ez zuten prezioa eztabaidatzen, frantsesak izan ezik. Baina, azkenekoz horiek ere anitz erosten zuten. Negu bizi bizia agitu zen arte hiriko jendeek ez zidaten 'indio' jantzirik berentzat erosten, negu hartan, omen, 'sehientzat baizik' aitzakiarekin, alabaina, kalean ez bazen etxean erabiltzeko eroatera etortzen zirela sumatu nuen.

Lana ez da hain errazki idorotan hirian, kalean, kanpoan lan zatarrak dira eta eskolagabekoak erraztarenekin garbitzen, esku orga batekin edo zaldi gurdiekin zabor biltzen dabilta. Zamaketariak ere hor zain daude noiz eta ere norbaitek zer bait kargatzeko lantxo emango dieten eta jatekoa irabaziko duten, horiek ez dute emigratzeko itxaropen txikiena ere. Gizon gazte batzuek sasi armada edo milizia batean sartzen saiatuko dira.

Kalean gau eta egun bizi direnei, egiazko kaletarrei, antz eman diet. Ez da jende gaiztoa, anitz mozkorrak bai, eta hortik lanerako gogorik ez edo nekez idorotzen. Eguna harantz-honantz ibiliz hirizaintzari ihesi, gauerako beren gisako estalpeak bilatzen zituzten arlote zirtzilek eta beren lo gela kartoiekin markatzen edo beren puskekin mugatzen. Gure arrazakoak ere honela ikusi nituenean lotsa apur bat barneratu zitzaidan, beltz eta *zamba* txiroak ere baziren: ez ginen besteak baino apalago eroriak, miseria denen artekoa zen, agintari zuriena izan ezik.

Erosleak nola jokatu zuten sumatzen saiatzen nintzen. Erotera zetozenen arteko komediei beha eta zirkinik egin gabe, egon ohi nintzen, oharketan. Erosle gehienak kriolloak ziren, baina ia beti neskame mesti-

zo batekin etorri ohi ziren. Ugazabandreek, maiz, arrano aurpegi zorrotz batekin begiratzten zidaten. Batzuek ez zekiten oihal baten aurkia eta iruntzia bereizten. Haien keinuak nire begi kornearen azaletik gelditzen zitzaidan. Haien muzinak eta begitarteak begira, hezur huts, eskeleto bilakatuak irudikatzen nituen.

Indigena morroinari, oihala eramateko uneraino ez zioten kale zakur bati baino areagoa jaramonik egiten eta une hartan erresumindu mutur batekin zama hartzerakoan. Alaba batekin zetozenean komediak iraute-nago zuen eta neskek, noizean behin, amei mutiriki erantzuten, baita azkenean amak haien iritzi eta auke-retara hertsatzen. Jostuna zetorren sarritan, horrelako etxandre eder nahiekin eta kalitatea zela eta luzetasuna zela, ahakarrak hasten; nire uste isilaz jostunak usu arrazoa zeukan. Iritzia galdetzen zidatenean, erantzuten nien andreek ikus eta eurek hautua egin zezatela.

Bezero anitz, ikusleak, ukitzailleak ziren, oihalen leuna goxatzeko sartzen zirenak eta ez erosten. Salgaien artean, neskentzat ehun farfailya arinak eta muselina-dunak, andreentzat apaindura gabekoak. Gizonentzat betiko dril liho zuri edo beixa, arropa osoa egiteko, salgai nituen. Denbora hartan, zimardikari bilakatu nintzen, etxeko andreei nahi nuen salgaia sakatzeko. Batek edo bestek neskameen janzteko oihal arruntak erosten omen zituzten, nahiz gehienetan andre handiek eta jaun handiek higatu arropekin zebiltzan arren morroinak.

Behin, burges neskaxa bat amarekin etorri zen, begiak izuz beteak amari begira. Benetako mutua ala aho motela? Gorputzez ongi egina, liraina, ziotenez burmuinez mehe eta garatu gabekoa. Zer bizitza zera-



man etxe horretako neskamearengandik, jakin nuen: etxetik elizara, elizatik etxera, hilean behin denda batera eta bestela zozoa zelakoan giltzapean.

Egun batez, neskameak esan zidan, norbaitek, etxeko batek edo etxean egon arrotz batek neska inozoa izorratu zuela. Neskaxa isilik egon. Ama dragoiari bere sabeleko mina aitortzera uzkur. Urtebetez ez nuen ikusi eta orduan, neskaren aurpegi borobila moztorro mehe, argala bilakatu zitzaion. Etxe horretakoek ez zidaten, ordea, inoiz haur jantzi egiteko oihalik edo ehunik erosi. Neskameen esamesa eta txikikeriengandik nirea ez zen ingurunea ezagutzen ari nintzen; halere erosle guztiak ez nituen halakoak, nondik nahi den bizitza aspergarri horretan zenbaitek beren menturekin gatz eta piper apur bat ekartzen zidaten.

Eguneroko txikikeriak eta zitzimuzkak ez dizkizuet luzaz aipatuko. Egunaz osabengandik bereiz egonaz, bai eta saltzaile harreman erdi hotzekin ezin egon. Halere, auzoekin ibiliz, batik bat, nire adinekoekin ezagun sarea izatea txit egokia nukeela nabaritu dut. Hori bera diote nire bi adiskide *moreno* berriek: irauteko jendakin izan behar dugula; apurka-apurka gure emakume tertulia laburrak eratu ditugu, laburrak diot ezen lanaren artetik astia aurkitzea ez den erraza; igande arrats zenbaitetan antolatzen ohi ditugu lagun bilerak.

Adiskide beltzak kriollo munduaren tankera arrotzak erakutsi zizkigun. Aparecida adiskideak ostatu batean lan egiten zuen eta auzoko andre taldea igande arrastiritan elkarrekin biltzen ginenean gertaldi xelebreak kontatzen zizkigun. Bi lagun, bi gizon, haren ostatura finiki-tinki edatera zetozen. Bata berrogeita hamar urteetako gizona zen, Don Filisberto. Gizon

hori, bere denboraz aske, errentaz bizi zen eta ukondoak ostatu barretan higitzen zituen; bestea Casimiro kosmetiko saltzaile ibiltaria.

Don Filisbertok astia eta gogoia izan balu maita lakioen eta iruzurren entziklopedia idazteko gaia aurkituko zuen, izan ere andrezale iaioa, trebea baitzen. Harentzat “amodioa” estaltze eta kirol iruzurtze hutsa zen. Bere txikian gotorra, sendoa, eta apur bat potoloa izanagatik, gorputzez ez zen hain ederra, eskea zeukan: *el hombre como el oso, cuando más feo más hermoso*. Neska gonazale handienak ez dira beti playboy ederrak eta Don Filisbertok sudur eta belarri handiak zituen, denbora berean andrezko zenbaiten erakargarri omen diren ezpain lodiak eta begiak! Begiak zituen tresna onenak, sugeak saguari begiratzen dion moduan begiz jo neskak gogutzen zituen eta begirada labur finko bateguz maitasun eskaerak adierazten.

Hala eta guztiz ere, ez zituen andrezko guztiekin metodo berdinak erabiltzen. Geltoki esparruan neska gazte eltarinak, hirian etorri berriak saretzen zituenean, dotore jantzia zebilen eta adeitasun osoz neska bazkaltzera edo afaltzera gonbidatzen. Neskak, helbide finkorik gabez, hotela bilatzen zuenean aurkitzen zion eta harekin lo-gelakide jartzen. Astebetez irauten zuen menturak. Gure neskazaleak ez zituen bere txoriak zeharo gogatu nahi eta haiengandik beti adeitasunez askatzen zen, astebeteko hotel xumea ordainduz.

Aparecidari aitortu nion lotsagarria zitzaidala gizon petral horren jokabidea. Non nahi neskak haurdun utz zitzakeela. Hark erantzun, kontu horietan umegorria nintzela. Gizon horrek bi kalitate handi omen zituela; lehenik eta behin, aitatasuna saihesteko ez ziela ume-

rik egiten; urte hasieran, sinbolikoki eta praktikoki, hirurehun bat kondoi erosten zituelako egite horretaz babesteko. Bigarren bertutea zuen neskontzat irakasle ona zela: uzten zituenean, euren orgasmoen sekretuak irakatsi zizkielako.

Nazka ematen zidan horrelako zezenkeriak entzuten nituenean, eta batik bat, Aparecida adiskide zintzoaren ahotik? Beste behin, lagun beltzak kontatu zigun beste apetak eta irrikak beroturik, Don Filisberto hotel handien inguruan turista edo andre alargun bila zebilela. Beti adeitasun handiarekin harremanetan sartzen te kikera hartzera gonbidatuz. Ez zuen tarte hartan txibista berdina hedatzen, ez eta jantzi bera erabiltzen: erromantiko antz izateko betaurreko biritilak, eskuan liburua, eta gabardina beltz luzea. Hor ez zitzaion hotela kostatzen limurtu dirudunaren logelara joaten zelako.

Halako batean, omen, astakeria handia obratu zuen, aske ez zen hiriko andre ezkondua bisitatuz. Ustekabean, senar hegazkin pilotua agertu zitzaien eta erdi jantzirik, koldarkeriaz leiho batetik behera jauzi zen Don Filisberto, eta oina apurtu; geroztik herren gelditu zen. Maingu izateak ez zion arrakasta txikitu, beste txoririk ekarri baizik. Emakume bat, ordea, zintzoki zerbitzatzen omen zuen, urteetan eta ostegun guztiz hain maitasun ikasle ona izan zuen anderea, lizeo irakasle ezkongabea ohoratzen ei zuen.

Hauek entzutean irudi zitzaidan beste planeta baten alboan bizi nintzela. Aparecidari esan nion ezin onartuzko jokabideak zirela eta hark erantzun jasanezin hutsa nintzela. Egia da Aparecida ez dela horrelakoa, maitasunean zintzoa dela; onesten ez nituenekin jasankor eta barkabera zen adiskidea.

Beste behin, Aparecidak Casimiroren maitabide neketsuak laburzki kontatu zizkigun. Filisbertok bere mentura ederrak aipatu eta gero, gure kosmetiko bantzaileak bere miseriak aitortzen. Baldin eta zer edo zer etekin nahi bazuen atera ezin zenbatu erosleei, andre zahar saltegi jabeei, erosteko xantaiez ohe atsegin ematera behartua zen. Aspertua zen, gainez ase, emakumezko zimeldu horien amodioetan. Eta Don Filisbertok beti esaten zion ofizioz alda zedin, edari salgai denda batekin tratuan sar zedin ala Kasimirok, ez zekien kosmetikoez besterik saltzen?

Gure lagun beltzak, denek gustuko ez genituelako, utzi zuen bi gizonen gertakari kontatzea, apika bi lagunak beste ostatu batera edaten zebiltzalako ere. Hala-koan, lagunaren talata berritsu horien hizpideak aldatu behar zirela eta hitza maitasunaz eduki genuen. Arupu zuhaitzaren legenda kontatu nien eta nola sinesten den haren azpian egin maite zina betirako dela. Aparecidak kontatu zigun, beltzen artean, *Yemania*, itsasoaren jainkosa egunean amorosten direnak, maitasunean iraun dezaketela, ziurrago izateko, aurreko gauean edo ondokoan ilargi bete bada, orduan, gauerditan ilargi zuritan zina egin behar dutela.

Lupe, kriollo txiroak –badira horrelakoak– gure lagun minak esan zigun kasta burgeseko kriolloen artean maitasun iraunkorra izan dadin hautatu birjina baten santutegira erromes joaten direla ezkongaiak; han, beren fideltasun zinak egiteko. Azken buruan, zion Lupek, elizkizun, ospakizun, idazki-kizun edo beste -kizunik gabe bikote anitzek hil arteraino elkarrekin bizitzen jarraitzen dutela. Askotan ere, zioskun bikote batzuk elkarrekin egoten direla, nahiz eta ames-

tu izana ez bizi, besterik ez dutelako aurkitu. Hori entzun ondoren denok isildu ginen; ez zen kafetxoaren kikera eta koilara txiki musika baizik entzun.

Ederrena izan zen, beste lan tertulia batean Maria menditarrak mutil baten edertasuna goretzi zuenean. Lupek edertasuna ez zela entsaladatan jaten eta nik gaineratu “ez eta ere itsusitasunak jatera ematen”. Eder-tasunak duenez edo ez duenez maitemintzeari kalterik egiten eztabaidan isildu ginen, ezen hor bakoitzaren barreneko ate itxia jotzen baikenuen. Gure igande arratseko andreen azken tertulian, Belen mestizoak muzinez iharduki zigun beti kriolloen trufaz genbiltzala, gu baino gehiago direla, argiago, jakintsuago eta trebeago; badakitela behar diren eskolak egiten ingienari, abokatu edo sendagile izateko, eta guk *choloek* ez.

Gurekin bazegoen Lupe kriollo onbeharrak iharduki zion, geuk, indigena askok bagenekiena, kriolloak estatuaren buruzagi baldin baziren, beren asabak indarrez indigenen aberastasunez jabetu zirelako eta beste herriko biztanleak esklabo jarriz edo ekarriz.

Lupek zion independentziarekin Espainiako erregearen ordezkarietako agintea kendu bazieten, kriollo aberatsek Espainiakoen lekuak hartu. Aise zela ikasketa handiak Europako edo Ipar Ameriketako unibertsitateetan egitea, besteen izerdiaren bizkar eta indigenei ebatzi ondarekin. Orduetik, gure andre bilerak serioago izan genituen, politika ideia handiak utzirik gure biziera hobetzeaz, bizitzeko errezeta trukatzeari, herriaren egoeraz jardutea gertatzen baitzitzaigun.

Ehun dendan, ordea, tertulietan baino nire denbora ematenago nuen. Hasieran, hain lan gutxi zelarik, pixkanaka, nire iradokizunez, eta nagusiak eragoz-

penik ipini gabe, oihal arrunten ordez, etxerako ehun saltzen jarri nintzen mahai oihalak eta dafailak, esku-zapi eta sudur zapi, zika zapi eta beste; beste jende motak ezagutu nituen, xumeagoak, txaloagoak eta ematen nizkien aholkuei kasu egiten zutenak. Azkenean nihaur Quitoraino joan nintzen erospen sare baten sortzeko.

Behin, ausartu nintzaion kalean bizardun bati galdetzen bere kamisetan agertzen zen lehoi antzeko pertsonaia kantaria zenez. Erdi barrez, erdi haserrez erantzun zidan noiztik mendi zokotik irten nintzen ez jakiteko Che Guevararen irudia zela. Geroago, Quitora oihal erostera joanda eskaini zidaten kartoia Che Guevararen kamisetekin; saltzeko baldintzetan hartu nituen eta bigarren astean erreserba agortu zela haute-man: turistek zituzten erosten eta azkena saldu ostean baten bat etorri zitzaidan lagun batek aholkaturik. Bai banuen oraindik salerospenetan ikasteko.

Lanak ordu meta eskaturik ere, ingelesezko gau eskola batera joatea erabaki nuen. Ahoskera, oguztea gaitz zitzaidan ezen jadanik arrotz zitzaidan gaztelanien ahaztu behar bainuen. Lehen egunetan indigenari ohi zitzaizkien susmo begiradak eduki nituen, baina, gaitzespentxo baten ondotik, batzuk bekaitz izan ziren ikaskide hoberenek bezainbeste nekielako.

Egonarri eta adeitasun handiz irakasten zigun Phillip estatubatuar beltzaranak. Gizon gazte txairo, adeitsua zen, amarru gabe berba egiten zekiana. Nire bizitzan garrantzi zerbait edukiko duen adiskide horrez, zer edo zer konta dezadan. Arbasoek utzi etxe batean aberats gisa bizi izanik ere, gurasoak estatubatuar bilakatu ziren. Halere, horrelako jatorria izanik,

Alvarez izena bitxi zitzaidan, alabaina, ingelesa ondo zekien eta erdikriolloen artean bakanki gertatzen dena, ikasi kitxuaz poliki hitz egiten. Ingelesezko ikasketekin lagunarteko andre bilerak utzi nituen. Lagunek ez zidaten deusik iruzkindu baina, noizean behin, irriño batekin narritatzen ninduten, mutil bat nire bizitzan sartu balitz bezalako ustekizunez edo? Ez zen, ordea, begiz jo nuen lehen mutila. Dena ezin aipa.

Hilean behin, neba gazteena ikusten nuen. Larunbateko txerri azokara zetorren. Pidru, bere Ikastetxea amaitzen ari zen. Nekez kontatzen zizkidan etxeko gauzak. Bera elektrikari izan gura zuen eta ez etxean egon. Gure etxea huster a zihoan eta susmoa nuen neba gazteena mendietatik urrutira hegaldatu ko zitzai gula.

Neronek ere, gurasoak mendian utzi nituen; hiri an lanaren bidez igortzen nien irabazien erdiekin hobe ki biziko zirelakoan, jakin gabe dirua haina lagun tasuna eta maitasuna ezinbesteko direla. Amak ikusi ninduen hirira irabaztera joaten eta isilik egon. Egun batez alferretan itxarongo zuen noiz harengana itzuliko nintzen.

Baziren lauzpabost hilabete ingeles ikasketak jarraitzen nituela eta Phillip nire adiskide horrek lehen interprete lana idoro zidan; ipar amerikar bat ezagutara zi dan. Ez zen gure ikasgelakoa. Turista edo zerbait horrelako: menditarra eta indigena nintzelako, nirekin lan egin nahi zuen. Gizona ikusi eta horrelako uzkur tasun zertxobait piztu zitzaidan. Halere, harrokeriaz eta nire handinahia berotzen zuelako, gringoari baietz erantzun nion.

Phillip adiskide berriak aurretik abisua eman zidan. Ez zen izugarri beroegia izan. Ez nuela izpirik gal-

duko, gringoak ordainduko zidala. Gizon txukun jantzi gorbatadun horretan ez zuela konfiantza handirik. Ez zuen hori bekaitzez erran, ezen niri ere arrano begi gogor horiek eta ezpain mehe tinko estutu horiek ez ninduten erakartzen: zirkinak eta erremuskadak beti izan zaizkit seinale egokienak. Zer zitekeen zelataria? Merkataria? Ala kontrabando zerbaiten eraikitzailea? Phillipek aholkatu zidan berri emaile erantzuleei aurkezpen guztietan, aurrenik galderekin batean, gringo horren 'sabel minak' gure hizkuntzan laburzki adieraz nitzan

Ez zen lehen aldia kanpotar begi luzeak gure herri-  
tik zebiltzana, eta horrek, askoren alderantziz, ez zuen jakintza xede zehatzik erakusten. Ipar amerikar gizon horrek, gringo horrek, "indioen" mundua ezagutu nahi zuen. "Indio" hitza ez zitzaidan atseginegi hainbat irai-  
nek zikindu baitzuten. Ohartu nintzen beste andre askoren legean indigena hitza nahiago genuela, gu baiki-  
nen benetako estatu honetako lehengo nazioak.

Nolanahi, gurasoek irakatsi zidaten horrelako begiluze bizkar okerrak gure kaltetan bete lezaketela beren jakin mina. Laster jabetu nintzen ordainduko zidan lan horretan ez zela gure geografiaz eta bizieraz larregi arduratzen; mintzaira dela-eta zer edo zer jakin gura zuen zenbateraino generabilen gure hizkuntza. Nagusiari denda uzteko baimena eskaturik, mendia-  
ren lehenbiziko bisita abiatu genuen. Gure beribilezko ibilaldian aurreko egitasmo eta asmo horiek ulerturik erabaki nuen gure herrixkara ez ginela joanen.

Lehenik, gure ibarretik urruti zegoen goi-mendi herri batera, gure nazioko abade baten ikustera eroan nuen. Dena entzun nuen, itzultzailea bainintzen, eta



itaun txit arrotz batzuei, abadeak ez zuen adierazpen zuzenik eman. Apaiz horrekin gehienbat herritarren moralaz mintzatu zen, bai eta mezan ibiltzen zirenez. Eliza bisitarazi zion abadeak eta herriaren historia aipatu; bazirudin historia zaharraz ez zela axolaten estatubatuarra, gaurko baserrietan politika egoeraz eta giroaz bai eta hor franko trebeki azaldu zion apaizak.

Apika, ez zitzaizkion gure ipar amerikarrari erantzunak atsegin izan eta agintari bat ezagutu nahi zuela adierazi zidan. Nik goi agintari bat ikusi nahi zuenez eta hark ezetz herriko alkate bat. Biharamunean ez zen agertu edo bezperako ibilaldian ahal bezain gora eroan nuelako *soroche* mina zukeen edo eduki hozkirriarekin sudurretik zintza zeriokeen, ziurrago bere ikerlana nonbait garbitan ipintzen joan zitzaion.

Igandetan bakarrik begi luze harekin ibiliko nintzela erabaki nuen. Lana, lana, eta saltegia ezin utzi. Ondoko igandean mendiko lantegi batzuk ehundegiak-eta erakutsi nizkion bizibideak ez zitzaizkion larregi interesatu. Ondoren, esnetegia eta banana lehortegiak erakutsi genizkion. Ohar bat edo beste erran zuen estatubatuarrak: garbitasunaz etxeen ke usainaz eta jendeen jantziez. Industriarekin ez zirudin jakin minean. Eta isil-isil sartu ginen.

Bigarren igandean, lehendanik ezagutzen nuen *Cabildoko* alkate batekin geneukan hitzordua eta hor ere, gizonak herriko agintea nola antolatua zen, udalak eta alkateak benetan zer botere zeukaten, zer ziren herri arautegiak, zer *ayllu* sistema eta haren Biltzar demokratikoa, zer harreman zeukan administrazioarekin, luzaro galdetu zion. Indigena zenez, alkatea gure ohiko goganbeharrak eta atzerritarren pentsaera ezagutuz, bere erantzunak neurtu zituen.

Hirugarren igandean, hasieratik eskatu zidanez, meza entzutera joan ginen. Phillipek erranik banekien gizon horri iruzur egin behar geniola, ez edozein egun hautatuz, eliza hutsik aurki ez zezan, ezen urteko bizpalau jaiez kanpo, Santiago, Pazko, Mircidez eta Egu-berriz jendea mezetara joaten bazen, bestela anitz bakanago. Zer ordutan zen eta jende piloa izango zena, Inti Raymi ospakizuna baino lehen banekien Corpuseko meza entzutera etorriak eliza beteko zutena edo honelako elizkizun ederra erakutsiko.

Dohatsuki, Corpus Christi eguna gertatu zitzaigun, gure indigena katoliko jai ospetsuena. Bazirudin ez zitzaiola larregi gogoko hainbeste jende mezatan ikustea, ala jainkogabea zen bera? Katolikotasunaren eta Bibliaren inguruan niri eta apaizari galdera ezohikoak egin zizkigun. Jokoan sartuz, elezuriz adierazi nion bere kristau ezjakintasuna harrigarria zitzaigula.

Phillip adiskideak aldioro galdetzen zidan gizon hori zer kentekoa zen ulertzen nuenez eta haren zirkin eta muzinak ongi kontatzen nizkionean biek begi keinuka genbiltzan. Dagoeneko, bagenekien gringoak ez zuela merkataritza jakin beharra eta erlijioaren inguruko kezka horiek argituxe gintuzten. Beti sinesteak zirela eta esan zidan irakurri zuela jendeak erdi pagano zirela. Ihardetsi nion erdi-pagano izatea naturaren begirune sakratua baldin bada, bai. Hark zion izadia gizonaren zerbitzuan egon behar duela, ez alderantziz. Ulertu nuen ipar amerikar horrentzat izadiaren begirunea ez zela egokia eta nirekiko atxiki.

Azken igandean, gizona *kallawuaya* edo petrikilo batengana eroan nuen. Gure sinesteen gordatzailea ere baitzen. Atzerritarrekin ez zituen, sarritan, sinesteak

aipatzen. Behar den moldean, agurtu nuen *Yachaj Taita* izendatuz eta nongoa nintzen eta gringoak zer nahi zuen gure hizkuntzan adieraziz. Jadanik, zekialako gringoek nola menpetzen hasiak zitzaizkigun eta beren bizimodura behartu nahiz, zuhurki jokatu zen Antuñu Amaguaña.

Muzin egin zuen gringoak gure herri sendagileak jalgi zionean menditarrak katoliko zintzoak ginela eta sendatzeko ez genuela aztikeriarik, ez eta magia beltzik ere usatzen. Ez zuen Antuñuk bere aldarea zegoen gelara iragan ezen hor Inkaren garaiko eskultura batekin batean izadiaren osagai ugari ikusiko zituen: sumendietako harria eta sendabelarrak, ur ontzia eta alkohol ontzia, biziaren sinbolo eta erremedio diren kui biziak, llama umekia eta arrautzak.

Ez zion *kallawayak* aipatu, berak jendeek eskaturik gutxitan egiten zuena: arrautza alkoholaz larruan pasatuz mina arrautzaren barruan biltzen saiatzen; *arrautzazko garbiketa* ondoren arrautza inarosten jakiteko barruratu zenez, hausten ere mina barruan sartuz kolore iluna hartu zuenez; ez eta *kuiarekin garbiketa* kui batekin gorputza igurtziz animalia hil arte, jendearen mina animaliarra joan zedin, bakarrik jendeek eskatzen zutenean.

Aurpegi txarra eman zion modernista hark adierazi zionean bazirela sendabelarrekin edo zurien erremedioekin, izadiak eman gaitzak osatzen zirenak; haatik, ongi begiratu balu, dendetan bagenituen, kanpotarrek berek Amazonako landareekin adelatu sendagailuak eta eurei buruzko liburuxkak.

Bestalde, Amaguañak gaitz batzuk arimarenak zirela, azpimarratu zion. Arimaren gaitzak aipatu zizkion

gringoari, jendeak ingurugiroarekin, ingurumenarekin, kosmosarekin galdu orekagatik datozenak, hots *sustoak*, beldurrak ematen dituen urdaileko eta hestetako mina, goitikak, beheitikoak eta sukar izerdiak; azken eritasun hau jende batek gizarte eta sineste arauak ez errespetatzetik letorkeena. Eta, jakina, arimaren gaitza denean senda daitekeela, sinesteak franko egiten baitu gaixoaren osatzean

Gringoak osteratu zion gaitz guztiak mikrobio eta kimika gaien desorekak sortzen zituela, arimak ez zuela deusik ikusteko. Antuñuk galdetu zion materialista zenez. Eta hura gorritu. Galdetu zion Amaguañak zergatik erien kemen eta adoreaz hitz egiten duten zuriek? Orduantxe estatubatuarrak bere nortasuna apur bat erakutsi zigun: bera bizitzaren moralaren aldeko sen horretan ez zuela sinesten, Biblian baino.

Gure gizonak, gure sinesteez galderak eginagatik, Amaguaña zuhurki jokatu zen. Amaguaña, Transitu andre bihoztoi, ospetsuaren leinuko ilobasoak erantzuten zion, ezin zuela argitu ez baitzen jendeen buruetan sartzen. Eta beti sendabelarrak eta senda errautsak aipatzen zizkion.

Drogarik erabiltzen zenez eta hark zinki ezetz. Zer gezurra sakatu genion, ezen gure *kallawayak* kontsulta baino lehen, gaixoari droga pitin bat irentsarazten zion, berak ere hartzen! Jakin balu gaixoak eskatzen bazuen eriauren aurpegira tabako kea putz egiten ziola gure sendatzaileak, baita ahoan eduki alkohola halaber begitartera putz egiten, basatitzat hartuko gintuen eta...

Otoitzik erabiltzen zuenez jendeen sendatzeko? Hark berak, jainkoari eta sainduei otoitz egiten ziela

eta Mircideko birjinaren irudia ekarri zion. Eta jendeei eskatzen otoitz egitea? Hark ezetz, bakoitzak haren kontsultatik irtetea edo, elizan otoitz egin zezaketela. Ez ziela debeketzen.

Gringoak sorginkeriaz eta magia beltzaz galdetu zion, eta erantzun zion ezin zuela bata eta bestea sendatzaile batek egin. Entzuna zuela eta gaixoei iradokitzen, ez larregi sinestea *supay* edo deabruengan, ez eta gorputzean barneratu gaitz batzuk, eskuz ateratzen zituztela aldarrikatzen zutenak. Estaturatuak gizon horrek, nahi zuena ez baitzuen entzuten, aspertu zen, esanaz ez al genekien *Progreso*arekin botiga biziki onak bazirela eta sendagile modernoak, eta nahi izanez geroz Ipar Amerikatik etorriko zitzaizkigula bizia eta bizitza hobetzera.

Antuñuk OMS, Munduko Sendagileen Erakundeak eman diploma erakutsi zion eta hor medikuek sendatzaile naturista zela eta ez *brujo*, idatzia zen. Gaineratu zuen zurien erremedio ugariegi erabiltzeak Estatu Batuetan eta European jendeak drogatzen zituztela eta bazekiela ere, bera baino serioago ez ziren sendagile batzuek, uraren memoria aipatuz urdun pastillak saltzen zituztela. Jakinaren gainean nengoen, gringo begiluze hori hemendik paseatu baino lehen, Munduko Medikuek zer lan zuten gure Sangayko aurkintzan jakin zuela.

Gure merkatuak ongi aztertu balitu harridura handiagoak edukiko zituen ezen merkatu guztietan bazen senda belarrekin batean, metalezko kutunak saltzen zituen norbait. Senda belar eta aspirinarekin batean llamaren fetu lehortuak, iguana hutsalduak, landare erroekin batean sumenditik berriki atera harriak salgai.

Hautatu nuen txamanak bazekien lar ondo gringoen jokabide nagusia zela gure herriaren giderrak eskuetan edukitzea; Amazonan ipar amerikarrek obratu zituztenak, amamak kontatu zizkidanak gogoratu zitzaizkidan, nola Alama nazioa dominikar “aurrera-koiien” eskuetara igaro zen, bai eta Napo ibarretakoak eskupe latz batean amerikar kristau berri batzuen eskuetan gogorki bizi zirenak. Azken urteetan ebanjelikoak dolarrekin etorritz Amazonako Napo tribu batzuez jabetu ondoren, beltz eta mestizo jendeak beren sarean biltzen aritzen ziren.

Gringoak gure sendagile sakratuaren erantzunak kopiatzen zituelarik gogotik igarotzen zitzaizkidan aipatuko ez genizkionak. Amama Amazonan egon zenetik *wayrashka* helgaitz heren gaiztoz gaixotu zenekoa baita ikusi nuela amona kinkina hosto eta azal infusioa edaten, kontatu baitzidan hango herri oihantsu eta bustietan egon zenean eltxoek helgaitza eman ziotela. Amamak, bestalde, bere helgaitz herenaren ematzeko, goiz guztiz, berak sortu otoitza egiten zion, erdi eske erdi mehatxuzko erregua eta zeini? *Mircid* birjinari egiten, auzoko andre bat izan balitz moduan.

Amamak, behin edo beste, Wamoteko merkatuan mestizo bati erosi narrastarien osagaiekin adelatu botika erabili zuela aitortu zidan. Aitak aldiz, *kukatik* kanpo tabako erretzea zerabilen, soilik sendagailu gisa: ez zitzaizkidan tabako ke horik batere atsegin gure mendietan ia inor gutxik erretzen zuelako; etxekandretu ondoren, jasangaitzago. Guretzat gorde dut, gure jakituria eta berdin egin du egiazko *Yachaj tayta*, den Antuñu Amaguañak. Edonola, etxeko guztiak herri sendagile horren eskutik pasatu ginen, hezur hautsien

zuzentzen eta hausturaren inguruan zotzak, egur ezpallak ipintzen trebea zelako.

Philliperi egunekoak kontatzen nizkionean erakusten nuen zuhurtziaz oker zoratua edo, neska argia nintzela esaten zidan, nik, ordea, banekizkien nire mugak. Phillip ingelesezko irakasleak aholkatu zidan azkeneraino gure iruzurak jarrai zezan: gizon horrek ez zuen menditarren bizitzaz sekreturik jakin behar. Azkeneraino iraun nuen. Gizon hark lana ordaindu zidan. Esan zidan ez zuela batere ulertu zer bizi modu generabilen. Nolabait, irakurri zituenenatarik bere ikuskera ez zitzaiola batere aldatu, eta gure herria salbaiakeriatik ateratzeko lan izango zela.

Bera joan eta Phillipek gogoratu zidan, arin susmoa hartu zuela iparamerikar kristau gogorretako ebanjelikoa edo pentakotista zitekeela, gure herritik amerindiarren eta mestizoen sinesteak ezabatzeratortria eta Phillipek uste izan zuen egokia izanen nintzela horrelako gizon batek, gaingiroki eta ahal bezain gutti jakin zezan. Bestalde, abantaila nuen ingeles txit bakun eta ulergarrian berba egiten nekiela.

Lehen esperientzia horrek, une batean, harropuztegia utzi ninduen. Sasi turista hori atzipetzeak Phillip eta biok hurbildu gintuen. Adiskide berriarekin samurberatasuna, baretasuna eta adore berria hartu nuen. Gizonezkoengan halako ezezko aihertxipia eduki nuelarik nire gogoaz jabetuxe al zen Phillip? Nire goizeko izarra izanen al zen?

Ahaztu egiten zitzaidan hanpuruskeriaz, eskola adinon laburra neukala eta guraso txiroen alaba nintzela. Adiskidearengandik geroago eta gertuago nengoen. Phillip ez zen beste indigena galai lotsati hura lez

dendako erakusleihoaren atzean egoile, ez eta karrikan jarraikitzailea: bi bider oihal saltokian sartu zitzaidan bisita erosketa baten egitera. Lotsatuxe nintzen nire lana zein zen ikusi zuelako bera unibertsitatetik jalgia baitzen.

Azkenean, Phillipek, behin, igande arratsez egurastan aurkitu ninduen. Hitz aspertu anitz eduki genuen, bataz eta besteaz, gutaz ez. Ez zidan berriz eskatu elkar ikus genezan. Aste berean *runasimiz* idatzi nire lehenbiziko eskutitza hartu nuen. Gutun horretan, hitzen artetik, adierazten zidan gogoz ukitu nuela eta hurrengo igandean ordu bitan, plaza nagusiko arkupetan itxarongo ninduela. Larregi zitzaidan laguntasunetik asago joatea, honelako gizon baten maila ez nuelako.

Baina igandea heldu. Han zegoen eta ni ere. Eskua eman ondoren begirutzen hasi zitzaidan eta ni, betiko erabateko neska latza:

- Zer du nire aurpegiak? Besteak irudi bi begi, bi belarri, sudur bat eta aho bat.
- Bai Nina, bai, halere zure hiru ezaugarri garrantzitsuk ukitzen naute. Zure irri goxoak. Zure irribarre sanoak eta latza izan nahi zarenean ere, zure ahotsak.
- Lausengu gehiegi *india gordita* batentzat...
- Ez, ez, ez zara *india gorda*. Ez duzu zure gorputzaz ahalkerik eduki behar. Ez zara neska potzolo anitzen antzekoa. Ez duzu aurpegi zapaldu bat.
- Gizona! azalak ez dik barrena erakusten. Gizona, kitxua ikastaroetan ez al duk ikasi lilura ez dela gure hitza.



- Bai azalak zerbait salatzen du, Nina. Begi horietan zure zintzotasuna eta zure gotortasuna irakurtzen ditut.
- Aski! aski! Hik ez al zekik eskola laburrekoa naizela, mendi ayllu batekoa.
- Neska, klasetan ingelesez hitz egitean, gogoaren aberasteko nahia dunala ohartu naun; samurtasunarekin, ondasunarekin gaur egundik hire oinarrizko jakituria erraz aberastuko dela, uste dinat.
- Phillip, bazekiat nire mugak zein diren eta nire lekua non dagoen, ez nezala bultza irudipen hutsezko asmoetara. Nirekin ez duk deusik ikasiko, eta nirekin hire bizitza beheratuko baiduk ez duk.

Ondotik, entzundakoez ahalketuak solasgaia aldatu genuen; nik laneko arazoak aipatzen eta hark politikaren kritika aztertzen eman. Bereizi ginenean, nire irri goxoena eskaini nion. Ez nion nire zalantza eta zirkinekin minik eman nahi. Bera gurbila izan zen, adeitsua. Ez ninduen osabaren etxeraino jarraitu eta nire kolkorako eskertu nion.

Adiskide ginen, gogaide ere bai. Behin edo beste, ikasketara joateko ordez zinemara joan ginen; bane-kien beste munduen ezagutzeko bidea zela; bakarrik joaten ez nintzen atrebitu. Ipar Amerikar pelikula ikuskizun aurkeztu zutenean, begiratu nahi nuela esan nion, eta berak, baietz erran-eta, ondoren, gizar-te haren akatsak erakutsi zizkidan. Phillip, hasi zitzaidan azaltzen gringoen biziera: euren gogoan norberak bere bidea behar lukeela egin lagun hurkoaren buru gainetik ibilirik ere.

Bestalde, Phillipek bere erdi naziokoek, Ekuadorren egiten zituzten kalteak eta ondotik sortu miseria gorria hiri handiagotan jendeen sumina berotzen zela gogoratu zidan. Alabaina, ez nuen pentsatu, aspaldixko indigenak bat egiten hasiak ginelarik ere benetako amorrua gaudituko zela, matxinadarik hasiko zenik.

Haatik, irakurtzen hasia nintzelako ez nuen sines-ten gringo guztiak erabat gaizto zirenik eta bigarren gerratean askatasunaren alde jarri zirela esan nion adiskideari, hark ihardetsi beren buruak salbatzeko borrokatu zirela. Eta ehun milaka gizon horretarako hil zirela eta hortik zetorrela Estatu Batuen handitasuna oroitarazi nion. Hark zion ezetz, barne gerraterik ez dutelako izan eta inperiokeria gogoia dutelako hala ibili zirela; askatzaile izanak beste nonbait menperatzaile izan daitezkeela, alegia Asiako Ekialde Hurbilean petrolioagatik daramaten politikan eta beren sabelak betetzeko gure Hego Amerikan lur hoberenak “bananeratzen” eta petrolioa eskumenean edukiz. Handik urte batzuk, New Yorken bertan islamisten atentatuak txunditu behar zituen jainko bakarraren izenean ere Bushen politika aldatu gabe. Bai, gringoetan ere bazitezkeen onak, txarrak eta ardurabarikoak beste herrietan lez: ez dut uste eurenez gaiztoak direnik.

Bitartean, Phillip lagunarekin hasi nintzen Europako musiken entzuten, behin edo beste eliza batean edo hiriko antzokian; orkestrak agertzen zirelako opera bat ere *Traviata*, laburtua. Noski, gure hiriko fanfarreak bagenituen: Inauterietan kriollo musika eta soldadu soinuak jotzen zituzten herri txarangakoak, igandero. Berehalaxe, hobetsi nituen militar ez ziren biolinak eta klarineten doinu eta azali aberatsak, alemanak omen

zirenak. Aleman musikak gogorazi zidan nola 1916. urtean amamak aleman bati gure hizkuntzari buruz erantzun zion.

Ez nintzen Phillip adiskidearen etxean, haren etxe handian sartu nahi izan eta ez ninduen gonbidatu ere. Bere magnetofono zaharra prestatu zidan eta nire gelako bakartasunean doinu horiei egokitzen ikasi nuen, halatan ere gustatzenago zitzaidan tangoak entzutea nekatuegi nintzenean.

Riobambako museotan edo *Banco Centrale*koan, halaber *Escuela Politécnica*n gure arbaso indigenen obra zenbait adibidez terrakotak eta harrizko irudiak, ikusi nituen. Monasterio de la Concepción delakoan elizako zilar eta urrezko ontziek begiak bete zizkidaten edereez. Abadeen soinekoek eta gure mendietako eliza irudiek ez zidaten utzi lehenago horrelako zirrarak. Nire lagunaren ustez, kristauak baino lehenagoko, denbora zaharretako, harrian zizelatu eta urrean obratu ederra goak Quiton omen ziren. Zer kultura esparru aberatsa izan zen gure arbaso indigenena! Baina orain...

Riobamban bertan, gaurko eguneroko jantzi, lanabes, aparailuak ondo aurkezturik beren edertasuna erakusten zuten. Margolan eta harri zizel lanen begiratzen, so egiten, halaber ikusten ikasi nuen, ia bakarririk. Phillipi aitortzen nion geuk indigenok ez genuela horrelako gauza ederrik egiten, hark, aldiz, geuk brontzezko larrudun indigenek geure edergintzak izan genituela. Gure kultura zaharra ezagutarazteko igandebatez, Quitoraino autobusean eroan ninduen eta gure antzinakoek zer gizairudi biziak egiten zituzten, umeak eta zaharrak, langileak harrian landuak; gai al ginen, ordea, orain horrenbesteren egiteko ala antzinako amets lainoetan egon behar genuen?

Quiton, Oswaldo Guayasamín, gure artista indigena, sormena gure erroetan harturik, nazioartean ospea jaso zuen margolaria ezagutarazi zidan. *La Capilla del hombre* gaurko indigena artisten edergintza gaurkideak, erakustegitzat eraikiarazten jarduten zuen. Orduan, *Wuaikainaneko* (negarbidetako) ehun margo lanetarik batzuk ikusi genituen, baita *El tiempo de la Ira* delako berrehunetarik zenbait. Phillipek gaineratu zidan nola kritika estetista batzuk, miseriak eta itxuragabetu indigenak margotzen zituelako, haren arteari *feísmo* izena ipini zioten.

Orduan ulertu nuen irudiekin batean, zergatik hain Che Guevarazale diren gazteak: komunista borrokatu zen eta politikak ez zuen usteldu, bere bizitza eman zuen oraindik kolonialismoan bizi ziren kubatarrentzat eta kolonbiarrentzat “martirio” hil.

Guayasaminek margotu Che eta Fidel Castroren irudi ederra ikusi genuen eta adiskideari esan nion

- Che lehoi aurpegi eta kima ederra zuen eta Fidelek azeri zahar burua.
- Borrokalari handienak din bizia galdu.
- Bai Phillip, menditarra naizenez nire ustez Kubako lur biluzietan Che kaletarrari borrokatzea errazago izan zitzaion, ez hala Kolonbiako oihan trinkoen hil sarean.
- Arrazoi dun baina Cheak Kuban lortu zuena guk indigenok Ekuadorren erdietsi genezake
- Ez dut sinestenegi horretan eta kontatu diot zer harreman okerrak izan genituen indigenok Sendero Luminosoko gerilleroekin.

Beste behin, Phillipekin Quitora itzuli ginen, ez zela indigena edergintzan inolako etenik izan erakutsi

nahi zidan. Eliza eta komentuetan gure jendeen XVII. eta XVIII. mendeko ederlanak ikusten ibili ginen. Bere bizitza nahiko laburrean, Miguel Vizuete de Santiago indigenak Quitoko eskola sortu zuen eta Quitoko elizak bere margolanez bete; ederrenak San Agustin izeneko komentuan santu horren bizitza erakusten dutenak ikusi, Miguelen arreba Isabel indigena Amerika guztietako andre margolari handiena izan zenaren lan bakan batzuk ere bai.

Hamazortzigarren mendean Manuel Chili Kaspi-kara indigena, Quitoko eskolako zizelkari handiena izan zenaren, Hiriko katedralean ikusi genuen “Kristoren gurutzetik jaitsiera”, eta San Francisco komentuan hamabi apostoluen estatuak. Azken komentu hori erakustegi bilakatu da eta hor Santiagotarren eta Chilirren obra eta haren dizipulu indigenek margotu irudi anitz ikusi genuen. Isabel Vizuete de Santiago, eta de Gorivaren ederlanak *Museo Colonial* delakoan miretsi genituen eta indigena andreak jadanik lehen lerroan jartzen genekiela, erdua zen Isabela.

Phillipekin sinesteez bakan hitz egiten genuen. Behin gure sinesteez galdera zintzoak egin zizkidan; ezagutza, ordea, amarena baino motzago nuen: Lurra eta Eguzkia jainko, sumendiak pertsona eta *apu*, *arupu* eta *wanbra hirusez* ikasi ipuin batzuk kontatu nizkion; uste dut liburuetan ikasirik nik baino gehiago eta hobeki zekizkiala. Hain zuzen ezagutzen ez nuen sineste bat aipatu zidan Peruko muga horretan eta Perun bertan, kitxuar jendearen erlijio txikia.

“Jainko aitaren aginduz, Adamevak Lehenbiziko gizakiak, sortu omen zituen. Lehen gizakiek harriei aginduz eraikuntza itzelak eraiki zituzten. Adamevak,

haien harrokeria ikusirik arraza galarazi zuen. Adamevak, orduan, Maria Birjina izorra jarri zuen eta hark gizon berriak sortu hala-hala jainko bakar berria Aita Manuel edo Teete Mañuko, urtero Ostiral Santuz hiltzen dena eta larunbatean pizten”.

Phillipek bukatu ondoren zirkin bat egin nuen. Zer nahaskeria da hau! Eta hark ez da bestea baino nahasiago, bakarrik indigena ikuspegia kontutan hartu behar genukeena. Eta erantzun nion, kreaioari buruzko sineste guztiak nola egia daitezke? Nola adibidez erran nezake oroitzen naiz amaren sabelean bizi nuena eta nola jaio nintzen? Eta hau da egiten duguna gure hipotesi eta sinesteekin. Orduan, Phillipek ere barre egin zuen.

Berriro, serio jarria irakatsi zidan nola kristau hirutasunaz kanpo, gure jainko eta jainkosa ohiak lurpera eta urpera igorri ziren. Hala *Khakya* hirutasuna, ekaitz jainkoak; trumoia, harria, eta tximista lurpetik batzuetan ateratzen zirenak. Orobat zernahi *apu* bazen lurpean, *hirka*, *wamani*, *machu*, *achachila*, *uywiri*. *Ñaupamachuak* aldiz arbaso paganoen arimak ziren. Bestalde *ukhupachan* lurpean gixon txiki txikiak baziren jendeak laguntzen zituztenak ehundegian, nekazaritzan.

Adiskideari esan nion entzuna nuela paganoen *hintil* arbaso urrunenen denbora apokalipsi batek desegin zuela eta gurea berdin desagertuko zela, izaki hegalduen zuhaitz fruta jaleei lekua utziz.

Zer atsegina Phillipekin honela ibiltzea! Irakasle baino gehiago erakuslea zen. Amamaren irudia gogoraturaz, Phillip haize epela izan nuen eta irautea nahi nuelako ez bakarrik gogoz. Ez nuen onartuko harekin gorputzez bat egitea, ezkontzen ez baginen. Hitzak

garbitu behar gintuen. Berehala, eskatu nion haren gurasoen ezagutzea. Hain zuzen urte hartan Hego Amerikara etorri behar zuten. Poz handia izan nuen laster Riobamban ikusiko nituelako. Halere, Phillip bisita horretaz kezkatu zegoen. Galdeturik, ihardetsi zidan gurasoek, benetako lanbide finkorik ez zuelako dagoeneko agirika ibili zitzaizkiola eta errieta egingo ziotela.

Eguna eta hitzordua etorri ziren. Riobambako hotel hoberenean igande goizez hamarretan geneukan hitzordua. Goizago joan nintzen, sartu eta jakinarazi Phillip Alvarez Smith jaunarekin hitzordua neukala. Zoko batean jarri nintzen, jakin gabe haren gurasoak ziren gizon eta emakumea atzeko jarlekuan zeudela. Ideia on eta jakingarria. Ulertu nuen andreak herria ez zuela atseginegi. Ondotik entzun nituenak izoztu ninduten:

- Beraz nire seme Phillip katoliko batekin dabil.
- Uste duzu katolikoa dela?
- Ez da fidatzeko eta gainera indioa omen da. Gure odolean gure leinuan ez da beste mutur ilun arrazakorik izango, ez eta ere onartuko, zion emazteak.

Bihotzean zimiko batekin emeki zutitu nintzen. Zerbitzariak ohartu gabe kanpora irten. Kanean Phillip goibel topatu nuen.

- Ez esan, bazekiat hire gurasoek nitaz zer iritzi duten, entzun baitiet. Ez nauk hiretzat duin. Sendian ez ditek mutur beltzaranik nahi. Hoa, gurasoengana gaztiga iezaiek bakean utziko haudala! Orobat zait.

Ez nuen haren besarkada onartu, hizketa eten eta joan nintzen. Bai, amorrua bihotzean, alde egin nuen. Sentiberakerian, samintasunean amiltzea ez dut ikasi. Lokarri mehea etenik, amorru hutsa, edukiko diot. Hiru hilabetez ez nuen ingeles klaseetan aurpegia erakutsi, eta beranduago itzuli nintzenean Phillip ez zegoen, ez orduan ez eta gero. Duintasunez ez nien galdetu nora joan zen.

Eta joan den hilean, nire antzinako bizitza arruntera itzuli nintzen. Phillipekin gizarteaz eta kulturaz ikasiak baliatzen zitzaizkidan. Udal liburutegian antzinako edergintzaz liburuak aurkitu nituen eta arratseko ireki orduetan, ordubete egoten nintzen haien irensten. Ez nintzen bakarrik zinera joan nahi.

Halako batean, antzokiko kontzertu batera joan nintzen. Txartel saltzaileak galdetu zidan nire buruzagiren batentzat txartela erosten nuenez haren deitura eman niezaion. Iharduki nion nire buruaren nagusia ni nintzela Nina Waita Kuji. Pentsa *india* bat bakarrik, kontzertuan! Begiradak gorabehera erromantiko pianista baten entzutera joan nintzen.

Ez nuen Phillip zeharo ahaztu eta hona non den da itxi berrian, zerratu berrian, norbait atea jotzen eta hots egiten.

— Hi haiza?

— Bai ni naun.

— Aura! Hi!

Pidru neba gaztearen ahotsa zen. Urduri zirudín. Horra hor, ireki eta sarrarazi nuen eta nondik heldu zen galdetu:

— *Maimanta shamungu?*



- *Wayakillamanta*
- Neska, egun batzuetarako zuen artean hartuko nauzue?
- Baina zer gertatu zaik?
- Wayakillan ezin bizia.

Tuñu zena etxerakogaia izan zenez, Pidru gaztea ugazaba baten etxera, elektrikari jakin beharrak ikasten ibilia zen; geroxeago handik Quitora larrukiak lantzen zituen fabrika batera; han zegoela, aurreztu diru zati batekin, automobil mota guztien maneiitzen ikasi zuen; tamalez larruki lantegia ugazabaren heriotzarekin zerratu zen eta neba lanik gabe geratu. Bane-kien haren berri, Wayakileran lan bila joan zen egunetik ez bainuen lehen bezainbeste ikusten. Quiton zegoeneino bisitatzen ninduen, marakudia, ahukate eta mango opari ekartzen.

Guayaquilan Hiri erdia eta Malecón berritua zuten. Ahoa zabalik kaia begiesten egon ohi zen neba. Pelikuletako, ametsezko hiria zitzaion besteen “Guayaquil” hori. Nola nahi ere, hiri nagusia baino mirestenago zuen itsas portu handia. Portuan garabi eta gindaxak *containerak* altxatzen, gora eta behera, kamioiak karga eta deskarga. Hango jarduera bizia!

“Bazekin Kitutik Wayakileraino garraioa egiten duen kamioi enpresan sartu nintzela; elektrikari baino maizago kamioilari nindunan. Baliatu zitzaidanan Kitun kamioi gidatzen ikasi izana.

“Nonbait lo egin behar eta portutik iparraldean dagoen auzune txirora joan nindunan. Han mirespena galdu ninan. Lagunek abisatu ninditenan leku arriskutsua zela, *Guasmo* baten auzoan morokildegia zela.

Diru eskasarekin pentsio antzeko etxe zahar batean ura zeukan logela hartu ninan.

“Auzunean edozein langabetu, fardel, onbehar zahar bai eta trafikanteak bazebiltzanan eta eskeko batzuk ere bai. Ez nindunan ahaide handikoa beste leku batean bizitzeko eta usain okaztagarriak, karrika zikinak eraman behar. Bigarren egunean aurkeztu zitzaizkidan kera estrainioko gizon zatar mutiria, txanoa buruan: *“Aquí en mi barrio se debe pagar el impuesto de la calle”*.

“Antzeman nionan *pendejo* hori nor zitekeen. Galdetu nionan nongo bulegoan ordaintzen zen zerga hori eta hark berari hilean 10.000 sucre edo hogeit hamar dolar. Ihardetsi nionan, gaur egundik nire lanean ordaindu gabea nintzela eta itxaron zezan.

“Ez nuen beste azalpenik eskatu, auzunean nork agintzen zuen jakiteko. Egun hartan arratsalde lanean itzuli nindunan. Neuzkan diruak, ehun sucre izan ezik, enpresako bulego batera eraman. Biharamunean, lanetik sartzean gela, dena itzulipurdikatua izan zen. Eta utzi nituen ehun sucreak hegan eginik joanak, neronekin oroitzapenez ekarri matxetea ere bai.

“Lana? Portuan garabiek edukiontziak gure kamioietara, jaisten zitiztenan. Kargatze horien artean nazkagarriena zunan, lantzean behin burdin xaflak altxatzean egiten zen zarata latza. Biltegiz biltegi, Mallecón delakotik, Guayas ibaiaren ertzetik, portura, Puerto Marítimora joan-etorri ibilera aspergarriak. Usainetik banekien noiz ongari zakuak, noiz bananak, noiz kafea neraman. Kaxa batzuk *galkor* eta besteak *hauskor* idatzia zuten. Fenwick katxarro altxagailu txikien gidariak oihuka zebiltzanan nolana gure kamioien atzetik edo aurretik pasatzen.

“Turistak kruzero ontzietara erdi jantzirik igotzen ikusten genitinan: Galapagos uhartetara bost egunetarako joan ohi zitunan eta haien gauzen kargatzeko tramankulu modernoak kirurgia lanabesak bezain sotilak bazitiztenan eta gure beharrik ez.

“Halako batean, geldirik nengoela, aditu ninan txanoduna esaten ez nezala kaleko zerga zorra ahantz. Banekinan ez nintzela, apika, hiri hartan egongo, larregizko ederresteak eta lanak, aurretik, hari lotu arren. Lagunei aipatu nien nire arazoa. Eurek ziotenan bizi nintzen auzunean polizia ezin zela ibili.

“Eta, orain, bada, zer egin? Une bat dudatu ondoren laneko lagun batek esan zidan enpresako bulegoen goiko aldetik logelak zeudela. Berak bat zeukanan. Gela txukun batean konketa bazunan eta sukaldaritza txikia egin zitekeen, eta komunak hiru gelen artean zeudenan.

“Ugazabarengana joan nindunan, logela eske. Bazunan hiru aste hor nengoela eta kamioilari izateaz gain, nire elektrikari gaitasunak erakutsi nizkien, horriengatik nagusiak onartu zinan gela hura har nezan, alogera txiki baten trukean lasaitasuna berreskuratu edo hobeki erran, birgogoratu ninan.

“Lana ez zen erraza; noiznahi, atsedean egunetan ere, indarraldia eskatzen zitzaidanean ez ninan ukatzen. Lagunak lasaiago zitunan eta ez zitenan beti begi onez ikusten nire “indio” erdotz eta perestu larderia. Bakea delarik gerlarik eza, ez dun egoera iraunkorra. Handik urtebete nire “zerga biltzailea” lanetik irtetean, bidean topatu ninan eta gizarte ongizate eta ongitasun moral predikua bota zidan:

- Beraz, mutil hirekoia haiz. Auzuneko elkartasuna ez zaik gustatu. Iaz, hiru aste iragan dituk gurekin, 8000 sukre zor didak.
- Auzuneko zuzendaritza ezagutu ondoren ematen dizkiat.
- *No sias bruto!* Bazekiat kamioi gidaria haizela. Niri ez badidak hilero 10.000 sukre ematen, hire trailer katxarroari edonoiz, istripua edo sua gertatuko zioke. Erraz su ematen bazekiat. Kamioi horri eta beste bati, erretzea ala zartatzea gerta lekiok.

Eztabaida horretan jarduten genuelarik, usu enpresara zetorren polizia aurkeztu zitzaigun:

- Hik, *bandido*, hemen ez duk inolaz agintzen eta kamioiari edo mutil horri zerbait gertatzen bazaio harrapatuko haugu. Hasteko, gaur agitua idatziko diat.

Urrundu zen mafia txikiko gizon hura txintik atera gabe. Poliziak lasaitu nahi izan zuen Pidru, horregaitio neba ez zen fida ez ote zuen mafioso horrek, Quitoraino ekarrerak egiten zituelako, han ere bere gisako gaizkigilea erabiliko mendekatzeko? Anaia txunditua egon zen, poliziak horrela dena entzunik ez baitzuen gaiztagina giltzapetu. Ez zuen horrelako hirizainen gerizapean bere burua segurtasunean sentitzen.

Eta gaur egun gurekin Pidru Riobamban dauka. Anaia apur baten Riobamban osaba baten etxean Guayaquileko anabatatik ihesi, atsedean hartzen egon zaigu, denbora berean lan bila. Pixkanaka jatekoaren maila irabazteko zelanbait elektrikari, behin behinoko lan txikietan ibili da ez ordea enpresa batekin: lan emaleak gure ezagunetakoak ziren.

Horrela ibiltzeak bere mugak ditu. Tuñu neba zaharra soldaduek hil zutelako, aitak Pidruri etxera itzultzea eskaini zion. Pidruk ihardetsi mendietan egoera aldatzen ez zen bitartean, ez zituela bere gorpuaz saiak hazi nahi. Ez zela nekazaritzan sartuz, ez biziko ez eta aberastuko. Uste dut horrek duela aita, lar sumindu. Behin, aitortu zidan gure anaiak Espainiara banoa, *Ala España karuman rini, ripusaq'ni-ni*.

Ezin zuen nebak luzaro iraun, matxinadatik estatu kolpera zebilen herri honetan eta European zegoen lehengusu bati idatzi zion jakiteko nola hara joan litekeen. Senitarteko hori Miranda del Arga en Navarra bizi zen. Erantzun zion zegoen enpresan ez zela jende beharrik, zabaldu berri lantegi batean, bai.

Beraz, bere ikasketak, gaitasun, lanlekuak aipatuz enpresari idatz ziezaion, bigarrenik lan kontratuaren epea edukitzeko, Espainiako estatura joateko hiru hilabeteko behin behineko bisatua eska zezan; hirugarrenik, bidaiatzeko, osabei bidaia ordaintzeko dirua jesan ziezaien. Hiru hilabete iraun zuen igurikitzeak. Luza-penak izanen zirela bazekien Pidruk, beranteste urduritasuna kentzeko gure mendi herrixkara itzuli zen.

Aita ez zitzaigun, behin ere, neba zaharren oinordezkoaren heriotzatik, ez eta seme gaztenaren etxean ez egoteko erabakitik, sendatu. Haren aurpegitik irri egiteko zirkinak ezabatu ziren eta mututu zen. Alde guztietarik, etenik, zaharkuldua, gauzaeza zenez geroz, zion hobe zuela Pacha Mamara itzultzea.

Duela bi aste, gaixorik zegoela, harengana joan nintzen eta jendeez zamatua zen, motelgarriak erdi hautsitako kamioi trakets batean, sorbalda argalduetarik lagunek eusten zutela, bideak inarrostean zuelarik,

Riobambara jaitsarazi genuen. Sendagileak esan zigun leuzemia baten azken aldartearekin zegoela. Minbizi horren azkenetan zegoela. Ez zela ezer egiterik. Aitak eskatu zuen etxera itzultzea. Gaizkiagotu zen. Ate aurrean jarri-eta eguzkiari begira bihotza gelditu zitzaion. Amari lagundu nion, aita biluzturik *jachimaishai* hilen garbiketa osoa egiten.

Ordudanik, eta ez zen ordu, aitarekin bakanki komunikatzeaz eta ez ongi ezagutzeaz benetako damua gogoan barruratu zitzaidan. Aitortu behar da askotan gizonak gizonekin dabiltzala eta andreak andreakin hizketan. Izan ere, aita, naharoki, etxean zen langiletan langileena, ez zen han hor *wayru* jokoan diru eralgitzen kurritu.

Zer edo zer oroipen badut ttipia nintzenean be-launetan hartu eta abesti batekin lokarazten ninduela. Geroxeago gustuko zuen konta natzaion eskola txikian ikasi nituenak. Itaun zorrotzak egiten zizkidan hitz gutxiko aitak eta eskolan irakasleari berresaten nizkion. Ardura, gu bion galderek ez zuten erantzunik; beranduago bizitzak itaun horiei erantzun zenbait emango zidan.

Aitaren lurrezko hilobia, dirudunen elizakoaren alderantziz doan da; besteak bezala gure mendixka tontor batean dagoena, urtero bisitatuko dut. Corpus/Pacha Mama bezperan berari on zizkion kinoa janaria platera batean eskainiko, halaber hilen egunean.

Ama, etxean *markantayta* eta *markanmamaren* ardurapean utzi nuen, etxearen eta lurraren etorkizunaz geroago erabakitzeke eta turkoaren tela eta oiha den-dara lanera itzuli nintzen.

Aitaz, diplomaren arazoa bazter utzita, beste zer-bait gomuta neukan. Harekin izan nuen honelako hiz-

keta hirira joan nintzenean eta hark bere *longo* gazte bizitza laburzki kontatu:

- Aita, zenbat urte zenituen kriolloen lurretara lanera joan zinenean?
- Hamabi urte eguzkia ikusten nuela eta goiko menditik urruneko lur aberatsak nabaritzen. Han jende zurien edo zuriagoen, behere hartan, egunak luze zitunan: hamar ordu egunero nagusiarentzat lanean, igande goiz bat atsedean eta ez beti. Ugazabak zioskunan “merkeago da hamar indio tonto edukitzea makina argi eta garestia baino”.
- Eta nola ordainduak zineten?
- Ordaindu, ordaindu! Ez aipa. Kontramaisu *pendejo* mestizoak zion lansariak jendea ustel-tzen duela. Berak kobratzen zuenez ustelen artean sartzekoa zela pentsatu arren, ez genionan ez murtik, ez zirkinik egiten. Hamasei urteekin lehen lansaria eduki ninan, hots *raya* txikia, nagusiaren dendan erosteko baldintzetan.
- Eta zuek hala bizitzea onartzen?
- Eta hik zer egin hezakeen? Nik, behintzat, hasieran etxetik ekarri arto *muti*, *tschachi* edo saslasaka indigena baten batekin trukatu.

Lagun bakan batzuk, Kolonbiatik ekarri kontrabando zerbaiten salerostean diru apur bat egiten zitenan, sekulan ugazabak atzematzen bazituen horretan, hala eskuratu kobrezko ontziekin haziendara itzultzean begietsiak baziren morroinek oratu eta astindu, jo eta erre-kara harri batekin botatzen zitiztenan. Dea-bruarekin ituna ez dun erraz apurtzen.

- Eta ez zineten bihurtzen?
- Gutarren artean traidoreak, salatariak bazituan, horregatik abadeek esaten zigutenan pazientzia har genezan, Inkarekin baino hobeki bizi ginela, eta beste munduan anitzez hobeki egongo ginela. Jakina, denak hezur huts.

Hauek dira nire Ikastetxeko idazkietan idoro ditudan aitarekin eduki solasak. Sarriago behar nukeen harekin mintzatu, gizona zkoek, ordea, beren generoko ez direnekin hitz egiten ba ote dakite? Neba Europara joan eta lau hilabeteren buruan jaso nuen kitxuaz idatzi Pidruren lehenbiziko gutuna

Miranda de Argatik  
Irailaren lehen egunean

Haurride maitea

*Ezin dinat esan, guk lurretik hain txiki ikusten ditugun hegazkin kedunera igotzeko larrialdia. Nola hegaldatuko den? Igo eta beherean gure mendiak hain txiki iruditzea. Madrileraino joanaldi ona egin dinat; handik landa, ez dun erraza izan lan-herria topatzea, lehenik, Pamplona hiritik joan naizelako, azkenean, Miranda herrira heldu nindunan. Jende jatorra dun hemen, halere gutaz beste biziera eta pentsaera dituen. Hemengo jendea ez dun beste espainolen antzekoa eta haiekin arazoak dituzten, ez, ordea, gure estatu tristean legez bi urtero matxinadatik diktadurara joateko.*

*Markuk, ardo upelategi batean lan egiten din. Bost lagun ditun aluminiozko ontzi itzel batzuetan egiten den ardoa kontrolatzen. Ardo hori arrunta dun, ez omen dun bikaina, hangoek diote "vino de batalla" dela. Ni, batik*



*bat hartu naiten kamioi zisterna batekin ardo garraiatzen ibiltzeko. Uste dinat, jadanik elektrikari ongi estimatua naizenez: egitekotan, kamioietako lan latz hori utziko dudala, mekaniko jartzeko.*

*Beste indigena gehienak Conservas Artesanas Marco baten lantegian lan egiten ditene eta beste zenbaitzuk nekazari lanetan jarduten. Bizitza apur bat garestia izan arren, dirua irabaz genezakenan.*

*Herrian ez gaitun galduak, ehun batez goiti gaitun Sangay eta Chimburazu herrikideak. Alkate andere sozialista ona dun gurekin eta indigena andre batzuk erakarri ditin. Alkate horrek jende guztiei dio, hargin, iturgin eta elektrikari zintzoenak, errimeenak eta langileenak garela. Baditun hemen jaio indigena umeak. Arauez ez ditizten gure ganorak galduko.*

*Amari idatzi zionat. Diru igorri zionat, berak urtean irabazten duena baino gehiago. Hurrengoan hiri, Western Union bidez dirua bidaliko dinat. Lagunek esan didate askoz ziurrago eta bizkorrago dela banku bide horrez. Ez zekinat ez, nire lana iraunkorra izango den eta ni egonkor. Oraintxe Arga ibaira arrantzura banoan. Besarkada handi bat. Pidru*

Neba gabe, Phillip gabe, eta osabez kanpo, berriz bakarrik bizi nintzen. Bi urte lasai igaro nituen, geroago eta lan gehiago eginaz, baina ikasiaz ere. Berriki, denda osteko gelan zerbait istripu gertatu da, konortea galdu gizona nagusiak eta beste batek atera dute. Turcoak bere beribila zuen eta hara irago dute gaitxoak. Handik landa nagusiari ez diot ezer galdetu, berak bai, gizonak nahigabeko ezongia izan zuela. Nik, erantzun:

— Jauna, mendiko indigena naiz. Ez dut ezer hauteman zuri kalte lezakeenik, ez dut ezer entzun. Betiko, indigena isila nauzu.

Horrelako kasuetan amamaren eta amaren aholku onurakorrez gogoratzen nintzen, ezen egunero ez zait ahaztu behar gaizki ikusia den arrazakoa naizena. Amak zion “oztopoak gertatuko zaizkin” eta ihardesten nion “iaioki borrokatuko nauzu”.

“Jakina, nagusia ez zen, areago, nirekin lasaiegi izan, nik, berriz antzinako gisa jarraitzen nuen. Behin, norbaitek galdetu zidan zergatik ez zen gehiago ugazabagertzen eta lana, astuna, nekagarria zitziola iharduki nion. Nagusiak, bere adinean, hobe zuela pausatatu. Gainera, fidantza handia ipini zidala nagusiak, bakarrik uzteraino. Hain zuzen, ez nekielarik, dendaren hondoko gelatik turko-siriarrak entzun ninduen eta goresmenak eman.

Ez nuen, agian, inoiz antzemango ate horren gibelean zer egiten zuten. Nire lana geroago eta irabazkorrago bilakatu zitzaidan, nagusiak lanean bakarrik utzi baininduen. Lau urteren buruan kudeatzaile eran ikasi nuen kontuen idazten, erosketa eta salketa gutunak idazten ere.

Dendan, nagusia geroago eta gutxiago nakusan, atzeko gelan edo kanpoan, maiz, egoten bide zen arren. Nolabait neska batek ikusi behar ez duen zer edo zer egiten al zuen. Lagunekin, agian. Bost axola zitzaidan, denda horretan, inolako lapurretarik gabe diru mordoa biltzen ari nintzen larunbat arratsetan eta igande goizetan Plaza de la Concepcióneko merkatuan, nire etekinerako josiak eta etxetik igorriak ondo saltzen nenbilen. Gurasoak lagundu arren, biltzen nuen

altxorra eder zitzaidan; ziur nago hiriko aberatsek horrelako kopuruaz barre karkarak egingo zituztela.

Geroago eta gehiago, gela debekatuan egoten zen nagusia. Irudi zuen, han, bere buruarekin hizketan jarduten zuela. Denborarekin konturatu nintzen saltegiak atzeko kalean eta gela horren heinean atea zeukala eta handik ikusten ez nituen lagunak sartzen zitzaizkiola. Usain arrotzak zetozen hortik: kalamua ala intsentsua? Jakinaren gainean nengoen, apaiz katolikoan moduan *turco* anitzek intsentsua zerabiltela etxetan ere, zergatik ez jendarteko gure saltoki gela horretan?

Zer gerta ere osabek galdetzen zidatenean, nola nengoen ehun-dendan, nik “orokorki ondo”, egun batez joan beharra gertatuko bazitzaidan ez zezan harridurarik eduki. Lehen diru osagarriak irabazten hasi nintzen baina zintzoki beti. Bakarrik dendariak botatu nahi zituen oihal pusken biltzen nekien, eta bidena-bar baliatzeko, josten ikasteko hiriaren leku batera gau ikasketetara ibili nintzen eta patch-work, adabaki lanak egiten saltzeko.

Atzo, gertaera hitsak, nahigabe latzak, ukitu gaitu. Goizetik, denda aurrean gizon batzuk barrandan, *chapak runa*, espiak, igarri ditut eta joan dira. Arratsaldeko laueta tiroak entzun dendaren atzeko gela sekretuan eta ziplo hirizain gizon armatuak saltegian sartu, eta bestaldetik, gela debekatuan, *alto* hitzak entzun ditut. Atezko ate sekretua danbadaz ireki.

Ezagutzen ez dudan gizon bat, eroa dirudiana, kanporatu. Anbulantzia orroaz etorri. Bi erizain gizonek nire nagusia, zauritu antzean, eroan. Ateak eta denda ixteko agindu didate poliziek. Jazoeraz ihardes-

teko, begitarte murruskako bi polizonteek girgiluz loturik, bultzaka beren beribilera eroan naute.

Zoritxarrez, Phillip ez dut izango sostengu; lagunduko ahal naute osaba indigenek? Eta haurriedez galdetzen badidate, ezin dut Pidruren aipamenik non eta ez den errateko Europara bizitzera joan dela, ez eta *ejerzituak* egotzi Tuñu neba zena aipatu. Goganbehar horiekin gaizki nago.

Bai, horrela bukatu behar zuen nagusiaren ezkutuko negozio horrek. Hala ere ez nekien zer esango nuen galdetzen bazidaten ezagutzen nuenez hiltzailea zirudindin gizona, eta ez bainekien gizonek zer egiten zuten gela hartan. Gaizkigileaz, hiltzaileaz zer edo zer jakin banu polizonteek bertan askatuko ninduten: betiko legez, ezer ez dakiana, errugabea da luzaroenik horien eskuetan egoten dena. Gezur esatea ere ez zitzaidan baliatuko egiaztatu eta gaizkiago egongo nintzelako.

Beren ziega txikira sartu ninduten eta han gogoeztatzen nengoela nagusia eta beste gizon hori *chapa* bartzuk zelatatuak zirela ulertu nuen; barrandan zeudenez geroz ez al zuten begietsi, dendatik ez nintzela irteten? Ez al zekiten ez nekiela deusik? Giltzapean ulertu nuen berriz, zenbat nahi hiritartua izan, haientzat emakume “indioa” nintzela, ezen ez zuten inoiz benetako kriollo txuri horietarik bati egingo, niri egin zizkidaten hitzezko eta gorputz oinazezko tormentuak.

Egin zizkidaten guztiak ez dute azaltzea merezi, muturreko eta zaflako ematea, iletik oratu narras erabiltzeko, ile txirikorda, adatsa moztu, jan gabe utzi, eta aitor nezan beti zutik utzi. Torturatzaileen aurpegi ankerrak ez ditut inoiz ahaztuko eta euren irkaitz eramanezinak min egiten zidatenean. Leporatu nahi zizkidatenak aitortu behar nizkien.

- Eta *rosca* burugogorra, tematia, hire nagusia hil duen gizon hori ez huen ezagutzen... jakina? (laugarren aldiko itauntzen).
- Ez nuen ezagutzen, ez.
- *Te vas a acatar dentro de tres días*. Pazientzia zeukanagu Hamar lagun gara galdera bera egingo dinagu. Ezagutzen huen, ezta?
- Inolaz ere, hori badakizue. Eskuen artean daukazuen hiltzaileari eta kaleko edozeini galdetu oihal eta jantzi saltzaile hutsa naizela... ez besterik!

Eta ez nekienez dendaren atzean zegoen gelan zer gertatzen zen? Zer jarduera zen? Nagusiak galarazi zidala hara sartzea eta giltzatua zela, errepikatu arren, noski, hara sartzen zirenak ikusi behar nituela Nik ezetz, izatekotan beste kalera ematen duen atetik sartuko zirela.

- Ez dinala gizon hori, behin ere, ikusi? (berriro)
- Zuen eskuen artean ikusi dudan hiltzaile gizon hori, nolabait ere, ez da guri oihal erostera etortzen zitzaigunetarik.
- Zer? Oihal erosleek aurpegi bereizia ditzen.

Gaua zutik eta jan gabe joan zitzaidan. Biharamun goizean:

- Indioaren egiten jarraituko duna?
- Ezin dizuet gezurrik kontatu eta ez duzue hori nahi, ez.

Bat batean polizia bat sartu da eta ahapetik jardun:

- Inguruko salerosleei galderak egin dizkinagu. Dendan beti bakarrrik hintzela diote, beraz nola

ez huen gizon hori sartzen ikusi ala gaizkigile horren kidea hintzen?

— Nagusiak kudeatzaile ezarri ninduen eta bakan ikusten nuen. Noizik behin, atzeko gelan zegoen, eta han bere egitekoak zituzkeen.

— Eta dendan bakarrik hengoenean non zegoen nagusia?

— Bere egoitza txuri tindatu hartan, lehen solairuan entzuten nuen ibiltzen edo debekatu gelan hizketan.

— Ez zen etxetik joaten?

— Bai. Batzuetan, kezka ez nendin, bere egitekoengatik Guayaquilera zihoala abisatzen ninduen

— Guayaquil? *Muy interesante!*

Guayaquil erran eta Pidru neba gogoratu zitzaidan; ondoan eduki banu ere ez ninduen eurrez lagunduko, osaben gisa: *indio si, ciudadano no*, diote berriki agertu *Legión Blancakoek*. Beste polizia bat sartu da esanaz hiltzailea drogazale amorratua zela.

— Eta atzeko dendan hartzen zen droga hori ez al huen hik saltzen?

— Zerbait baneki kanpoan pozik nengoke. Ez dakit, ez dakit, baina nik ez dut drogarik saldu. Zakur batekin denda iker ezazue.

— Zer entzun huen?

— Tiroak baino lehen ahakarran entzun nituen; nagusiaren agiraketan ez nuen sartu beharrik.

— Neska, ez hintzen sartu baihenkien nor zen hire nagusiarekin zegoena.

— Badakizue atea barrendik giltzatua zela. Eskuen artean dagoen hiltzaile hari galdetu? Harekin egiazta! Gizon haren lagunei, ez niri?

Zoritxarrez, Phillip ez da hor, nire alde jakile izateko eta gizon horik ez dabilta egiaren ondotik –nik ukatu arren– beste errudun erraz baten bila baino.

— Aitor ezan heriotza horretan zelanbait kide hiltzela? *Si te ponemos una waska en el cuello te vas a cantar!*

— Nola behar nuen horrelako nagusi lasai eta lanon baten emalea, hil?

— Tipo horrek ikarazi hau ala limurtu?

— Ez dut ikusten zertarako.

— Bazekinagu hiltzailea ez zela hire gizona, baina, heldubada, horrelako xantaia baten bidez, gaizkile kide izatera eroan hinduen?

— Zuek, egun osoan kanpoan, zelatan zeunden eta sumatu zenuten gisa, ez naiz gela hartan sartu!

— Eta ez huen, eraile hura hik gelan sarrarazi, droga lapur zezan?

— Berriz, diotsuet, ez nuela gela hartako giltzarik.

Galdera aspergarriek beste egun osoa iraun zuten. Erantzuten nituenak aintzat eta ontzat ez zituztelako hartu nahi, haiek nahi modura zertzeladak aitortu behar nizkien. Bigarren egunean izerdietan eta egarri alditxartu naizenean, esnatu eta edatera eman didate.

Jarraian, zaku zahar bat antzo: “¡Hoa hemendik esanaz!”, “Ez dinagu hire beharrik” besterik gabe, zuribide barik, azalpenik eman gabe, kanpora bultzaka bidali naute. Jaregina! Aske! Edale mutur horietaz askatua. Txakur eta *chapa* horien tabako beltz eta izerdi usain okaztagarrien ondotik, kanpoko aire sanoagoaz sudurra garbitu dut.

## XI

### ADISKIDE BAT

Ez nintzen kale gorrikoa izanen. Bakarrik atera behar nuen hortik. Lehenik, joan nintzen utavaluaren abisatzera nagusia hil zitzaidala, edo hobeki erran drogadikto batek hil. Dendari horrek aitortu zidan aspaldian nire nagusiaz susmoak zituela lazgarriko erosketa handiak egiten zituelako.

Ni ere konturatu nintzen beribil dotorea erosi zuela, Mercedes berria. Hau eroste txikiena. Horrez gain, utavaluak gaineratu zidan, edozelan ere ehun saltzeak zenbat nahi diru emanik, ez zela hiru etxe erosten, bat Guayaquilen, beste bi hiriburuan. Horiez kanpo, ba omen zuen Kolonbiako mendi mugan, laugarren etxea. Bai, norbait gurbila izanik ere, hain sekretuz betea izan daiteke eta hala nuen nagusia. Nabaritu nuen baino urrutiago zoan nire nagusiaren isilpeko bizitza; baina poliziak nola jakin zuen nagusiarri zerbait gaizki gertatuko zitzaiola

Paulu Kujiwaman Kuji osabaren etxean astebete atsedean hartu nuen. Naretasuna zelanbait birloratu. Dendatik nire indigena salgaiak atera, eta justizia ezaxola oraindik ez baitzen zigilatzen ibili, dendako giltzak eman nizkien eta esan, nahi bazuten noiz nahi nire kontuez erantzun niezaiekeela.



Denbora joanda. Orain berriro lanera. Lehendik ezagutu nuen utavalu dendariak deitu ninduen, bere kontabilitate eta saltze egitea eman. Banekien gutxiago irabaziko nuela, baina bakeak ez du preziorik, eta gogo onez janari dendan lanean hasia nintzen. Saleros-te horretaz izebarekin ikasirik oinarrizko ezagutzak nituen, baita amarekin merkatuetan saltzen ibili nintzelako; hala eta guztiz ere, janari saltegi horretan ekoizpen kopuru handiagoak ziren eta latazko anitz niretzako berri.

Aurrezkiz baztertuarekin, berriz, etxera diru apur bat bidaltzen jarraitu nuen. Orduan, ez nuen lar astirik ingeles ikasgaietara itzultzeko, noizbehinka, zine-ra, noizbehinka liburutegira. Turko-etxe hartan zortzi urte eraman nituen. Phillipen oroitza ere ezabatzen ari zitzaidan. Niretzat bizitza beti itzuli-gaindika berritzea zen.

Berritze bat gertatu zait atzo. Karrikan zehar nindoala, afalostean egurastuz, etxera sartzean, aupatu nau mutil batek. Hau ezustekoa! Phillip zen. Abegi beltza egin diot. Aditu ditu mereziak hantxe bertan: mugak gaindituz, ñabardurarik gabe, mihi puntara eztenkada mukerrak igo zaizkit eta nire barrenak askatu ditut mortalak eta bost esanaz.

- Pozten naiz neska.
- Ni, agian, ez hainbeste. Hitzak merke! Hitz ederrak esan eta eman eta gero, lau urtez, hain opor luzeetan nora joan zen, jaun hori? Lau urteez turista!
- Ez oporretara, ez. Gogoetatzeko egotaldia bai. urruntasunak harremanak apur bat argitzen ditizten.

- Zer? Señorito! *Milliay runa!* Hiretzat neska duina ez nintzelako, zakur baten moduan gurasoen zakurtegira itzuli hintzen? Ez hidan ezer gaztigatu hutsegina zuritzeko, ez eta barkamen eskatzeko astirik eduki?
- Ez, maitea, ez. Ingeles negozio etxe batean Santiago de Chilen lana topatu ninan.
- Eta idazten ez dakik, berrien emateko?
- Gertatu zena gertatu, ez zitzaidanan batere erraza.
- Hik, agian, gauza errazak baizik ez dakizkik egiten?
- Lehenik eta behin, barkatu. Gurasoen jokabidea ez dinat onartu eta kaltea konpondu...  
Nina otoi!  
  - Sua bezala karraskaz
  - Hire begiek ikaratzen naute
  - Ez nazanala horrela begira
  - Errea hilaraziko naun
- Gizona, ikusten diat gure kantore zaharrak ez dituala ahaztu. Eta hemen hago, zertarako? Ez niretzako?
- Bai, erdizka, ezen Riobambara itzultzeko, hiri honetan Ingeles etxeko agentzia irekitzea erdietsi dinat.
- Aupa! Aldi honetan, goiena joko duk, ni beti salerosketa txikietan.
- Ez dun lan apalik, jende apal baizik.
- Hain zuzen, ba al hekien nagusia drogadikto batek hil zuenean arrastatu nindutela?
- Ez. Eta zelan irten hintzen ehiza arte, zepo horretarik?

- Hi gabe.
- Barkatu! Nina barkatu!
- Ordu da. Une honetan, tela saltzailea utzirik janari-denda xume batean lan egiten diat, kontalari lana eman didan kale bereko utavaluaren baitan.
- Bihar elkar ikusten dinagu?
- .....
- Bolatokira hator! Nina! Arratsaldeko seietan.
- Bihar? Ageriko! Nork daki!?

Aldi hartan, bizitu bakartasunarengatik, une gaitzak gogoan, garratzegia izan nintzen. Bolatokiko bilera ez zait inoiz ahaztuko. Ez nuen erakutsi, nahiz hartu nuen barkamenaz erdi pozik nengoena. Zantzu onak banituen. Han egon ginen buruz buru irriz irri eta ongoak egin. Zer sudurra egin ziguten, te orde, mate eskatu genuenean, haatik hori ere bazuten. Piparik gabe, orde, eman ziguten edatera.

Bolatoski hartan Phillip adiskideak kontatu zidan nola genealogia egitean topatu zuen, aitaren aldetik, haren amona indigena hutsa 'mutur beltza' zela. Jakin eta taka paperen fotokopiak egin eta gurasoei bidali zizkien; geroztik euren berririk ez zeukan, ez eta gurasoek utzi zioten hiriko etxeaz galdetzeko.

- Beraz, maitea, apur bat indigena naun.
- Hizkuntzaz, dagoeneko, bai.
- Eta odolez. Ez naun gringoa, erdi indioa baizik.
- Bai, hemendik aurrera ene *grindioa* izanen haiz, ene *Grindio Phillip*.
- Eta hi ene *Wayllukucha*, Nina maitea.
- Gizona ez diagu berbaz elikatu behar, maite hitzak ez dituk nahiko. Goazen harira: ekintza

eta eginbide zuzenak gauzatu beharko dituk  
nirekin eta ez egiteko asmoz egon.

— Etorriko hintzateke nigaz bizitzera?

— Bai emazte gisa. *Warmi* gisa, etxeakoandre.

Azkenean, onezkoak egin genituen eta Phillipek, ahoz eta begiz erantzun zidan. Egun hartan nintzen lehen aldikoz grindioaren etxean sartu. Sartu eta han, lasaiki besaulki goxoan nengoela, hitzeman zidan nirekin ezkonduko zela, 1986. urtea zen.

Etxe hura handiegi iruditu zitzaidan eta berari ere. Lan gehiegi emanen zidan txukun edukitzeko eta Phillipek saltzeko gogoa zeukan. Bere bihotz eta esku zabal joerekin ez omen zitzaion egoki iruditzen kriollo tankeran bizitzea.

Uste genuen bake bidean ginela biak, eta lanak akitu arren, elkar ikusten genuen hodei beltzaren bat agertu arte. *Turco* nagusiaren afera motz horrek berriz jo gaitu. Herenegun notario batek dei-ziurtagiria bidali dit. Nagusiari ezagutzen ez nion semea Kolonbiatik helduta kontuak ikertu omen dituela. Hara joan eta harridura eta izua apur apurka handitu zatzaizkit: histu naiz. Notarioak bi kontu liburu bazirela erakutsi dit, bata, omen, turko nagusiarena, bestea nirea. Nirea askoz murriztagoa eta diferentziek salatzen omen dute turkoa ostu ei nuela.

Zurturik eta mutu gelditu naiz. Phillip nirekin dagoela, ene grindio maiteak behingoan ulertzen du, Kolonbiako seme horren itxura ikusi-eta, diru gosekil amorratua dela. Eta ahapetik ketxueraz iradoki didana jalgitzen diet:

— Etzi abokatuarekin etorriko natzaizue.

Notarioak galdetu dio semetzar hari kexa atxikitzen zuenez, hark baietz. Kolonbiakoa harro harroa joan zaigu. Garaile? Inori galdetu gabe, notarioari eskatu diot kontu liburuak justiziak bahituak izan daitezen.

Senargaiak ez naizela esku zikina sinetsi baitu ezinago pozik gure etxera itzuli gara. Atzo, auzitegiko deia iritsi zaigu eta sakonki inarrosia izanik ere, Phillip aipatu diodana egingo dut. Berriz kolonbiarrarekin buruz buru. Eskatu dut bi kontu liburuentzako, bien idazkera egiaztagarri antzean aztertuak izan daitezen, nirea, nagusiarena, eta seme horrena. Kolonbiakoak bere ohorea zikintzen duen lotsagarrikeria hori ez dela *rosca* batengandik onartzen, harrotu da.

Berriz, *Indio gorrón* bizkarroi iraina jasan dut. Idaztea ukatuz, faltsutzailea bera dela ez al du salatu? Mestizo eta beste indigenen bizkar bizi direnek dute *gorrón* izena merezi, ez guk. Bai, ez gara haien moduko petrolio lapur ustiatzaile eta droga saltzaileak eta halatan ere, diote gu garela haien kostuz bizi.

Idazkera eredu legez hamar lerroak idatzi ditut. Kolonbiar turkoa zutitu eta ez idazteagatik joan. Ez da urrun aldendu ezen hasieratik Phillipek ezagutzen zuen polizia zintzo, leber bati –badira horrelakoak– abisatu zion. Phillipek peskiza egiten jarri zuen eta notario etxetik kanporatzean atxilotu dute kolonbiarra.

Geroxeago, hain zuzen jakin zen Ekuadorreko mugatik urren, haren aitak mendiaren honaindian zeukan etxaldetik nahikoa hur, semeak etxea zeukala haraindian. Kolonbiako semea, Riobamban liburu faltsua egiten zebilelarik, hara itzuli baino lehen, etxe hura ikertu zioten; han, *turco* semeari kokaina biltegi ederra aurkitu ere. Eta pentsatzeko zen moduan, Kolonbia-

koaren eskuz idatzitakoak idoro baitziren, semearen kontu liburua ez zen nire nagusiarekin idatzia izan, haren semeak baizik.

Emeki eta han hor aurkitu lorratzekin kate oso bat apurtu zuten Kolonbiatik Santo Domingo de los Colorados eta Guayas ibarren barrena Guayakilera zihoana ipar amerikarren pozoitzera. Polizia zintzoak Estatu Batuetarik egundainoko saria irabazi zuen eta afera hits hori honela amaitu zen.

Afera horrengatik ostera, notarioari barkatzen banion, hiriko poliziari inolaz ere, nagusiaren erailketaren ondotik zakur horiek, arrastatua, atxilotua eduki nindutelako, baita torturatu nindutela sadiko amorratuek droga saltzaileaz arduratzeko orde.

Berehalaxe, lasaitzeko gure ezkontza etorriko zela banekien. Lan egiten nuen janari-dendaren ondoan, horrelako dendatxoan, trantsitu leku hertsu batean bitxigintza zegoen; utavalu indigena zizelkariak, harritzko, urrezko eta zilarrezko bitxiak egiten zituen. Hara joan nintzaion ikustera.

Jadanik, begiratu nion eta atsegin hartu esku ihartu horien artetik zelango gauza bikainak ateratzen ziren. Ez zuen tresna anitzen beharrik, sutegitxoa eta ingude txikia orkoiaren antzekoa, matxardeak eta aliketa ñimiñoak, murtitxa mokodunak, mailu nanoa, gubiltxoa eta horien zorrozteko geztera miniatura. Hariak leuntzen, metalak sotilki okertzen eta zuzentzen, mailukatzen lepokoak, eskuturrekoak, eraztunak edo belarritakoak artezki lantzen, askotan so egin nion.

Begi zorrotza zuen eta zilarginak zertara nentorren asmatu zuen. Hara sartu nintzenean alaiki oles egin zidan.

- Hau aurpegi irritsua! Zerbait erostera hator?
- Bai, moda zaharreko lepoko bakuna egin zenidakezu?
- Bai, zilarrezko ala urrezko perlekin?
- Daukadan larru kolorearekin zilarra ez zait komeni. Urreztatua nahiago nuke ez balitz garestiegi.
- Urrezko, urrezko, bazekin benetako urrea andre handinahientzat dela, kilate gutxikoak nahi ditun?
- Bai, nire sosaren arabera, bai.
- Baina, hik ez duna eraztun beharrik? Ez al hoa ezkontzera?
- Belarritakoak nahiago nituzke, eskuekin lan egiten dugunentzat eraztunak ez zaizkigu egoiki, eragozpen baizik.
- Baina senargaiak eskuekin lan nekerik egiten al du?
- Ez. Harentzat edo bientzat zilarrezko eraztunak oroitzapen gisa.
- Neurriak behar ditinat? Hik molde horietan saia ezan eraztun neurria jakiten.
- Senarrak badu, kaxa batean eraztuna. Hura ekarriko dizut neurtu dezazun.
- Orain berean, hari hau lepo inguruan ezar ezan, gaineko lerroaren neurriak har ditzan.

Banekien nola landuko zuen, metal urtzeko bere sutoki txikia zeukan, bai eta soldagailua, galdagailu txikia gartxo urdina zeriona. Perlen egiteko, ordea, urre antzeko barratxoa urtzen zuen eta tantaka moldean isurtzen. Haatik, perlen lotzen ez nuen ikusi ez eta galdetu, ala erdian zegoen burdin hariaren ingu-

ruan molderen batean egiten zituen? Artistak Brasil-dik ekartzen zituen goiharriak, harri baliotsuak; merkeenak topazioak izanik, horrelako urdina erosi nion, Phillipek eman urrezko katenari lotzeko.

Ume denborako oroitzak trumilka eta goxoki gogora etorri zitzaizkidan, nola eukaliptoen igali edo ezkur gisakoekin, lepokoak muntatzen nituen, berdin ihia erabiliz bi izpi luzeekin eraztunak egiten. Bage-nituen ere mihimen zaluz muntatu eskuturrak ukarai inguruan jartzeko. Grindio Phillipek iruzkindu behar zidan nola munduko hilobi zaharrenetan harriz edo hezurrez egin lepokoak aurkitzen ziren. Nolabait ere, igarririk edo salaturik senargaia ibili zitzaidan eskatu nituen hiru lerrotako urrezko bitxi ederragoen ordaintzera.

Berehalaxe, gertaerak nola zihoazen ohartuta ene grindio Phillipek ezteiak eta ezkontzarako paper izapideak, al bait arinen, atondu zituen. Epaillearen aurrean lekuko bat salasaka, bestea kañari eta gonbidatu gehienak beltz, mestizo eta indigena auzoak genituen. Aparecida eta Mingo hor zeuden. Gure herrikide zenbait. Eta zer harridura, denen aurrean, ene grindioak aitortu zuenean indigena odolekoa zela! Lorerik ez, abestiak bai. Bazkari bakuna menditarren gisakoa kalean erosi txerri erdiarekin, beste erdia bisitatuko genituen auzuneko behartsuei zatibanatzeko.

Afaria aurrera zihoala irriak eta barreak hasi ziren, ezkonduen eta ez ezkonduen artekoak. Mingo kontakizun politarekin berotzen hasi zitzaigun:

“Juanito kriolloa ezkontzekotan zen. Eztei bezperan bere lagunekin azken mutil aske agur-pa-



rranda ospatu zuen eta biharamunean aseka-  
ren poderioz hamaiketan baizik esnatu. Gosaldu ga-  
be. Ahal bezala jantzia geltokira joan zen eta han  
trena galdu. Berehalaxe senargaia postara joan  
eta telegrama hau bidali zuen” TRENA GAL-  
DU. NI GABE EZ EZKONDU. Juanito.

Barrea lehertu zen. Bi neskek ez zutelako txistea  
ulertu: eta batek:

- Hau gizon adeitsua! zain zeudenei pentsatu bai-  
tzuen.
- Telegrama argi eta ongi idatzia zen, zion beste  
neskak.

Bi nesken oharrek berriz barre uhinak sortu zi-  
tuzten, zenbait karkaran itotzeraino eta zotinka zihar-  
dutelarik. Ondotik, Aparecidak ezkonberriaren ipuin  
hori eman zigun:

- Ezkonberria goizeko ordu bietan etxera sartzen  
da. Andreak esaten dio
- Ez du aste bete ezkonduak garelara eta nondik  
eta zertan egonik zatoz, hain berandu?
- Ez naiz goizago sartu ahal izan, ostatuan, lagu-  
nei kontatu baitiet zeinen zoriontsu naizen  
etxean zurekin nagoenean.

Orduan, Cunsuila zutitu zen eta umore latzez atera:

- Niri gizon batek horrelakorik egin balezat, bi-  
haramunean bazkaria baino lehen etxetik joan-  
da, goizeko ordu bietan mozkor sar nintekezue.

Barre baino gehiago isiltasuna ekarri zuen ateral-  
diak eta hortik irteteko Phillipek aldarrikatu, “*¡Vamos  
a bailar!*”.

Bigarren ezteiak mendiko herrian eman genituen. Gure beribil aleman txikia herriko plazan utzi eta oinez taka-taka sortetxeraino joan. Ate aurrean gure *markan* biek *tayta* eta *mama* lore koroekin ongi etorria eman. Grindio Phillip senarrak inoiz etxera sartu ez balitz bezala, sartzeko baimena eskatu. Auzoko neskek *waynua* abestu eta mutilek tiro batzuk airera.

Etxe barruan gurekin generamatzan gure eztei soinekoak, indigena kolorezkoak, jantzi genituen. Ez nuen soineko zuririk jantzi nahi izan, horiek arima grisa duten zurientzat direlako. Arupu maitasun zuhaitzaren gerizapetik pasatu ginen. Kanpoan eguzkia agurtu, etxeko hilak goraiatu eta etxeko guztiekin plazara jaitsi, gure ezteiak *aylluko* guztiekin jateko. Senargaiak gure indigena jantzia edukiagatik, larrantza zurbilska zuen, orain jendeek bazekiten gutarra zela, ez gringoa. Abade indigena aguretuari bisita egin genion eta hark agindu gure alde otoitz eginen zuela eta irri batekin 'nahiz senarra protestante izan'.

Jaiak bi egun iraun zuen. Ezteietan, sarritan, urteko dirutza jan eta edan ohi dugu; etxe bakoitzean atzerrian bizi norbaitek, aberatsagoak, ezteiak edertzen dituelarik. Ayllukoek, ordea, Phillip *prioste* eta ordaintzaile aukeratu baitzuten egundoko bi otoruntza handi eman zizkigun. Okelarako aratxe osoa, Riobambako merkatuan erosi zuen, aldiz osabek edariak ordaindu eta han bazela koka-kola, guarapo eta chicha!

Herriko jendeek ekarri zizkiguten arto, kinoa eta ogi. Zori egokiz, eguraldi nahiko ederrarekin kanpoan egin genuen errekoa eta karparen itzalpean otoruntzak gau osoa iraun zuen, jaiak, dantzaz, kantuz eta doinuz jantziz. Herriko bizpahiru gazteek, antara, txaranga

eta pinkilluz, ahal zuten moduan soinua eman zuten. Gizon helduak berein mozkortu ziren eta kulunka, bi-dearen bi aldeak hartuz, batzuk etxerantz abiatu.

Bigarren egunean, aztia zeritzon gizona agertu zitzaigun. Bere droga irentsi ostean egiten zitzaizkion galderei erantzun ohi zien. Erantzun zigunean ‘hilen ahotsa’ deritzon andreen antzeko doinuarekin mintzatu zitzaigun.

Ihardespen gehienei ez nien jaramonik, handik bi urte pasatuko zirenekin gogoratuko zitzaizkidan iragarri zuena:

“Ez dakusat nor den... gutarik batek gizon bat hilko du, berriz bera ez da hilko. Bere askaz-goako norbaitek ordainduko du berak egin duena.”

Bukaeran, bigarren egun hartan edariak agortu, janariak irentsiririk ez zen benetako afaria izan. Chicha pitin bat, *wawa* apurrak eta nahi zuenak ura. Nekaturik, jende piloak han berean, lurrean gaua lo eraman zuen. Biharamunean, ordea, denentzat zereginak eta eguneroko lerak eta galerak. Beste jai bat arte.

Janari dendara itzuli naiz. Saltzeko lana ez zait batere lasaia. Jabeak lanez itotzen nau, ez bakarrik liburuetan kontuak atxikiarazten baita zama pisutsuak deskargatzen lagundu behar. Gehiago ez zinerik, ez kontzerturik. Noizik behin, gure etxera sartzean telebistari begirakunea ematen saiatzen naiz, halere ohar-kabea Phillipen besoetan lokartzen.

Hasieran, ugazaba hark agirika hartzen ninduen, luzeegi nintzela prezioen ematen eta kontserba lata madarikatu horietan zer zen galdetzen zitzaidanean

- Latako hau, gazitua ala ketua da.
- Eta nik: “ez dakit! *Pues no sé!*”
- Jadanik egosia ala gordina da?
- Eta ez nekiela.
- Nondik zetorren salgaia.
- Janari hau hurrei eman dezaket?
- Eta ez dakit.
- Eta zenbat edeten du, ontzi honek?

Ez nintzen, hurrenik ere, orodakiena: horregatik nagusiaren errieta eta predikuak jasan behar. Utavaluak zion salgai bakoitzaren balioa eta hazkurrien ginoak, hau da barrenean edukitzen zuenaren neurria ere ikasi behar nuela, bera kanpora eroatera joango zenean saltzeko gai izan nendin. Gaineratzen zuen, ez dela lata edo pote saltzea papa saltze antzean egiten... eta halako. Dendan kontserbak genituen salgai eta batzuetan lanetik landa egoten nintzen, etiketa haien irakurtzen.

Franko laster nagusiak baino gehiago nekien. Nire borondatea ikusiz maisu larderia gogorra apurtxo bat galdu zuen.

Utavaluak zenbat nahi begi ona izan, batzuetan ezagutzen ez zituen ekoizpenen kalitateaz oharrak egiten nizkion, eta neronek atzerritar gauzen baliatzen ikasi nuen ingelesa nekielako. Horrela, bake labur bat etorri zitzaidan. Langile zintzo eta agudoa izateak ez du beti onurarik ekartzen honela lan gehiago ematen dizutelako. Beharbada, nagusi izateko bidea ikasten ari nintzen.

Lehen hilean, aurpegian besterik hartu nuen: lapurretekin, ohoinekin arazoak nituela. Hilabetez ehuneko hamarra lapurtua izan omen zen. Ez nintzen

ausartu murtik esatera susmoa neukalako halaxe zela denda hartan ni sartu baino lehen. Ohoinek taktika ugari zeukaten; jokaera arruntena sei gazte sartzen ziren, lau nire aurrean jartzen eta euren bizkarretik beste biek lapurtzen. Hori nagusia zegoeneino, noski, ez zuten egiten, hala eta guztiz ere, hor zegoenean ere batzuk eskuan neukan salgaia kentzen zidaten eta eskapatzen.

Beste mota batek zerbait erosten zuen eta erosiaren bildukina egiten nuen bitartean beste zerbait poltsikoan sartzen. Hori zela-eta, beti dendako erakusleihoari begira egoten nintzen, era berean salgaiak begipean eduki behar; kanpoan lauzpabost jende hurrentzen ikusten banituen gauzen goititzeko neurriak hartzen.

Quiton, Phillipekin nenbilela ikusi nuelako, nagusiari eskatu nion ea salgaiak ez genituenez eskuen harmenetik kendu behar? Aholkuak bekokia zimurtu zion, ezen uste baitzuen dena ezagutzen bide zuela.

- Eta nola? Armairuetan gorde? Zerbitzu luzea izanen dun.
- Ez jauna. Hiriburuan, hemen baino lapur haboro delarik, ohointzen axolbean jartzeko salgaiak plastikozko erakusleho edo bitrinatxo batzuen atzean ezarriak dira, eta beren salneurriak seinalatuak. Salgai horik barruko aldetik bakarrik hartu daitezke.

Geroztik, herriko jendeari ez gogoko izanagatik, beren erosketak ordaindu ondoren baizik, ez genizkien ematen. Bitrina sistemaren gure zergatikoa jakin gabe turista baten batek zorionak eman zizkigun ustez eta higienarentzat generabiltzan babes bitrina horik.

Zereginak gehitzen zitzaizkidan. Bestalde maratz eta mazalegi nintzen, lan ondo eginak ezinbestea zekarkidalako. Lanarekin gogoz geroago eta erkituago nintzelarik, gorputzean ere makaltasuna nabaritzen nuen. Ez nekien gain-ordu egitea ukatzen.

Etxera sartzen nintzenean, lantzean behin, senarraren gurasoek utzi telebista pizten nuen, eta hark erakutsi zidan zer tresna okerra zen, nola erabili litekeen propagandaz ez baitzuen gure egunerokotasunaz irudi edo albisterik agertzen. Bakarrik ikusten genuen petrolioak eman dirua haien Guayaquil eta Quito edertzen erabiltzen zela, gosetuei ezer eman gabe, ez eta lana ere larregi.

Bestela ere, argi zen niretzat Dallas pelikulako gringo jende askoren bizitza lotsagarria eta gurea baino bihotzez latzagoa irudi zitzaidala. Ez nintzen horrelako giroan Estatu Batuetara bizitzera joango: gainera ene grindio maiteak asmo hori burutik atera zidan, eta telebistan ikusiak horretan bermatu.

Nahiago genuen telebista begiratu baino elkar maitatu eta inori kontatu behar ez liratekeen une goxoak elkarrekin igaro. Bai, gizon goxoa zela ene *grindioa*, eta amamak zioetan moduan bazituen hotzaldiak, epelaldiak, behin ere ez zuen uzten gure artean ekaitzik hedatzen. Garai batean bakartasuna amets izan banu, orduan, bizitza hori xeratsuagoa eta atsegin gisako zer edo zer zitzaidan.

Azken urteetan estatu lehendakariak eraman politikarekin, senarrak argitu zidan nola gringoei atsegin emateko eta bere poltsikoa betetzeko Ekuadorreko ekonomia hondamenera eraman zuen: kaleko ohointzetan ageri zen. Txiroak geroago eta txiroago eta

aberatsak dirudunago. Azken horiek estatuko dirutzari, eskupez, *coimarekin*, gaizpidezko lapurreta ederrak egiten zizkieten eta banku paradisu diren herri txiki usteletara ebatsiak bidaltzen.

Ohoinen artean eskuarki argal, mehar eta langabetuak bazitezkeen; baziren osasun ederrekoak, fardel soraioak ere horretan zebiltzanak, lanik ez egiteko. Dendan sartzen zirenean ikasi nuen lapur moten sailkatzen.

Hitzezko urrikia gauza merkeena eta faunena delarik auzunean guhaurk zerbait gauzatu behar genuen. Beste indigena dendekin lapurreten ekiditeko eta miseria geroago eta nabarmenago zelako onbeharrei oinarritzko janarien emateko *Urku Wasi* elkartearen etxea ireki genuen. Dendetan baziren ustelduak edo kalitate eskasekoak ez izanik ere, ezin saldu zirenak: etiketa galdu botilak, kolpe hartuz konkor ziren kontserba latak, opil gogortuak, fruta eta barazki onak izanik ere kera txarra zutenak, txikiegi zirenak.

Janarien banatzea eta esku hartzen eratzea ez zen erraza izan. Txandaka, aldizkatuz dendetako langileek eta nagusi zenbaitek astean lau orduz aritu behar genuen. Janariak bankuetako leihatilen antzeko zuloetatik txarteldunei ematen genizkien. Lehenik, andreak zerbitzatzan, ondotik bakartiak. Bakoitzak, haurdun andereez lekora, emaitza berdina zuten. Azken horientzat FAOko atzerritarrek igorri esnea bagenuen, orobat irina ere.

Gure elkartea emakume indigenen *Minga* erakundearen adarra izanik ere, bestei ere elikatzeko heina banatzen genien. Laguntzen genituenen kopurua mugatu genuen, ezen urtearen buruan ohartu baikin

batzuk janariak hartu, saldu eta diruarekin edateko guarapo erosten zutela; beste zenbaitek gure banaketa lekutik urruntzen zen andreari janaria lapurtzen, berea ez zen haurrarekin zetozen emakume batzuk. Txartel faltsuak eta jan txakurrak agertu ziren.

Ez genekien noiz arte jarraituko genuen. Geroxeago, EGEkoen laguntzarekin *Comedor comunitario*ak, gure ekimenaren antzekoa, sortu eta eredu horretan garatuko ziren. Haien jakituriak eta diruek gure sistema hobetzen lagundu gintuzten.

Gure aldetik, banaketaz egiten ziren saltze eta lapurtze horik saihesteko ez genuen besterik pentsatu, jana ezin zelako txiro argalen urdailetik itzularaz, bazkaria ematea baizik. Platera ederra zen arroz eta bakailaoa ongi olioztatua, opil batekin eta edariarekin. Hori zen, fideo saldarekin, mestizoei ematen geniena. Gure mendietako norbait zenean, arrozaren ordeztu kinoa ematen genion eta *chupa* salda, halaber uraren ordeztu, bakanki, arto edaria alkohol gutxikoa, artoz eta papaz adalaturik.

Gure bazkarietara bi andre gazte, beti elkarrekin agertzen ziren, bata mestizoa, bestea indigena. Bazkaria amaitu eta harria egiten, zintzoki ontziak garbitzen laguntzen gintuzten. Behin, iluntze batez, elizaren atzeko aterpean, egoera ezegokian manta baten gainean etzanik aurkitu nituen. Lazgarri sentibera eta minbera zirela bainekien honela galdetu nien:

- Eragozten ez badut, galde nazakezue, hemen al duzue beti lo egiten?
- Ez dugu teilaturik, Nina. Beharbada beharrik ere ez.
- Zergatik, arren?



- Ni, María auzune batean esteiari bizi nindunan. Egoitza geneukan oso txikia. Anaia-reakin, nebarekin buruz buru bakarrik gertatu nindunan bi alditan, bortxatzen saiatu zitzaidan. Amak ez zinan utzi egitera, *no está bien ir a molestar a su mismita hermana*. Aitak, neba langilea zela-eta etxean gorde eta ni, joan nindunan.
- Eta zu Cunsuilu?
- Nire kasua biziki bestelakoa da: etxean diru mordoa bageneukan. Aita *Istadunidusetara* lanera joan zigun eta han hil, ama berriz gauaz ospitalean langile hasi.

“Mutilak, *chola* izan arren, ordurako inguruka zebilkidan eta neskak bekaitzez. Neska batzuk zurrumuruz zioten beren artean, ama alargunak nondik arraio dirua ateratzen zuen, ni hain ederki jantzia izateko, musika klaseak eta ingelesezkoak hartzeko?

“Amari lanaren berri eskatzen nionean, ospitalean, gauzko lan aspergarria zela ihardesten zidan. Uste nuen, aita hil zitzaidalako negar egiten zuela. Bitxi zitzaidan halarik ere ikertu nuenean, lanerako zelango maleta prestatzen zuen, azpiko arropa ederrekin, makillajeekin. Uste nuen bere bizitzan gordezko gizona zeukala, eta esaten nionean zergatik ez zen ezkontzen, erantzuten zidan “oso ongi gaude elkarrekin gizon baten beharra izateko”. Eta nik amari ez niola oztoporik ipiniko bat hartzen bazuen.

“Zer beharra zuen maletatxo eder hori ospitalean? Susmo txarrak harturik, lehenik, haren telefono dei bitxiak entzun nituen. Ospitalera zergatik behar zuen gizon bat deitu eta ez beti bera lanera joateko? Ondo-

ren, gau batez jarraitu nintzaion. Hamalau urteak nintuen eta zurrumurruez ase nintzen. Jakin behar nuen. Ez zen ospitalean sartu, gizon batekin hotel batean baizik.

“Ordudanik, amarekin errietak sortzen ibili nintzen; eskolan lanik ez nuen egin nahi; gizendu nintzen; ama prostituta nuelako susmoa piztu zitzaidan. Amari hotelean zer lan egiten zuen galdeturik bi zarta eman zizkidan esanaz ez zela nire ikustekoa. Zeukan ofizioaz axolatzea eragotzi zidan, gure fortunaren iturriak isilpean jarrai zezan.

“Egun batez, gure arteko gatazka geldiarazteko esan zidan “Puta naun eta ez dinat beste lanik idoro eta nahi ninan hire aita zenak irabazi maila hiretzat eduki. Ez ninan nahi diru gabez hik ere nire bide hori segi hezan. Handiago izango haizenean, ofizio tzar hori utziko dinat”.

“Alabaina, halako batean, amarekin karrikan genbiltzala, gizon batek gau hartarako eskaera egin zionan. “Laster arte lirina, izter arteko txertoa eginen dinat!” Etxera joanda, gauza apur batzuk hartu eta oinez Riobambara etorri nintzen: nire ama puta zela ezin nuen onartu bere gorputzaz egiten zuena eta diru zikin horretaz ez nintzen bizitu nahi. Hamabost urteekin kalera bizitzera joan nintzen. Orain errudun sentitzen naiz –niregatik puta zen– eta gero ezin dut topatu non bizi den. Geroztik ere, gizonik ez dut nahi nire bizitzan, eta gizasemeekin harreman latzak ditut”.

Cunuilu isildu zen. Sarritan gertatzen dena horrelako eskarmentuak bizituek eta bakarrik borrokatuak, besteenganako jendetasunez, besteen laguntzea dute gogoan; hori, bizitzen jarraitzeko zeukatzen argi ba-

karra Mariak eta Cunsuilluk. Arauez, negua baino lehen aterpea aurkituko zuten. Udalak behar zukeen behartsuen laguntza lan hori antolatu, ez karitatez, eskubidez eta eginbidez baizik eta azkenik, alkateak, beldurrak bulkatua, comedor comunitarioak eskupean hartu zituen, baina laguntzaren erdia hartu omen zuen, adiskidetxoetan hautatu andre eta jaun funtzionario jantxakur zuzendarien ordaintzeko.

## XII

### HASERREA GAINDITZEN

Halere, laguntzen genituen jendeen sumina, bidegabekeriak isiotzen zuena, berotzen ari zen. Igandero indio etxandreak karrikara irteten ziren arratsetan merkatutik landa, eta paseoak manifestaldi bilakatzen: orduan gure Sangayaldean, *Minga*, emakume indigenen elkarte aritz indartu omen zen.

Bagenuen non eredu har andreok: XX.mendearen hasieran, indigenen zuzenbideen alde eta bazterketaren aurka, borrokatuenik zena Transito Amaguaña anderea izan baitzen. Edozelan, zinez goratu behar genukeen andre haren bidea hura jarraikiz. Ez ginen kilduko, duintasunaren erronka irabazi behar genuen. Noraino joanen ginen? Hasia nintzen jabetzen udalak eta guk ematen genituen laguntzak jendea pobretasunean bizitzera zeramala eta honela agintari ustelek atzerritarrengatik erantzuna zeukatela ez zezaten sistema alda eta gringoak ez haserre izan.

Nondik nahi den, atzera egin behar nuen, egunerokotasunera eta ibilaldi horiek eman nekeak atsedenez ezabatu. Bagenekien, diruz behintzat beren bizibidearen hobetzen herritar zenbait lagunduko genituela.

“Lehen gauean, ordea, lasai lokartu nintzelarik amets lazgarri batek esnatu ninduen: Phillip eta biok mendian genbiltzan. Ez dakit zergatik biak bakarrik ginen Sangayrako ibilaldi arrisku horretan. Hotz handia zen, elurrik ez. Laino-pean, ia ilunpean genbiltzan isilki mendi ibiletan behar liteken legez. Zerua gorri argitzen hasi zen eta lurra ikaritzen.

“Noizbehinka, Sangay sumendi tximistaren antzeko argiak pizten zitzaizkigun. Gelditu-eta senarrak esan zidan, hobe genukeela etxera sartzea. Nik ezetz, astia bageneukala goiza baitzen eta eguna jai genuelako. Jarraitu genuen eta handik une apur baten buruan harrigarriko su jai handi bat piztu zen sumendiaren gailurrean. Bitxi zena ohiturazko sufre eta hauts usainik ez nuen sentitu.

“Orduan, mintzatu gabe atzera egiten hasi ginen. Bat batean, bien artean laba urtu erreka bat jaitsi zen gorri gorria bereizi gintuena, hor ere berorik ez nuen frogatu eta Phillip laba odol horretan desagertu. Ikara batean iratzarria: nire alboan senarra patxadatsu zirri zorro lo zegoen. Amets gaizto hori ez nion kontatu.

Aurten, 1989. urtean igande arratsaldetan eta merkatutik landa, lehenago karririk hutsik eta dendak itxirik zeudelarik, orain menditar andereez betetzen; gure indigena herritarrak jantzi eta soineko ederrez agertzen. Talde bakoitzak bere elkartearen izena dakar, gaztelaniaz eta kristau izena, Aparecida, Milagrosa, Santa Teresa. Manifestaldiak isil izanik ere lema berriak agertu dira *“Denentzat eskola, denentzat teilatu eta ja-*

*nari minimoa! Petrolioaren dirua nora doa? Baserritarrok lur beharra daukagu!*". Goseak amorratzea eman ohi du: emakume barrabas batzuen oldarra usu mugatu behar zen.

Badirudi senarrak nik baino asti gehiago duela, higikunde aztertzeke ezen harengandik eurrez ikasi dudana, egunkariek ez dutelako fisik aipatzen. Nire senarrak dio Amerika osoko indigena nazioak antolatzen eta erakundeetan elkartzen hasi garela. Igande batez, aspaldian jantzi ez nituen soinekoak, *pollera* delakoak ipiniz, ginbaila buruan, manifestatzera joan nintzen. Nahiz eta ez nintzen talde edo elkarte batekoa indigena jantzia seinale eta haienganatu nintzen.

Hasieran saldoaren erdian murgildu nintzenean ezohiko zirrara nabaritu nuen: irudi zitzaidan ez nuela areago nire buruaren kontrolik. Basa ur gaitza harkaitzen artean dabilen moduan, ezin geldituz, kalez kale, etxeen artean atxilotuak genbiltzan. Nabaritzen nuen askatasun hori, buru galtze kordokadura zirudiela. Ez zen, haatik, polizia etxeko kristal latzen gibelean eraman nuen herstura.

Jende aldraren erdian, basa animalia antzakatu, eta bezatu abereen artean sartzen den antzekoa izan behar nuen. Hautzaroan ohitua nintzen Wamotera joatera elizara, ezen ez baginen meza zale handiak baziren bizpalau santu prozesio eta kantuz ohoratzen genituenak Mircid eta Corpus egunetan batik bat, ez nuen orduan, asperraz kanpo, oraingo manifestaldi beroen eta latzen giroko ondoez arina nabaritzen.

Beste zerbaitek gehiago hunki ninduen. Ez nintzen emazteen artean nabarmendu nahi, ustekabean, ordea haien artean horrelako susmo txarra piztu nuen.

—Aizan! Zer habil alde guztietara begiratzen! Gure zelatatzea etorri al haiz?

Uste dut mintzoa aski moteldurik ketxueraz ihardetsi niela, hirira etorri-berria nintzelako, alde guztietara so egiten nuela nire Sangayaldeko herrikorik edo nire ezagunik ba ote zen.

Beste manifestaldi zenbaitetan jalgi nintzen. Phillip gogoan pollera ederragoak jantzi nituen. Pollera, pollera zer hitz motza. Ez. Etxeen landu joskintza: *anako* gona erdia, *mamachuchi* gerrikoa eta sorbaldetako *fachelinua* jantzi nituen; fachelinuari lotzeko amak eman zilarrezko *tupudun* eta *chimbi* brotxa ezarri; buuruan borsalino ginbaila berria: jantziak arma genituen.

Halako batean, gure andre eta haur saldo baketsuan genbiltzanean, itsumustuan gelditu behar izan genuen. Aurrekoak oihuz eta txilioz eman ziren; poliziek porrekin haurrak eta emakumeak jipoitzen ei zituzten eta jadanik, airera tiroak entzun ziren. Ihesari eman ginen. Horrela jabetu nintzen menditik ere baserritar samaldak jaitsi zirela. Gure herriko neska, igandero merkatuan ikusten nuenak, aitortu zidan gure ama ez zela batere pozik, uste zuela alferretan genbiltzala eta higikunde horrek ez zuela ere inora eramango.

Nolanahi, azken bi Corpus jaietan udaleko ez ziren mendietako herri buruzagiak begiratu nituen beren isilpeko eleketak egiten; andreak ere berenak. Ez nintzen berehala haienganatu, gaizki hartuko nindutelako lotsarekin, nire burua hiritarregi sumatzen nuelako. Riobamban indigena higikunde hori sindikatu guztiez eta jende mengoatsuez ongi ikusia zen.

Estatuan *Chimburazu* aldea zen foku beroena Phillip adiskidearen ustez; berak zion CONAIE izene-

ko Indigenen Ekuadorreko Nazio Konfederazioa sortzean cañariak, salasakak eta Chimburazo aldeko eta Sangayko *puruháok* eragin handia eman genuen; utavaluak beti apur bat uzkurrago, ezen ekonomian alde onetik integratuak izanki ez zuten horrelako gabezia gorririk, ez bazterketa hain handirik jasaten.

1990.urtean Matxinada urtea. Zurrumurrua bizkor hedatu eta Riobambara iritsi zen ehunka indigena andre menditik zetoze; gu Riobambakoak haien bidera joan ginen. Denbora berean, nekazari gizon taldeek ibarretako errepideak, *Transamericana* eta mendietako bideak zuhaitz moztuz, gurpil errez, harriz trabatu zituzten eta garraioak oztatu.

Gogoratzen nintzen nola hamar urte lehenago, gutarrak hiriburuko katedralaz jabetu ziren eta ohar-tuz ez zirela, ez lehendakaria ez eta orduko artzapezpikua beren kexak eta eskaerak entzutera etorri, lekua garbi eta txukun utzirik burua gora joan zirela. Oraingoan, eliza gure alde dago, orobat kriollo aberats ez diren guztiak eta sindikatuak ere gurekin ditugu. CONAIEn *Kas* aukera setatsuki errepikatzen dugu eta saguen moduan abantaila txiki batzuen biltzeko.

Ekaitz eguna dugu: haizeak erratz zaramak eta hostoak kiribilka erabiltzen ditu, gutarren gogoak ere inarosten eta berotzen. Nire utavalu nagusiak, etsietsian, beldurrez denda itxi du: utavulu zenbait legez higikunde horretan apur bat uzkur, epel-zerrepel dago, ustez eta diru galduko duen. Gatazka eta kale borroken esturaz azkenekoz denda zerratu.

Diez de Agosto hiribidea emakumez bete da, haurrak ere badira. Herriko etxerantz goaz. Intendenciara iritsi baino lehen, poliziak porra eskuan erasotzen



gaitu. Haurrak negar zarranez eta orroaz, basa gizon horik ukabilka andereei, ostikoka umeei. Ezin gibebez elkarren gainean erortzen. Zaurituak baditugu. Zaurituak ala hilik? Emakumeak ihesi etxeetan sartzen, ahal bezala eskapatzen. Gizon mordoxka batzuk gure laguntzera datoz: denetarik bada mestizo eta indigena, mulato eta kriollo zenbait, denak txiroak edo langabe-tuak, hots zuriek populu izenez ezagutzen gaituztenak hor geunden.

Zanpaketa horrek, arma gabeko manifestarien adorea itotzeko orde, irazeki eta beste hirietara greba hedatu du. Bai, udalzaintza hori ordenaren, erran nahi baitu aberatsen zerbitzuan dagoela. Iluntzean jakin genuen herrietan matxinatu gutar gizonak, urrikigabe, armadak tirokatu zituela eta egundoko sarraskia egin: ehun, berrehun hil, heldubada, ehunka larriki zauritu. Elkarrizketa batean gure irrati berriak aipatu zituen, manifestaldietarako eslogan baliagarri gisa:

— *Mutushpa Wanuchishpash tucuchishca karka*  
(Gizonak zaurituz eta hilez garaituak izan dira)

— *Kai kumunagui runakunaga chasuata na nungamanga*

(Herri honetako jendeek ez dugu horrelakorik nahi)

— *Manatak llaischka kasun* (Ez gara zapalduak izanen)

— *Imattak rubuashun?* (zer egingo dugu?)

— *Ashtahuan sinchikmi kashun* (Bihar indartsu izango gara)

Ondotik

*Nami mishakunchik* “garaituko ditugu” gure himnoa entzun da.

Biharamunean, goizik, armada hirian barneratu zen. Astebetez, dena geldi eta isil zela zirudin eta armada hiriburura itzuli zen. CONAIE *indigena nazioen elkarteak* greba orokorra aldarrikatu zuen eta hirietan indigena ez zirenek ere greba orokorrean sartu, orobat anitzek gose-greba elizetan. Gure indigena naziokoez harrotu nintzen, bereziki andreok, armarik gabe, burgoi gure indarra erakusten genuelako eta gizonek ekonomia zitaldua geldiarazten.

Bai, hasierako gure jazarpen txikia matxinada bilakatzen ari zen. Gu ginen pobreen aldekoak, ez *Sendero Luminosokoak*, eurek ez baitzuten egundaino erdie-tsi horrelako manifestaldi edo grebarik. Gogoratzen nintzen Senderoko iraultzari horiekin aitari gertatua, orobat herri auzoan nola mendekuz armadak *ehertzitu* madarikatuak gizon guztiak iraultzaileen kolaboratzaile zirelakoan, hil.

CONAIEk bere ahotsa entzunarazi zuen irrati xume baten bidez, panfleto bidez, eta izpiritu zabala-rekin *kastillasimiz* errepikatu: *Una mejor vida no sólo, para nosotros indígenas sino para todos los habitantes de este país*. Uste dut borroka horrek iraun behar duela. Phillipek dio gure herriko politika ustelkeria ohiturak nekez desagertuko direla.

Giro horretan, Grindio Philliperi, senar maiteari aitortzen diot berri garrantzitsua:

- *Kanpakta wiksayukmi kani*. Hire haur batez izorra nauk.
- Nina laztana, hau poza! gure bihotzeko hizkuntzan aitortu baitun. Goresmenak! Hau oparia! Irudi zidan nire odola garbitzen dunala.

- Ez zekiat. Umeak hiregandik erruz eduki zeza-  
ken, ez? Hiregana tira... “gringoska”.
- Ez kezkatu horregatik ez dinagu haurraz mesti-  
zo edo kriollo bat bihurtzeko gogo.

Indigena izateko gure haurrak, arbasoen ondarea jakin zezan gure mendietan ikastaldiak hartuko zitu-  
en, bai eta kitxuazko eskola eta Ikastetxean ibiliko.  
Nondik nahi zen, ametsak bazter utzirik, lehendik ni-  
niak sortu behar zuen.

Zer atsegina izan nuen, nik ere arrangura handia  
nuen ea mestizo bat gehiago ez ote nuen mundura-  
tuko? Ez dakit zergatik gogoratu berri nintzen, oihal  
dendan lan egiten nuenean erakusleihora begiestera  
etortzen zitzaidan maitemindu lotsati nazkagarria, in-  
digena hutsa zela. Eta nondik dabil gizajoa?

Bigarren greba eguna. Kalera joan behar nuke zer  
gertatzen den ikustera. Ez naiz manifestaldira hurbil-  
duko, ez delako andre izarra baten lekua. Denda isi-  
lean. Bat-batean ilunabarrean deiadarka emakume tal-  
de manifestatzaileak karrikaren behera datoz, lasterka  
erdi behaztopatuz ibiliz, arineketa bizian heltzen en-  
tzuten ditut. Tiroak kalean. Berehala, egoeraz jabetzen  
naiz. Argiak itzali... Atea ireki eta aterpea eskaini behar  
dient... ez dira gelditzen.

Goiko leihoan begira nagoela zer ez dut ikusten,  
polizia ezagunegia haien atzetik lasterka etortzen, tiro-  
ka. Lar pentsatu gabe, eskudelari ikaran eutsiz, denda  
giltzatzera jaisten naiz. Atzeko maratila zerratzen ari  
naizela, horra non eta despentsan nagoela, dendan  
nabaritzen dudana sartzaile baten urratsa. Ilunpeari  
ohitua, berehalaxe ezagutzen dut, eskuan porra dauka-  
la, gizon “zakur” ezaguna hurreratzen.

*Checakoa* despentsara haztamuka sartzen da eta zangarteko batez, kankarreko batez, zorura belauniko uzkailtzen dut. Haren pordoia lurrean. Zitzu bizian hartzen diot makila hori; bi eskuez oratuta, ezinbestean, untxiekin ikusi nuen gisara garondoa indar gutzit, eman ahala bi takarreko gaitzaz jotzen: hasperen batean ahuspez erortzen da.

Zer egin dun? Zer lazgarrikeria! Kinka txarrean jarri haiz! Batere gogoetatu gabe dendako atzeko eta aurreko atea giltzatzten jarraitzen dun. Bihotzaren taupadak geldituxe ondoan linterna pizten. Poliziaren garondoa-ri begira. Nekez, ahoz gora ezartzen. Aurpegi ezagun hura ikusten. Zurrun eta zerraldo gizonak zauria baino gehiago din. Beharbada konortea galdu du...iratzarriko da. Pultsua hartuz, antza denez, hilik datza. Lurreko odol apurra marrasa eta zatarrarekin garbitzen dun. Gogorregi jo dun. Ordu da hausnartzen has hadin.

Hire burua zuritu beharrez, lehenik, amamak zionaz gomutatzen haiz. *Halabeharrez egun batez gaiztoa izango haiz.* Hirea al da gaiztakeria? Aurrean, begien aitzinean daukana jendea ote? Pizti kaltegarri zitala, bai, hire torturatzaileen artean egon dena. Hura ala ni zen, hura edo umekiarekin gu biak bizirik, gertatu behar ginenak.

Horrez gain, uste dun ongi egin dunala gizon hori, zertuz, geldiaraziz, bestela gaur edo bihar gure herriki-deen edo beste herritarrak astintzen eta tirokatzen legokeen. Bizia eman behar dun eta hiltzen ibili haiz? Ez zunan emakume lana hori hik norbaiti bizia kentzea? Ala bai?!

Kinka txarrean jarri haiz. Gogoeta errazak hila-kin, berriz, zer? Jira-biraka eta hausnarketa hutsean

habil. Ordubeteren buruan, horra non dendan zozoki gauza jasotzen ari haizela, kanpotik, Nina! Nina! Hire Grindio Philliperen ahotsa. Ahaztu zain senarrarekin hitzordua huela. Sarrarazten. Saltegitira eroaten. Han hilotza erakusten.

Phillipek ez din ezer erraten, jazoeraren zertzeladez ezer galdetzen, ez eta obratu duna txarresten. Ahapetik hitz eginaz zelan gertatu den aipatzen dion.

— Nagusia etorri baino lehen eta gorbelztu aurretik, hil hau desagerrarazi behar dinagu, Polizia-etxeokak beren zakurraren bila hasi baino lehen.

— *Grindio* maitea hire automobila ekar baheza? Inoiz atzemango ez den lekura eramán dezagun. Harrobi batera, ez?

— Ez, kasu honetarako neska. hobe geniken, ezagutzen dudán putzu agortu batera jaurti bage-neza.

— Nahi badun. Lehenik, zorroto, eta ziskua iker-tu. Ikus dezagun nortasun agiria. Bai, kriollo hau ezkongabea dun; ez din, behintzat, bene-tako alargunik utziko.

— Phillip, atera duan diru honekin zer egingo dugu?

— Erreko!

— Ez, gizona, ez. Gutarren artean, zakur horiengatik, zaurituak eta alargunak edukiko ditiagu, *Minga* elkarteari emango diagu.

Nik eskaturik, arropa kendu eta biribilkatu. Auto-mobilean aztarnarik utz ez dezan, burua kalamu zaku batez estali. Lurreko odol istil txikia berriro garbitu.

Pordoi eta arma hartu. Jende argalena, meheena hil ondoren astuna da; bien artean eskorgara nekez eraikitzen dugu. Eta denda atzeko atetik Philliperen autoan kargatzen.

Gure egokierarako, grebaren bigarren egun hone-tan gutarrak hiriaz jabetu dira. Ezagunak garelako, uzten gaituzte irtetera. Gorpua gortina zatarraz estalia maleta-kutxan dago; bere polizia jantziak kartoi batean tinkaturik. Quito alderako errepidea hartzen dugu, ondotik saihebidetako bat, handik landa lur bidea:

— Phillip nora goaz?

— Nina, ezagutzen dudan baserri batera eta erori etxe baten atzean putzu lehorra bazegonan. Hara botako dinagu.

Putzu alboan gaude. Uhaga ugertu bat, bere beso luze iharrak zeru goibelari buruz altxaturik, zerbaiten deitoratzen ari dela irudiarazten du. Zer leku hitsa! Zabortegi batek alboan usain latza dario, okaraino atsitzen; dagoeneko sabelean apopiloan daukadan ume-kiak usainei erruz minberatu nau; halere, gau osoan hor egon behar?

Inoiz ez zait ahaztuko. Beldur naiz luzaroan gauezko eldarniotan ikusiko dudala: jantzien geruza kendurik zer ezain zen hirizaina. Gorputz erdi biluzi horren putzuan erortzean egin duen pulunpa zaratotsa oroituko zait, era berean gogoan iltzatuko jadanik zorte txarrez polizia etxean ezagutu nuen aurpegi hori! Gorrotoak gorrotoa dakar eta mendekatzeak bihotzeraino bere erro hotzak irmotzen ote?

Leku ainube hartan iluna agudo etorri zaigu. Goiztiria baino lehen ezin gara hirira itzuli, gutar batzuk

armatuak direlako. Eta erabakitzen dugu egun-argiz joanen garela. Ahal bezala etxe eroriaren bi pareten artean, automobila ezkutuan ezarri dugu. Barruan, ohitu naizelako edota usaina ez delako hala barnera-tzen zabor kirats hori, kanpoko sunda hori eramangarriago zait.

Jantzi eta soinekoen artean gauaren hotza sartzen. Isilik. Elkarri lotuak. Une gogorak izan arren ezin hitz egin. Noizik behin, zaparrada gotor batek automobila inarosten. Lo zati batzuk. Gauaren luzea. Ezongia. Ni haurdun! Goizean egunsentiarekin oskarbia. Zer ostertz gorri txundigarria! Berriz, ordea, bizkor hirira behar. Hiri sarreran apur bat zaila sartzea. Nondik gatozen azaltzea. Azkenekoz sartzea.

Etxera sartu baino lehen, osaba agurtu behar dugu. Osabak ez digu galdetzen gaua non eta nola joan zai-gun. Haren etxean ez banaiz ere gehiago bizi, bizirik ikusten gaituelako, susmoak dituelako, pozik irriño batekin atosten gaitu; han berean, gorputza garbituxe dugu, gogoa ez oraindik. Sekulako gosari-askari ederra ematen digute biei eta lipar batean lasaitu gara.

Dendara itzultzen naiz. Nagusia barruan dago. Badirudi ez duela ezer hauteman, greba dela-eta. Ez dugu denda irekiko atzo probokazio egileak lapurretan eta apurketan ibili direlako.

Bozkariotzen naiz, ezen loak aurtikitzen nauen. Auzunekoei, ordea, janari laguntza etxetara eroan behar diegu, eta batik bat, haurdun andereei zerbitzua. Hobe denda madarikatu honetatik urruntzea. Ezin dezakegu esan hautetsi eta Herriko Etxeko jenderik aurkeztu denik. Udalekoak hirian egon ote dira ala beren morroinak hemen utzirik Kolonbiara egurastera joan?

Atzo pasatua amets gaiztoa dirudi: neu halakoa egiteko lain izan naizela? Azken egunetan gertatu guztiak larrialdi eldarnioak dira eta hori da gure errealitatea: eginak direlako egiak. Eginaz ez naiz osoki errudun izan nahi. Oraingoan, onik atera gara.

Ene grindio maitea bere automobilarekin kanpotik sartzen topatu dut.

— Nondik hator, gizona?

— Neska, ahaztu zain zerbait galarazi behar genuela. Hik dun atzo eskatu uniforme jantzien kentzea. Zorionez lagunek ez digute kutxa ikertu. Uniformea eraman dinat eta zaborte-gian erre.

— Biziki ongi duk. Eta armak?

— Porra, zabortegira

— Hi, Grindio, ez matxino bilaka! Arma ere jaurtiki ezak!

— Zergatik ez matxino? Inoiz ez ditinat estatubatuarrek eta haien hemengo gaizkideek indigena jendeari egin kalteak nahi beste ordainduko.

Hirugarren greba eguna. Haserreak goiena jo du. Goizean etxez etxe berotzen, arratsean manifestaldia. Ez da udalzainik ez *ehertziturik* agertzen. Omen, hamar batek ihes egin dute; jazoerak okerrera joko zutela errezeloarekin beren sendiak, berak baino lehen, ihesi igorri dituzte. Nolabait ere, gobernuak eskatu ondoren polizia-etxetik inor ez da irteten eta ez dira ihesleen bila, ez eta hilaren bila berehalakoan irtengo. Hori jakiteak lasaitzen nau, uste baitut hil dudana desertoreen zerrendan ipiniko dutena.



Gure gizon grebalariak tirokatu dituen armada ankerrak Quitoko bidea hartu du. Apika, horrelakoak baitira, edozein beste gobernurekin, edozein sistemarekin berdinki jokatuko lukete. Barrengo alaitasun mingotsa daukagu ezen gure garaitza ikustea merezi zuketten borrokalariak bidegabek hil zaizkigulako. Haatik, harrotasun zerbait nagusi. Aurpegi eman dugu eta lehendakaria makurtu. Musika zerbait egiten da gaur egungo manifestaldian. Phillipekin eztabaida laburra eduki dugu:

- Ez larregi alaitu, lehendakari hitz-gabekoa errepublika honen buru ustela erori delako ezen bere adiskide handi diren gringoengana bizitzera joan baita.
- Phillip, gobernu berriak eskatzen ditugunak onartu ditik.
- Nina, gobernu berriak meta bat hitzeman din, etxalde handi abandonatuetako lur banatzea, jende eskolatzea eta miseria txikitzea. Bazekin agintarien hitzemanek ez dituztela entzuleak baizik behartzen. Soka berekoak ditun. Nire herritar izandako inperialista ñabar samar horiek ez gaitizten bakean utziko eta euren indarra gure erkintasunaren gainean baizik ezin dun eraiki.
- Phillip beste poza ere daukagu, lehen aldikoz estatuaren, historian gutarrak, indigenak legebiltzarrean barneratu direlako eta gure Nina Pacari, Kanpo arazoetako ministro delako, errepublikaren buruordea izan ondoren.

Zerua nolabait garbi zegoelarik, neronek hodei beltza sortu nuen. Aparecidarengana joan nintzen aholku

eske eta esan nion zelan lehenbizikoz senarrari agiraka sartu nintzen, kanpoko ardurak kezkatzenago zutela eta etxetik kanpo edukitzen. Bera, lasaiki, eman zen eskatiman, bere eginbehar eta eginbide guztiak aipatuz. Aparecidak ohartarazi zidan bekaitz hutsa bilakatzeko ari nintzela eta Phillip bakean utz nezana. Ez nendila senarraren epaitzen, hain goizik has, ezen besteak neurtzen ditudan neurrian neurtua izaneko nintzelako ni ere eta sastraka artean ez nadin sar.

Galdetuz, zergatik ez nion axola gehiago eskatu behar, lagunak gaineratu zidan, ez nuela bekaizkeriarik burutan sartu behar; poztu behar nukeela ezen CONAIEn eta Ketxuera Irakasle Ikastetxean baita indigenatasunaren militantzian ematen zituen axolak, eta lanak niri lotzenago baizik ez zutela; bestalde, argi zen hainbeste eginbeharrekin ez zuela nitaz beste andre batentzat astirik.

Aparecidari ez nintzen argudiotan errenditu esanaz ez nintzela senarraren mailan, ez eta haren andre ereduaren eza gaztaroan Ipar Ameriketara egonik gringoen eta hango bizi moldeak kutsaturik bere barruan beste norbaiten ereduak legokeela, hots emakume larri leun zuria, ile horia eta begi urdina. Aparecidarentzat nire iritzi horiek umekeriak ziren utz nitzan, bestela besteak izartu neurriaz ere izartua nintekeela, errepikatuz.

Beste arrangura bizi batek erretzen ninduen: bane-kien adinarekin, urteen joatearekin, nire gorputzaren-ganako irritsa epelduko zitzaioela eta, apika hoztuko. Zer emazte zahar ideia! Aparecidak zion haurrak lo-karri izango genituela. Ez nion larregi sinetsi, umedun familiak larri ikusten baintuen nahasirik eta bereizirik. Nire burua ahazturik Phillip hobeki azter nezana, lagunaren azken iritzia izan zen.

Zer gizon goibela eta zorrotzegia dudan senarra. Philliperi, buruan galdukeriaren harra sartu al zaio? Ez. Gure indigena mundu mehatxatuaren errealitatean dabil. Itzul nadin egunerokora: nire sendiarena dakusat eta larunbat arratsetan izan ezik etxekoekoizpenak ez ditudala ongi saltzen. Alta, ama etorri zait janariekin, nik deus ere eskatu gabe, jakin duelako izorra nintzela.

Egun hartan, gertatu zirenak kontatuz, erraten diot dendan sartu zen polizia torturatzaillea nola ezinbestez kalitu nuen. Nire hautuko hil ekintza zilegi zitzaidala, diot.

- Neska, gizon bat hil dun. Gaiztoa zukeen, hala ere ama bat zeukanan bizi guztian haren zain. Ez jakin non dagoen. Hil den berririk ez din jakingo.
- Hobe ama ezer ez dezan jakin. Ihes egin duela uste izanen din.
- Neska! Ene *Wa-wa*, hori diotsan nik ere seme bat galdu dinat, eta ezin dun pentsatu zenbateraino min egiten duen horrelako galtze batek.
- Zer nahiago zenuketan beste baten seme tzarra hilik jakitea ala zure alaba eta jaiotzekoa den haurñoa tiroz hilak? Bai, ama, zuek zuzengabekeriak eta bazterketak onartzen zenituzten denborakoak zarete, gaur *se despierta el indio* diote kriolloek muzintzen garenean. Ama, indigena zentzun eta dendun ernatu duzu.
- Uste dun irabaziko duzuela?
- Erne egongo gaituzu, zuek jasan dituzuen irain eta miseriak gutarrek ezagutu ez ditzaaten. Ama, horrek ez du beste irtenbiderik.

- Bai, Nina, bai zalantzarik gabe. Ez dinagu, ordea, ametsik egin behar, beti miseriak egonen ditun. Jende izaera ez dun denentzat berdin.
- Bai ama bai. Egun arte, ordea, gu bakarrik indigenok azpiko jendeak ginen. Auzoko gizon batek dio, txantxaz, berdintasuna litekeela, behartsuak larru kolore guztietakoak kopuru berdinean balira.
- Bai neska, gure sasoia bete dinagu, bai. Mendietan ez gaitun eroso bizi, ez gabezia gorrian, ordea. Bazekinat ez haizela aisa guregana itzuliko. Ez ibili, mesedez, indigena ez direnen erdeinatzen. Gorrotoa dabilen ura bezala dun beheratzen ez bada gaintitzen dun eta eramaten hau.

Agian, beldarrak hostoa jaten duen legez, bizitza bihotzeko sentiberatasuna jaten ari zait. Amaren sermoi horrek, ordea, ez nau gehiegi hunkitu, nire ekinzarekin arrazoi eduki dudala, uste dudalako. Hura ala ni. Zakur hura ala gu biok, umea eta ni. Umea goiz edo berandu, sortuko baita. Ama herrira itzuli da. Lurrak *markanei* eman dizkie eta bera artilea lantzen eta ehundegian jantziak egiten dabil.

Orain, ordu dut zuei hainbeste aipatu dizuedan Grindio Phillip zelangoa den azaltzea; senarra ez da gringo ilegorria, buruko ilea leun eta gau beltz duelako, eta begi beltzak argi, larrua horixka. Nire gizonak ez du kriolloen sudurra, arrano sudurra baizik. Haren irria, haren irribarreak sano. Niretzat adinon handia, nahiko luzea da, geu menditarrok gehienetan txikiak garelako.

Janarian eta edarian zuhur, Phillip, mendi kirolzale handi izateak lerdentasuna eman dio. Oinez ibiltari eta

mendizale amorratua dut senarra, halaxe Sangai mendiraino joanaz bidean amari lauzpazortzi bisita eman dizkio. Hark dit gogorazi mendi hori sakratua dela, jendea lur zabal honetarik gal baledi ere iraungo lukeela bere Andre Tungurahuarekin harreman estuetan beti bizkor eta honen gisara egun batez sua jaurtikiz zartatuko dela, gure sumendia irudi, Chimburazua ere.

Urteak joan, urteak etorri, senarrak geroago eta hobeto kitxueraz dagi eta ingelesa galtzen ari naiz. Ahal duenean eta oporretan mendirantz goaz Volkswagen izeneko motordun zomorro batekin. Jadanik, turistentzat mendira igotzeko bide erdiko aterpea eraiki du, senarrak. Indarrezko lanetan trebea ez izanik ere Phillipek amari, baratzetxo irauliaz, laguntzen dio; gutartzenago ari zaigu. Goiko mendiaz, haren geroaren eta haren biziberritzearen urduritasunaz kanpo, baditu egitasmu ederrak, turismo sano baten bultzatzeko.

Senarra ni baino usuago ibiltzen zait sortetxera. Ez dut hark bezala oporrik eta hark begi zorrotzez *Llakta aylluan* ikusi dituen aldaketak aipatzen dizkit. Horrela, ibiltzen naizen gutxitan, badakusat lehen kriolloen ibar hondoetan ikusten ziren tresneria berri zenbait mendietara igo direla. Gure antzinako lurrontziak turisten salgai direla gaur egun, eta herritarrek plastikozkoak nahiago; janzkeran ere gringoen jantzi eta soineko guztiak herri txikienetan buruzagitu direla: blue-jean's, sheet-swampers, tee-shirt.

Dena ez doa gaizki nola kooperatiba bidez, berek egiten duten elektrizitatea eta ur garbiaren, hornidurak. Motorrekin zoratuak dabilzan gure menditarrei makinaren garestiegia erakusten ibilirik ere, ez dute,

askotan ezinbesteko luketen gisa bizpahiruren artean makinarik erosten. Bakoitza berearekin anitz zorpean jartzen dira. Bestalde, Wamote herriraino autobusak badira eta gure herrixkara furgonetak errazago iristen. Bestela, gure mendietako aroak, sumendiaren haserretan izan ezik, beti hotz eta sano irauten du eta aire horrek haurtzaro menditarreko atsegin xumeak, koloreak, argiak eta usainak gogoratzen dizkit. Senarrarekin lanbidea hiri handian dugu, ordea, eta gehienetan beherean bizi behar.

Lanera joateko senarrak bizikleta erosi dit. Emaitza horrek oroitzapen hitsak eta onak gomutatu dizkit. Hamar urte honetan ez nintzen horretan ibili. Ez zen alferrik izan gure anai zaharrenak, Tuñu zenak, bere bizikletan ibiltzen ikas nezan prestatu zidala. Gure mendietako amerindiarrok bizikletari amorratuak ikasi behar, ordea, biragunetan noizean sasira, noizean erre-kara joanaz hobetzen.

Tuñu, haurride zaharrena txirrindulari iaioa genuen, eta lehiaketa egiten ibili zen eta lauzpabost aldiz, txapeldun izan. Egun batez auzo bat etorri zitzaigun etxera esanaz:

*Suldadukumaka muyunchishpa paita bark'ashakuna*

Soldaduek inguratu-eta atxilotu dute.

Bai, Europako txirrindulari lehiaketetan talde batean kidetzeko eskaintza zuelarik, nahiz armarik gabe zebilen, *ehertzituko* militar zerriek Tuñu gurea atzitu eta hil ziguten: honela ebakitzen dira ametsak. Gogoratzen naiz Pidru beste neba gazteak aitortu ziguna Europara joan baino lehen:

— Gerra honaino heltzen bada, soka bilurra badi-  
nat eta soka horrez urkatua hil nahiago ninte-  
keen, gerran ibili baino.

Amak entzun bide zion. Bi besoak hartu, begietara  
begiratu eta esan:

— Nahiago hinduket bizirik atzerrian jakin, ezen  
ez eta herrian preso edo hilik.

Bizikletaz lanera noa Tuñu zena eta Pidru gogoan.  
Gure mendietako bide txarrenak baino arriskutsuago  
dira, ordea, gure egunetan Riobamba berriko karririk:  
gutziz goiko kaleak zeiharkatzean, eta gaur, haurdun  
naizelarik, maiz izutzen naiz. Horregatik, haurdun  
naizelako, eta aldarte txarrak hasten, Grindio Philli-  
pek beribilean lanera laguntzen nau. Indargetzen ari  
naiz. Asteartean zerua laino hori batez estali denean,  
Tungurahua sumendiak igorri hautsak kaleak lohitu  
ditu, etxeetan sartu eta nik, erkinegi, ahulegiz ez diot  
Aparecidari garbitzen lagundu.

Aurten, 1991. urtea. Lanpeturik, ez naiz ondo jabe-  
tu goizean, ireki berri den bigarren kitxuazko irratiak  
urtemuga batez abisatu gaituenean, alegia Unescok  
erabaki duena 1993. urtea amerindiar nazioena izanen  
dela. Grindio Philliperi galdetu diot zer deabru den  
urtemuga hori eta hark ihardetsi espainolek Colon,  
*pregón genovés* gure lehen etsaia, 1992. urtean, ospatu  
nahi dutela. Eta guk erakutsi behar geniela Amerikak  
deskubritu ditugun lehenbiziko jendeak gu garela.  
Gure CONAIEk espainol besta horien boikota egitea  
aldarrikatu du.

Horrez kanpo mestizo eta kriolloek ere espainolei  
buru emateko independentzia ospakizuna antolatu be-

har dute, beren Guayaquilen, 1822.urtean Bolivar eta San Martin elkartu zireneko omenaldiarekin, espainol erregearen ikustaldiaz protesta egiteko.

- Ongi duk gizona: amerindiarren duintasun urtea aldarrikatu, boikota oihukatu eta gero?
- Eta gero, duela lau urte legez eta kemen gehiagoz, eretiaz baliatu behar dinagu nazioarteko amerindiar biltzar nagusia hemen egin dadin.
- Zer deritzok? Lehenik, gure artean, elkartasuna behar genikek. Zergatik ez gara Ekuadorreko eta Peruko ketxuar indigena guztiak estatu baten eraikitzeko gai izan?
- Bai Inkaren garaian *Tawantinsuyu* inperio bakarra gintunan, zapalkuntzaren moldeek bai eta mendien oztopoek laurdenkatze hori ekarri ditin. Kriolloek, berriz, ziotenan Espainiak Inkaren menpetik askatu gintuela.
- Egia egina dena da, askatu, askatu? Mendi zirkiluetara bizitzera behartu gintiztenan edo bestela zelaietan haien erdi esklabo. Hau askatasuna! Zelango askatasuna!
- Bai. Jantziek bereizten bagaituzte odolez ere Perukoak eta Ekuadorrekoak antzeko gaitun. Quitoko eskolako idazleek Jorge Icaza eta besteek guk baino hobeki kontatu dituzten bigabekeria horik. Ez ahaztu neska, Asiako odoletik dinagu. Batzuetan, kriolloei oroitzen zaien, mestizoak eta gu alforja berean sartuz, *chinitos* deitzen gaituztenean.
- *Chino*, txino. Ez al da Txina Europa baino handiago? Amerikak baino gotorrago, langileago jartzen ari?



— Ez da fidatzeko egun batez Nina, gutarrak Txinara lanera joango ditun.(Phillipek irriñoa ezpain eta begietan).

Grindio Phillip prentsako artikulu mozten hasi zitzaigun, haietan egingai genuen gure biltzar nagusiaz hitzik ez. Colónen komedia horrekin, Espainiako erregeak bere kolonietara etorri behar zuelako, jende zuriak ere beren odoleko hispanoen harrokeriaz kexu, ezen berek ere espainolekin gudu odoltsuak izan baitzituzten. Prentsa, indigena protesta aipatu gabe, kriollo zurien amorru horrez bete betea zegoen.

Kriollo gehienek, ordea, espainol inperioaren pentsaera bera jarraitzen dute eta horrelako artikulu batean 1992.an uztailaren 27.an *El Universo* egunkarian F. Salazar Alvaredo eskuineko *nacional-centralista* kriollo kazetariak “*Necesaria integración nacional*” artikulua eman zuen eta Phillipek honela iruzkindu.

Hasieran humanista itxurak hartuz ondo abiatzen da:

“Lurreko zazpi herri handienek bat egiten duten moduan guk, herri txikiagoek berdinki atondu behar genuke, ezen zenbat nahi bere buruaren jabe izan estatu bat, bere mugetan tinkatua ezin du bakarrik jarraiki”.

Ondotik, Bolivar eta Carta de Jamáica aipatzen ditu:

“Gure Ameriketara egin bedi munduko estatu handien pare izateko batasuna, ez hedaduraz eta ogasunez bakarrik, askatasunez eta aintzaz baino (sic)”.

Ondoren, Andetako hitzarmengai batera igarotzeko, Limako akordioa oroitarazten digu eta hor tituluak iragartzen du humanista jantzia kendu eta esku-bide berdintasunaren aurkako larrua agertzen zaiona. Andetako amerindiarren nortasun eta autonomia eskaerak erabat baztertu behar omen direla, Ekuador miresgarriaren batasuna apurtu bailezaketete eta zibilizazioak atzera egin. Kazetariak amerindiarren autonomia eta hizkuntza eskaerei, *segregación étnica* deritzo!! Beste argudio batzuekin ezkerreko iraultzaileek ondorio berak ateratzen dizkigute, berariaz, berdintasuna eta uniformetasuna korapilatuz. Bestalde, indigenok nor gure gain nahi hori, klaseen borrokatik urruntzen omen gaitu.

Hain zuzen, Phillipek idatzi bazter ohar batean irakurtzen dut Francisco Sarmientoren artikuluetan argudio berdinska agertzen dela, argentinarra, gogorago mintzatu arren, dio:

*Portenoak zibilizatuak dira, gauchoak zibilizatu litezke, baina indioak ezin, Ande mendiak desohoratzen dituztelako, gain horietarik garbitu behar ditugu”.*

Kazetari oparoari gizon batek baizik ez zion iharduki José Martí kubatarrak. Hala dio Phillipen oharrrak. Sarmientoren iritzia ez zen harena bakarrik, 1880 Argentinak abiatu politika baten ekoizpena zen, ezen alkoholez edo eritasunez hil ez zituzten Patagoniako amerindiar gehienak XX. mendearen bigarren erdian tiroz akabatu zituzten haien oihanak, meatzeak eta petrolioak nahi eran ustiatzeko.

Berriketariak erdirakoi ideiak beren azkeneraino daramatza. Quitori, beren Quito handiari egundainoko iraina egiten zaiola, probintzietako hiriburuak be-

ren Guayaquil, Porto Viejo, San Lorenzo, Riobamba kostatzenegi eta garatzenegi direlako. Estatuaren oho-reagatik Quitok diru laguntzak oro bereganatu behar lituzke, dio Alvaredok.

Bai, tankera horretako gizon horien lemak dira, *Ecuador y Quito*, eta *castellano y criollo*. Horiek ez dute bostehun urtez beren ikuskera eta predikua aldatu. Hain zuzen, beren Guayaquilan bildu ziren estatu buru batzuk, elkarri eskuak emanik, Bolivar eta San Martinen aliantza ohoratzen duen hiri horretako erai-kuntza ederraren aurrean agertu ziren.

Phillipek artikulua iruzkinduz dio zelanbait ezkerreko eta eskuineko franko gure etsai izanki, beste bi gizaldiz, gure indigena nortasuna nekez atxikiko dugula. Unescok 1993.ko urtea amerindiarrena aldarrikatu arren, beldur zait senarra nolabait nahikunde hutsa litekeela, eta geu, ohiko legez, hitzemanai, ope-tsiei eta agiantzei lotuak. Hori dela eta, kardaba guztien gaintetik, geuk, amerindiarrok gure ospakizunak, eta politika eskaerak argitzeko bilerak taxutu genituen eta kriolloei gure estatuen berjabetasunaren aldekoak aurkeztu.

## XIII

### EGE ERAKUNDE BATEKIN

Hiri honek, *Riubamba* honek, amamaren garaian 20.000 biztanle baldin bazituen, gaur egun 130.000. Eta non finkatuak ziren enparauak? Bai behin behineko lanetara eta jateko igurikimenean, goizero etortzen ziren pobreak non bizi ziren? Hirikoak banekien, gure auzuneko karriketako behartsuak non zeuden; besteak aipatzen entzuten genituen *barriada* txabola aldiriak Grindio Phillip senarrarekin ikusi behar nituen.

Senarrak aitortu zidan bere ingeles enpresako lanez aspertua zela, harremanetan jarri zela gosetuen alde lan egiten duen EGE/ONG elkarte batekin. Egund batez erran zidan, inguruko aldats eta mendixketan hedatzen eta garatzen ziren txabolak, EGE batekin bisitatu behar genituela. Hautatu gintuzten, *kitxua* eta gaztelania dezente ongi menderatzen nuelako eta senarra ekonomista zelako.

Beste aldi hartako ebanjelikoaren gomuta ez oso ederrak gogoan kili-kolo nengoen. Lehenbizikorik, bisitariak ikusi nahi nituen. EGE horik ez zirelako gringoak, ez eta ere espainolak baita lauetarik bi andreak zirelako, europar horik jatorrago eta sanoago ziruditelako, keko-meko gehiegi barik onartu nuen haiekin ibiltzea.

Elkar ezagutu ondoren, bazirela hirigintzako andrea sendagile gizona eta bi etnologo, senarra eta biok taldean kidetu ginen. Berehala adierazi ziguten ez zetozeela programa baten inposatzera baina bertakoek zer behar eta zer nahi zuten laguntzeko. Haien xedeak eta gure mugak zehazki eztabaidatu ondoren biharamunerrako hitz hartu genuen eta miseriategi hurbilena ikuskatzea hautatu.

Lau-lau automobila batekin kale, karrika, hiribide ederrak errepide zabalak *carreteroak* utzirik, zuloz betetako karril bakarreko galtzadak kale saskilduak hartu genituen? Asfalto baino gehiago harri legar estalkia bazen. Erreia bakarreko bideak ozta auto baten lekua ematen zuten. Bukaeran harri eta errauts.

Lurrezko bideak gure mendietarako egoki zitezkeenak, hemen harri koskorrez eta zuloz beteak, oinak trokatzeko gisan zeuden. Gelditu ginen. Ibilgailua gazte baten zaintzan utzi. Bero latz eta errauts artean oinez abiatu ginen. Barriadaren sarreran agure zahar bati galdetu genion zer zion lekuaren egoeraz: hark, eguraldiaren arabera, *charcos y lodazales, piedra y polvareda*, baina *hambre y miseria* urte osoan.

Askotariko etxe kaskar eta barrakak, ahal bezala taxutu txabolak non-nahi sakabanaturik ageri zirenagatik, urrundik auzuneak ez zuen horrelako antza zantar itsusia. Lurra gure mendietakoa baino emankorrago, joriago zirudin, sumendien errauts grisekoa eta leku hoberenetan bakan batzuek baratz txiki apainak zeuzkaten. Mota guztietako etxetxoak ziren, ordea: hoberenak porlan, zementuz, harri eta adreilu berreskuratu puskekin eraikiak, Teilatuak gutxitan teilaz, gehienak latorriz estaliak non ez ziren plastikoz edo lastoz. Gure

aburuz teilatu onenak —ez hala kanpotarrentzat— lastoz txirikordatuak ziren. Etxeek atea zeukaten, gehienek leihorik ez. Leiho gabea zela-eta, agureak esan zigun irriz, hotza edo beroa barneratu ez zedin, eta jendea atetik baino sar.

Horrelako etxola batean, nire nazioko *serrano* batez hautemanik, gure bisitaren zergatia adierazi nion eta etxearen ikustaldi egiteko baimena eskatu. Andre zaharra, nire senarrari begiratu, ezagutu balu bezala, irri bat egin zion eta *runasimiz* agurtu. Etxea ez zen txikiena, txukun jarria zen barruan, lurrezko zorua zeukan garbi garbia. Galderetan hasi ginen.

— Hemen zenbat bizi zarete?

— Egunaz, ni atso zahar ezindua, *manavali*, etxean.

— Eta besteak?

— Besteak gauaz erretiratzen.

— *Besteak* non dabilta?

— Besteak... Nik al dakit? *Se jueron onde hay comida, mismo*. Nonbait, basa ehizak oihanean bezala, janari bila edo behin behineko morrontzan.

— Eta zer dakarte?

— Bizirik irauteko doia beti eduki dugu.

— Bai, menditarrok langile handiak omen zarete?

— Nik ere ahal banu? Adina hor dago. Atsoa naiz.

— Andrea, etxe txukun hau ikusi-eta hemen bertan lan egiten duzula ageri duzu.

EGEkoei azaldu diegu Ekuadorren zer nahi nazio-ko izan ere jendeak gutxitan duela kalean eskea egiten. Batzuk, hirian etxez etxe dabilta jakinik non diren esku zabalak.

Beste etxetxo bat, hobeki esan txabola erakusten digu Grindio, besteak sartu baino lehen darakutsa ez dela lehen aldia hemengo alde dabilela.

- Hau kaletar mestizo baten etxea izango da.
- Nola dakizu?
- Baratzerik ez du.
- Baliteke, egiteko astirik ez dutelako.
- Ez. Hiritartuak dira mestizo gehienak, baratze egiteko teknikak galdu dituzte eta etxe egitekoak ere eta berreskuratzen dituzten ekaiak nolana metatzen dituzte.
- Baina, auzoengandik ikas zezaketen?
- Ez. Horretarako ganora, kemena, eta aldarteak galdu dituzte eta berriro eman behar zaizkie.

Bai, gure aurrean taula, ohol zahar, latorriz, xaflaz, beribil puskaz eraiki txabola dago. Txabola honetan egunaz ez da inor egoten.

Txabola txarrenak, etorri berrien estalpeak, tantai batzuen gainean ipini plastiko zaharrez jasoak dira. Piltzarrez zarpail jantzi jende batengana hurbiltzen gara:

- *Buenos días.*
- *Siempre hay piores, mismo.*

Baimena eskaturik eta gure bisitaren helburua auzoengandik sartzen gara. Barruan bi zahar.

- Bakarrik bizi zarete.
- Bai, jaun andreok.
- Bai eta zertaz?
- Auzoko batzuek janaria ekartzen digute.

Harritzen nau Grindio Phillipek auzune hori hain ederki ezagutzea ez baitit inoiz aipatu horrelako le-

kuetan ibiltzen zenik. Eta ni haren kanpoko ardurez bekaitz? Emakume bat edo beste ezagutzen dudala irudi zait, kaleko manifestaldietan ikusi nituzke? Beharbada, horregatik igande batez EGEko bi europar andereekin, emakume batzuk bildu behar genituzke euren iritzia jakingarria daitekeelako.

Lehenbiziko agerraldia motza izan dugu. Egun osoaren bizitza ikusi behar genuke, bestela ez dugulako behar zen moduan txirotasuna adituko eta horrela ere nekez. Biharamunean, eguna, argitu baino lehen, goiznabarrez bigarren ikustaldi baten egitea gogoak eman digu. Goiz goizik beste auzune batera iristean, erleak erlauntzetik irudi, hirirantz emakumezkoak, gizonezkoak eta haurrak jan eta lan bila irteten ikusi ditugulako joaten.

EGEko batek galdetu digu haurrak eskolara joaten direnez eta eskola bat ikusi nahi dutela. Ihardetsi diegu muinoaren beheko aldean dagoela eskola bakarra. Eskola sakonune batean dago. Aldamenean aintzirak edo hobeto esan ur loskoan lokatz zingirak gorotz ezin usnatuzko suna dario. Bide ertzean gizon zaharra. Zer den aintzira hori galdetzen diogu?

*Somos muchos hambrientos, pero cagamos y con la lluvia, del caminito se nos baja la mierdecita de los de arriba. Es que este estiercolito queda sin provecho... sólo para las moscas.*

Hormigoizko eraikuntza. Atarian *Escuela Fiscal*. Leihoak baditu, jolasleku estalpea, erdi andeatua. Aurrean irekia den larre batean ume guztiak jolasten, neskak dira denak jolasaldian daudenak. Goiza da. Andre batek harrera goxoz atosten gaitu eta agurtu ondoan:

— Zu, hemengo irakaslea zaitugu?



- Bai, goizez neskei klaseak ematen. Arratsetan etxe aberatsetan *limpieza* barne garbiketak egiten.
- Eta arratsaldetan umeek eskolarik ez?
- Neskek ez.
- Gizon bat goizetan kontu eramaile dena, mutilen maisua dugu arrastitan.
- Zenbat haur dituzue?
- Urte hasieran bakoitzak 60 eta ikasturte hondarrean gehienik 25. Urtearen azkeneraino geratzen direnek zerbait ikasten dute. Besteak, jan beharrez karrikan. Janari edukitzeko arazorik ez duten aberatsez gaizki ikusiak.
- Kaletarren iritziak horrelako garrantzia al du zuentzat?
- Bai, hobetzeko gura itotzen digute. Hamarretan oraindik ohean dauden horiek, gutaz nagibagi garella eta txiro izatera behartuak garella, diote.

Marrazki egiten dabilta EGEkoak; gizon batek eta andre batek, tresnarik gabe, susmorik ez pizteko neurriak estimatzen dituzte eta kezkatu daude ez delako leku laua.

- Eta askok eskola uzten?
- Latza da aitortzea, goizean goizik kalera doaz jatera, kalkatu aberatsen hondakinen biltzera.
- Jatera?
- Bai, hirian hondakin biltzaileak daudelako, etxe bakoitzak maiz zaborrontzi bereizia dauka, zabor eramailea txerrientzat jan hondarrez balia dadin, trukean. Biltzaileak jaso baino lehenago, esteiari gosetiak ogi gogor koskorrak,

hardun, matxuratu edo erdi usteldu frutak eskuratzen, biltzen, halaber janari gardingatuak eta garkarazkatuak, lizunduak eta ikaztuak eskuratzen dabilta.

Eskua sardexka hoberena dute. Beren gisako burdin puskatxo batekin ustela kendu eta han berean jaten. Hoberenean, etxerako fruta eta papa zimelduak biltzen. Zirtzil bakan batzuk txaboletan egonaz indargetzen eta gaixotzen dira.

- Zure ustez zer egin genezake?
- Gosaria eta bazkaria eskolan jatera eman: horregatik baizik ezpada eskatu-ala etorriko lirateke, umeak.
- Ez duzu eskola honen emaitzetan sinesterik?
- Ez. Geletan 60 eskola ume duguino eta bi erdi irakasle, zer? Gehienek hitz egiten, batzuek irakurtzen ikasiko dute eta zenbaitek idazten ere. Eskola on gabez, gurasoak bizi duten txiro girora itzuliko dira. Estatistikek diote hirietan %5 baizik eskola gabeko direla, baina urte hasieran aste bat edo biz agertu direnak barne.

Neskak deitu eta klasetara itzultzen dira. Zer nahi jantzi badute, denak garbi, ostera. Bigarren eskukoak, aberatsago batek emanak, oinetan espartinak edo kar-toizko oinetakoak edo ujabat. Oinutsik dabiltzanentzat klase sarreran txapinak. Horrelako aitortzak entzutean eta egoerak ikusten gogoia gatzatzen zaizu, eta ezintasunak apur bat etsiarazten, hala ere ez al gara hor egoerak alda daitezen?

Ez diot aitortu andere irakasle honi, mendietan gure ekimenez eta elkar laguntza bidez, batzuetan gure

haurrak ketxuerazko eskolan baldintza hobetan daudela eta ongi ikasten. Halaz ere gure goi mendietan ere 8-10 urteekin lur lanean jarduten eta eskola gutxi dute. Gure indigena eskola horik zertan diren ez nekien, zer bilakatu ziren ere. Grindio Phillipek, senarrak, kontatuko dit, irauten dutela, haatik irakasle eskasia dagoela eta Ministerioa luzaroan ez alde.

Azkenik, 2008. urtean unibertsitate publikoan ere gure hizkuntzak bere sarrera du. Gainera, nekazari askok eskola elebiduna ez dute begi onez ikusten oztopoa dugu. Senarra Quitoko unibertsitate katolikoan *kitxuazko* irakasle eskolan ikasten baitabil, behingoan nik baino hobeki jakingo du. Gure hizkuntza noizbait ikasia, nire biziko esaldi goxoena haren ahotik aditu berri dut, zergatik maitatzen ninduen galdetu nionean: *Wacharishkani kuyangariku* (Jaio nintzen zure maitatzeko)

Bitartean, barriadetan bizitza gogorak dirau. Egun ikerketa sakonagoa egiten dugu. Azpiegitura edo hobeki erran azpiegitura eza begiratu behar dugu. Ur hornidura da kezkarriena, beheko aldean izan ezik eta hor hiriko bi iturri daudelako, aldapakoek, behetik gora ekarri behar edo euri ur satsuz baliatu. Etxeetan edozer ur duten hiritarrek, errazto diote behartsuak ez direla garbitzen. Halere, goizetan etxetik kanporatzean behartsu gehienak nahikoa garbi dira.

Bestalde, okerrera etxeen artean lur bideetan gairandi beren usaina barreiatuz, ur kutsatuak kurritzen zaizkie. Ur geldietan eltxoak eta edozer mikrobio hazten. Urez zamaturik datorren gizon bati ikerlari batek galdetzen dio:

—¿*No teneis agua en casa?*

— *Si siño, cuandu la lluvia*

Bere txabolara sarrarazten gaitu. Lurra lupetza da lohia da eta kautxuzko gurgil batzuen gainean, horrelako mahai gisako oholak ezarri ditu. Hor, mahai gainean ei du loa eta jana egiten. Eurite handietan, ura zirrikituetarik lurrean erreka eztxanora sartzen baitzitzaien eta zorua zingiratzen, honela asmatu du egitea. Menditik azkenetan iritsia ez du leku hoberik aurkitu.

Beste txabola batean uraren aterpean izateko hiru zuhaitz iharrez baliatu dira, hamakak zintzilikatzeko eta adaxketan ontziak zintzilik daude honela argitzen digu “jabeak”:

— Euri uharritik eta arratoiengandik axoletan jarri behar gara.

— Eta baratzerik, orturik ez duzu egiten?

— *Nu siño acá n'hay chacra, charcos qu'hay.*

Auzune honen sanotzeko lana eta erreten ezartzea ez da erraza izango; lehen bai lehen egitekoa da, ordea, eritasun franko hortik datozelako. Beharbada hiriaren laguntza behar genuke. EGE delakoek diote ez dela larregi ibili behar udaletxearekin lanean, ezen horiek buldozerrekin sar eta auzuneak suntsitu bailitzakete, jendea kaleanago eta aterpe gabe utziz. Haientzat, barriadak agintarien hitz ederrez, *asentamientos irregulares, sin acceso normal a los servicios*. omen dira, beraz izate gabekoak.

Elektrizitate gabez argien arazorik ez dute gehienek. Egunaren argiarekin dabilta. Beharrune handietan, petrolio kriseilu zarratuek, beren argi ketsuez edo kandelek barneak argitzen omen dizkiete, laburki. Argi indarra duten behereko bakanek, lehenik,

telebista dute erosten. Batzuk ere telebistarik ez edukirik ere, antena teilatuan agerian jartzen dute. Auzu-nearen garai aldeko gizon zenbait behereko *pulperia* batera jaisten dira ron merke edatera eta telebistan kirola ikustera. Zer beroaldiak txirringulari txapelketa denean eta irabazi diru apurra apustuen trabesetan galtzen denean!

Berogailuek ez diete istripurik ematen... ez dutelako. Negu gordin eta gorri gorrian jantziak kendu gabe lo. Beherean batzuk gasa bonbonetan baldin badute, besteek zabortegetako egur, sastraka erregaiak sukaldaritzarako darabiltzate. Sukaldeak kanpoan daude, baina ez gure *yanuma ukhu* delakoen antzekoak: lau adreilu edo harriz inguratu sutondoak dira, estali gabeak. Politena ikusten dugu: bizikleta gurpil zahar birakari, ingurukari ugertu batez muntatu barbakoa. Galdetzen diogu zahar bati, zertarako den.

- Hilean behin edo lantzean behin, bizpalau auzoen artean okela daukagunean hemen erretzen dugu, gure parrilla honetan.
- Ikusten duzue herdoiltzen hasia dela, bi hilabete badu ez dugula erre. Etorri haragiarekin gonbidatuko zaituztegu eta erakutsiko dizuegu nola dabilen eta herdoila galduko du!

Andre bati galdezka

- Elektrizitaterik ez?
- Ez, ez. Kanpoan ezin jenez barrenean behartuak garenean, petrolio argi motelarekin ordu-betez ketzenegi gara. Horregatik, argi beharrik ez dugu, ez dakigu irakurtzen, eta lo egiteko ez dugu argi beharrik.

— Eta elektrizitatea bazenute?

— *Pa'qué?* Lehenik, nola ordaindu? Agian, beilak luzatu eta... ume egiteko asti gutxiago genuke, abantaila: *de la prole, cuando menos mejor.*

Oraingoan, hobekixeago ezagutzen dute eta dugu, mengel horien mundua edo behintzat agerian direnak. Ez zaigu erraza gertatuko txirotasunari ohituren aldatzea, beraz erabakiak hartzeko beste bisitak beharko. Berriz, bi EGEkoek argazkiak atera dituzte. Beste biek marrazkiak, planoak eta mapak egiten jarraitu.

Iluntzen ari delarik hiri erdira itzultzea erabaki dugu. Automobilera itzultzen gara. Katramila hasten da. Polizia hor dago Gure auto-zaina astintzen eta jipoitzen bi gizon, oihuka:

— Atzeman haugu! Barruan lapurtu nahi huen!  
Zer ari hintzen beribil honi inguruka?

— Jende horiek beribil-zain ezarri naute.

— Gezurti alaena! *Pincho Indio!* Hemengo basati guztien gisa!

Guk, baietz gure beribil-zaina zela baieztaturik hirizainek gure mutila bakean utzi dute. Gaizkile batzuk bagina bezala galdetzen ari zaizkigu, tonu latz batean mintzatuz:

— Alto! Lerroan jarri hor!

Lagun batek ingelesez iradokirik “lerroa eman dezagun horien inguruan”. Ez adituarena eginaz sei lagunak polizonte bi horien inguruan jarri gara eta Phillip mintzatu:.

— Ba al dakizue zeinekin hitz egiten duzuen, *caballeros.*

- Bai, hemengo ez direnekin.
- Eta?
- *Han venido a espiar... a este país. Zertan zabilzate hemen?*
- Ikasten.
- Ikasten? Basa jende horiekin ezin da deusik ikasi.
- Bai. Jakin nahi dugu jende horik nola bizi diren, zeren beharra duten?
- Hori Udalaren egitekoa da, ez kanpotarrena. Udalak zuek baino hobeki daki hemengo berri.

Iharduki nahi diot, baina ez diot haren suari petroliorik ekarri nahi: udala ez dela ez larregi horretaz arduratzen, ez eta zinegotziek hemengo bidexkak behin ere beren oinetakoekin higatu. Horretan isilik ibili behar. Halere, azazkalak zorroztuz erantzuten diegu:

- Zuen udala baino gorago da UNESCO eta horkoak dira kanpotarrak (ez da osoki honela baina...)

Beren artean txutxu-mutxukaz dihardute polizoneek, batak besteari galdezka zer den Unesco eta besteak “*no sias bruto*” New Yorkeko gringoak direla, eta ONUren NBEren adar bat. Ba al dakite, zehazki, zer den NBE delakoa? Gure kereila baten beldurrez, edo beste behin harrapatzeko peskizan, bakean joatera uzten gaituzte. Bitarte horretan, gure automobil-zaintzaile *serrano* gazteak, sinadurarik utzi gabe, tiroa bezala ihes egin du.

Bistan da, hirizain horiek balekitez zenbat grabaketa, argazki, mapa jaso dugun eta bezperan filma ere, bizkar zorroa daramagun gure materiala oro hartuko

ligukete. Badirudi hiri bazterretako auzune kiskil horietan bizizaleek isilik egoten dakitela baita horrelako porradun hankabiko ozarrak ez dituztela maite, ezen beribila ikusiz baizik ez direlako poliziak guregana, berandu arte etorri.

Hurrengo aldian sotilkiago ibili beharko zaigu. Automobila urrutiago utziko dugu eta batik bat oinez beste barriadak ikuskatuko. Gainera, inork ez bagaitu salatzen, auzune bakoitzeko buruzagi batzuekin bildu behar dugu. Plot lekuetan, ostatuetan, anitzetan, non-zerberri salatariak badirelako igandean gizonen bilera leku neutroan Antropologi Museoko lorategian izanen dela erabaki dugu.

Lorategian ibilki gizonen topaketa laburra izan da eta eraginkorra izateko bidean. Senarrak honela kontatu zidan. EGEko bi europarrak lau auzunetako buruzagi gisakoekin lorategian egurasten eta hizketan ibili zirela.

- Zeren beharra duzue
- Dena. Eskuartekorik gabe bizi gara.
- Zer eskaintzen?
- Zer eskaintzen dugun, hasteko: langileak, esku, beso eta bizkarrak, bai eta ekiteko kemen handiarekin franko gertu gaude, bestentzat egiten duguna guretzat egiteko.
- Zer eskas duzue?
- Beste guztia.
- Esate baterako?
- Ekaiak, lanabesak eta makinak.
- Eta horiekin zer egitasmo duzue?

Beren beharruneak argitu dituzte. Ur hornikuntzarako hodiak lortu. Isurbide erreten ezarri, uholde



handietan ur satsuek kolera eta toxikosia dakarteielako; edateko ur iturriak lehen bai lehen ipini; bideak eta hornidurak, bai eta elektrizitatearen azpiegiturak eratu; eskolara ura ekarri, komunak erantsi, eta eskola alboko kaka aintzira kendu. Benetako etxe txikien eraikitzeke etxegintzako ekaiak, zementua, hormigoia, adreiluak eta latorriak ekartzea eta txapista onak edukitzea.

Gizon batek dio hori udalaren, herriko etxearen egitekoak direla eta horretarako petrolioak diru ederrik ematen duela. Adierazi diogu ez direla egitasmo horik lehengo ez eta gaurko agintarien helburuetan, txabolak buldozeratuz arazoa garbi dezaketelako. CONAIE edo EGE elkarteekin elkartasunez baizik ez dela barriaden hobetzea gauzatuko. *Minga*, auzolana aipatzean osteratu digute:

— Eta bitartean geuk *minga* lanez jardun behar genuke dena? Doanik bai, baina janaria irabazi gabe? Langileari janari ematen badiozue tripa trukean lan egingen du. Onddoak ere ez dira hazten ez bazaie janaririk ematen.

Apur bat eztabaidatu ondoren, jakin dugu udala barriaden orubearen jabea dela eta idatziz ez bada, ahoz behintzat jabe agertzea aldarrikatzen duela. Dumatxo bat eduki dugu zahar batek diolako, lehenago orubearen jabetasuna Hinchasti izeneko europar aberats okitu batena izan zela.

Elkarren arteko onspena erdietsi eta jarraian, barriadetakoak, zorionez, atzeko ate isiletik joan ziren; Phillip eta EGEkoak ate nagusitik. Hain zuzen kanporatzean gure europar lagunek lehen bisitako hirizainak beste espaloian beha ikusi zituzten.

EGEko emakumeekin, komentu bateko lorategi-an, gure bilera emankorra izan genuen. Gure betiko kezkekin: ume sortzeak, eskolak eta gose-aldiak. Garrantzitsuena osasunaz Mari Tiriza mojak, serorak idatzi zigun txostena izan zen. Phillipek aukeratu zuen andre horrek auzuneak gu guztiok baino ezagutzenago zituelako. Eta hona aurretik irakurri genuen haren txostena:

1. Auzune bakoitzean bospasei mila jende bizi dira, horregatik bertan ez dago sendagilerik eta eurite handietan epidemiak pizten dira.
2. Astean bi aldiz, bi sendagile etortzen zaizkie eta bien artean berrehun bat kontsulta egiten.
3. Haur txikietan batik bat heriotza tasa handia dago. Norbaitek bere biziko lehen lau urteak gainditzen baditu, immunitate txikia bil lezake.
4. Mojak, serorak indizioen egiteko, erremedioen banatzeko etxez etxe dabilta. Zahartzen ari zaizkigu eta ordezeko gazte gutxi agertzen.
5. Gehienetan, auzoek beren arteko sasi sendagilea kontsultatzen dute eta zenbait aldiz sendagailu zahar eraginkorrik ere erabiltzen.
6. Ez dago kontsulta tokirik, ez eta osasun etxerik.
7. Oinarrizko janari sanoak, arroz eta esneak garestiegi dira.
8. Txiroen aldeko legeak bozkutzen dira. Nola nahi ez dira indarrean jartzen.
9. Etenik gabe, ura errekan bezala, menditar indigenak, baserriko alor lan gogorra utzirik

barriadetara datozela eta nahikoa ez balitz Costa aldean langabezian diren batzuk, hemengo basa hirietan lekutzeraz igotzen.

Txosten horren iruzkintzeko serora gurekin egotea onartu du eta gu harekin pozik:

- Ongi etorri!
- Nina Waita, menditarra nauzu.
- Bai, argi zagon nongoa haizen, nire antzeko seinale garbiak ditun larruan eta barruan, *Yahuarpurami kanchik*, odol berekoak gaitun eta kolore hori da ezin kendu diguten azken gauza.
- Zenbat urte badu andere serora auzune honetan zabiltzala?
- Hogeiren bat.
- Eta zer aldatu da?
- Txabolategi hauetan osasuna dela-eta ez gaizkiago, ez eta askoz hobekiago. Barriaden arazo nagusia, tai gabe, mendietatik hirira datozela menditarrak, gutar indigenak, eta hemen langabezia eta janari urritasuna aurkitzen.
- Gure itaunketarik, gure galderetarik kanpo beste ikerlaririk egon al da?
- Ez. Baina zergatik galdetzen didazue?
- Atzo auzune batean geundela urrutian eta bizkarrez, bi gizon ongi jantziak, urruntzen sumatu ditugulako.
- Berriz hor daude!
- Berriz? Nortsu?
- Droga saltzaileak.
- Nola daiteke? Hemengoek ez dute dirurik droga erosteko.

“Erantzun gabe, historiko laburra emango dizuet. Garai batean, omen, eta siriarrak oihaltzaileak hil arte, droga banatzaile txikiak barriadetan biltzen zituzten. Lehenagotik ere, *dealerak* hemengo porakilo zenbaiten artean erreklutatzen ziren. Berriz, badirudi hona itzuli direla kokaina banatzaileak kidekera. Noski, gure barriadetako onbehar horiek berek ez dutela nahikoa diru, kuka hostoak erosteko baizik, aldiz beste droga moten garraiatzeko gai direla.”

— Bai. Eskerrak anderea argitasun horrengatik. Hemendik aurrera, tentuz ibili beharko zaigu auzuneetan zerbait eman behar badugu guk eman diruak ez daitezen droga hornitzaileen eskuetara joan.

Droga dela-eta serorak jarraitzen du, arazoa Perun bezain gogorra ez izanik ere, ezin dela kokaren erabileraren aurka ekintza serioerik antolatu. Herri honetan *kuka* gutxi usatuagatik, murtxikatzeak mina eta nekea arintzeko erabiltzen direlako.

Denek dakigu eta europarrei zehazkiago azaltzen diegu estatubatuarrek gure herrian zer itsuskeriak egin eta egiten dituzten, alegia beren herritarren osasuna babesteko kuka alor eta besteak, fumigazioz landare hilgarriz langareztatuz, lurak hutsaltzen dituztenean.

— Beraz, Maria Tiriza andrea, gure adimen osoarekin piztiak baino zentzugabekoak gaituzu. Zer diozu hemengo jendeen etorkizunaz?

— Etorkizuna egun bakoitza da. Ahalegin guztiekin denak ez dira hemendik irtengo. Eta beste behartsu gehiago etorriko da, katea ezin eten batean gaudelako. Bakan batzuk, jende ekile

hoberenek hirian zerbait egitea erdietsiko dute, beste zenbaitek Amazonan bizi txiki bat aterako edo dirua bilduko, apika, atzerrira lanera joaten badira.

Eliza andre gisa berak nola ikusten dituen hemengo sinesmenak, ausartu gara itauntzera. Beren gisako sinesteak badituztela kontatu digu; halaber, mendietan izadiari ospakizun ederrak egiten; meztatik eta dotri-  
natik gutxi dakitela, aldiz beren eskuetan konta ahal santu eta santak jainkotzat dauzkate; bestalde beren erritoetan agertzen dela, beren miseria Kristorenarekin erkatuz gizonezkoek Aste Santu ikaragarriak antolatze-  
ko daukaten diru apurra eralgitzen dutela; horrenbeste, andreek Mariarekin erkidetuz beren sufrikarioak, Birjinagan sinestenago dutela Jainkoagan baino.

Batzuek, barriadetan ere, gure mendietako sinesteak eta besteek afrikar kutsukoak gorde dituztela, eta norberak abagunea baduela.

- Badirudi gringo ebanjeliko horik ere hemen sartu nahi direla. Zuek katolikoak nahiago zaituztegu.
- Eta morala, andrea?
- Morala ezin zaiezu behartsuei eskatu, dirudunek beharrik gabe legeak errespetatzen ez dituztenean.
- Beren arteko morala al daukate?
- Bai. Elkartasuna, elkar laguntzea eta elkarri ahalaz ez lapurtzea ezperen.
- Eta gorputz harremanak?
- Etxeetan metatuak direnen artean, zelan ez. Hala ere intzestuak bakanki.

- Eta haur asko jaiotzen?
- Ez hainbeste, sodomia praktikatzen dutelako eta bakan batzuk preserbatiboak erabiltzen.
- Eta haurrak erailtzen?
- Berez ume franko galtzen da, baina miserian dauden emazte izorrak ez daitezen lurreko infernu handiagora eror, fetuen galarazten, hilaularazten dakiten emagin zaharrak badirela badakit; zoritxarrez anitzetan garbitasun ezaz abortoez ondoren onik ez dute izaten.
- Eta ezkontzen?
- Aberatsen gauza. Horretarako zeremonia eta bazkari egitea nahi dute eta ezinean ezkongabe gelditzen. Batzuk, epailearen aurretik igarotzen dira. Sarritan, elizatik pasatu direnak baino zintzoago egon litezke paperez ezkondu ez direnak. Halere arranguraten nauena da nola geroago eta gazteago neskak lagun finkorik gabe haurduntzen diren.
- Eskerrik asko, andre serora, zure ahotik lekukotasunak egiati doinua du, eta beste herri askotan gertatuak hemen ere egiten direla txit jakingarria izan zaigu. Jende horien alde zer-bait on egiteko zure lekukotasunak lagunduko gaitu.

Bazirudin emazte dohakabeen artean bizituz, moja honek beregain hartu zituela esteiarien arrangurak eta elizako tabuak ahaztu. Serora hori entzuten ari nintzela gogotik igaro zitzaidan, adimendunok ehizak beren senarekin bizi diren baino gaizkiago jokatzen garela.

Joan baino lehen mojak esan zidan: “Nina, hire senarrak guretzako gehiegi arriskatzen din, gehiegi bu-

rua erakusten, kasu eman beza azken gaiztoa egin ez dezan”.

Joan zaizkigu EGEkoak. Handik bi hilabete, gobernuak ez zietela lan egiteko baimenik utzi mezutu ziguten, alegia Ekuadorra ez zela azpigaratua, petrolioia eta nekazaritza aberatsak zituela. Amazona garatzen dabilela eta jende soberakinak hara igorriko dituztela. Erantzun harroa eta diotenez FMI delakoak eskatu politika xede baten ondorioa dela; edonola Grindio Phillipek dionez Nazioarteko Moneta Diruetxeak (FMI)ekonomia garapen liberala, kapitalismo basatia, herri osora hedatzeko xedea badu.

Aurreko agintari guztiek, beren onurarako, zorretan sartu omen gaituzte eta petrolioaren diru zati bat, zorraren interesak ordaintzeko irioten omen dutela, esan; politika joko horretan indigenak ziplatzen gaituzte. Ez genien barriadetako ongabeei zuzeneko jarraikia hitzeman, aldiz, zeharka lagundu behar genituen. Senarrak bazekien nola egituratu laguntza eta EGEk bere ingeles saleroste etxea bitarteko dirua hartuz, eta eurek beren eragilpentxoak jasoaz, sosa Phillipen kontura bai dator.

Sotilki ibili beharko zaigu, eta hark mezena gisa dirua ekai erosteko ematen du. Tresneria esleipen gabe, *Aulasiko* kañari eraikuntza etxe baten bidez doanik eduki dugu. Langile ugari badugu, baita CONAIE sortu berriaren lagunak. Kañari enpresak ditu lau barriadetan, lehenik bideak hobetu beste obrak egingarri izan litezen.

Eskola etheen berriztapenerako baimena luzeago izan da, udalak bekaitzez ikusten duelako haiek baino eraginkorrago garela. Edonola, luzaroan herri xehean

anitzek eskola gabe jarraituko dute. Bi urteren buruan txabola franko desagertu ziren eta etxetxoak eraiki, nola nahi ekonomia krisialdiak jarraitzen baitu beste horrenbeste barraka agertu da. Mendietako indigenak, geroago eta gehiago daude barriadetan, noraezeko bidean jarriak: onbeharren kopurua goiti doa. Hobe-kuntzarako bidea luze.

EGEkoen diruz gauzatu dena ez dut jarraiki ahal izan. Baina CONAIE gure batasunekin ere lan egin dute. Badakit lau auzunetan eskolak eraiki dituztela eta bide anitz hobetu, ura eta argindarra ez dira hain agudo hornitzen. Fenomeno nabarmena gertatzen zaigu: barriadetarik hurrean bizi ziren aberatsak joan direnean, etxe eder haietan, gure barriadeen “oficina” jarri dutela, osasun etxe eta sorostegi ordez.

Lehenago gutarrak Ipar Ameriketara joan ohi ziren moduan, gaur egun Europara ere lanera doaz. Lehengusu batek idatzi baitzion Miranda del Argako kontserba fabrika batean lan egiten zuela eta beste herriko batek ardo upeltegi batean, Pidru neba joan zaigu. Pidru anai gazteari kontatu nizkion Europako berriak eta uste dut nire erruz hara joan zela. Haatik, zenbaitek herrian iraun behar genuke.



## XIV

### ETXEAN HIRUGARREN BAT

Adinon lan banuke, sabelaren barnean ostikoka eta indarra kentzen ari zaidan umearekin. Bere burua ezagutarazteko gutxiago mugi dadin gura nuke. Haatik, ametsak egiten ditut: haurra, edozelan ez da barriadetako txirotegi horietan galduko, horregatik non biziko da? Estatu Batuetan ala Espainian, gure mendietan, gure zelaietan ala gure hiri batean biziko al da? Mutila baldin bada gerrate batek ez al digu kenduko?

*Runasimi* eskola txikitik landa erdal eskola handiagoa eman beharko zaio. Nork daki zer bilakatuko den jaio gabe zaidan umea? Osasunez behintzat, sano izan dadin nahi nuke eta horretarako baldintza onetan erditu. Lehen aldia da, ordea, eta besteek aholkatuak balio, al du? Amak ez dakit zer birjinaren zilarrezko domina eman didan eta erditze lanaren eta minaren aurretik erretzeko behar ditudan belar sakratuak.

Orain, goiz guztiz ernatzean, iratzarri berrian, beti ongi hanpatua denez jakin nahiz sabela ukitzen dut. Laztantzten dut, laztana niniari egin baniezaio bezala. Bizirik iraungo ote du? Sabelean atxikiko al dut? Alabaina, berriki barruan ostikada batzuk jasatean higitze hori ez dut hain gogoko izan. Bizirik dago, behintzat.

Senarrari galdetu diot sabelean belarria ezar dezan haren bihotza entzuteko. Eta entzun du. Bekaitz nago ez baitut entzuten. Senarrak ekarriko dit sendagile lagun baten estetoskopioa, niniaren bihotz taupadak entzun ahal ditzadan.

Lan handiena da sortuko den umeari habia goxoa egitea, nini jantzien gertatzea. Hor ere, batzuetan, uzkur egoten naiz, hainbeste gauza josi eta gaizki sorbaledi, hil baledi? Geroago eta urduriago egiten ari naiz. Europar lagun baten batek esan dit “*ama erdi oro zoro*”.

Amatu baino lehen, jadanik zenbait erokeria egiten ditut. Bakarrizketaz, niniari mintzatzen natzaio. Gure hizkuntzaren doinuari ohi dadin. Gure kitxua hizkuntzan melopeia goxo eta monotonoak abesten dizkiot. Norbaitek entzuten banau uste izango du burutik joana naizela, ez? Senarrari nire jokaerak aipatu dizkiot, eta hark asaskatu, haren sendagile lagunak diona, niniak amaren ahotsa entzuten duela, baita amaren sumindura handiek haurrari urduritasun joera eman liezaiokeela ere.

Ninia entzun dut eta estetoskopioa atzera eman, itsumenez egun guztiz ninia entzuten egon ez nadin. Azken batean neba gaztenaren esperantzan zegoelarik ama, ikusi eta aditu nuen horrela bakarrizketa egiten eta zelanbait ama lez egiten ikasi. Entzuten nuenean sabeleko niniari hitz egiten, sarri askotan, amarekin, berarekin egoten nintzen jakin gabe egun batez jokabide bera edukiko nuela. Indigena irauteko gure haurrak, arbasoen ondarea jakin dezan gure mendietan ikastaldi luzeak edukiko ditu, horrela kitxuazko eskola eta gure Ikastetxean ibiliko. Ametsak bazter utzirik, lehendik niniak sortu behar luke.

Gaur, saltegi aurrean gizon bat soldadu uniforme beltzez jantzia edo, bat batean agertu zait eta dendan sartu. Izuarekin esnatu naiz eta begien aurrean sotana eta guzti abade bat iratzar nendin zain. “ez zaude oraindik paradisuari, baina zauden egoeran hobeki zinateke hamaka batean ezen ez leku hotz honetan”. Hamar sudur zapi saldu dizkiot eta Aparecida birjinaren irudi bat utzi dit.

Beraska bilakatzen ote naiz? Dendan turisten tabako errearen usaina okaztagarri bilakatu zait. Nekadura gora ari zait. Arnas hartzeko ariketak ikasi ditut, ez bainuke nahi inolako erditze anestesiarik edo periduralik haurra sortzean. Haatik, andre batzuk diote ez dutela ariketek erdimin galarazteko balio, ezen sortzeko lana hasten denean ez omen delako nahikoa borondate bizkorrik arnasa kontrolatzeko. Erditzeko epea iritsi zait eta oritza titi muturretatik isurtzen hasi; horrela egunero eta artoski titiburuen garbitzeko ohitura ona hartu dut; lehenagotik nahikoa indarge izan banintzen ere erditze aurretik bizkorrago.

Grindio Phillipek, senar maiteak ama-etxe batean lekua erreserbatu zidan. Goiz honetan etxean nagoela, sabeleko kurrinka eta oinaze laburrekin sabel uren ondodetik, ura iturritik bezala, bat batean umea sortu zait. Erditze erraz horren ondodetik, ordea, horrelako goganbehar bitxia barneratu buruan, ala umeak sabela gogoz gaindi utzi duenean, barrendik garbaia sartu ote didan? Aparecidak bihotz altxagarri belarra eman dit hark on egin. Eginbeharrek eta semearen irriñoek, berehala, etsipen hori ezabatuko zidaten. Hasteko nire arrangurak gaur zentzugabe zaizkit, hots niniak edoskitzearekin minen zidaneko kezka; amak zer bait iradoki zidan,

hots ez dudala hamar minutu baino anitzez geroago titia jarraikian eman behar titimuturra minbera eta pitzagarria bilaka ez dadin. Nire kezka handiena besterik izan zen: nahikoa esne edukiko al nuen.

Ez nuen nahi, jakina, behi esnerik eman txikiari, ez indigena txistegile batzuk diotenez: kriollo guztiek egun edo bihar adarrak izaten dituztela umezaroan behi esne edan dutelako; banekien, ordea, haur sortu berri batentzat amaren esnea dela egokiena. Gainera, ama ikusi nuen lasaiki, bularra ematen neba gazteari, eta beldurrik gabe haurra hazten hasi nintzen.

Neukan larritasun txikiena lagun batek aipatua zen, alegia titia emanaz bularra itxuragabetuko, minberatuko eta bi titiak dilindan ibiliko nintzela. Ninia-rekin zazpi egun susperraldi eman ditut etxean, bakean. Astebetez Aparecidak dendan nire lekua atxiki du, hala ere gauza hobereenek ere beren azkena daukate, eta lortu nuen seme txikiarekin lanera itzultzea.

Eguneko zazpi egoski-aldiak laneko ordutegiarekin neurtzen eman nintzen, dendaren hutsarteekin, nire lanaren artetik bularra eman niezaion. Wayna semetxoa, goxoa eta isila zen eta loti handia; antza denez dendako hotsak ez zuen semea ukitzen. Ez nuen aspertzeko astirik, lanak uzten baitzidan hiru ordu guztiz gelditzeko eradoskitzeko parada; zegoeneko, aspaldixko ugazabari idazkari lanak egiten bainizkion saihetseko bulegoan zeregin horietan jarduten nuen eta konputagailua erabiltzen ikasi.

Ordu laurden baten gelditzeak ez zidan oztopo gehiegirik egiten gai bainintzen telefonoari erantzuteko eta atzerapentxoak berreskuratzeko. Ez dut ulertzen zergatik kontatzen dizuedan hau guzti hau ez bada

Aparecidaren aurpegia beti semetxoaren oroitzapenekin gogoratzen zaidalako; haurrik edukiko ez duen emakume haren niniaganako amodioak, niniari bigarren ama eman zion.

Haurra ohitu dugu batekin eta besteekin egoten, noizean ni, noizean senarra haurtzain, ez baitugu goizegi eskolan sartu nahi hirian, oraindaino *escuela indigenarik* ez delako. Haurrari, kitxuaz baino ez natzaio mintzatzen, orobat Phillip ere; gainera, gure mestizo adiskide batek eta Aparecidak gaztelaniaz hitz egiten diote. Hiriko eskoletan oraindik ketxuera debekatua da eta hemen ahaztu dezake.

Haurra katanarrez, lauhazka ibiltzen hastea, hitz egiten jartzea, haurrak mundua deskubritzea, zeregin ederra da. Goizik, bi urteekin gure mendiko etxera eramandu dugu, gutarrak eta beretarrak zer diren jakin dezan. Semea bai, lana ere bai eta utavalu nagusi horrek ez dit arnasa hartzeko, ez eta olgetarako astirik uzten, behar adina lasaiki ama izateko. Hiru gara etxean haurraz arduratzen garenok. Egunaz, gure herriko neskato gaztea, arratsetan Phillip eta biok.

Aitor dezadan semea aitazulo dela. Nirekin baino hobeki harekin konpontzen dela. Uste dut odolbiziagi naizela eta haurrak nabaritzen duela. Aitak –maiz liburutegian dagoelako– liburuetako irudi koloretsuak erakutsi behar dizkio. Mendi irudidunak gogoko ditu. Mintzatzen hasi den egunetik, afa! ostean ipuin bat kontatu eta beste bat lokartzekotan. Lehenbiziko urteetan honela haurraz axolatzen ibiliko gara.

Atzo izualdi latza eduki dugu. Etxera sartzean Grindio Phillipek zeharo arraro eta ez ohiko iritzi du gure etxe aurrean kolonbiar beribila geldirik zegoela,

eta barruan norbait bazegoela. Urduri eta etxera sartzean gure egoitzaren lorategira, automobil gidaria irten eta txistuka hasi. Etxeko lorategian haurtzain gaztea lurrean; haurra negarrez gizon batek bi eskuetarik lotuta hartu. Neskatoa zutitu eta Phillip eta bien artean umea kendu eta bi gizonek ihes egin zuten. Ez da Wayna gure semearentzat hirian areago egoterik: irudietan aldaratu eta hain maiteko dituen mendiak bizileku emango dizkiogu.

## XV

### GEHIEGI DAKIGU

Nola zitekeen Ekuador hain aberatsa eta jendea hain txiro, hain behartsu, Phillipek esplikatu zidan. Bere lana ez zuen eurrezegi aipatzen, ez herabez, ez eta beldurrez; nekez uler nezan? Halako lotsa sartu zitzaion Export-import salerosle etxeek zeukaten ospe txarragatik. Haren negozio etxe horrek Ekuadorreko salgai berriak mundu guztiari ezagutarazten zebilen, banana eta kakaoren ordez aurkezten zituen kafea eta tea. Kontabilitatean begia sartu orduko prezioen eskandaluarekin bat egiten zuen: nekazari txikia, galtzaile handia ustiatua zen. Zeregin hori utzi nahi zuen, hala ere niregatik, sortzekoa zen umeagatik, ez zen ausartzen egitera.

Salgai berrien bilatzen Phillipek jakin zuen nola gure Amazonako anaiak, gorputz eta arima galtzen ari zirenak, shuarren laguntzaz bihurtzen ziren. Ehiztari askoei oihanak kendu zizkieten gosearekin hiltzen zirelarik. Kendu basoak egotzi zituzten eta haien lekuan aberats batzuek te alorrak landatu. Gainera, hainbeste langabezia baitzen hirietako mestizoen artean, indigena herrien “hispano-ekuatortzeko” Amazonara bidaltzen zituzten, hiru hektareatako kafe ondoak landatze-

kotan, indigenen oihan lurrak emanaz. Galtzeak ezin zuzendu, baina uholdea ez zen gelditzen ari.

Ordurako, amak kontatu zidan nola haren gazte denboran Napo ibarreko Alama indigenak, domingotarrek, europartzen zituzten. Geroztik ez zen oihane-tako indio nazioen egoera anitz hobetu. Kriollo zintzo batzuk eta nazioarteko indarrek saiatu hori geldiarazten jarduten zuten; lehen, gringoen indarra hain zen handi, aurkariak tiro batez hiltzen baitzituzten. Amazonaldean estrainioki, naturalen alde haien artean zegoen gizon eraginkorra, hiltzera ausartzen ez ziren Borman estatubatuarra zuten.

Gure indigena oldartze txikiak ez ditu bere fruitu guztiak eman. Bi urteren buruan Rosalia Arteaga lehendakari andre zintzoa kendu eta ustelen *coima* ostera gobernuaz jabetu da. Gure estatua, erotu makina da, gelditu gabe badabil: *noria* da, gobernu buruak aldatzen eta beti leku berera dirua isurtzen. Eta urteak joaten zaizkigu. Lau urte honetan, erdi bakean. Berriki, zipoegile zitalak eman zitzaizkigun satorlanetan, gure manifestaldi zintzoak nahasten, lapurrak igortzen gatazka eta apurketa egitera.

Phillipek frogatu ondoren Estatu Batuetan zegoen amari erosia ziola, burges *villa* handia bere altzari gehienekin saldu dugu eta dirua nire kontuan sartu eginaz, burgoi da nire *kitchwa* militantea. Orain, ziuertasun gehiago daukagula etxe handia baino eta berehala alokairuan hartu egoitza berrian eroso egongo naizela uste dut.

Lagunekin etxe aldaketa egin dugu. Denborarekin berrikuntzak egin beharko ditugu, baina altzairu guztiak ezin kabituz, saldu ez ditugun txikienak Apa-



recidak eta gure konparsakoeak bat edo beste hartu dizkigute. Nire buruari errepikatu diot, nire gisako indigena bati komeniago zaiola hiri zaharreko egoitza nire gisakoen artean bizitzeko.

Lehen astetan, ordea, auzoen zaratarri, karriken zikinari, baita gauean xistuka eta gau bele noktanbuloak gau-erroiak oihuka egoitza giltza bakarra eskatzeari ohitzea kostatu zait, baina Philliperekin zer ez neza-keen jasan eta ahatz. Pixkanaka hobeki pausatzeke gure lo ordu ohiturak auzoenekin moldatu ditugu.

Bakeak ez baitu iraute luzeegirik behin etxean ba-  
karririk nengoela telefono dei bitxia jaso nuen:

— Alo! Zein zara?

— Hormigones de las Maravillas lantegia. Zu al zara Phillip Alvarez Smithen andrea?

— Ez ni haren neskamea naiz.

Biharamunean Phillipek ihardetsi zien

— Digame Nor zara?

— Hormigones de las Maravillas eta zu Phillip Alvarez

— Ez jauna, haren anaia baizik

— Jakingo duzu noski italiar ONG batekin lan egiten duela eta kontu bat zor digute, berrogei tona zementu Riobambako barriadentzat

— Nik ez dakit ezer ONG rik, italiarrik ez eta barriadarik.

Horretan telefonoa isildu da, baina Phillipek uler-tu du sasi finantziarioaz susmoak dituztela eta nolabait dirua lapurtu, ezen izen horretako enpresarik ez dago Ekuadorren. Senarrak esan dit ez nadin kezka EGE-koekin geneukan programarako dirua xahutua izan

dela eta orain beste zerbait asmatu behar baina ez dena Phillipen bidez pasatzeko. Lasaituxe naiz.

Atzo, hiru gelatako gure akurazko bizitegi berri txikiagoan atearen aldetik danga eta karraska handiek loaren erditik iratzarri gaituzte. Gau minean gizon armatuak atea hautsiz etxean sartu zaizkigu. Poliziak omen. Sarreran, Phillipen ahotsa entzuten dut, baita giza tzar oihu bat “Hemen guk dugu agintzen, zuek isil!” Ohean esertzen naiz... Wayna semea nire ondoan jartzen... Gizon bat logelan ziplo sartzen... atean, Kalaxnikov metraileta gerrian zutik... gure zain... isil nadin. Gogoan daukat Sendero Luminosokoak; baina orain gaizki egileak gobernukoak ditugu.

Egongelan tarrapata eta karraska zarta. Gauzak erortzen, hausten eta ikertzen. Poliziak txerri kurrinkaz eta arnasa labur. Bat batean, garaile oihu. “Atzeman diagu. Atzeman haigu”. Agertzen naiz. Batek ezagutzen nau, eta karkailaz hasten, baita joan baino lehen Phillipek berriki erosi ispilu handia hausten. Leihotik begira nago. Gizonak aldentzen dira eta Grindio Phillip atxilotuta, lotuta daramate.

Bi gela uzkaili dizkigute, eta tiraderak lurrera hustu. Hauskor zirenak hautsi. Lurrean alkoholak isuri. Ez dakit nondik has eta une bat hormari arrimatua, aspaldiko partez etsitua nago. Sukaldera noa. Ez dira sukaldean sartu. Waynari gosaria prestatzen diot eta neronek kafe sendoa hartzen. Ohean jarria egon zaidan semearen bila joan eta harekin askari denboran egon.

Isuriak sikatu ditut. Eta erratzaz lurrera jaurtiki gauzen artean bide txikia garbitu. Nola nahi lanera joan behar dut. Gaur ikusiko dut zer egin. Wayna, semea auzoko amona baten etxean utzi dut.

Orain, nire saltegiara joan baino lehen, Philliperen lanera noa lagun bat poliziarra joan dadin jakitera senarra non dagoen eta zergatik eroan didaten? Irlandara polizia-etxean senarraren lagunak etxean pistola aurkitu diotelako aitzakian arrastatu dutela, jakin du. Arratsean hiru ordu garbitzen eta salbatu diren gure gauzak beren lekuan ipintzen egon naiz. Baina nori zuzendu? Nork lagunduko gaitu?

Berriz, saltsa gorriaren erdian igeri ibili behar dut. *Ayllu* ko gure *markan* andrea merkatutik itzuli denean berria herrira banatu du eta ama agertu zait: oraintxe lau urte dituen umea, gure semea, gure mendietan aizolbean jartzeko eman diot. Mendiko gerizapean, semea bakeanago egon dadin.

Bai, honezkero Sendero Luminoso, behintzat, galdu bada ere, armadarekin eta poliziarekin ez da fidatzeko? Haurra urruntze horrek bihotza negarrez bete dit. Begietan ez dut erakutsi behar. Dudan pozbide bakarra da mendiko herrian, gure naziokoa izaten ikasiko duela semeak, eta amak, nik baino asti gehiago edukiko duela haurra zaintzen eta babesten. Senarrik gabe, haurrik gabe etxera itzuli naizenean, egoitza berria handiegi eta hutsegi, hilobia begitandu zait.

Badu hiru egun Phillip giltzapean dagoela. Berriro kinka larrian nago. Behin eta berriz, borrokan hasi behar. Phillipen bi lagunekin, bata ingelesa, bestea estatubatuarra, lekuko izan daitezten, elkartu gara. Quitoko ipar amerikar kontsularengana lagundu nazaten eskatu diet. Biek gogo onez berehalaxe onartu dute jakile izatea. Quitorako bidaia isila autobusean. Bero handia. Errepide zulatua. Kontsulak xaloki hartzen gaitu. Arazoa jakinik harritzen da.

- Nola daiteke gu abisatu gabe estatubatuarra arrastatzea!
- Jauna, Riobambako poliziak ez dira beti guztiz argiak. Etxea ikertuz browning bat atzeman diote.
- Zuek diozue etxea ikertuz pistola bat aurkitu diotelako atxilotu dutela? Nik ere badut arma etxean.
- Bai, jauna, bai. Arma kaxoi zoko batean idoro diote, jauna. Gainera, Phillip bisitatu duenean abokatuari esan dio Ekuadoren ez zela horrelako armarik ezagutzen.
- Baina etxean arma baten edukitzea estatubatuar batentzat bidezkoa da. Zuekin Riobambara itzultzen naiz, ezen han gertatzen direnak ez baitzaizkit batere gogoko.

Gainera, aditu nuen ahapetik bestei erraten, gure hirian kontsulak zituen begi luzeak ez zutela beren lana ongi egiten eta aurretik eduki zituztenak ere estatubatuarrak pozoitzen dituen droga saltzaileekin kide ibili zirela edo ezikusiarrena egin.

- Jauna, Phillip Alvarez Smithen emaztea naiz. Bigarren aldiko haurdun (hori nire ingeles ederrenean diot) eta etxean poliziek dena apurtu didate.
- Eta horrelako kasuetan ausartu zaizkizu basaki etxean sartzen eta senarra kentzen.

Autobusean etorri eta kontsularen Chrysler automobil luzean ostera. Polizia-etxearen aurrean gelditu. Sartzerakoan, baliteke, ezagutu nautelako, barruan erlauntz eraso baten alborotoa nabaritu dugula. Sartu garenean isildu dira.

— Quitoko estatubatuar kontsula nagusia naiz, komisarioa ikusi nahi dut.

Honela hasten da katea: batak besteari erraten, bestea joaten, badirudi hirugarren bat goiko solairura doala. Ahakarra ahots bat; agiraka isiltzen denean gizon bat agertzen zaigu, ondotik beste bat eta azkenik, komisarioa. Zer hierarkiaren ikusgarria!

— Komisarioa! Philipp Alvarez Smith estatubatuarra askatu behar duzu, lehen bai lehen.

— Jauna, zer arrazoi eman behar dut?

— Bat, estatubatuarra delako, gu abisatu gabe atxilotua. Bi, gure konstituzioak baitio gure herritar guztiek etxean arma baten edukitzeko eskubidea dutela.

— Baina ez gaude Estatu Batuetan.

— Estatubatuar herritartasuna galdu arte, gure jendeak beren etxetan gure herriko legepean daude.

— Tzit! tzit! tzit! arma zertarako zuen?

— Ez nauzu ulertu eta baldin uste baduzu arma erabili berria dela, guri eman eta kontrolatuko dugu.

— Bego, bego presondegira laguntzen zaituztet, jaunak.

Aditu dudanak lasaitu nau: aurkitu duten arma ez delako egotzi nuen poliziarena eta ez naizela horretan errudun. Atxilotua eta giltzapetua egonik ere, *cartzila*, kriolloen asmakizuna, ez nuen oraindik bisitatu. Han sartzean ikertu gaituzte. Gure urratsen ozentasuna. Mantsoki ibili beharra. Sarraileen eta giltzen karraska. Burdinazko leihoetan so egileak.

Phillip ekartzen digutenean aurpegian tratu gaiztoen aztarnak ditu. *Checatik* igaro da. Bere gauzak, patrikakoak, jertsea, gerrikoa eta arma itzultzen dizkiote eta txaketaren barruan borobilduak jantziak hartzen dizkiot. Kotsula geroago eta haserreago da.

- Zuk, polizien buruzagi, eta zuk, presondegi-ko nagusi horrek gure kexak hartuko dituzue. Gobernu buruari estatubatuar bati eman tratu txar onartezinak salatuko ditugu baita haren etxean dituzuen triskantzak ere.

Katramila nahasia burututa, Grindio Phillipekin gure apartamentu berrira sartzen gara; kolonia garai-ko etxe zaharkituan gaude, hirian erdianago. Aste bete atsedean. Nire bigarren haurra umontzian hezur txikiak egiten ernatu dela, aitortzen diot. Ez da Phillip lehen aita-aldian bezain alaia izan. Argi da torturen ondotik ez dela bere onean eta agian ere, oztopatzen diodala zeukan export-import etxea uzteko gogo bizia. Jabaltzen da. Medikua ikusi du. Lo-egitekoak hartu. Gure geroaz eta bigarren haurraren izenaz hitz egiten dugu: seme bada Phillip, alaba bada nire gisa, Nina. Urduri nago eta galdera hauek egiten dizkiot.

- Zer zen pistola aitzaki horren atzean?
- EGEkoekin eduki harremanez jakin gosean zeuden.
- Eta torturekin zer aitortu duk?
- Ez dinat ezer aitortu, deusik ez, ez eta EGEkoek bidali dirua dudala barriadetan banatzen.
- Eta dirua nondik ateratzen duan, ez galdetu?
- Bai. Erantzun diet gurasoen txalet ederra garaiz eta behar bezala saldurik, hortik atera dirua

mezena gisa banatzen dudala. Erotzat hartu naiten.

- Beharbada, kontrolatuko edo kontrola zezaketen diru hori noren kontuan sartua den eta nirean dela aurkituko? Eta etxea noiz saldu dugun eta halako.
- Uste dinat kontsularen bisita horrek euren larderia hoztu diela. Agian, bakean utziko gaitizten. Alabaina, polizia batek esan dit gauza gehiegi dakidala. Eta ihardetsi zionat *yankee* naizelako.
- Zorionez, gizona, ez dituk hire lantegiaren ikertzen ibili!
- Gure bitartekaritza bukatu bezain laster ez dinat ezer gorde.

Goiz honetan besarkada sendo baten ondotik senar bipila, bere ohiko lanera joan zait. Gaurko afari ederra atondu diot. Arrain zalea denez, itsaski hotzak hasieran, arrain beroa ondoren, eta artirinarekin bi *tamal*, azkenik, *dulce de leche*. Bederatziatarako, igurikatu dut. Hamarretan ez da sartu. Hara eta hona nabil. Zutik etzanik. Gauerditan inor ez. Ipuinarena jokatu ote dit? Lagunekin egon da ospatzen. Abisatu behar ninduen. Gizonak ez dira ulertterazak, ala ekuadortar kriolloen ohiturak hartzen ote ditu?

Etzan eta lokartu naiz. Goiza etorri denean, senarra ez hor. Haren lanera deitu: atzo ez da lanera heldu. Irudi zait buruan lurrikara jasaten dudala. Bi egunez irratia entzuten egunkari guztien irakurtzen egon naiz. Iragarkiek ez naute alaitzen “*se desea conocer el paradero de tal?*”.

Atzo lurrean esnatu naiz, edo hobeki esateko iratzarri naute. Auzoko Aparecida adiskidea, neskatoa eta

mediku bat nire ondoan. Ez dakit nola lurrera erori naizen; ezin zutituz, indar guztiak galdurik ohera eroan naute. Kordegabetu naizela diote. Depresio dio sendagileak.

Adiskideak ondoan izateak antza denez erotzetik urgatzu nau. Jaiki ahal naizenean nire mahaiaren gainean, agian nire gaitzaren iturri den artikulua, *stabiloz* inguratua, berriz irakurri dut. *Guardian* egunkariak dio Hego-Ameriketara eskuin muturreko eta militar diktadorek jendeak milaka desagerrarazten dituztela eta ez direla idorotzen... baina Phillip estatubatuarra izateak, agian, salbatuko du. Ekuadorren, *Legión Blanca* izenekoa zeregin zantar hori egiten hasia omen da. Euren jomuga indigena nortasuna birrintzea da eta gure militanteen hiltzea.

Ez dakit Aparecida adiskideak nola aurkitu zuen nire aldixartzea. Eskerrak etorri den. Hortxe dago. Alboan daukat. Aurpegia ur hotzez garbitzen dit. Bere gisako edaria irentsarazten dit. Lokartzen naiz. Esnatzen naiz. Ez dut berehalakoan ulertzen zer gertatu zaidan. Zer agitu zaigun ulertzean negarrez nago eta Aparecida zapi batekin txukatzen. Lotsa apur batekin ume baten gisa malkoak isurtzen ditut. Susperraldia gainditu arte Aparecida, behin-behingoan, gaixo-jagole gure etxera bizitzera etorri zait.

Aste bat joan zait. Ez naiz horretarako gertu. Nire ondoan dago andere adiskidea. Ahots eztiz Aparecidak dio ez nagoela bakarrik munduan. Phillip, berriz agertuko zaidala. Badaki gizon hori beharrezko bilakatu zitzaidalako, harekin ez baitzen bakarrik gorputz batasun bat gogaide ginelako, arupu zuhaitzaren itzalean egonik arima bakarra eginik.



Haatik, senarrari zor nion maitasunaren zati bat Wayna semeari eman diodala aitortu behar zait. Gure adiskide beltzak dio badakiala, gogoaren betegarri badira ere, umEEK ezin dutela senar baten lekua hartu. Senar desagertu batek bihotzean urratu zauria tapa dezaketela umEEK, ez bihotza bete. Ezin dela beti odol estu eta mingostasun gorrian bizi.

Mutu nago, gogo abaildua eta uzten dut nire bihotza gogoeta horiekin kontsolatzen. Aparecida isiltzen denean, diot haren izena aldatuko diodala, Aparecidaren orde z Consuelo ipiniko. Irri zabal batekin adierazi diot. Arrangura handia dut sabelean daukadan bigarren umeari ez al dion nire beheraldiak kalte egin?

Beltxari bere bizitza konta dezan eskatzen diot. Berak dio haurra gura izanda ere, lehen gizonarekin ez duela eduki sei hileren buruan istripuan hil zitzaio-lako. Haur edukitzeko adina joan eta gero, Guayaquileko portuan lan egiten zuen bigarren gizona ezagutu zuen, Mingo. Gizon beltz handi, argala. Argala edo argaldua. Itsasoan luzaroei ibilia. Lagun goxoa, langilea, eritasunak gargailatua. Aparecidak uste du, nire gisa, gorputz eta arimako gizona Mingo atzeman duela eta bata nahiz bestea, bana ezinak hil arte elkarrekin biziko direla. Eskerrak eman dizkit prestatu nizkion sendagailuek gizonari sabeleko *cangrejitoa* hil ziotelako. Bularretik ere gaixorik dago, ordea, tisikoa delako; hura sendatzea beluegi ei liteke.

Aparecida adiskideak dio burua prestatu duela, egun batez bakarrik, bereber bizitzera behartua izanen den egunerako. Batzuek, diote besteen zoritxarrek gureak jabaltzen dituztela. Egiantza du, bakarrik gure adiskideari jazo gogoan hartzen badugu eta hark konstatuz bere gogo arintzen badu.

Berriz, kezka larri horri beste bat gaineratu zait. Beste arrangurarik ez dut non ez den sortzekotan dudan niniak ematen dizkidan makalaldiengatik. Agian, lanak zeharo hartua izateak goibeltasuna itzalxetan dit, irudi zait une berean zaharraldia hartu dudala.

Egonarriz ezin jarraiki. *Guardian* egunkarian irakurria gogoan dut, beti. Poliziari deitzea ez du merezi nonbait egin digun gaizki horren bizkarrean daudelako. Azken itxaropenez senarra topa dagian detektibea ordaintzen dut; gaur egun etorri zait ikerlaria lau egunen buruan, ez duela haren arrastorik ediren, beribila desagertu dela. Berak dio horrelako etsialdi batean Phillip hiritik urrunduzitekeela. Erdi sinetsi dut, jadanik, ezkondu baino lehen horrelako bereiztea gertatu zitzaigulako.

Horrez gain, dio gizon batzuk aita izateko garaian beheraldi batean beren buruen hiltzeko joera dutela edo etxetik ihesi egiteko arrote bizitza ibiltari baten eramateko. Ezin diot sinetsi ene gizona ongixko eza gutzen dudalako. Ala polizian nozitu torturek burua dioten, zertu?

Bestaldetik, Iparamerikar kontsularen ikerlari gizonak ez dute hobeki egin eta justizian kontsulak du kexa egin; ez nintzela agertu nahi esan diet senarraren bidea ez jarraitzeko. Non dabil? Bizirik ote? Hilik bada, Pacha Mamaren egoitza eman al diote? Ala ostendu da? Nolanahi *Legión Blanca* delakoen lana bada, ez dago iparamerikar lehendakaririk egia jakingo duenik. Nire burmuin gogolarri eta hitsarentzat galde-  
ra gehiegi, eta borroka larregi.

Gaur gauean zer harridura, hantxe Phillipen gurasoen etxe aurrean, gure antzinako etxearen aurrean ha-

ren kotxea dakusadala! Lorategian sartzen naizenean egongelako leiho aurrean senarra. Etxean sartzen eta oihuka: “zer zabilta hemen! Ez da gehiago gure etxea. Goazen hemendik lapur arrastatuak izan baino lehen!” Laster bahoia. Phillipek ez jarraiki. Eta ohean eseria, izerditan lotik iratzartzean... Philliperek ez.

## XVI

### WAMOTEKO TRENAK TXISTUKA DEITZEN NAU

Hirian ez nago ongi. Telefonoz hartu abisu gaixtoa gogoan sartu zait, alegia Phillip neska batekin joana dela; herriko polizonteak ere desafioz edo, gure etxe-ko ate aurrean inguruka dabilta, ala senarra itzultzea zelatatzen? Horrek nire senarra ostera ikusteko itxaropen apur bat ematen dit, baina denbora berean ez dut prentsaz edo irratis haren paraderoa eskatu nahi *Che- cakoak* edo *Legión Blancakoak* etor bailiteke eta har-rrapa bailezakete. Lo kentzaile urduritasuna bakarrik mendira joanaz osa nezake.

*Se han trastocado los objetivos* dio irratiak, zeren eta Rodrigo Borjak besteen gisa, hitza jan du: 1994. urteko gobernuak alegia mendiko bazka lurrak utziak edo landu gabeak direla gure *ayllu* erkidegoei kendu nahi lituzke. Gose greban jarri dira langileak hirietan; andreek kalean eta zubietan igarotzea oztopatzen. CO-NAIEkoek eskatu autonomiaren aurka jabe handiak agertzen zaizkigu eta berriro armada alderdiz aldatzen. Bakarrik, Eliza katolikoa gure alde.

Legea kentzeko bidean, aldiz estatubatuar enpresak beti bazter nahasten jardutan; halere, gringoen artean adiskideak omen ditugu eta galdu dudan Phillipek

ezagutarazi zidan, Amazonako Borman da hainbeste egin duena eta amerindiar indigena askori beren lurren jabetasuna bermatu. Borman jauna hil omen zaigu.

Kemena kraskaturik, goi mendira itzuliko naiz, semetxoarekin bizitzeko. Phillipen lankideek aurreko astean etxe aldaketa Wamotera eraman didate. Aparcidak agurtzean “Etorriko natzain ikustera esan dit agurtzean eta trenera bakarrik joan naiz. Izebak lan lekua utziko didalako, Wamoteko trenarekin izebarengana banoa.

Trena geltokian sartu denean, bere diesel eta urinekin, gaztaroko doinuak gogoratu zaizkit; autoferro eta tren arrunten txistu ezberdinak belarrietan beti eduki ditudalako. Ikastetxean geundenean, tren azkarrari izena aldatu genion, hots mendietan gora zebilelako “altoferro”.

Gaur, altoferroan banoa; nahikoa garestia izan arren. Kasik trenkideak oro turistak dira, eta zer kasaila eta zalaparta ateratzen duten! Andre batzuk oihuka amildegira eroriko direla, besteak zurbil begiak itxita munduko trenbide ausartenak lur ikuspegi ederren ikustea eragozten dietela. Erdiek, nolabait ordeka zabaletatik lasterregi igoaz, *soroche* gaitza jasaten dute, burua bi eskuekin tinkatuz, aharrausiz eta baten bat goitika eginaz. Alboan, bi mutil harroputz, izu barik daudela erakutsi nahiz autoferroaren egoera ingelesez aipatzen eta gaitzesten dute.

— Zeinen gaizki eraikia den! Estuegi, bihurguneak motzegi eta karril bat baizik. Benetan jende azpigaratua da hemengoa. Horrelako trenbide batekin jendetza gaitza hilko da.

Denak aditu eta gero, indigena batek ingelesa jakiteaz harriturik, nire ahotik hau entzun behar dute:

- Zuok, ezagutzen ez duzuen herriaz, mintzatzzen zarete? Trenbide honetan kilometroka eta garraiatu jendeka, zuen autopistetan baino hil istripu askoz gutxiago agitzen da. Gainera, badu hamar urte ez dela izan eta orduan, turista ‘gizakiloa’ trenetik goizegi jaitsi zelako, hil.
- Zergatik behar luke tximinoentzat fabrikatu autoferro honek eta bere bidea gure autopista ederrak baino hobe izan?
- Mutiltxo, tximino bide hau, ikusten duzuenetz, zuentzat egina da. Autopista baino ziurragoa da hau (eta irribarrez jarraitzen dut) ezin duelako beste ibilgailu bati aurrea har ez eta jo, ez eta lasterregi ibiliz trokartera eror. Zuen hil gehienak aurreratzean eta hirurogei milatan gora ibiltzearekin gertatzen zaizkizue.

Isilik daude elkarri begira eta beste bidaia lagun batzuk entzun dezaten ez ditut horretan utzi:

- Entzun zaituztet aipatzen, indigenak geldoak, mantsoak garela. Bai zalutasuna, bai lastertasuna etsai dugu. Trenetik irtetean ohartuko zarete, goiko mendietan luzaro ibiltzeko eta irau-teko hiritar egonezina eta lehia galdu beharko zaizuela: guk ibiltzen jarraituko dugunean zuek ezinez, trenpu txarrean eta *sorochez* ñuku-ñuku geldituko.
- Neska! Horrelako trenekin ez ginen munduko aberatsenak eta indartsuenak izango. Atzera-tuak egongo ginatke. Arin eta azkar estatuba-

tuarrek tren askoz hoberik, trenbide ederragorik eraiki genezake.

- Mutikotxo! Herri atzeratua garel diozue, horregatik merkeago dela eta zuen herria baino ederrago delako etortzen zarete, ez da hala? Atzeratua? Bai, Iparamerikarrak duela berrogeita hamar urte gure ekonomia xurgatzen hasi zinetenean herritar kriolloak ere atzeratu ziren.
- Estatu Batuetan zuek bezalako *red skin*, larru gorri indigenak baditugu, nola nahi ere ez dira gai izan herri handi baten egiteko.
- Indigenak, oster, hirurehun urte horietan armada eta poliziaren bidez erdi esklabo jarriak ginen, askatasun zerbaiten edukitzeko borrokatzen gara eta gure herriaren jabe bagina ez genuke zuen beharrik.
- Iraultzaile harroak, gorriak zarete indigenak!
- Iraultzaile baino hobe aldaketa zale.

Turistak kudeatzen dituen mestizoak esan digu isilik egon gaitzen beste bidaiariei izu gehiago ez emateko eta gaineratzen du “lasai! ez dago indigena gerrillarik herri honetan”, eta bestalde, dio

- Andre honek arrazoi du istripu gutxi dago mantsoki ibiltzen dakialako trenaren gidariak eta haren zaindariak.

Baten batek galdetu dio mestizoari ez ote zituen arbaso indigenak eta hark protestaz “ez, ez gizon zuria nauzue” eta nik gaineratu, irribarreen artean, “ni ere bai, zuria ninteke, ez balitz inon brontze larruzko jenderik”.

“Horiek guztiak entzutean Miguel Angel Asturiasen kontakizuna gogoratzen zait, zelan gringo turista taldea gringoek xeheki suntsitu Guatemalako mendi herriaren bisitatzen zebiltzan; egun batez, autobus gidaria eri zelakoan, indigena gida estatubatuar hiritartasuna zeukanak, ingeles hizkuntza menderatzen zuenak, bolantea hartu zuen eta sumendiek deseginak zirela, azaltzen zien.

“Hasieran, trebeki gidatu zuen. Une batean, errepidean ziztu bizian gidatzen, eta akrobazia batzuk egiten hasi zen, eta turista zuriak zuri-tuago.

“Azkenean, Guatemala hori zer den ulertuko ez zuten turistekin, bere ohaide ederra ondoan zuen arren, oihuen artean, autobusa zuzen zuzena... labarraren behera leizean amildu zuen. Jakina, etorri baino lehen turista horiek ez zuketan Asturias irakurri.

Gure trenak bide estu, aldapatsu, malkartsuan eta arnasa labur jarraitzen duelarik amildegiei begiratzet diet. Geu, indigenok sakonune eta labar zut horiei ohituak gara kasurik ez egiteraino. Luzaro hirian egonik, orain hobeki hautematen dut hirurehun, laurahun metro sakoneko erlaitz labarrak franko ikaragarriak daitezkeela.

Mendi guztiak agurtzen ditut. Mendi haizearen landare usaina usnatzen, urrutian nire haurtzaroko Sangay sumendia ikusten; turisten gidaria saiatzen da jende horietarik zenbaitek lurralde eder honi begira dezaten; gehienentzat ikuskizun laburra izaten da. Mendigoizale ez diren horiek, trenetik jaistean, San-



gay sumendiaren lehen aldapak igoko dituzte parkeko diplomarekin itzultzeko. Berein gaixotuko, trenpu txartuko dira eta beren galtzamotzetan hotzikaratuko. Nire hitzezko balentriez ez naiz pozik jalkitzen, semea ikusteko bozkarioaz honela ergelki berotu naiz... baina Phillip gabe nator.

Wamoten (turisten Guamoten) trenetik jaitsi naiz. Turista batzuk agurtu naute, bi nerabe harropuztekin ez. Kanpotarrak, exotismo bila merkatura doaz. Handik hilabete trenbidea moztu zen eta Wamoteko trenaisildu. Geltokiraino astean behin ostegunez autobusa igotzen da eta beste egunetan Riobambatik edo Alausítik: kamioiak. Honela amerikar erosotasun zale turistak ez ditugu gehiago ikusi.

Maleta bat eskuan daukadala ez naiz espero bezala pozik: Wamoten hemengo ez banintz bezala irudi zait. Baina ez. Izebak besoetan hartu nau eta ez dela sorterrira joateko presarik; atsedean hartu behar dudala, aipatu behar baitit niretzat daukan egitasmoa. Amamarekin *ayllun* dagoen semea ikusteko lehiak egonarrria galarazi arren, Wamoten nekez bi egun eman ditut.

Wamote utziz une baterako, haurren amamarekin lau hilabete igaro ditut gure Punganin herrixkan. Amamaren irmotasunak kemen zizta bat eman dit. Bigarren haurra, emaginaren laguntzaz, gure *ayllun* sortu da, *Ninaphachka* izanen du izena. Aita gabe horra naitzelako, erdi pozik agurtu nau Wayna gure seme txikiak.

Aurki, semeak zazpi urteak beteko ditu eta *escuela indigenan* hartu harrotasunez erakutsi dit zeinen ederki dakian gure hizkuntza. Harrotasuna utzi eta bizi behar da. Haurrekin Wamotera bizitzera joan. Grindio Phillip senarrak zeukan burges etxea garaiz saldu eta

dirua nire kontuan izanki, Wamoten lekutuko gara, jadanik gure gauzak hor baitaude.

Wamoten nago eta ez nago. Buruan inguru biraka, baratxuri salda garratz batek asmoak nahasten dizkit. Nondik has! Atzo ama etorri zait ikustera eta erran dit goiz honetan elkarrekin serioski mintzatu behar dugula eta hortxe dago jaietako puntxoa jantzirik eta artile txanoa buruan, buruko horren azpitik ile beltzen txirikorda agertzen delarik.

— Nina, lehenik eta behin, diruarekin etorri arren, kontuz ibili behar dun eta lan iraunkor baterako erabili.

— Ama ez dakit zer egin behar dudan.

— Lanean lehen bai lehen hasi eta ez baitun hire arazo guztien artean irtenbiderik ikusten, bat eskainiko dinat: ikasi duna egitea.

— Ikasi! Ikasi! Zer lan? Gauza saltzez kanpo ez dakit ezer?

— Izebak eskainitakoa ez dun gaizki.

— Nondik has ninteke, ama?

— Hurrez ere hein batean arduratu behar dunalako ez dun denetan jardun behar. Beste gisaz planteatu behar dun.

— Orduan, zer?

— Hemengo giroan ez itozkeko, ez lokartzeko hi haiz hornikuntzen erosteaz arduratuko. Riobamban bi saltegi desberdinetan ibili haiz lanean eta ikasle hintzenezan izebarena nola zebilen ikusi.

— Bai ama. Turkorenean eta Utavaluenean ikasiak baliatuko zaizkit. Saltzen ere egon behar nukea?

— Ehe! Burua pausatu eta hire gogoko lainoak barreiatu beharra baditen. Hire lana hiru sailetan ikusten dinat. Batean janari denda eta hor Punganineko neska langile bat enplegatu eta irakatsi behar hioke, eta lata janariak eroste ohitura herrian sartu, baita hik horietan jakituria badunala uste dinat.

Bigarren sailtxo bat andre gazte bati ematekotan liburu, postal, tabako, pospolo, petrolio argiontzia eta janari ez diren etxeko gauzen saltzeko, hirugarren denda batean, nekazariarentzat, etxeko andrentzat eta mendigoizaleentzat tresneria eta hori, beharbada, hire gain.

Izebari denda erosi diot: saltegi horretan prentsa, liburuak, era berean, jantziak eta kontserbak salduko ditugu Bai, horrela amak, eskola gutxiagorekin, zertzelada eta atsekabe guztien artean ez du iparrorratza galtzen eta hiru sailen ideia onartu diot. Kaleko eta eskolako 'jantzi ederrekin' ugazaba izateko ez naiz ama bezain argi. Eskolak ez ote ditu maltzurrenak eta sotilenak sendotzen eta ahulxko harroak ergeltzen? Ni bezala? Bego! Bego!

Bihotza ukitu dit nire haurtzaroko zalditegia hutsik ikustean, bai eta denda betiko itxuran. Nire Wamoteko saltegiak izebak bi egiteko abiatuak zituen. Nahikoa goizik bereizi nuen janari denda eta gure Punganin herrixkako neska bat ekarri, saltegiak axola zedin; bestalde, liburuzale andere gaztea dendaren bigarren aldean liburu, mapa, postal, eta turistentzako oroigarriak saltzen eta argibide arrunten ematen ezarri. Biek gaztelaniaz hitz egiten dute, eta ingelesez ere perpaus zenbaiten murtxikatzen badakite.

Jai bat dagoenean edo ezteiak jendeek beren diru guztiak, bat batean, janari eta edari erosten erabiltzen dituzte eta guk ondoko hilean jende horiei trukean eman behar dizkiegu lehen ez zituzten olio eta azukreak. Bestalde, askok hilabetearen azkenean baizik ez digute ordaintzen, arian-arian ezin ordainduz trukea nagusituko zaigu. Liburu saltegia, ordea, ez zen ordain eperik ematen eta eskola denboraz kanpo turismo sasoiaren genuen hobekienik saltzen.

Riobambako sistema beste bizpahiru saltegiekin eta diru gehienik daukatenekin muntatu dugu, harik eta gure herrian inor gosearekin egon ez dadin eta ez daitezten hirietako barriadetara gaizkiago bizitzera joan. Herriko andreen *Minga* horretaz arduratzen zaigu.

Ez zitzaidan Riobamban bezain erraz izan antolatzea, ezen han langilea banintzen hemen jabe eta ugazabandere bezala ikusia nintzelako. Horrexegatik, gazte denborako Mingako neska lagunak baliatu zitzaizkidan eta ongi sorotsi ninduten..

Apurka apurka, utzi nuen nire bi dendetan lan egitea, erosketak eta mendigoizaleen hornikuntzez arduratu. Gaztaroa gaztaro ez nuen zaldirik berehalakoan erosteko gogorik, horrela haurrez axolatzeko asti gehiago edukiko nuelakoan, eta denbora berean, nire hirugarren saila antolatzeko gela eraiki zidaten.

Bi haurrak ongi hazi eta hezi nahi baditut ekin behar dut. Etorkizuna aipatzen dute zuriek. Gure mendietan indigena geroa, bista laburrekoa da. Biharrarena eta beharrarena. Eta niretzat, agian, Phillip itxarotea. Haurren etorkizuna ezin dut igarri. Gure hurrek, seme alabek, apika, guk baino zuhurtzia gehiago izango dutela amesten dut; denak halaxe gabilta, besteen

eskarmentu guztiek ez baitute beti balio bizitza bide baten jarraitzeko. Hala zion amamak.

Ia hileru eta askotan aste oroz, Grindio Phillipen export-importeko lagunak etorri zaizkit ikustera. Eurek ere ez dute senarraren arrastorik aurkitu. Haren automobila errerik, bai. Berak ez zuen beribila dokumentazioak hartu gabe erabiliko eta etxean haren gidatzeko lizentzia atzeman nuen. Ingeles lagun haiei eskatu diet berri onik ekartzen ez didaten bitartean ez etortzeko. Gogorra zen hartu nuen erabakia eta aurretik, bi gizoni barkamena eskatu nien. Ulertu ninduten. Uler-tu zuten haien bisita hutsak etsipen ziztadak zitzaizki-dala eta gogoia hiltzen zidatela. Alargun zuria izango al nintzen?.

Zerbait itxaropen eduki genuen, Mahuad bota ondoren, matxinadaren ondotik gure mendietan Lucio Gutiérrezrek, adierazpenei fidatu ginen: indigenen alde zerbaiten egitera, gure ekonomiaren garatzea, *reforma agraria* egitea hitzeman zigun, eta horretarako hautatu genuen, berriz denbora berean sucre monetaren orde-z dolar madarikatu moneta sartu zigun. Aldaketarekin, apika, askatu presoekin senarra agertuko al zitzaidan? Hori nahiago nuen gogoan sartu ezen eta haren gorpua edo bera bizirik ikusi arte, itxaropentxoia eduki nezakeelako.

Behingoan, Gutiérrezrek, besteen gisa, administrazioan jende guztiak aldatu eta aginte gosez bere gizonak ipini. Manifestaldiek 2004.urtean, hitzemanak gogorazi dizkio. Lagunak, Entzutegi Nagusian buru ezarrita jendea errabiaz kalera irten.

Gainera, ni ere besteekin kexu eta sutan jarria nengo: FMI delakoari atsegin emateko indigenei agin-

du ziguna ez baitzuen abiatu ere, berriz manifestatzera mendietatik hirira jaitsi gara. Herri triste hau itsaso sagailoa da, inoiz jabalduko ez dena, *Océano Pacífico* bare hotsezkoa irudi, zaparrastatua. Diktadore txikiek zuzendu errepublika dugu, aldiz egoera arraroa, caudillo horik usu aldatzen baititugu. Atzo, hona non irratiek abisatu gaituzten:

Lege biltzarrean diputatuek errepublikako lehendakaria dimititu dute, eta armadak bere sostengua kendu, beraz odol isurtze handirik gabe erori da Gutiérrez. Hala ere, poliziak bi manifestari hil ditu. Eta hil haien lagunek lehendakari ohia erantzuletzat atxilotua izan zedin eskatu. Beste batek gobernuburua hobeki eramango ahalko du?

Gutiérrez aurreko beste lau buruzagi ustelen gisa, eskapatu da; lehenik, Brasilgo enbaxadan egon eta handik, gauaz, mozorrotua irten aireportura, goizean arrimatzeke bere adiskide estatubatuarrengana joan zaigu. Orobat, horretarako nahikoa indar egiten badugu, araez, gure ekonomia zehatz-mehatz menperatzen duten iparamerikar zenbaitek ez dute lehen bezalako eraginik izango.

Aldaketa! Aldaketa! Inon atxilotua bada Grindio Phillip, senar maitea, berriz agertuko al zait... edo behintzat, zer gertatu zaion nolabait argituko?

Hilabete guttiz Punganineko sortetxera itzultzen naiz. Leheneko gisa, Arupuaren itzalpean jartzen naiz eta legenda gogoan barneko amorruez husten. Aldioro amama Mircid zenak, ordu txarragoak direnean baizik zorionezkoak zein diren dakigula iruzkindu zidane-koa, gogora etortzen zait.

Orain, maitasunaren zuhaitz horren azpian jartzen naizenean bihozmin ezin sendatuaren iturriak azter-

tzen ditut. Garbaia eta ezintasuna. Bai, apika, Grindio Phillip niregatik galdu da, eta erruduna ninteke. Ezin dut atzera egin. Hil arte igurikiko dut.

Denborarekin bihozminak herdoilduko zaizkit eta errabiak iraungiko. Prentsan irakurri dut nola Atakamako basamortuan, han buldozerrekin Pinochetek metatu hilen arrastoak badauden eta andrezkoek senar, seme edo neba batzuen hezurak bilatzen dituzten. Hau kemena horrenbeste egiteko!

Ama Wamotera ekarri dut. Ama Karmin umeez ahal bezala arduratzen da egunaz, oroz gain oporraldietan. Ama zahartuxe zaigu, ordea. Egunaz lanak hartua izanik ere, niri arratsetan haurrak zaizkit axola.

Ninaphakchak aldi txarra eduki du, jangartxu bihurtu da oilaskoa hiltzen ikusi duelako. Okelari ezezko aiherra, ezin jasana, ezin eramana piztu zaio. Esan diot bizidun franko belar janaz bizi direla gorputza halako dutelako, guk nahitaezkoa dugula haragi jatea.

Gainera, ez ditugu, iñolaz ere, bizi bizirik jaten. Kontatu diot ere amonaren aipaera, *ukuku* hartz beltz mota batek ez duela belar baizik jaten eta erantzun diot *ayukutlu* hori halaxe zen bere aurrekoek bizidunak hil gabe, egundoko oinazeak jasanaraziz, bizi-bizirik jaten zituztelako, Pacha Mamak hartz horien ondokoak paramoko *uchupayalu* oihanxka eta berroetan, hosto eta belar jatera behartu zituela.

Bestela ere, dagoeneko kitxua eskolan dabilen Wayna, gure semeak, bere idatziz egitekoak, eta ariketak kontrolatzen dizkiot: ez dut gainbegiratze hori egiten ikasle erreusa delako, irakurle amorratua ari zaidala egiten baizik; jadanik, txikiagoa zenean orduak igarotzen zituen, irudidun liburuak begiratzen eta liburuetarik landa ametsetarik ariketak ahazten.

Marrazkia gogoko du semeak eta behin, harriduraz utzi ninduen. Entzuna nuen marrazkiak pertsona sala dezakeela eta hurrengoan izutu nintzen. Marrazki batean mendigoizalea ikusten zen: ez zeukan ez eskurik ez aurpegirik eta hurrengoan mendigoizalea beti aurpegi gabe lurrean eta hil antzean zurrun etzanik marraztu zuen. Aita zitekeen. Erran behar dut, aita mendigoizalea sarritan aipatu niola ezer gaineratu gabe.

Marrazki egiten iaioa baitzen aitaren argazki beltza eman nion berak kolorez eman zezan. Semeak margotu aitaren irudia eman zidanean, haren kezka nabarmendu zitzaidan: aurpegia bazegoen ez zitzaion, ordea, begiak ikusten betezpal trinkoek erabat ezkutatzen zituztelako. Zer oroitzapen zeukan aita galduaz semeak? Iruzkindu gabe ez nuen horretara bultzatu. Wayna bera mendizale bilakatu eta osabarekin goiko mendietan ibiliz, marrazki alaiagoak egin zizkigun: Sangay mendiaz errealitatea baino koloretsuago zen panorama, jendez eurrez betea zena marrazten zigun.

Seme ameslariari sendatu zitzaion hodeiei begira egotea mendian bizpahiru aldiz behaztopatu zenean eta lagunek esan ¡Adiós Pepe y María! Mendiak on egin zion seme gogo ilunari eta beti gorago joateko goi-asmo horiek kezken lekua hartu zizkieten.

Afalondoan Wayna semeak bere ahozko ariketak ikasi behar zituen, idazki atala edo alegia. Bitartean, neska ohera eramaten nuen eta lokar zedin ipuina kontatzen; apurka ez nion ipuinik erraten berak aurretik beste zerbait asmatzen ez bazuen eta aurretik erdizka kontatu niona bere gisara berretzen. Semeak bere ikasgaiak errepikatu behar zizkidan. Noizean behin, astia geneukanean, liburu atal bat irakurtzen nien eta haien



galderei erantzuten... loak eraisten ez baninduen. Guztiekin eta senarrik gabe laguntzeko, gaua zetorreanean, neke-neke egina etzaten nintzen eta harria bezala lo egoten.

Semea etxekoia eta liburukoia, ikaskorra baldin bada, gure Ninacha, ala dio ama, ez labur bidez, baina *phakchak*, jauzi esan nahi baitu eta gure neska txikia egonkor. Ninacha kanpokoia da, oharketarako, behaketarako ganora eta zomorro baten goaitatzeko, lore sail bati begiratzeko eta narrastarien iheslekuak herriko harresi zaharretan bilatzen pazientzia handia dauka. Behaketan ohol iltzatua baino gutxiago ez liteke higi. Bestalde, neba-arrebek baratzeko ardura dute. Lur lana bukatuta ere, lau urteekin gure Ninacha sarritan zer-baiten hobetzera ortura itzultzen da.

Ninacharen mirespena aita Phillipen erloju handia zen, eta berak bere ordulari txikia muntatu nahi zuen. Pastilla kaxa biribila hartu zuen, erloju etxetzat eta kartoian moztu biribila hartan kokatu. Jostorraz bat erditan sartu zuen eta elkarzut hartan bi kartoizko ordu orratzak ezarri. Erlojuaren biribilean, gainera, orduak idatzi zituen eta lau urteekin zenbakietan bere gisara aditua zen. Jakina, ordu orratzak birakaririk gabe ez ziren higitzen eta gogoak eman zion, seiak eta laurde-netan finkatzea.

Beste arazotxoak zuen Ninachak gurdi baten egiteko: ardatzak eta gurpilak nola lotu eta azken buruan zurezko bobina batzuekin muntatu zituen. Gurpilak nekez ingurukatzen ziren, zurezko kaxa txikia hartu eta bi ohol azpian iltza nitzan eskaturik, bere panpina-rentzat lera muntatu zuen. Aurten kitxua eskolan sartuko da.

Egun batez, agian, gailu eta tramankulu asma-tzailea bihurtuko zait neska; uzten bazaio egitera. Ninacharen ikusteak gogorarazten dit horrelako zaletasunak zituela Tuñu zenak, militarrek fusilatu ziguten neba zaharrenak. Neba zena alanbrearekin, bizikleta baten soslaia egiteko gai zen, bai eta ehizako eta gudurako armen soslaiak ere.

Lagun maiteak, eguneroko akodiña eta txikikeria guztiak ez dizkizuet kontatuko. Semeari eta alabari, aurretik aipatu dizkizuedanak, egokitasunez iragazirik aipatu behar izan dizkiet. Amari, haien amona zaharri galdera nabarmenek egiaren edo eginaren puska bat aitortzera behartu naute. Haien amama, nire ama Mircid (hitz horiekin izendatze arazoa badut), gurekin bizi delako, Punganineko indigena aititaz mintzatzea eskatu zidaten eta nola lanean higitu eta endurtu zen kontatu nien, baina beren arrangura handiena, aita Philliperen, berri jakitea zuten.

Ez zitzaidan erraz izan azaltzea nola bidegabekerien eta miserien aurka borrokatu zen senar maitea eta neronek ez nekielarik, zergatik galdu edo joan zitzaidan. Urteetan entzun beharko nuen: noiz itzuliko zaigu, bada, aita? Eta nik ez jakin hilik ala bizirik den, non dagoen.

Urriena izan zen, nahikoa handiturik, umeek Grindio Phillipen aldeko aitona amonak aipa niezaien galdetu zidatenean. Phillipen ama gringo zuria eta aita indigena zela aitortu nien. Zuzen ez nekielarik urteak joanik, seguru asko horrela baitzitekeen, erdi gezurrez adierazi nien Estatu Batuetara joan eta han hil zirela, aitita-amamak.

Behin baizik, ez nituela “ginarrebak” ikusi eta egun hartan ere, bizkarrez; ez nintzela behin ere haiekin

mintzatu, ezin nien aitortu. Haatik, herrian gringoak batzuegandik gaizki ikusiak zirelako, eskatu nien ez zezaten beren estatubatuar jatorri zati hori lagunei aipa.

Wayna semea, aitaz ozta-ozta oroitzen da, Nina-chak, ordea, ezin dio antzik eman. Ezeinek ez daki, zenbat aldiz Grindio Phillip senar maitearen argazkia hartuta, aitaren irudi horri bizitasun ematen saiatu nintzaien. Niretzat ere argazkietan ez zen haren benetakoa irria, haren begien distira ikusten. Haren mentura eta ekintzak kontu niezaien errepikatuz umeek aspertzen ninduten.

Neronek, azkenez, ez nekien zer hautatu behar nuen, aitaren irudi ona nahiz zuzena eduki zezaten. Argazkiak erakutsi nizkien, bai bi ezteietakoak, bai EGE elkartekoekin gauzatu genituenak, export-import etxe-ko lankideekin senarrak atera zituen bezalakoak. Kaleidoskopio horretan Phillipen irudia gandutzera zoan.

Gainera, argazkirik ezaz, oihal dendako turko zena, janari dendako utavaluea, polizante nazkagarriak, polizia hila –hor ez zen bekatu– gazte nintzeneko galai uzkurra, estatubatuar kontsula, aurpegiak nire gogotik ezabatzen ziren, arraroki ahotsak luzaroan gomutatzen ahal nituen. Tuñu, neba zaharrenaren begitarte ere, argazki gabez, nire begien oroimen indargetutik itzaltzen ari zitzaidan.

Behar ere, ama hor neukan; umeak haren ehundegian sarturik zebiltzan. Inolako larritasun barik uzten nituen haurrak beren ama Mirciderekin eta umeek orduak iragan zitzaireten ama zaharrak kontatzen zizkien ipuinak entzuten; behin edo beste, haiekin egon nintzen eta gero, aipatu dizkizuedan ipuin zaharrak errazago eta zehazkiago gogoratu zitzaizkidan.

Oroitzapen okerrenen artean: arrastatu nindute-neko estualdiak eta tratu txarrak, polizia hil nuen larrialdia, baita poliziak nola senarra torturatu zuen eta kontsulak askatu. Zorionez ez ditut ametsetan ikusten. Ez nintzen haien aurpegiaz oroitzen baita kalean bizi ziren Riobambako bi neska ezagunak, Maria eta Cunsuilu non ote zebiltzan?

Bizienik nituen irudiak ez ziren ugari, Aparecida eta Mingo adiskideak, Thani lagun mina, Pidru anai gazteak bidali argazkia, gurekin bizi zen gure ama xaharra. Azkenik, Tuñu neba zaharraren fotografia nonbait txirrindulari talde baten artean hartua, idoro nuen. Egun batez, agian, argazkitan dauden anitz ez ditut areago ezagutuko eta orain adin erdiko andrea naizela, antzinako askok ez naute egingo.

Iraganaldiaz ez nuen inolako idolatriarik sortu nahi eta agudo utzi nuen argazkiei begiratzea. Alabaina, arupu zuhaitzaren itzalpean erran genuen zinak, antza denez senarrari betirako lotzen ninduen; hori ezin ezaba bakearen eta eztitasunaren arkan sartuz baino. Elkarreragile izan ginen egun ederren kaxan. Halere, ez nuen berehalakoan jazotakoaren arakatzea utzi, etsibide horrek iraganaldia ilunduko bazidan ere. Gauzak erre edo eman daitezke eta begien aitzinetik ezaba, baita gogotik gomuta zenbait ezin ken.

Haurrek, beren aldetik, ezagutu ala ez ezagutu aitaren irudia asmatu zuten. Ustekabean, haien irudimenezko asmakizunak entzutea gertatu zitzaidan: aita haientzat supermana zen, lazgarri handi eta zinez eder, indartsu eta ahaltsu. Umeek, horrela, zabalik eta suhartua zen bihotz zauri eztitu zidaten eta denbora berean, ez ote, oroitzapenak nahasi eta urtarazi?

Hainbeste urteren buruan itzul baledi. Zer gizona? Zer planta luke? Gure artean zer harreman? Eta hurrek zelan hartuko lukete?

Belaunaldi batetik bestera sekretu guztiak ez ditugu argitzen. Hainbat hobe! Zer ekartzen du, askotan, “egia” delakoa ezagutzeak, izan den baino nahaskeria ugariago ekartzea? Ez nintzen behin ere jakin minean urrutiegi joan. Adibidez ez nuen egundaino bera ezagutu baino leheneko Phillipen bizitzaz deus galdetu. Orain usu gogoan erabiltzen dut, jakiteak desagertetik salbatuko zukeela edo aurkitzen lagunduko ninduela.

Senarraren itzaltze horren ulertzeko, haatik, gorde nituen haren gutunak ez nituen denbora luzean irakurri nahi izan, eta orduan, hura idorotzeko zer edo zer agerian ipiniko uste arinean. Eskutitz horiek haren senitarkez zerbait erakutsi bazidaten ere, bat izan ezik, ez zidaten ezagutzen nuen Phillipez besterik erakutsi. Grindio Phillipen eskutitz bilduma ireki nuenean, eskuak ikara nituen. Baziren senarrari kitxuaz idatzi nizkionak, hizkuntzaz bazter oharrekin eta gaur egun aipatzen dizkizuedan jazoera askoren xehetasunak dakartenak.

Gutun batek, halere, bekaitzez mindu nau, gaitzitu nau; zer idatzi zuen ahaztua nuen, alegia haurrak jaiotzen direnean amari hartzen diotela senarrari zor dion maitasun eta ardura zati bat. Eta detektibe anker hark senarraren desagertzeaz eman zizkidan akiakulen artean, horixe bera zion. Phillipek aitatasuna dela-eta, idatzi hitz bekaitzak ote? Gutuna urratu nuen eta nire bizpahiru ere; gero damutu zitzaidan: klixe hutsa, ideia arrunta delako senarrak hala idatzi zuena.

Atsegin eta zoramen une zenbait eman dizuenei barkatu behar genieke eta senarra halakoa izan zitzaidan, aitatasunaz oharra idatzi bazuen ere. Idatzien artean niri zuzenduak irakurri baditut, beste idatzitakoak ez ditut berehalakoan irakurri nahi izan eta azkenki, hil balitz bezalako erlikien kultuan ez sartzeko senarraren gauza gutxi gorde.

Jarraian, kalkar, eta gaitziturik zoko batean ahaztuta neuzkan haren jantzi eta soineko bakan zenbait erretzen eman nintzen. Erretzetik salbatu nituenak gizonaren kapela eta orobat punttxoa, baita barriadetako pobreez arduratzen zirenei beste guztiak eman, egun batez etor baledi ekintza hori pozik har lezan.

Hiritik salbatu eta ekarri dudan ordenagailua kontabilitaterako anitz baliatzen zait. Orobat, Riobamban egon banintz, egunero, edonondik, senarraren gutun elektronikoa hartzea igurikatuko nuen; hemen orainarte Internetik ez dago. Artega nagozue. Urruntasunarekin zerak hobeki onartu behar nituzkeen, nire bizitza laburrean larritasunaren ontzia beteegiz gaintditu ez bazitzaidan; gainera, itsuki eta oharkabean haurrenganako horrelako hoztasuna gogoan sartu zitzaidan.

Uste dut, ama zaharra gurekin bizitzeak buru galtzetik salbatu nauela. Ez da erraz, oster, ez jakinean betiko igurikitzean egotea. Etsipenezko itxarote horretan gogoratzen naiz amak zer esan zidan, hil nuen poliziaren amaz eta apur-apurka jazo zitzaidanarekin parekatzen hasi naiz. Egunaz, saltegiko lanarekin eta etxeko akodinekin horrelako gogoeta hitsak haizatzen bazaizkit, ohe erdi hutsean oroipen ez txit onak itzultzen. Goganbeharrak mamu hegal beltzen tailuan datozkit, zorionez denek ez naute gauean ametsez ikus-tatzen.

Ama Mircidekin hitz aspertu luzea izan dut, eta ondoren gazteegi zahartzen ez ote naizen, gogotik iga-zi. Honela hasi ginen:

- Ama ez dut itzuleran leheneko atsegina eduki. Herria aldatu dea ala ni naiz?
- Biak. Wamoteko kolegioan hengoenean gazte gehienak ezagutzen hituen eta orain ez. Gainera, hire antzinako lagun gehienak joan ditun, batzuk hi bezala beste hirietara Riobambara, Quitora edo Cuencara, besteak ezkontzaz beste indigena naziotara edo atzerrira. Hi ere beste andre bat bilakatu haiz.
- Baina oraingo jendea estrainioa da, ez?
- Nina, hi haiz arraro bilakatua. Ez al haiz, hemen, gutxi bat atzetua sentitzen.
- Bai, zertan?
- Hiritartu haiz. Ez haiz beste andreen gisa jantzen, besteak baino txukunago haiz, mestizoen antzeko *pinganilla*.
- Bai, karrikan jendeek turista banintz bezala begiratzen didate. Saltegian ezagutu batzuk hasi zaizkit agurtzen.
- Egoerari geldiro, astiro ohituko haiz.
- Hemengo jendea ez da lehen bezala eta hiri honetan zer irabiaka eta alborote sartu zaigu?
- Nina, ez hintzen ohartu kolegioan hengoenean Wamote zaharreko zutabe sendo eta herrikoiak zein ziren: *Waturuna* (aztia), *kallawaya* eta *paku*, sendagileak baita beste anitz. Orain horoskopo, mediku eta sendatzeko *hampi* kimikoak baditinagu. Hau ez dun gehiago hire gaztetako hirixka: denborarekin konturatuko

haiz Wamoten 50.000 jende bizi dela eta goi zelai hau etxez bete bete dela.

- Bai, ez nintzen hemendik aski ibili hainbeste aldatu zela konturatzeko. Beti gure geltoki inguruan nenbilelako.
- Bai, Nina. Badin hogeit hamar urte joan hintzela, geroztik hemengo ekonomia, hemengo lanak bestelakatu ditun, eta jendea telebistaren bidez amerikartzen ari dun.
- Eta zer egin?
- Nina, beste zerbait eskaini
- Indigena modernoa sortu?

Isildu ginen eta ostera zurezko kaxa batzuetarik soka berriak ateratzen eta berrikusten eman ginen. Gelak kalamu hari usaina zerion eta tarteka larruzko salgaien urrina tartekatzen zitzaion. Argia beheratzen ari zen eta lana utzirik amari aitortu nion ez nuela gazte denboran mendi ikuspegiak ematen zidan zoramenik edukitzen.

- Ama, mendiek ez dute antzinako edertasunik, esparru zabal grisek goibeltzen naute.
- Jendea leku ederrenen ikusteaz asper liteken. Hiri, suhartasuna higatu zain. Hain gogorrek diren mendiak higatzen eta latz egiten direnean nola ez gorputza. Lehenago hemengo argia eta argien margoak miresten hituen, orain plazara begira hago autobusaren edo kamioiaren zain, eskatu dunan salgaia etorriko den ala ez.
- Argia ere ez da lehengoa.
- Ez, hire begiak ditun arian-arian mendiak bezala higatzen direnak. Hain miresten huen ilargi bete ere ez didan aipatzen. Herria hain gaizki



ikusten badun besteetan uste al dun hobeki dela?

— Ama, zu hemen ez bazina eta haurrak ez banitu, uste dut, errespetatuko ninduketen noranahi, joan nintekeela.

— Erroak eteten ari zaizkin. Kasu! Zuztarrez osoki gabetzeak jendeari ibiltari eta galdu izatea gerta lekioken. Batzuek diote beren aberria lana eta ontasuna aurkitu den herria dela, hori da ehizak pentsatzen duena lurrak korritzen dituenean.

— Ama, badakit nola nahi ere, herriz aldatu arren, gure larruaren koloreak salatzen gaituela eta gora joatea oztopatzen.

Amak zion, uste izan nuela harkaitz gogorra nintzela, nola nahira harriak ere lauskitzen, zatikatzen eta errausten zirela, argira azaleratu bezain sarri higatuak; gu ere hala ginela eta besteri lekuen uzteko egokiera zuzenean.

Banuen zer gogozka haraino eramán bizitza ez al zen neronek eraiki zepoa, izan ere Philliperen desagertzeaz erdi erruduna nintzen, zain eta muin indigentaren zaletu nuelako. Hainbeste espantu, hantuste eta handikerien artean nor nintzen? Mendiei, ibarrei eta jendeei akats baizik ikusten ez nuena. Indigena nazioetarik etsitua deslotzen ari eta oroz gain gogoa gogorturik. Sal erosketek halakaturik?

Aitortu gabe hiriko erosotasun eta kultura eskaintzez urrutiegi egoteak sortu zidan hutsunea. Nahikoa atzipeekin! Iraganaldi zaharraz damurik ez, otoi!

Riobambatik eroan kazeta artikulu moztuak ondo gorde ditut. Honela gertatu zitzaizkidan jazoera fran-

ko gomutatu zaizkit. Egunkari zatiak ere hor daude. Indigenek 1992ko mendeurrenera etorri Espainiako erregeari helarazi geniona, kriolloen Bolivar eta San Martinen ospakizunak, gure jazarpenak, modu berean, artikulu haiekin matxinadez senarraren esku idazkiak ere. Halaber, Phillipen liburuak gorde ditut.

Astia izanen dudanean hutsarte batean, Jorge Icaza berriz irakurriko dut, gure indigena gorabeherak ondo irudikatu baitzituen eta senarrak utzi Ciro Alegriaren *El mundo es ancho y ajeno* irakurri ez dudana, erosi. Badut, ere, gogoia kriollo munduaz gizonak utzi *Los amores en los tiempos del cólera* García Marquezena, eta *Dos señoras conversan* Bryce Echeniquerena irakurtzea.

Oraingoan, bizi naizen Wamote gain honetan gogoeta egiteko hutsarte ugariago badut, horregatik, bakartasunaren putzutik zer nahi gomuta gogoratzen zait. Nire buruzagi turko droga trafikatzaillea gogoan, beste gertaera bururatu zait, artikulu moztua irakurriz, kolonbiar andre batena. Behinolakoan, egunkariak aipatu zuen Kolonbiar andre ezohiko gaiztagina Parisen atxilotu zutela.

“Bogatatik Parisera doan hegazkinaren orduan eta gure hiri nagusiko aireportuan andre bat nini txikia besoetan hegazkineratu zen. Leku egokia eman zioten: nini aldatzeko mahai bat zeukan aurrean.

“Bazuen nonbait lau ordu aireko zerbitzariak jatea eskaini zionean, eta hark hozki ezetz, azafatari gaineratuz, ninia harria bezala lo zegoela, ez esnatzeko eta bera ez zela gose.

“Bidaia erdian neskak estranio nabaritu zuen niniaren geldotasuna, kolore zurbilak eta ez hi-

gitzeak. Kolonbiar andreari ez zion ezer irudiarazi.

“Andreak, aurrean ninientzat egokitu mahaian, haurra utzi eta komunera joan zen. Bitartean sotilki azafatak larrua ukitu eta hotz idoro: ninia zurrundua zen, agian, hilik.

“Horretaz konturaturik neskak kabina burua eta pilotuak abisatu zituen, nolabait ere hilik zegoen ninia zeramala andre hark. Hegazkina Parisen lurreratu baino lehen, aireportuko sendagilea eta polizia deitu zituzten, heriotza egiaztatua izan zedin eta agirian jar.

“Airekotik jaistean andreak hiru gizonen altoa entzunik, ninia lurrean utzi eta lasterka ospa egin nahi izan zuen. Poliziek atzeman eta galdeketa egitera eroan.

“Poliziek gaztelaniazko interprete batekin itaunketa egiten zuten bitartean, sendagileak niniaren autopsia egiteko anbulatoriora eraman zuen. Poliziari andreak kontatu zuen eskatu ziotela Pariseko aireportuan agertuko zen etxe-ko bati nini hilaren gorputza ematea eta besterik ezer.

“Poliziak arraro aurkitu zuen, nola ez zen haur hila hilkutxaz igorri, merkeago zelarik eta nola onartu zuen emakumeak, beste helburu gabeko bidaia, Pariseraino ordainduta egitea. Sendagileak, besterik aurkitu zuen. Ninia argala zen, baita egundoko sabel handia zeukan. Goitik behera gaizki urratu eta gaizki josi larrua ageri zitzaion.

“Jostura ireki eta niniak, heste orde, sabela kokaina zakutoz betea zuela atzeman.

Auzo kritikatzan herri guztiak iaioak gara. Ekuadorren famatzen da kolonbiar familia gosekilen haurrak ere salgai direla. Abokatuek garesti 3-10 mila dolaretan eskaintzen omen dituzte pobreen umeak haurtzat hartu nahi dituzten europarrei, bestela haurtzarotik prostituzioan sartzen dira. Hala bada ere, haur baten gorpua honela erabiltzea!

Argi da gure Ekuador baino behartsuago dela Kolonbia eta handik ere miseriak sortu gaiztagin guztiak munduan barrena taldeka sakabanatzen direla, hargatik gehiegi alderatu gabe isilkiago ez al da horrelakorik gure Ekuador txiro honetan gertatzen ari?

Horrelako irakurketekin sakonean ditudan itxaropen ametsak ezabatzen saiatzen naiz. Herioak gure buruko atea hautsi arte, aski argi da ez dakigula nola gure bizitza baloratuko dugun, azkeneraino gozamen aldiek eta borrokek bat-batean oldartzen gaituztelako. Bide okerretik nabil paperetan bilatzen iraganaldia eta politikaren gorabeheretan geroaldiaz amesten. Geldi nadin, egunero orainaldiaz goza dezadan eta arrangura guzti horiek datozenean, barreneko isiltasun batean indar hartuko dut.

Noizbait, sendagai gisa, biziaren azken arnasan, senarra arupu zuhaitzaren itzalpean bilatuko dut edo amazonarren ametsetan legez ur-jauzi baten gainetik, ostadar batean agertuko zait. Edo ostadarrak eroango gaitu. Noiz?

## XVII

### GIZONAREN BILA

Ez! Ez! ez dun inoiz amore eman, ez eta emango! Senarraren bila joan behar dun. Hori astebetetz go-goan sartuta arranguraren sastrakak azkenean hurbil ito hau. Atzo, amarekin eztabaida laburra ukan dun. Oroitarazi din bi haur baditunala. Eta hik ihardetsi semea eta alaba Pidru osabaren eta beraren axoletan utziko ditunala. Amak bazekin tematia haizela eta hasperen artean kargua onartu din.

Egun, goizean goizik jaiki haiz. Haurrei musu bana emanik, bizpalau egunentzat Riobambara jaisten haizela gezurtu. Goiz autobusaren hartzera hoa; oraingoan ez haiz alaiki joaten; burua hutsik makina baten urratsean ibiltzen haiz.

Goiz honetan turistarik ez delako Riobambara jais-teko autobus zaharra dun. Bidaia luze eta aspergarria, bazterrei begiratzeko gogorik ere ez. Noiz behinka, soraiotasun horretaz kontzientzia erredura batek ernatzen hau, eta barneko suminaldi laburrek inarosten haute. Cuencako bidea, ala bide luzea eta zertara hoan jakinik nola ibiliko haizen ez dun hain argi.

Azkenean, Riobamba. Inork ezagutu eta ikusi baino lehen Pangalatik Alausira, autobusean Cuencara

hoa, hiri hartan direlako politikagatik atxilotuak giltzapetzen. Hiri horretan ez haizelako bizitu ez haute ezagutuko. Cuencatik hurbiltzean baketzen haiz, baze-kin askazi baten etxean aterpea izango dunala.

Pidruren alabak ongi etorria eman din. Aurpegian harridura din, beharbada alde batetik hire begitartean hire itolarria ageri dunalako, berriz bestetik haren begiek diotelako 'umeak gabe zertara hatorren'. Laburzki esaten dion haurrak Wamoten egon direla, baita senar-raren bila hatorrela.

Kontatzen dion nola gau batez Phillip etxetik joanda ez zen lanera agertu, ez eta ondoko egunetan ere, eta hik zelango mehatxuak nozitu. Bestalde ez amerikar kontsul etxetik, ez lagunengandik ez dunala ezer jakin, berdinki detektibe ustel batekin. Inork, haren beribil erreaz kanpo ez duela inolako aztarnarik ediren.

Isabila, lehengusinak berehala lasaitzen hau ahaleginak emango dituela zer edo zerren jakiteko. Ez hadila etxetik irten zelanbait *txakurrek* dakitelako haien esku torturatzailerarik igaro haizela. Duela bospasei urte hauek entzunik protestatuko huen, geroztik bizitu eskarmentuen gomutarekin isilik egoten haiz-eta. Isabilar hitzeman dion hark esanak jarraituko ditunala.

Lehen egunean Isabila han eta hor saltzen ibili ondoren ez zinan gauza handirik jakin, Cuencan oraindik politikazko presoak zeudela baino. Egun osoa eman huen asteko prentsa irakurtzen:

Amerikar adiskideen laguntzarekin, herri moderno eraikitzen dugu.. guretzat pozoia den koka galaziko dute, koka alor gehienak suntsitu baitituzte. Amazonatik mintzatzen zaigu urlia hango baso basamortuak garbitu eta orain munduko te eta kafe hobere-  
renak ekoizten hasi gara.

Hori aspalditik entzun beharra *blanco* delakoak agintean daudenean. Irratia piztuta entzuten dun:

Guayaquilgo portuaren trafikoa % 5 gora joan da (baina tonak ez dira aipatzen) Ekuadorren inor ez dadi-la gaztelera jakin gabe egon kanpaina abian jartzen da.

Ageri da noren eskuetan diren libre hotsezko irratia. Albiste horiek goragalea eman didate. Ez dun luzaro horien entzuten jarraitu, gose gabeko bazkal laburraren ondoren lozorro sorta batean amildu hazelako.

Bigarren egunean lehengusinak espetxetik aterra berria zen lapur batekin topo egin zinan eta alegia Bourbon whisky saltzeko zeukala Isabelak galdetu ea giltzapean bazegoenez ingelesik edo amerikarrik? Hark erantzun harrigarri bazitzaion ere amerikar gaztea egon zela, alkoholik edaten ez zuena, gero militarrek berekin eroan zutena. Aitzinetik, etsipen lamaren kamusteko gogozkatu nuen ez zidatela senarra atxilotu eta bertan hil... oraingoan lur jota nengoen.

Egun hartan etxean egon hintzen eta Cuencako mapa aztertu *carzela* non zegoen jakiteko, Isabilak esan ondoren militarren *cuartila* ere bai. Militarren tiro lekua non zegoen galdetu hion, eta mapan erakutsi zinan.

Hirugarren egunean. Alegia kuintzat belar biltzera hindoala, plastiko poltsa eta igitaia hartu hituen tiro lekua zen belardian sartzeko eta arropa oso arruntez jantzirik joan. Riobamban entzunik bahekien beren tiro ariketak, beren terrilkak arrastitan eta iluntzetan egiten zituztela. Tiro xedeen lekuak idoro hituen: kartutxo estutxeakak non nahi.

Ondoren, harresi baten oinetan belarra ostikatua, zanpatua topatu ninan eta hor bihotza pil-pil belau-

niko begiratzen hasi hintzen: lurtean txanoa zegonan, bestean gurutze bat. Botoiak ikusi hituenean batzuk bildu hituen eta bihotza apur-bat gelditu zitzainan ez baihintzen oroitzen Phillip desagertu zen egunean nola jantzia zen? Ez zinan merezi Cuenca baino asago joan hendin. Tiro lekuan hire plastikoa bertako lurretik hartu huen, Phillipen eta beste lagunen oroitzetan.

Isabilari, lanetik itzuli baino lehen, berari kontatuko nizkion guztiak nire gogoan garbian jarri nituenak, gero loak egotzi arte haren familiaz hitz egingo: nola haren senarra bizitzaren irabazteko Espainiara joan zitzaion eta etxearen eraikitzeke diru igortzen, alaba amamarekin senarraren herrixkan bizi eta semea kolegio barnetegi publiko batean ikasten zebiltzala. Entzun eta ez nuen ezertan maiseatu nahi izan, nire barrurako hausnartu nuen haren semeak *kitxwa* galduko zuela, eta alabak erdal eskolen ondotik zertxobait gordeko.

Hizketa horrekin hire umeez kartsuki oroitzen hasi hintzen. Nola nahi beluegi zunan gizonaren bila joan hendin. Biharamunean, Isabelari besarkada ederrik eman ondoren eta biak begiak bustixerik, gogoz gaindi Wamoterantz abiatu hintzen, Philliperen ohoartzeko hire indar guztiak, hortik aurrera, umeen hezten eta eskolatzen eman behar hituen. Etxerako bidean autobusean gogoeta franko hausnartu huen, Isabilaren bizitza gogoan. Egun batean seme alabak hara edo hona sakabanatzen ditun eta halabeharrez Espainiara, Estatu Batuetara edo gure erresumaren beste bazterreko hiri batean kokatzen. Hori ez dun gure esku.

Andre adiskide bat edo beste izanagatik bakartasunean bizi beharko zainala, uste duna Lurra hain zabala izanik etxeko mundu txipian zerratzen haiz eta hire



burua munduaren zilborra bilakatzen. Riobamban lagunak bahituen, eta Aparecida adiskidea, zerbaiten egiteko. Orain hik ere, zutik bizitzeko, Wamoten etxetik ere besteengana hurbildu behar huke lagun sare batean sartuz.

Azkenean, autobusean. Jendeez betea. Hautematen dun bizpahiru profeta antzeko bizardun eta ile luzedun gizonak isilik daudela. Bizkarretik beren bizkarzorro handiak kendu eta hor daude kanpora begira zerbait ikusi nahian. Badakin bai, ez direla mendigoizaleak eta ez dutela kinoa sailik antsiatzen, koka baizik; oraingo giroan ez ditenek erraz edirengo. Horiek ere, beren bakartasuneko atsegin bakarra hori ditenek. Hala eta guztiz ere zuri horiek ez ditenek guk bezainbeste bizitzeko borrokatu behar izan.

Gizonaren bilaketa horretan zingoa jo dun eta horrek ganorabako eta lokartu gogo geldoa ernatu. Etxetik kanpo, Riobamban bezala, besteen zerbitzuan borrokan jarri behar huke, herrian bertan, ezin haizelako bakarrik eta umeekin, miseria arriskuekin, urrunegi joan.

Umeek ez ditenek jakingo haien aitaren bila ibili haizela, ez eta hire erruz, beharbada, hire militante suarekin erretzera eroan dunala. Halatan ere, etxera sartzean Cuencara itzultzeko gogoeta eroa izan dun eta gogoz kontra etxera sartu. Haurrek alaiki hartzen hautenean bihotza beltz dun gure Phillipek ez dituelako bi haur horien pozak ezagutu eta beharbada, behin ere ezagutuko? Buruz buruan Waynak galdetu din “Aita ikusi al duzu?”

## XVIII

### BIZITZA OSOAN GARA IKASLE

Lanak, lehen aldikoz, hutsarte franko uzten dit, eta *Kichwa Wasi* ikastetxean, irakasle bat gaixotu delako, haren lekua, une baterako hartzea onartu dut. Lehen egunean, oraindik horko ikaslea nintzelako irudipena eduki nuen. Haatik, ez nintzen eskuak hutsik abiatzen: senarrak irakasle eskolan hartu zituen klase saio eske-ma eta oharrak, prestaketako irakasgaiak ere gorde nituen. Senarraren esku idazkiak artoski irakurri nituen eta egitasmoaren barrenean, nire ikasgai hautuak egin.

Phillipek “Nola hitz garbietan irakatsi”, idatzi zuen. Gure hizkuntzan ez delako liburu gehiegirik komikiak usatzea erabaki nuen. Hala ausartu nintzen fantzina bezala espainolei erantzuteko Ramiro Reynagak “Wankar” idazleak marraztu zuena; honela hasten dena “Amerindiarrok gure puskak lotzen, gure herria, bihotza eta adimena berreraikitzen ari gara eta gure historia kontatu behar dugu”.

Espainiak Colón ospatzen zuen urtean Ramirok gaineratzen zuen: “Bidegabekeria, gosea eta gaurko arazo nagusiak Amerikak jasan eraso eta konkista hiltzaileek eragin zituzten, zibilizazio kosmiko bat eten zuten, arraza baten, kultura baten milurteko jakindu-

ria baten suntsiketa bilatu zen. Espainiak ez du ezagutzen, ez du ontzat ematen”.

Gure historian gehienik erakutsi niena eta testuan agertzen zena, batasunik ezak zelan etsai txuri odol-isurleen jokoari lagundu zion, eta indigena arbasoek elkarren etsai gudukatuz, beren buruak suntsibidera eroan.

Hizkuntza zen, ordea, gaurko nire eskola kezka. Ordu hartaraino ez nuen sumatu belaunaldi berriak ez zituela gure ideia eta balore guztiak onartzen, ez eta mintzaira bera erabiltzen. Geuk gaztaroan hitz egiten genuen kitxua ez bazen eskolako estandarra, gaur egun gazte askorena *kitxuañola*, *chapushka* da. Nire kolko-rako nion, baina ikasleei ez nien aitortzen hobe dela mintzaira ez txit ona baina bizia, ezen ez hizkuntza eder hila.

Menditar heziketari, ez diot areago perspektiba errazik ikusten. Ez naiz ez azti, ez igarle. Ikuskera laburra. Egunetik egunera etxeko lanetatik dendakoetara eta alderantziz ohitua, ez nuen irakaskuntza gogoan. Banekien, Phillipek erranik, Estatu Batuetan ingelesarekin, Txilen gaztelaniaz, herriak mintzatzen duenaren eta idatziaren artean leizea sakon litekeela.

Handik landa, adierazi nien, funtsezko lanetan, xumeenetan ere, edozein herritan hizkuntza zehatza, hala nola kitxua dotorea, ezinbestekoa dela; idatzia zer den ikasi nahi ez duenak ez eta indarrik horretarako peoi *runitu* geroa daukala.

Gramatika ez zuten gazteek gogoko eta erronkaz irakatsi behar zitzaizkien arauak. Arau bat aurkeztu eta menderatu arte saiatu, gelako beren zokoan ikas lanaz, beren gaitasuna berek taula batean gurutze batekin

markatuz. Honela bizkortasun berezietako ikasleek, bakoitzak beren neurritz eta lastertasunez ikasten zuten.

Aditzondoak direla eta erabatekoen erlatibotasuna iruzkintzera eta hausnartzera eman nien, *bete* dena hustu daiteke, *beti* gu bezala ez da irauteko egina, *inoiz ere ez* behin gerta daitekeela.

Behin, apika, nire buruari planteatu nizkion galderei erantzuteko ohi den gisa, ikasleei txostentxoak egitea eskaini nien eta lehena izan zen, nire kezka isila: zer da hizkuntza? Zertarako behar da? Mutil batek txosten latza bota zigun, ia mestizo eta kriolloek gure kitxuaz ziotena errepikatuz. Ez ninduen harritu: gaur egun Wamoten *hispanohablante* hutsak finkatu zaizkigulako. Hizkuntza erdaltzale, mutilari *Cometeleva*, izena jarri zioten. Berak idatzi zigun:

1. Ketxuera beste hizkuntzez bestelakoa dela eta besteen ikasteko eragozpen nagusia.
2. Ketxuerak ez duela, Wamote eskualdetik kanpo, ezertarako balio, gazteen erdiak nolnahi herriz kanpo edo erbestera joanen baitira. Eta tramite guztiak gaztelaniaz direlako egiten.
3. Nahitaezkoago zela, lan baten lortzeko, ingelesta eta gaztelania jakitea.

Isilik egon nintzen. Eztabaida aldia heldu zen. Neska batek lehen puntuari murt egin zion, ikasle normalek, kitxua jakinik ala ez, ez zutela arrotz hizkuntzen ikasteko eragozpenik, zozok baizik ez, eta gainera denek gaztelaniazko klaseak bazituztela gaztelania onaren ikasteko eta ingelesezkoak ere.

Bigarren puntuari beste neska batek erantzun zion, ez genekiela zein erbestetara joanen ginen, agian, bihar

Brasilera eta portugesa ere ikasi behar liteke, bai eta Alemaniara joatekotan alemanera, Frantziara joateko frantsesa, Txinara joan litezkeenak, txinera: *por si acaso*, hizkuntza guzti horiek ikasi nahi zituenez? Mutil gaizto batek esan zion astoek hizkuntza bat baizik ez dutela ulertzen eta horretan ere hitz gutxi. Barrez ito ziren lagunak.

Gazteen erdiak gure mendietan egotekoak badira, horiek kitxuaren beharra izango dutela. Hain zuzen, gogoratu zioten, txosten egileari Makak alfabetatze taldeak eskolatik kanpo zer harrera ona zuen.

Mutil batek ondotik: lehen garaitza kitxua eskola izan dela gaineratu zion, lehen ez baitzen eskola egokirik, gaztelaniazko ahulak baino. Gaineratu zion, ez zuela kexatzerik, *escuela fiscal* gehienetan egiten ez zena escuela indigenan tramiteen, eta taloien gaztelaniaz betetzen ikasi zutelako eta besteek haina ingeles klase eduki. Azkenik, helduek tramiteak ere gure kitxua hizkuntzan ere egiteko eskubidea eskatzen borroka zera-matela.

Txosten egileak ez zuen erantzun. Marmar batean zerbait; bera ez zela aldatuko ageri zen, eta ohartu behar nintzen lagunekin beti gaztelaniaz mintzatu nahi zela eta batzuk kutsatzen. Ez zen mutil hori hizkuntza bat ere ongi ikasteko iaioena. Erraztasunik eta gogorik ez. Belaunaldiak aldatuta ere gaur gazte batzuek “indio” konplexua, era batez edo bestez, oraindik erakusten dute.

Beste gai batera igaro baino lehen ez nion *Cometelevari* inolako iseka edo oharririk egin.

Aitor dezadan neuk ere ez nituela jarrerak hain argi samar ikusten, nahiz eta onartua zen kitxua estatuko

hizkuntza, gero legetik gauzatzera bidea luze izango genuen, berriro hitza hartu nuenean, lasaigarri moduan jaguarraren eredia aurkeztu nien eta ikasleei zatika irakatsi niena ondotik bildurik irakur ezazue:

“Ikasleok, etxean ispilurik ez baduzue ere jaguarraren tankeran bizi beharko zaizue, zuen larruak ez dira margoz aldatuko eta hark salatuko zaituzte. Onean-edo txarrean-edo ezin zarete zurituko.

“Jaguarrek, larruaz kanpo, badute beste ezau-garririk, nortasuna eta bizia galdu gabe irau-razten laguntzen dituztenak: haginak eta atzaparrak. Jaguarrek hagin zorrotzez ausikitzen dute eta atzaparrez oldartuz gordotzitzen. Gure hagin eta atzaparrak: gure ohiturak, gure sines-teak, gure mintzaira dira.

“Haatik, jakin ezazue bostehun urtez, Inka handiek eman hizkuntza eta kultura zerbait piz-turik eduki dugula. Ez gara aurrekoak baino argiago, mundu osoak ezagutzen digun, horre-lako altxorraren uzteko.

“Munduan non nahi izanik, edonon egonik gure belaunaldi zaharrak berreskuratu harro-tasuna eta duintasuna arrotz herrietan ere bizi garenean atxiki ditzakegu. Bizpalau atzerritik kitxuazko gutunak hartzen ditut eta kanpotar zenbait ere gure hizkuntza ikasten eman dira. Gure hizkuntza beste zazpi milioi ketchwadu-nek uler dezaten poetekin hizkuntza ona ikasi behar duzue. Gustatu zaizkizue *Ariruma Kowii* jaunak idatzi olerkiak *Mutsuksurini* liburuan. Ez al da hala?

“Atzerrian ere, nortasuna gordetzeko, ez da herabez egon behar, indar eman behar da. Telebistan ikusten dituzuen erosotasun horiek ez dute miseria ekiditen: Estatu Batuetan txiroak milioika dira. Zuen biziera hauta, baina ez arinki pentsa”.

Jakin bazekiten gazteek Riobamban bizitutakoa nintzela, horrela, hiriaz eta gutarrez mintzatzean esaten nizkienak herritik kanpo ibili gabeko nekazarienak baino indar gehixeago zeukaten. Behin-behineko lanbide hori utzi baino lehen, ikasleei beren zokotik inguruko herriak ikuska litzaten, hirian eta beste ibar hurbilenetan txangoak eskainiko nizkien, astia izan banu.

Banekien, berriz, une bateko gogoeta hori ez zela nahikoa, gazteen artean gaztelania, estatubatuarren mirespena eta kriollokeriak sar ez zitezten. Gainera, guraso ala irakasle izan telebistaren magia gu baino indartsuago zen. Etxe askotan gaztelania arrotz hori sartu zen eta hitz egiten zuenean telebistak gure hizkuntza isilarazten. Oraindaino, ez zuen familietan gure hizkera osoro galarazi telebistak, ezen gehienetan kirolagatik begiratzen zuten, futbola zela-eta, txirrindulari txapelketak zirela.

Negua zen gure hizkuntzaren etsaia, orduan baitzituzten gure gazteek, puri-purian dauden argentinarren serie delakoak begiratzen, beraz herri koskorretan eta nekazari ez zirenen artean erdal gaztelania sartzen zitzaigun.

Bestalde, telebistak eskaintzen zigun eredu modernoak gazteak, batik bat mutilak, liluratzen zituen: hor kriollo eta mestizo abokatu, ingeniari eta sendagileak, negozio jendeak eta artista handiak ikusten zituzten,

beribil ederrekin, hegazkinetan mundu osoan ibilki, eta euren ustez kitxua gizartean igotzeko oztopo egiten, Gainera mutilak berehalaxe igo edo aberastu nahi ziren. Sarritan, nire militante habian amesten, irakasle izan arte ez nituen kultura kalteak hainbeste ikusten.

Gobernuko *Escuela fiscaletan* kriolloek eta mestizoek beren *Indio tonto!* ordez *Indio leido*, *indio perdido* formulekin ikasleak zauritzen zituzten eta asko kalean ketxueraz hitz egitetik isiltzen ziren ezezagun bat albo-tik igarotzen zenean; kasu horietan, indigena izateaz lotsa, maiz gazteleraz edo mendiko gazteleraz *sachacastellano* delakoan hitz egiten ematen ziren.

Gazte denborako giroa gogoan, nahitaezkoaren aurka borrokatzen nintzen, ezen mendia ez zen gehiago nire mendi ederra, ez eta herria nahi nukeena. Amak dio zahartzen hasia naizela eta egoera lasterre-gi aldatzen dela jarrai dezadan, alta militante gisa uste nuen...

Zer edo zer onik eta modu batez alde genuen, gutarrak musikazaleak direnak eta kitxuaz diren irratia libreek gure doinuak eta gure hizkuntzan albisteak ematen dituztela; orobat telebistan sartu berria da kitxua. Behin batean, Riobambako kaletar batek telebistan ikusia aipatu zidan; telebistarik ez neukala erantzun nion, hala jendaurreko agerraldien lilura baztertuz irratian hitzei jaramon handiagoa egiten niela. Osteratu zidan ez zuela ulertzen nola bizi zitekeen telebistarik gabe. Gure etxean ez da egon telebistarik eta kitxuazko video eta pelikula apurra iritsi arte, ez da telebistarik izango; honela eskolara joango zaizkit umeak erne eta ez, dagoeneko, batzuen moduan goizean, bezperako telebistagatik, erdi lo.



Kanpoko eragin eta ekintzari bihurtzeko beste egitasmorik eskaintzea da onena, baita ekintzaz asmoa gauzatzea ere: ikastetxeko ikasle eta irakasleekin erabaki dugu Wamote irratia, kitxuaz antolatzea; horretarako gazteak lanari lotzea: hor urte zenbaitetarako borroka txikia irabazi dugu: herriko albiste berri eta auzo erresumatakoak, kantu eta irri, ipuin eta hizkuntza emanaldi alaiak genituen eta entzuten ziren ahots gazteek zaharkeria kutsua kentzen zieten

Etsenplutzat hartu ditugu *shuarrak* eskola irratia sortu dutena kolono, militar eta *petroleroei* ihardukitzeko. Nabarmen da halere, gutaz inor arduratzen ez zenean, erdi esklabo ginenean, edo mendietan zokoratuak gure hizkuntza bizi bizia zela eta gaur egun autonomia pixka bat irabazten dugularik, kitxua eskola batzuk ditugularik, kanpotik etorri teknikekin eta administraziokeria guztiakin besteen erdal hizkuntzak gure balore eta hizkuntzari azpi erasoak egiten dituela. Gure arerio handiena, ordea, urtetan urruneko joanera eta mendia utzi beharra izango ditugu.

Ikasleek bazekiten, noski, behin-behineko irakaslea nintzela eta ofizio nagusia komertzioa, horregatik agian ausartu zitzaizkidan benetako irakasleari planteatu gabe zituztenak, galdetzen. Gogoratzen dudanen artean, herritik inoiz irten gabekoei adierazi nien nola kitxua estandarra erabiliz Ekuadorreko beste indigena naziokoekin hitz egiten nuen. Gure Sangai leinutik kanpo *chusku hunu* lau milioi baino gehiago gine-la *kitxua/ketxua* erabiltzen genuenak, bai eta Peruko menditar jendetzarekin eta boliviarr askorekin hamar milioiek ketxuera.

Nolanahi, ikastetxetik irtetean eurek barriadetako haur behartsuek baino hobeto gaztelaniaz berba

egingo zutela esan nien, ezen askok Riobamban gure hizkuntza jakin gabe txabakano mintzaira murriz eta urria erabiltzen dutelako. EGekoekin gauzatu genuen inkestaren lekukotasun idatziak eta gure ekintzen emaitzak erakutsi nizkien eta argitu. Izan genituen eragozpenak, ez nizkien larregi aipatu eduki zezaketen borondatearen ez hausteko.

Ikastetxetik ikusten genuen gure *Sangay* sumendiaz txostentxoak idatzi zutenean, neronek gogoan nituen galderak etorri ziren. Azalpen egileak, ikasleak bazekien edota galdetu zuen zergatik mendi horrez indigenek eta kanpotarrek bestelako irudia geneukan. Guk ez dugu ederra delako miresten begirunez eta ikaraz aipatzen baino, Tungurahuaren moduan sufre ke batez bazterrak atsitzen dituelako eta harri urtua oka egiten.

Mutil gazte askok mendiak itsusi direla pentsatzen dute eta urruti ageri den *Chimburazu* piramide zuri handiaren oinetan dagoen hondar grisezko basamortu zatar hori, ur gabez hutsal eta ezain horretaz anekdota aspergarriak kontatzen dituzte. Bestalde lurrikararen gaia azaldu zenean denek herritik joateko aitzakiatzat jo zuten; gainera lurrikara aktibitateak herriari ez ziolako fama ona ematen. Ospea gora ala behera ibili gringoak zetozen petrolio usainera.

Pidruk Mirandatik idatzi zidan Nafarroan lurrikarra handirik ez izan arren, ongi irabazi arren, gure herri traketsa itzuli nahi zela. Europako prentsan gure erresuma itxesak edo iraultzatxoak gertatzen direnean baizik ez dela aipatzen. Ziur nago Ekuador gure izen zozo horrekin europar askok nonbait Afrikan kokatzen gaituztela. Baina bego.

Ikasleek nekazariei galdetu diete gure mendi gailen horren gailurrean ibili direnez, eta erdi izuz haiek ihardetsi, “Zertara behar dugu? Ez dugu han egitekorik, ez eta denborarik galdu gura”. Ikasleek ez dute gure mendi horren eskea ulertzen, zezioan batzuek iruzkin-  
du arren mendigoizaleek lana eta dirua ekartzen digu-  
tela. Balekite nori dion gehienik mozkin ematen? Ez  
diet esan, berek ikasi behar dute edo eskolatik kanpo  
esango diet.

Kanpotarrak zertara datozen gure mendietara as-  
paldian ulertu dut eta kontatu dizuet, gure gaztaroan  
kirol antzean eta marka gaintzeko etortzen zirela.  
Bestalde, orain, turismo propagandak dio Amerike-  
tan sumendi izandako mendi gorenak ditugula, elu-  
rrak dituztela, eta mendizaleek haien piramide tankera  
ederrak miresten dituztela.

Irakasle lekua, suspertu den andreari, itzuli diot.  
Egoera hobean edo okerragoan utzi diodan ezeinek ez  
daki, maiz irakasleak oharkabean bere eskarmentu sa-  
siak eraman ohi dituelako eta gazteen arrangurak, eza-  
gutzen ez. Ikastetxe egotaldi horretan gazte denborako  
oroipenak bizitu ditut: gu ere aurrekoen kritikari izan  
ginen eta nortasuna galtzeko arriskuan, gure gurasoen  
alderantziz, irentsi nahi gintuztenei bihurtu, koopera-  
tibak sortu eta gure ekintzaz ur garbia eta elektrizitatea  
herrixka anitzetan sartu. Mendia apur bat eraldatu da.

Gure urteetan ez genuen, ordea, kultura eta hiz-  
kuntza zaharrekin moztu, uste baikenuen gure arma-  
rik onenak zirela. Orain, Minga bileratara itzuli naiz;  
hor badakusat batzuetan ezin dela gizabanako bat, bo-  
rondatea izan arren, militantziak eskatzen dituen kide-  
tasun lanetan sartu: Makak elkartean ibili Rosak eralgi

digu, garai batean ekimen guztien buru andre bat izan zela, herriko beste Makak taldean sartu-eta andre bakarra gertatu zenean, denen artean argiena izan arren, gizonen artean isilik egon zen eta lotsaren lotsaz taldea utzi zuela.

Dirudienez, gaur egungo Minga eta CONAIE indigena elkarteko zenbaitek ez dute areago kultura sakonaren arazoa ikusten eta aintzakotzat hartzen, ez eta ekonomiaren aldatzeko gogo handirik erakustene-gi: turistei salduko diren musika errazak eta arimarik gabeko *chirimbolo* salgaien alde daude; baina nik ere ez al dut irabaziaren zati bat horrela egiten? Izango al dira gazteak bideitsu horien argitzeko eta aldatzeko? Orain, aitor dezagun globalizatu gizarteetan ezin dela garapena nora doan usnatu.

Bitartean, ekimenak ekintza bilakatzen dakigu, ezen gure Punganin herrixkan, ez du aspaldi, hogeita hamar gizon eta laurogeita hamar andre ikusi bainituen lubaki edo arroila baten egiten. Denak omen lerroan aitzur eta palarekin 3 kilometrotako lubaki arroila zulatzen zuten, uraren izateko beren hoditeria lurpetik igaro zedin. Geldiunea zuten jateko. Lurrean lerroan jarriak, plastikoetan jarriak han egoten ziren beren bazkari legea egiten eta zer zen? Katilua arto txuri egosi gatz apur batekin eta katilu erdia *kinua* eta berri-herabez ala ez, lanera iluntzeraino. Gizon langile franko erbestera joanik auzo lanak nekezago zaizkigu, eta oraingo gazteek egingo al dituzte?

## XIX

### MENDI GAINETAN LAINOPE

Ikastetxea gogoz gaindi utzi nuen, dendara eta kanpotarrekiko harremanetara itzuli. Irakasle egonaldian, egunero, Grindio Phillipez gogoratu nintzen, nola Quitoko Unibertsitate Katolikoan kitxua irakasteko ikasketa kasik bukatu zituen eta zenbateraino, bere ikastaldietan bildu zituen oharrek lagundu ninduten. Hor zeuden, esku idazkiz ikasgai bakoitzarentzat haritik orratzeraino xehetasun gehienak.

Gaztei ez nintzaien ausartu esatera, non nahi ere egonik, arrotzez eta atzerritarrez inguratuak agituko zirela eta bizitzan gogaide gutxi edukiko, ezen gogai-dea atzemanda ere gal bailiteke. Oi aldi on iheskorra, berriz ezin atzemana!

Gazteak pixka bat arrotz nabaritu nituen, hala ere non hasten da arrotzetasuna? Gure burua ezin ulertuz ezagutza gabearen muga jotzearekin ez al gara zoritxarra datorrenean gure buruarekin arrotzuak eta atzetuak. Badakit ere egun batez halabeharrez bihotzean gelditzen zaizkidan haurrak arrotz bilakatuko zaizkidala, eta nora ez dakidala joango.

Haurrak handitu eta gero lagako nautenean, barkartasun osoan utziagatik araez oroituko zait gurasoe-

kin hala jokatu nintzela, beren abisuak gabe hiri handira joateko: orain zertan jardungo nuen eta zergatik bizitzen iraungo? Bizitzaren urak uholdez narama eta elorri bati ere lotu ninteke.

Aparecida adiskidearen ezin apurtuzko kemena eta atsekabeari aurpegi ematea, eredu ederrak zitzaizkidan. Mendez aldatzea eta gure menpetzearen seiehungarren urteak hastera doazela, gringoek gaituzte gaur egun menderatzen. Susmatzen genuena gertatu da: gure dirua ez denez geroz *sucrea* gure moneta dollarra baino, diru egile dolardunak saguak legez gure mendietan ugaritu dira eta bizitza garestituz, hirietan miseria eta gizarte larrialdiak nabarmen hazi.

Ez du aspaldi... Noiz zen, bada? Gauerdiz ikusi huen. Azkenean hor heukan eta buruz buru egonki... ezin tutik esan elkarri. Negar ezin edukia joan zitzainan. Besoetan hartu huen eta maitea ezabatu zunan... ametsa zunan. Phillip zunan, ordea. Phillipek, ez du areago nire jaioterria Punganin eta Wamote ez al du bisitatuko... gauaz baizik?

Punganinen aspaldixko abiatu zuen mendigoizale eraikuntza eta atondu zuen kanpamendu lekuak eta porlan zementuzko zoruak, diraute. Aroa on denean, Chimburazutik hurrago izateko, gure sorterrian askazi batek denda ireki zuen. Ez da luzaro bakarra izan, Chimburazu herrixkan bertan agentzia diruz egarria sartu baita. Berdin, behiala, Grindio Phillipek abiatu mendigoizaleen antolakuntza elkartearen digute. Riobamban dagoen turismo bulego pribatu batek, bi aterpe gotor eta garesti eraiki ditu Chimburazu bidean bata, eta bestea Sangai sumendian; ingeles izenak ipini dizkiote. Aterpeak zainduak dira eta lozakuak lekat dena daukate, jatetxe txikia ere bai.

Benetako mendigoizaleak beti etortzen zaizkit ikusterera gure Punganin herrixkatik eta izanik ere Chimburazutik urruti, Wamote, hemendik Sangay sumendiraino, mendietan zehar dabiltzalako zenbait. Negargarria da Phillipek herri osoaren onurarako Sangaien eta Chimburazu aldean eratu genuena, haiek jaukitu jukutriekin diru egile kanpotarren eskuetara doalako.

Haatik, bi gidari libre, Europako itzulia eginik, Sangai mendirako herrira hoteleko nagusiak erakarri ditu, bata gure izebak utzi eta onera ekarri zaldi eta mandoez arduratzen den bitartean, bere kontu hartu du ireki nuen dendatxoaren ere, nik saltzen ez ditudan mendirako materialak dituen, modu berean mendigoizaleen laguntzeko gidaria egiten du; beste gidak bere aitaren ehundegia hartu du eta lan hori nahikoa aisa utzi daitekeelako, gidaria egiten du eta beste bi gizonekin mendigoizaleak igotzen laguntzeko. Gure hoteletxoan irtenbidea aurki dezakete edo Inti Sisa ostatu txukunean lo egin..

Gehienak, ordea, lehengusu Pauluri, gure herrixkan dagoen mendi etxera bidaltzen dizkiot. Honela Wamoteko eta gure herrixkako gidarien artean sei lagunentzat adinon mendi lan bagenuke. Zoritxarrez, Sangaira igotzeko gutxienik sei egun behar dira eta aterpe bakarra bidean. Nahikoa estalperik ez eta txango arriskutsuena bilakatzen ari zaigu igoera hori. Gure Sangai mendiak suminaldietan harriak eta sutan diren hautsak botatzean burdin kaskorik gabe joan gizon batzuk hiltzen dira. Galbide horrek ditu mendigoizale franko erakartzen.

Aitortu behar da presaka eta zuzenkiago igo nahi direnak komertzialetik eta Alaotik igarotzen direla, eta

hotel kate batekin lotu agentziek hamar laguntzaile eskain dezaketela zamaketari izateko Bisitari ugari horien gidatzeko, aurretik Phillipek aspaldian irakatsi sei mutil diru egile horiek beren saretan hartu zizkiguten; inoiz lainopean galtzen ez ziren gutarrei GPS aren erabilera irakatsi, bai eta ingelesa eta gaztelania mintzara-zi. Agentziak horik ditu bereganatu.

Nire gusuek, aldiz, Sangaiko katearentzat beste sei prestatu behar izan. Ez dut uste, ordea, horrek mendi ekonomia salbatuko duenik, indigenei deusik erosten ez diguten bitartean eta turismo horretan irabazi mozkin handienak ez direlarik herrian egoten.

Agentzien bidez, Europatik eta Iparramerikatik datoz mendigoizale dirudunak eta turistak. Ez dute gure lama eta mandoen beharrik: tresneria, janari eta jende garraiatzeko: ahal bezain gora, Riobambako agentziak lau-lau beribiletan igotzen ditu. Bidaztia zein da jendea ala automobila?

Monopolio horrekin etortzen diren horien irrits eta antsia bakarrak, harkaitz eta elur igotzeak, marka baten gainditzea eta oroz gain *Parque Nacional del Sangay*, *Parque Nacional del Chimborazo* mendigoizale diplomekin itzultzea. Orain, trenik gabe gaudenez Sangay sumendirako mendigoizaleak, sumendizaleak Alaotik eta Alausítik igarotzen dira.

Honela, aberats gehienek beren egonaldi laburrean, joanean eta itzuleran ez dute bizidunei jaramonik egiten, ez dute landarerik, ehizarik, ez eta jenderik ikusten. Beren artean bizi eta menditik jaistean beren etxeko edo beren herriko gertakariez hitz egiten. Argazkimania dute mendigoizaleek eta turistek areago, azkenak ez badira ere hain gora igotzen.



Mendigoizale zenbaitek, sei milatik gorako mendiak bildumatu nahi dituzte eta horretarako zigilu batekin, ziurtagiria ematen zaie, zein goratasuneraino iritsi diren beren kirol klubak jakin dezan, eta balia bere ospea handitzeko. Batzuetan nahikoa dute, Sangai, Chimborazo, Tungurahua: *Sangay Parque nacional*eko hiru mendien diploma.

Beren aterpetan ezin dira gas eta fotovoltaiko elektrizitate gabe bizi. Turista huts direnentzat berogailuak ere badira. Beren herriko sukaldaritza egiteko edo egitarazteko, sukalde modernoa behar, ez gure *yanuna uku*. Gure janariak pozoituak balira legez bulego horrekin datozenek ez digute jatekorik erosten, izan ere guk eskaintzen diegun kafea, apika, kanpotar izen batekin erosi dukete. Guk ez omen dakigula pure ona eta salda egiten. Batzuek hala nola alemanek beren janari gehienak beren herritik ekartzen dituzte eta besteek nonbait Guayaquil aldean turista preziotan, erosten.

Agentziako langile horiek, beren lur lanak utzirik, eskatu bezain agudo turistekin igo behar dute, aterpeko lanak, mendirako zamak bizkarrean eroan, bai Himalaiako *sherpa* gizonak bezalako lana egiten dute hamar batek, ez agian baldintza hobetan. Jadanik bi gidarik lugintza lana utzi dute.

Gure mendietako turismoaren monopolioa edukitzeko atzerritar agentziei jakinarazi diete gidari libreak ezgai omen direla eta haiekin ibiltzea arriskutsua dela. Agintariek eta liburuek ere egundoko gezurrak idazten dituzte, berek menperatu gabeko indigena gidari sistemaz. Gutarrak ez diren horiek, geuk diru gehigarri gisara eratu genuenarekin diru irabazi nahi dute, ez besterik; lan gehiagorekin agentziek ez dituzte mendi gidariak hobeki biziartzen.

Zuzenean zegoen Phillip zionean gringoak Ni eta Nizaleak direla. Legetzat badute, besteen bizkar bada ere, bakoitzak ahaleginak bere onetan jarraitu litzakeela. Batuetako gehienak, txiroak ere, gizabanakoaren, norberekeriaren idolatrian bizi dira. Usu haientzat besteenganako begirunea, uzkurkeria eta gangarkeria direla diote. Estatu Batuetako indigena gehienak ere gaizki bizi omen dira, Navajo izenekoak izan ezik, eta azken horik ez baitira gringo indibidualismoaz kutsatuegiak izan.

Berriki, Bilbao izeneko hiri batetik etorri mendigoizale batek kontatu dit European ere, familiak deseginaz, anitzek, berekoikeriaz, beren atsegin hutsa bilatzen dabiltzala. Gringotze hori, liberalismo hori, omen HIESa bezain laster mundura hedatuko dela zion mendigoizale horrek. *Vasco* zela erranik, herriko gidari batek esan dit, Argentinan ugari direla jende horik eta gure gisara langile handi fama daukatela. European bizitu bati, gidari bati, galdetu diot zer den eta non den Bilbao hori eta erantzun dit futbol talde ospetsua dela.

Badira, ordea, markatik kanpo, erronkatik kanpo gure mendiez maiteminduak diren mendigoizaleak beren arira bizi direnak, gure herrixkara txangoak moda zaharrean egitera datozenak. Horrelako atzerritar batekin goiko mendiaren arriskuak eztabaidatu ditugu.

- Lainoa dela-eta, harriaren ustela dela-eta, elur-bizien, elur jausi delakoen jaisteaz, konturatu al zara,
- Bai zurekin bat nago.
- Bestela ba al dakizu iaz italiar mendigoizalea Sangay igotzean hil dela?
- Ez, zer istripua?

- Ez, ez. mendigoizalea, lagunik gabe, gidari gabe, Sangai mendian galdu aginean herratu, errebelatu zen; bizpalau egun elurrean igaro eta hil zen.
- Zer heriotza ederra, azken arnasan aire sanoa hartuz, eta hotzarekin sorgortuta betirako lokartzea!
- Iaz ere, nahi gaberik mendigoizale askea Chimburazu aldean giltzatu aterpe diru jalearen aurrean, elur erauntsiak abaildua, hilik aurkitu dugu.
- Anderea, ez nekiena gidariak aipatu zidaten, indigena menditar trebeenak, jakintsuenak, ohituenak ere mendietako lainopetan gal gintezkeela. Amazonatikako haize basatiarekin aroa laster alda daitekeela, eta mendizalea hil.
- Halere, beti jarraitzen duzue bakartiok, bakar-tasun ederraren bila, mendi bizkarrez bizkar diploma eskatu gabe txango egiten.

Gure Punganin herrixkara datozen gehienek baldintzak ezagutzen dituzte eta susmoa badut mendira, hain bide luzean, bakarrik joan denak beharbada bere buruaren hala hiltzea aukeratu zuela.

Mendian ez banaiz areago ibiltzen herrixkan gertatzen naizelarik, igotzen diren kanpotarrei esaten diet, gure artean egun bat gutxienik egon daitezen goratasunari, hala-hala aireari egokitzeke eta hemen hozberoei girotzeko, baita *sorocheak* eman goitkarik ez edukitzeko. Gainera, beren indarrak gorde ditzaten, gutxienik lau zamaketariekin joan daitezen aholkatuz. Hurbilketarako, arteko gau kanpamendua eraiki dezaten —ezen agentziarena itxia eta zaindua delako— oihal

karpa egokia har, elur bizien eta haizearen aterpea erakitzen ahalegindu daitezten.

Eguraldia ona ez bada kanpamendu horretan ez dezaten, eraman dituzten ur eta janarien arabera, sei egun baino gehiago igaro. Garaiz jaisten jakin behar dutela; gainera, igotzean lehen geldi lekuraino mila eta bostehun metroren goratasun tartea delako, goiz eta arrats eman behar dela ez gaixotzeko. Ahalik eta gauerditan abiatu ezen azken txanpak zortzi ordu iraun balezake gutxienik. Goizean, eguzki berotzearekin elurra eta izotza zepo bilakatzen direla. Eta haratago, harantzago joatean, izotzetan eta elurretan behar diren egunak har ditzatela.

Phillipek gure jaiotetxe gibelean, ehundegia zegoen estalpean, kirol gauzen erreserba antolatu zuen. Beren eskuartekoen arabera soka zaharrak prestatzen, alokatzen eta batzuetan, saltzen hasi. Beti galdetzen zien zenbat luzetasuneko sokak zituzten, nahiko kabilaz zeukaten.

Noizean behin, beren puska eta materialak kontrolatzean, eskularruak eta betaurreko beltzak ez ziren egoera onean, edo bat edo beste falta; horiek ere senarrak bazituen. Halaber, lo-zaku berriak beti edukitzen zituen, bai eta anoraka eta txanoak. Senarrak ez zuen lan hori urte osoan gainbegiratzen, ez eta egun guztiz gidariak libre, agentziek jarduera horrez erraz jabetu ziren. Ez dakit aldaketak nola hartuko lituzkeen grindio Phillipek, ene senarrak itzuleran.

Punganin karrikako mendi denda senitartekoei utzi nien. Hartu duen gidarien buruak kontu handia ematen duela mendigoizaleen oinetakoen trazaz: uhalak eta uhal horiez oinetakoei lotu behar zizkieten

kranpoiak, denak osorik daudenez ala higatuegi, loturak sano eta batzuetan, dauzkan zaharrak edo berriak hobeki dauden. Pioletik gabe joan ez daitezten.

Ez zaie oxigeno botilarik saltzen, zenbaitek, ordea, ekartzen eta mendian hutsik uzten. Datozenezan eskalatzeko sokez kanpo, kurrizko esku lokarriak eskaintzen dizkiegu. Zenbaitek, izotz arroilen gaindi igarotzeko aluminio zubiak dituzte. Prestaketa lanak igotze horietan ez dira inoiz nolana ere eraman behar: mendigoizaleak, ez du, zenbat nahi ohitua izan, bizkar zorroan bost kilo baino gehiago eraman behar; beste hamar, hamabostak gure indigena zamaketariak *puschak* gizonen, daramatzatelarik.

Grindio Phillipek kontaturik banekien, batez ere bost mila metrotik gora, eta une batez biziturik, ondo jantzia izan behar dela: oinetako batek min egiten badizu eta zuk eskularria kentzen egokitze, jadanik belztuak diren hatzak, adios! Erabat hoztuak, izoztuak, behera jaitsi eta batzuetan moztu behar baitira beheko hatzak.

Behin batean, Chimborazo gailurreraino igo nintzen Phillip eta sei lagunekin. Elkarrekin egon ginen, soka lanetan, sei milataraino eta gero gorago binaka igo ginen. Zorte ona alde izan genuen, zeren elur jasa dela, lainoa dela, elur bigunegia gerriraino iristen, eta beste eguraldi gorabeherekin gure goi-mendia hiltzaile bailiteke eta batzuetan, arrazoi bidez atzera egiteko gogo eman.

Nolana ere, gutxienik, Sangayra lau etapatan igo behar da, bigarrena *La Playan* eta gehienetan hirutan azken 300 metrota iristeko. Daukan gaitza da sumendia dela eta ez zaituela beti uzten hurbiltzera, beraz

aro txarrarekin karpapean lau gau egitea ezinbestekoa da. Eguraldi on batekin lau egunez erraz igo daiteke. Nire esperientzia ez diet lagunei esaten, halere mendira doazenean senar galduarekin eman txango hori beti gogoratuko zait.

Mendigoizale zenbait, gure artean aste bat herriko hotel-ostatu txiki hobetuetan igarotzeak izurik ematen ez direnen artean, badira mendia zintzoki erabiltzen badakitenak, lehen alditik igotze hori ez dutela garaituko. Ez dela ohore gabetzea behin ez kausitzea. Gainera, horiek ez dute inor abisatzen ez eta inongo mendigoizale talde bati ohore egiteko igotze hori iragartzen.

Pitin bat ulertu dut, senarraren menturak entzunaz, mendigoizaleek bidean ere atsegin eta gozamenaldiak izan ditzaketela: elurraren zuritasun paregabe hori, izotzaren eskulturak, mendi piramideak, halaber igotzean ezinbesteko isiltasun hori baita oinetakoen kranpoi karraskek baino tankatzen eta neurtzen duten isila. Haatik, gure goi-mendietan horrelako lilura batek sena une bat lausotzen badizu eguzki izpiek mirailtzeko sasi paisaia bat erakusten dizu. Gero, hormagunetan ibiltzean elur traidoreak *serak* zirrikitu erdiro txikia estal lezake eta zu ere goiari begira *serak* batean eror zintezke. Hau da, lainoarekin eta hotzarekin, arriskueta txikiena sumendi harri botatzaileaz kanpo.

Azkenik *Altoferroa*, berriro Wamoteraino iristen da eta turista ugari gure mendietara jiten. Denak ez, ordea, mendigoizale ausartak eta orain izardun hotelak ditugularik aberatsak itzuli zaizkigu. Zoritxarrez Macas-Alao bidea egin digute eta Alao Sangay garaitik hurbilago. Laster lanbide hori utzi beharko zaigu.

Goi-mendia ez da itsasoa baino barkaberago, honela diogu indigenok. Izadiak bost axola du gurekin, gu gara tsunami, urakan edo lurrikarez urduri garenok. Gizona izan baino lehen, mendiak baziren, jende franko irudi mendiek ez bagaituzte beti ikusten, ez eta entzuten ere ederki irauten dute. Mendia izaki hilezkorra ote? Gure zaharrek *Inti Tayta*, eguzkia, hil daitekeela diote, aldiz etsaiari bezala luzaz begiratu behar zaio mendi goiari; geu, indigenontzat mendiek gu baino lehenagoko bizidun sakratuak ziren eta gutarik landa izaten jarraituko

## XX

### NINA NORA HOA?

Mendi goia aspaldidanik gure gizon txaparroek beren kostuz ezagutzen dute. Zeuok, ordeka handietan bizi zaretenok, ez dakizue gure mendi sakratuaren sa-beletik langileek zer ateratzen zuten? Ez harria, ez, *hiele-ro* lanean ibiltzen baizik. Oraindik bakan batzuk jarraitzen dute. Lehen gehiago ziren, gehiagok jarduten zuten. Gaur mendigoizaleen eta turista zenbaiten zama-garraiaren badituzte, antzina izotza egiten zuten

Gizonezko horiek izotz garbia den lekuak ezagutzen dituzte eta arratsean edo gauaz ilargi zuria denean, mendira joaten llaimekin. Alforjetan aizkoraz edo zerraz horma moztua, karroina kargatzen. Eguzkia berotzen hasi baino lehen, hirira jaisten horma saltzera. Gaur egun, gizon adindun zenbaitek horretan dihardute eta gidari gazte batzuk, noizik behinka mendizalerik ez denean. Hiri handietan frigorifikoak dituzte, haatik han-hemenka, herrixketan, baita hiri txikietan nola Wamoten udan izotza salgai.

Gazteak eta heldu anitz non dabilzan jakin nahi baduzue, ez naiz estatistika egilea, berriz gure herri-ki-deen zer edo zer berri badakit. Nolabait, erdiak erbes-tera joanik, beste franko Riobamban barriada hits horietan, EGEkoekin ikuskatu genituenak.



Mendian, erdi nekazari eta peoi direnak, bakan batzuk eskulangintzatik, turismotik eta merkatari-tzatik bizi. Hor ere, zenbaki zehatzik ez izan, –gure estatua zenbakien etsai dirudialako– bataz beste, gure ekonomiaren etekin zati handia atzerritik bidali gure herritarren dirua liteke.

Gure menditarrak, izan ere munduko txiroenen artean daude: goseak ez ditu hiltzen, ordea. Larriune txarrean, jateko doi-doia bilduz bizi direlako. *Kuka* landatzen eta saltzen hasi zitzaizkigun, azken landare hori beste guztiak baino anitzez hobeki saltzen delako. Kokainaren isilpeko iparramerikar eskaerarekin *kuka* diru emankorra bilakatu zen.

Nahiko agudo, ordea, kukuzkoan eta zelatan, kriollo *kupak runa* espiak agertu ziren batik bat alor-rak eta zuhaitzak ikusten; ondotik, gringo zenbait ere barrandatzera etorri ziren eta abisatu gabe helikopte-roak *kuka* landareen pozoiez keztatzen, lainoztatzen eman ziren. Kimika ke azpian aurkitu ziren nekazari batzuk gaixotu ziren eta kriminalak izan baliran baino ez zitzaien axolarik eduki. Lurrrak une baterako antzu eta ez emankor bilakatzen zatzaizkieten.

CONAIEkoek galdetu zieten kokaren lekuan bi-zitzeko zer eskainiko zuten gringoek eta haien morroi-nek? Ihardetsi zuten, nekez saltzen den kafea, landa genezan. Inoiz egon al ziren gure goi mendietan ikus-teko zer landare sor daitekeen gure lur hotz harrizue-tan. Eta egun haietan herrian, menditar lur lanaren geroaz, zurrumurrus hedatu ziren galderak, Wamoten bildu zen nekazarien bilera batean bildu nituen:

“Noiz arte gailenduko zaizkigu, buruzagitu-ko zaizkigu kriollo eta gringoak? Gure herrian,

gure gisara bizitzeko ez gaituzte bakean utziko. Nora goaz? Eta zer egin? Nekazariak ezin dugu hemen kaferik landatu eta te egiteko lur eremuak txikiegi. Atzerriko eta barneko agintari horiek gure puna ikustera datozela, astebete eman dezatela gure tankeran bizitzen.

“Beti, gure onean dabiltzala diote, eta gure salbatzeko alortxo lurak hutsaltan eta zuhaitzak ihartan. Gure semeak legearen izenean jipoitu edo hil dituzte. Noiz arte?

“Badu ia bostehun urte horrelako galderak egiten ditugula gure goiko mendietan eta ez garelara gure lurren geroaz jabe, adinon lehor ez balira bezala, hutsaltzen dabilta.

Minga aldrako andreak elkarrekin biltzen garenean, saiatzen gara, ekin eta ekin, lan berrien pentsatu beharrez eta bizitza hobetu beharrez. Gasa eta argindarra herrixketan sartu bada, haien erosteko diru gehiago behar. Nora gindoazen ez genekien gazteago ginenean, orain mundializatze hitz arraroarekin zein gogorrago ibiliz baizik ez dela biziko, ematen du.

Andreok gauzen alferrik galtzearen aurka daramagun eguneroko borroka ez zaie gaztei beti ulergarri: ez dute aintzakotzat hartu nahi gazte askok, jadanik ametsez oin bat atzerrian daukatelako. Horik horrela, ez naiz, behintzat, mendi erdi huts honetatik urrunduko ez eta, salerosketek ematen dizkidaten mozkinak geroago eta urriago egon arren hiri berri hau utziko.

Mingako bileretatik irteteen irudi zait, on ustez, gure mendia turistentzat horrelako izadi museo exotikoa bilakatzen ari zaigula, eta andre anitz aburu horrekin eroso daudela. Gure xedeak ez dira aski zehazki

esleituak eta egitaratuak. Ez dugu turismoaren gauzaki bilakatu behar, baina jendaki izan.

Neronek, ordea, eguneroko ekimenez kanpo ez dakusat zer etorkizun izanen duen gure mendiak, eta oroz gain, gure Andetako nekazaritza neke horrek. Miresten ditudan Blanca Chankosa edo Nidia Arrobo andreak bezala ez naiz borrokalari handia izango. Egiten ahal nuenaren muga jo dut. Izadia, batzuetan, etsai dugularik nola *El Niñok* gure Costa kaltetu ondoren, petrolio gizonak gaizkiago egiten: Amazonako oliodukto eta errepedeen egiteko milioi bat hektarea oihan suntsitu omen digute eta hala ere Hego Amerikako txiroenak bilakatu gara.

Adinarekin, gure indigena borroka gogoak kamustu zaizkigu eta ez dakit nolako gezterak zorrozuko dizkigun? Azken batean, zer? Erbestera joan direnen dirutik bizi behar al dugu? Bestalde, hain sudur minbera diren kaletar horik beren zaborrak herrixketara ekartzen hasi zaizkigu.

Kezkagarriena da nola ibarreko lur lau handitxo gehienetan etxebizitza askotako etxeak eta izardun hotelak eraikitzen hasi zaizkigun, eta bistan da horiek ez direla gure naziokoek, ez eta gure onurarako eraikiak. Badakigu eta Riobamban lagunartean aipatu genuen, zelan edo hala, mendi goietako turismo horrek morrontzakeria, kontsumerismoa eta diru egarriaren lilurarekin kulturgabetzea ekarriko ziguna. Goibelegi naiz, apika, Phillipez gabetzeak alargun zuri bihurtu nauelako, andre zuri baina gogoa beltz.

Haurtzaro jendetsua paradisu irudikatzen nuen, bai, *ehertzitu* eta *Sendero Luminosoko* kurriken artean hartuak izan arte hala nenkusan; gaurko egoera ez da

hain beltza, maiz esaten delako biharamuna itsusiago izan daitekeela. Amamak zion munduan badirela gu baino txit gaizkiago bizi direnak, gaixotasunak eta go-seak milaka hiltzen, guk horrelakoak hiri handietan baditugu.

Nire buruari diot, neska utz ietzaizkin goibelkeria eta buru nekatze alferrekin ez hadila txontegi batean egon; haurrak ederki handitzen, hazten eta hezten zaizkin, ama emeki zahartzen eta Pidru neba gazteena Europan diru irabaziaz pozten. Etxean badun zeregina, gela hobetzen jar hadi, pareta pintatzen, teilatua zaintzen eta elektrizitatea atontzen.

“Noiz zen, bada? Eta bart berriro, saldu dugun etxe ederreko salan egunkaria irakurtzen zegonan. Erran dion, sekulan jabe berriek hemen aurkitzen bagaituzte, ohointzan sartu garela eta giltzak gorde, salatuko gaituzte. Entzun nauk? Phillip! Goazen hemendik! Hortxe etxeko lorategian badatoz bi jabe berriak leiho aurrean dituk... zer eldarnio iluna, zer ameskaitz latza! Esnatu haiz. Iratzarria, ohea ukitu eta hire aldamenean ohea hutsik. Eguneko atsekabea nahikoa ez balitz, noiz arte amets tzarra errepikatuko dun. Agian, koka apur bat hartu behar huke.

Joan den merkatuan ustekabeko bisita ukan dun. Lotsatuxe haiz ahaztua huelako Aparecida adiskide kirmena jitekoa zela. Riobambatik ez zekarren albiste onik; lehenik, atsekabezkoa: Mingo, gizona, hil zitzaionan. Bahekien bularrekoa hobetzen ari zitzaiola, bihotzak din traditu. Emakume hori kemenaren irudia dun. Haren ustez, besteentzako bizitzen jarraiki behar

din. Bestalde, berri on eta okerren artean, Aparecidak zergatik ez dakiala gure *Urku Wasi* elkartea itxi diten eta udala lekuaz jabetu. Berri on bakarra Aparecidak eskerronez utzi nion utavaluar janari dendako lana gustura daramana.

Dolarra gure moneta bilakatu delarik, uste izateko heinean, baino geroago eta gehiago dago Riobambako kalean bizi eta erremusina eskatzen hasi direnak. Dolarrekin ugari etorri diren gringoen elizak herriaren gogoaz eta askatasunaz jabetzen jarraitzen omen diten.

Prentsan irakurria hituen gauzatxo batzuk, nahiz betiko zentsura hortik dabilen eta hirietako egoera eta estatuarena idatzia baino garratzagoa den.

Aparecidak esan dit zelan ez diren *comunitarioak* gosetu berrien haztera heltzen; ohointza geroago eta gehiago hedatzen dela: gau batez utavaluaren denda eta leihoak birrindurik dena lapurtu omen zioten. Larritasun handiagoa zuen nire nagusi ohiak, txinatarrak janari saltzen hasi baitziren; jakina, oraindik ez zituzten indigena ekoizpenak saltzen, txinoen salgai merkeek egun batean kalte-galerak egingo ziotela beldur zen.

Gainera, turistek ikus ez zezaten poliziak gosetuak eta eskaleak, zakur edo basa ehizen gisa jotzen eta sarekatzen zebiltzan. Egiteko horretan bereziki hiri zahar barrutia *Centro Histórica* eta turistena aire girotudun hotel auzunea goizero garbitzen zituzten eta zenbait aldiz zarpail jantzirik lanaren peskizan joaten zirenak ere gaizki tratatzen.

Lapurrak, omen, giro berriari egokitu dira. Hobeiki jantziak eta gitarrista aparta edo zizelkari merkea ikusteko aitzakian, turistak lehenik ongi etorri gisa edanaldi batera gonbidatzen dituzte. Edanalditik es-

natzean turista kalean aurkitzen da, nonbait, sosik gabe eta batzuetan, oski gorriak eta anorakak, ordulari, eraztun, lepoko urrezko kateaxkoak eta bitxiak galdurik; poliziari ezin esplikatu karriken labirintoan non eta norekin egon diren, baita zer ibili diren edaten.

Aparecida, ordea, ez zen bakarrik berri txar ekartzera etorri denbora berean Ninacha eta Wayna gure haurrak ikustera jina zen. Umeei hiriko goxoki, mango, eta banana txiki ekarri zizkieten eta laztan ugari. Waynak berehala ezagutu zuen eta hark ninduen deitu, *Apari! Apari!* Hor zegoela. Ninachak, ez baitzuen ezagutzen aurpegi beltzaran hark beldur amiño bat eman zion. Haren begietako eta ezpainetako irriñoak begietsi zituenean, berehala laketu zitzaizkion. Alde guztietara zoan hizketa geldiarazteko Apari honela zuzendu zitzaidan:

- Eta ez didan kalean bizi gure bi lagun berririk galdetzen! Ala ahaztu ditun?
- Ez, ez. Maria eta Cunsuilu.
- Mariari, iazko neguan eta hirian hotz handiak izan genituenean, nire gela txikian zokotto bat eratu nioan.
- Eta Cunsuilu?
- Consuilu, ez etorri. Mariak haren aztarnak galdu zitinan. Haatik behin karrikan mozkor topatu zinan eta aitortu zionan ama prostitutari egin zionagatik bere buruaren zigortzeko bera lanbide berdinean sartu zela. Gero, neguarekin inon ez.
- Leku bero batera joatea ez al zuen antsiatzen?
- Ema gajoak ez din geroago hotza pairatuko: Cunsuilu Riobamban hil dun.

- Hil?
- Bai soto batean negu bizi-bizian hilik atzeman diton. Oso argala zunan. Ez zinan,aspaldian jan baina edan bai..Han ilunpean hotzak erail zinan... Alta, bazekinan nire egoitza txarrean txoko bat eginen geniola, hotzaren aterpean egon zedin.
- Oroitzen nun, nola kanpoan lo, laketago zunan.
- Eta Maria, orain?
- Mariak Cunsuiluren “ametsa” bete din. Itsas Baren aldera herri bero batera bizitzera joan dun.

Ezin zen, ordea, gure adiskideak lana galdu gabe luzaro gurekin egon. Joan baino lehen opariak prestatu nizkion. Nire aldetik amak ehundu bi txano, eta erosi bi izara eman nizkion. Aparecida joan zenean, “ez dakit beste behin elkar ikusiko dugun” entzunik, gogoan aspaldiko partez begi txokoa busti zitzaidan.

Adiskide beltzaren bisitaren ondotik hiriko oroitzak argikiago gogoratzen zaizkit eta gauaren luzean oihal saltegian nagusia hil zenekoa, janari dendan hil nuen polizia, oroitzapen berotu horiek burua sutan jartzen didate; burutan sartuegi zaizkit. Ez da horretan atzera egiterik. Gaizkiak eta ongiak ahazkortasunaren haizeak barreia ditzala!

Phillipez galetsirik, hemendik aurrera, Wayna semearekin izan ezean, gizonik gabeko ingurumenean bizi behar al dut? Umek ere ez dute ez aitonarik, ez aitarik gure bi mutil mendi gidariez kanpo.

Nire buruari diot: “Ikusiak ikusirik ez dun Phillip gizon horrez besterik edukiko hire bizitzan”. Gizon egoki baten, prestu baten atzematea, agian, bizitzako

mentura gaitzena dun. Aparecidak eta bioren moduan galtzea, zer nahigabea! Ala galdu ditugulakoan ditun hain ederrak irizten?

Urteen bidean, maitasunak eta elkar jasateak iraungo al zuten? Gaizki adituek, ezinikusia dakarte; ez denean liskarrik ere, geldotasunean sexu harremana higatzen, horrela dio, behintzat, gure amak. Maiz, beste sexu jokaerak gaitzestea gertatu zait: gogoratzen naiz kriolloen guatequeez, Don Filisberto eta Casimirioren menturez eta gangarkeriez; iruditzen zait geu indigenok gauza horietan ere ez garela beti zuzenak: gure artean, ordea, isiltasuna lege.

Aitortu behar zait zergatik zintzoa izan naizen, lan irritsak eta goranahia nagusitu zitzaizkidalako eta Phillip ezagutu nuela gaztetasan osoaren suan irakitan hasi nintzenean. Ondorengo, bizitzaren gorabeherak ere, agian, ergelkeria egiteko astia kenduko didate. Nork daki? Baina ez al naiz nire buruarekin alderdikariegi.

Egun batek emana, besteak darama. Aparecidaren ikustaldiak poztu baninduen, eskola lagun ohi, muki-zu baten agertzeak dena pozoitu behar zigun. Laguna? Ez. Arerio txiki izana, izterbegi amorratua bilakatuko zitzaidana, Katari. Merkatu guztiz jende aurrean emakume barrabana hark harritzeko gutxiespenak eta mehatxuak botatzen dizkit.

Aitortu behar dut lehen mailako eskolan sekulako jipoia eman niola eta ez bakarrik inarrosi eta astindu, azkazalez mazela urratu. Nire zioak eduki nituen horrela jokatzeko: neba gazteena sexugabeko umea zela eta zaharrena bare gizona aurpegiratu zidanean, atzapar zarrastekin izan zen nire ihardukipena. Katalina hori Katari izena jarri nion, ezen gure hizkuntzan “suge” esangura baitu.



Batean sorgin hark, hastioz ezin edenez, jende aurrean dio ema tzarra, bestean ema galdua naizela eta txandaka, gero nire umeak sasikoak direla, ezkerreko haur likitsak; geroago nonbaitikan jakinik dio merezi dudala senarra galdu izatea.

Berak bezala elizetan belaunik ez baitut higatu senar galera merezi dudala kristau otoitzik egiten ez dudalako. Banioke zer erantzun, horregatik hilabete luzeetan isilik iraun dut eta ahalik ihesi ibili natzaio. Behin, umeak iraindu zituenetik merkatu egunez ez ziren, areago, seme-alabak ostegunez etxetik irteten.

Merkatuan nenbilenean jendeak abisatzen ninduen: horrelako lekuan, halako dendan dago zure eroa. Lasaitasuna bilatzen nuen eta honaino haurtzaroko gaztekeria batek naretasuna uhertu behar zidan. Ez zen, apika, nire erru hutsa eta isiltasunagatik neska kankar, mirrizka eta amorratu bat zen: zelanbait hartu goitzarrena, ez dakigu gure naziokoei baizik itzultzen.

Ez dut uste mazelako orbaina nahikoa izan zela gorroto zahar hori berotzeko, ezen orbain ala ez, ez-kondua baitzen Katari. Iraganaldi madarikatu hori ordaintzea, noiz arte? Argal, ergel eta muker izateak neska hori gazterik mihin gaizto izatera eroan zuen? Urtebete badu eta noizean behin, koldarra urrundik zuzentzen zait. Azkenik, mintzatu natzaio:

— Hik, suge mihi zorrotza baldin badun, nik lehen adina ditinat azazkalak eta beste mazelan izpil batez orbanduko haut, bakean uzten ez bagaitun. Haize hemendik oilo buztana.

Nina ez dezanala garrazkeria hire buruaz buruzagitzen utzi. Izatekotan, zemaia izaturik, bizpalau

merkatuz bakean utzi hau, baina behin batean honela zuzendu zain:

— Madarikatua, Nina, gure etxearen gainean begizkoa, *inbidia* ipini baitun. Deabrua haiz. Nire otoitzekin garaituko haut.

Ez nuen berehalaxe ulertu nori nion begizko hori egin. Herrian jakin zen Katariren senarra gaixotu zela, minbizia zeukala. Berriz, mehatxuka etorri zitzaidan, gogoan neukan deabrua ohiltzeko abade bat ekarriko zidala edo bestela justiziari salatuko. Teila bat galdurik, izterbegi horrek ez zekien barregarri baizik ez zela gertatuko.

Azkenik, senarra hil zitzaion. Ez genuen geroago merkatuan ikusi; hurrekin, Riobambara jaitsi omen zen bizitzera; nireak berriz trankilki karriketan kurritu ziren. Zorionez Katarik ez zuen jakin Phillip gringo jatorrizkoa zela, ezen nire seme alabei kalte handiagoa eginen baitzien.

Haurren hazi, hezi egitekoak eta lana bizitza betetzeko nahikoa ote? Egitekotan, egun batez hire bizitza kontatzen hasiko haiz edo ama zaharraren gisa, oihal eta ile ehuntzen. Hire bizitzaren soka ere ehunduko.

Phillipek esan zinan, hire erranak entzunik, idaztea dela ehun egitea irudi eta egun batez hire hizkuntzan idatzi behar hukeela. Grindio Phillipek zionari adierazi hion, testuak gauza guztiak bezala pipiak, zizkak jaten, jendeak urratzen eta erretzen, galtzen direla, idazkiak geure kulturak geu bezain hilkorrak direla. Ez, ez, ez dun idatziko, bestei kontatzekoa haiz eta be-launaldi batetik bestera zerbait gordetzen bada, hobe; goganbeharrak, eta balizkoak berriz, haizeak Amazonara daramatzala, euri negar egitera.

Hau goiza! Wayna semearekin merkatura gindoa-  
zela, Maria Luisa auzoko etxeko andrea negarretan  
hurreratu zaigu eta zotinen artean esan

— “Ninacha hil dun!”

Leizea ireki zait buruan. Zulo beltza. Ninacha go-  
goan negarrek arnasa kendu didate. Lur jota lurrean  
eseri naiz. Orduan, Maria Luisak gaineratu.

— Ez dun hire Ninacha hil dena, gurea baizik”.

Zer lasaitasuna! hau leizetik irtetea! Nire poza ez  
diot erakutsi, ondoan zegoen semeak goratik bai.

— Hobe! Hobe! Zorionez ez da gure Ninacha!

— Wayna otoi”, *upallay!*

Bigarren zauria egin dion arren, ume oharra izan  
delako, semeari barkatu dio auzoak eta besarkatu. Se-  
mea eta biok etxera burua apal eta mutu sartu gara.  
Gertaera hau urrunduko denean, trankilki semeari ira-  
katsiko diot mihiek ere azazkalek bezainbeste zauri  
egin dezaketela.

Eguneko larrialdiak aski ez banitu bezala ames-  
gaitzak errepikatzen ari zaizkit: lurpean, ate gabeko  
soto gela batean nago eta bakarrik tragaluz estu batetik  
argia dakusat. Lohasma horretarik esnatzen naizenean,  
zutitzen eta kalera kanporatzen naiz, gau hotzean, atxi-  
lotu lainoak urratzeko. Nire urratsak ezin isil izan, ka-  
rrikako zulo eta utzitako egur batzuek trabatzen naute.  
Hiriko argi eskasa itzali berri digute.

Emeki-emeki, ilunpeari ohitua hotsez hobeto kon-  
turatzen naiz. Hemen karraska ezezaguna, hor norbait  
gizona zurrungaz lo, aruntzako txerria edo kurrinkaz,  
etxe batean ahots bakarti bat: ametsetan ala lagun bati  
murmuzikaz?

Arraro zait egunaz ikusten eta entzuten ez nituenak ilunpean nabaritzea. Gauazko bizidunek, haatik, ez didate bakea ematen: hortxe arratoi handiak lerroan eta borrokan, hementxe katu argalak desafioka, eta hegalez saguzarrak. Azkenean ibilaldi horrek ez dit onik egiten. Gogo onez, estu-estuan etxeratzen naiz.

“Beste ametsa ahaztu berri nengoenean eldarnio latza itzuli zait, oraingoan eguna dela dirudi; atea badago eta tragaluzaren artetik kalean dakusat, jendea aske kurritzen dela, nahiz nire lurpeko sototik, mota guztietako oinetako eta oinak baizik ez ditudan ikusten. Herstura larri horretatik ateratzeko ahaleginetan atetik jalgi eta tunel bat hartzen dut. Ibiliago eta estuago da korridorea. Izerditan iratzartzen naizenean, haurrak lo daudenez ikustera banoa. Lurpe horretaz noiz askatuko naiz?

“Egin dudan azken ametsean, kalean nago eta tragaluzaren, argi zepo baten artetik Phillipen begitarte zati bat dakusat. Bizirik eta hone-la balitz betirako? Ezinezkoa! Erotuko da eta ni ere. Geroztik, ametsaren iturria idoro dut eta agortu da: karrikaren bestaldean etxe arrosaren beheko aldean bi tragaluz daude.

## XXI

### AMERIKAR INDIGENEN BILTZARRA

Zazpi urteez bizitza erdi lainotsu eta etsitu honetan iraun ondoren, argi bat berriz piztu zitzaidan eta kemen zaharra berotu. Lagunek erabaki zuten hiriaz neukan ezagutzagatik Wamoteko Mingaren izenean, ordezkari, gure Pachakutik alderdikoen entzutera joan nendin, Ameriketako Indigenen Legebiltzarra Quiton biltzen zelako, urriaren 11.etik 13 eguneraino egon nendin. Etxetik motxila eta mendiko lozakuarekin abiatu nintzen.

Bezperatik Riobambara joan nintzen Aparecidaren logela txikian zakua lo egiteko eta goizeko lehen omnibusarekin Kitoraino. Han ezagutzen nuen CONAIEren egoitzara joan behar nuen nire izen ematea berresteko. Hara heltzean ezustekoa izan zen hainbeste koloretako jendeen ikustea, baina oroitu nintzen Europan eta Asian beren nortasunarengatik borrokatzen ziren gutxiengoaren eskarmentuak ere ezagutu behar genituela.

Oporrak zirela baliatuz logela bat lizeo bateko barnetegi batean eman ziguten anderee. Joan nintzen nire puskak gela hotz hartan uzteko eta han topatu nuen nire gelakide izango zen Chaska limatar andre

gaztea. Hura ikustean nire aurpegi latza berehala lasaitu zen, andre horrek alaitasuna zerion.

Lehen goizean kanpotarrak beren hizkuntzetan agurtu ondoren egitaraua zehaztu ziguten, eta lau tallerretan lan egingo genuela erabaki: politika, kultura eta komunikazioa, hizkuntzen lege estatutua eta irakaskuntzazkoak.

Bazkal garaian Chaska gelakideak aurkeztu zizkidan bi gizon gazte, biak boliviarrak, Waira eta Yawar; uste nuen Evo Moralesekin ezagutu aldaketekin politika taldean sartuko zirela, baina Chaskak kultura taldean sartzea eskaini zigun, boliviarratarik bat musika-ria zelako eta bestea antzezlea.

Lauak talde horretan elkarrekin ibiltzea gustatu zitzaidan, ni ere politikaz apur bat asea nintzen eta indigena zeruz kanbiatzeak on egingo zidalakoan. Hain zuzen arratsaldean gure irrati esperientziak kontaturik boliviarrak beren telebistarena eta Chaskak prentsa adiskide txikiak eta Limako prentsa etsai handiagoez hitz egin. Hor ere, ez genuen gobernuetarik laguntza gehiegi amestu behar. Bakoitzaren ekimenetik eta kanpotar zenbaiten diru laguntzarekin sortzen jarraitu behar genuen eta ahal guztiz Interneten sartzen.

Afaltzeko ordeztu boliviarrak beste indigena nazioekin bildurik kontzertua adalatu ziguten. Mendebaldeko kolonizatzaileen musikak ez zirelakoan egun hartan egoki, bakarrik amerikar beltzen eta Estatu Batuetako *navajo*en melodia bat edo beste, Argentinako anai zapalduen kantuak eta andetako gure doinu eta abestiak ingelesez esplikatzen ondoren, gitarrek dantza batzuk eman zituzten eta neronek arnasa galdu arte, aspaldiko partez, inguruka ibili.

Bigarren egunean, lehenik eta hau nire gaia baitzen goizean ipuingintza aipatu genuen. Neronek *wanbra hirus* itsusien, eta azeri ezin aseaz kontatu, baita amamak Amazonan ikasiak ere. Mutil batek berak ipuinak ez baitziren nahikoa irakurtzen, kantu bilakatzen zituen eta ipuin abestuekin Boliviako leku askotan ibili ohi zen. Amerika osoan ezagun zen indigena hizkuntzarik ez baikenuen, lehenik kanpotarrek bildutako ipuin asko ingelertatik edo gaztelaniatik itzuli behar genituela, gero gure kantuak altxor horiekin egiteko.

Antzerkitik zinera igaro daitekeelako, hiru sainete izan genituen telebistako programetan erabiltzekoak:

Lehena Amazonako lagun batek asmatu zuen. Hango hainbeste hegazti luma ederdun hiltzen baita, indigena kazike batzuen buruko aureolaren egiteko, hegaztien biltzarrak ehiztariei, buru soil jartzeraino ileak kentzea erabaki zuela baita lumadunek berek ileorde gisa buruko bilo horiek erabiltzeko moda sortu. Jokalari papagaio bat, gehi burusoil bat, gehi plastikozko lumadun aureola burua zeukana, ederki eman zuten jokoak. Hitz askoren beharrik ez zen eta ketxuera orokorrean erabilienekin ulergarri.

Bigarrena. Kimikari mutil gabe baten aurkikuntza izan zen... larrua erabat eta betirako zuritzeko gaia. Kriolloa bezain zuri bilakatu nahi zen mutila. Bere buruarekin saioa egin zuen baina larrua beltz beltza jarri zitzaion. Eta herrian inork ez zuen gehiago ezagutzen. Andetako mendiak utzirik Afrikara joan zen eta han ito zuten, bai han deabrua zelakoan hil, ezen mingaina eta haginak ere beltz zituen. Antzerki hau mozorroturik lau jokalariekin erakutsi ziguten.

Hirugarren sainetea indigena jakitun batena zen. Hizkuntzalari omen zen eta lehenik *latin* hitzaren erran

nahi gordea irakurri zuen *Lingua Andinica de Terrae Incaicae*, hortik abiatuz eta aleman eruditu handi bategen zortziehun eta berrogeita hamar orrialdetako ohar bilduma bidali ondoren bere idazlan nagusia argitaratu zuen: *El latin es un idioma derivado del quichua ecuatoriano*.

Antzerkitxo horien ondotik isilik egon ginen Chaskak horrelako biltzarren ohitura ageri zuen, eztabaida piztu baitzuen:

- Lehena haurrentzat pelikula labur baten, txo-txongiloz edo marazki bizidunez egin liteke, baina bigarrena ez ote gogorxko.
- Bigarrenak larru kolorea ez al du gehiegi aipatzen zion perutar batek.
- Riobambako moja batek esan zidan gure sortzeko larru kolorea ezin kendu dezaketenez azken gauza dela, esan nien.
- Salasaka neska batek gaineratu zuen, guk ere jende beltzak baditugu eta bere burua, ustekabea, beltzatu kimikari horrek ez zukeen Afrikara joan beharrik, Esmeraldas aldean edo Chota ibarrean bizitu zitekeen.

Orokorki lehen biak haurrentzat pelikula onak egiteko egokiak zirela aitortu genuen. Yawar nire boliviar lagunak, gaineratu hirugarrena ipuin mailan bakarrik balia daitekeela eta intelektualegi zela, baita laburregi pelikula baten egiteko, ezen gidoiak egitea ez baita testu baten kopiatzea.

Arratsean nire ez ustekoa izan zen Luis Figueroaren fikziozko pelikula luzea *Batalla ritual* erdia ketxueraz erakutsi zigutela, baita aurretik *Ay Taquicgu* otavaloar



batzuek musikaren garrantziaz egin dokumentala oso ki ketxueraz; azkenik *Jatun auka* (Etsai handia) perutarrek egin erdi metraia. Nire hiru lagunek dokumental ugari eta pelikula batzuk festibal batean ikusi zituzten, ketxuera eta aimarerez. Nire militante biziarekin gure kulturaz ezjakintasun batean eroria nintzelako, burua apal isildu.

Gau hartan lauak ez ginen zintzoki erretiratu, unibertsitatearen kalostrepean binaka jarri ginen hizketan, lehenik ilargiari begira isildu eta azkenik besteari so. Ez dakit nola Yawar nire boliviarraren besoetan gertatu nintzen eta nola gure bi ahoak hain trinko elkarri lotu. Segurik, afari ondoko kopetan afrodisiako zerbait eman ziguten. Horrelako harremanen ohitura eta gozoa galdua nuen eta uste dut gizon gazte jator horri atsegintxo bat emateko egin nuela. Biharamuneko itzultzaile lanetara goizik joan behar nuelakoan, erretiratu nintzen. Nire neska gelakidea gauaren mianean baizik ez zen sartu.

Hirugarren egunean balorapena egin genuen. Herri batzuetan hala nola Bolivian eta Mexikon tokika gure kulturak eta ekonomiak hobeki zeuden, askotan jendeen gehiegia emigratzearen erbestearekin sendatuz. Petrolioaren izateak gizartearen oreka pozoindatzen hasia zen, kanpotarrak baizik ez zirelarik aberasten. *Mercosuren* gorabeherak Brasilek apur bat goratu arren, bertako indigenen egoera geroago eta txarragoa zen.

Jakin nituen albiste txarren artean, zoritxarrez Ameriketako indigena gehienok ez dugula beste herrien askatasunik, eta buru jabetasunik inon. Gu baino gaizkiago daudenak omen dira, Argentina eta Txilen, Esta-

tu Batuetan eta Kanadan baita Guatemalan. Noiz arte? Kolonbian, gu lehen Ekuadorren bezala, indigenak bi suen artean hartuak ziren, alde batetik gobernu, bestetik FARCCeko maoistak.

Quiton egon nintzenean, hobeki ikasi nuen zer zen País Vasco delakoa, hangoak gonbidatu genituelako. Hangoak ez zirela espainolak, gu bezala baina *cachupin* eta *chapetonek* maltzurkiago inbaditu izanak, eskualde autonomia zerbait zeukatela eta hango hiru diputatuek Unai, Nekane eta Gemak hango gobernuaren izenean, hango diputatu gisa, beren eskarmentuak kontatzera etorri zitzaizkigun.

Beren lorpenak, beren mintzaira bereziaren irakaskuntzan, hizkuntza eta ekonomia gaurkotzean, lege egiteko ahalmenetan eta nortasunaren gordetzeko beren ahaleginak adierazi zizkiguten.

Denbora berean, nola ikusten zituzten neo-kolonialismoaren ustelkeriak, eta multinazionalen kalteak salatzen jardun zuten. Guk kontatu genien lurretan eta sinestetan gringoek egiten zizkigutenak. Bi eskaintza mota zuten gure alde, lehena honezkero hasia, Ekuadorrekin Euskadi delakoak elkar lanerako ituna sinatu zuen, gure mendietako etorkinak baldintza egokietan atotsiak izan litezen eta jadanik gure emigratu anitz badute. Bestalde, euskaldunek, gure mendietan bizitzeari garatzeko laguntzak emango dizkigutela eta horretarako, batik bat, EGEren bidez.

*Baskoek* berek diotenez geuk gure herrian gorde behar ditugula gazteak bai eta kanpoan egon direnak jakituri baita lanbide berriekin, itzul daitezten ahalegindu ere. Beste berri ona izan zen nola *comercio equitativo* delako sare batek, prezio egokian tea eta kinoa

erosiz, beharbada, koka egitetik urrunduko gaituztela. Beren dokumentuak ikusiz argi dago, orohar, auto-gobernuak, autonomiak zer onurak ematen dizkien eta zein ez. Pachakutik gure alderdikoek, guk azken hamar urtean eskatzen dugun berjabetasuna erdiestea ez dugula etsitzen esan diegu.

Berri ederrena aurten, zera da, lehenbizikoz Hego Amerikako errepublika baten buru indigena ezarri dutela Bolivian, bai, Evo Morales lehendakaria dute. Noiz arte? Gringo eta europar petrolio egarriek nahi arte?

Eztabaida ugari izan ditugu, orain ere, anglo-, hispano, galo-, lusitano kolonizatzaileak, gu asimilatuz irentsi nahiz dabiltzalako, noizbait Brasilen eta Argentinan bezala hiltzen ez gaituztenean, gu baino lehena-go kultura idatzian sartu direlako. Kolonizatzaileek sinestarazi nahi digute “indio” sortuak garela esan nahi baitu bizi guziko menpeko izateko. Indigenatasuna ez da guretzat kanpotik ipintzen den izaera, guretzat hemendik aurrera gure hautu bat da, ahal bezainbeste nazioekin kidedu nahi duguna.

Aldarrikapen gisa gogoratuko diegu Ameriketako kriollo arrazazale horiei, arraza bat baino gehiago kulturek eta ahal dugunean hizkuntzek indigena egiten gaituztela, eta ongi etorriak direla noizbait indigena arbaso bakar batengatik bada ere mendetasuna jasan dutenak eta errespetatuko gaituzten bestek.

Halabeharrez ere, maite ditudan nire herrikide, nire nazioko jendeen artean nago, gure hizkuntza goxoan berba eginaz bizitzen eta Riobamban jasan nahaskeriez urrun, erdi sorgortua. Bai, gobernuek lar hitzeman digute, nahiz beti nazioarteko konpainia

handiei gure ondasunak ematen jarraitzen duten eta gure borroka txepeldu dela ematen du.

Txileko Bachelet, Venezuelako Chávezek, Brasileko Lulak eta Boliviako Moralesek bat egin bazuten, eta gero Correa haiekin, agian aberatsek gure Patxa Maren ustiaketa, gure Patxa Mamaz desjabetzea utziko zutela uste genuen, baina hona nolako eztabaida izan genuen lauek.

- Zuk, Yawar, nola ikusten duzu, Bolivian indigenen geroa?
- Politika aldetik ez dizut askorik esango Evok ez du miraririk egin eta ezin du: oraingo munduan multinazionalen burdin ontziaren aurka lurrezko ontzi batekin borrokatzen gara.
- Eta uste duzu horiek gure nortasuna galaraziko digutela?
- Nire leku eta lan txikitik gure hizkuntzen alde lan egiten dut. Badakizue gure herrikideek ez dakitela beren hizkuntzaren irakurtzen, beraz ahozkoaren bidez ere gure kultura gorde nahi dugu, beraz antzerkiarekin eta kantuariarekin.
- Eta zuk, Wayra, zer diozu?  
Gure hizkuntzari eta kulturari kalte egin liezaiokeen tresna bat, telebista eta zinea indigenatu.
- Puruhá indigena Wamoten bizi naizen ezjakinak galdera bat egingo dizue, zeinek egiten dute? zeinek egingo dute?
- Zinearen bide horretan Luis Figueroa baduzue Ekuadorren eta guk *Ukamau* ekoizle etxea Bolivian.
- Zuk zer diozu Chaska?

- Etsai handienak estatubatuar eta europar multinazionalak ditugu Perun.
- Baina petrolioaz kanpo zer bilatzen dute?
- Europarrek eta estatu batuarrek lehengai gose izugarria daukate eta lurrekoak zoritxarrez indigena gutxiengoak bizi diren lurraldetan daude.
- Mehatze konpainiak erran nahi duzu?
- Bai. Badugu bat Perun lurralde baten jabe gin dena, lurrak elkargoan zirelako eta gizabana-koen jabetasunik ezaz, gobernuak lurrak eman dizkie. Lurraldea hesiz inguratu dute, gizon armatuek kontrolatua, beren gringo eskolak eraiki eta beren saltegiak ekarri eta langileen egoitzak egin beraz ia langabetu zeudenekin *wasipungu* sistema berri.
- Eta beti hor egongo dira?
- Mehatzea agortuko denean indigenei herri desertu bat itzuliko diete.
- Bai Chaska, Mapuchek Txilen lur desjabetze bera ezagutzen dute.

Mutilek kafea antolatzen eta zerbitzatzten ziguten bitartean bakoitzak gure herrian entzun edo asmatu txisteak kontatu genituen, baina taldeko perutar batek tertuliari funtsezko gaia bidean jarri zuen:

- Eta zuek Nina, zertan zaudete Ekuadorren?
- Guk indigena bezala ez dugu asko irabazi, baina, *Nada solo para los indios* lemarekin *chiro* guzientzat borrokatu gara.
- Nor dira txiro horiek?
- Erdiak baino gehiago indigenak. Halere, Rafael Correa lehendakariarekin, elkarrren arteko ja-

betasuna, eta aylluak ezagutu dizkigute; bestalde gizabanakoen jabetasuna baztertu gabe estatuak petrolio konpainia batez jabetu da baita osakidetzan 2000 erremedio nazionalizatu ditu eta hemen ekoizten ditugu.

- Kontxo ez da gaizki eta irakaskuntza?
- Rafaelak petrolioaren dirua eskola eraikitzen erabili du.
- Nina, bazter guztietan zubi eta errepide egiten ikusi ditugu.
- Bai eta gainera Kostarekin eta Amazoniarekin airezko harremanak hobetu. Iraun dezala!

Gure tertulia luzearen laburtzeko, ordea, amerikarrek beren dolarrekin obratu dutena Guatemalan guri jazoko zaigula, lurrak galtzea beldur ginen. Herri hartan militarrek genozidioz berrehun bat maia-kitxe herri suntsitu zituzten ipar-mendebaldean eta jendeak milaka hilaz, alegia iraultzaile bat, demokrata bat edo beste aterpetzen omen zutelako, aldiz beste leku batzuetan pentakotista bilakatuz indigenak larrua salbatu zuten. Horrela amerindiar iraultza eta beren banana errepublika hau kontrolatzeko ekintzan, gure gizartezale katolizismoa gringo batzuei etsai bilakatu zaie.

Hirugarren egunean arratsaldez kanpotarrei Kito erakutsi genien. Arratsean lauak elkarrekin geunden eta Chaskak dantza leku batera joatea eskaini. Ez nuen leku horien ohiturarik eta, duela aspaldi, Thanik irakatsi tango eta slowez kanpo, baita gure menditar dantza bat edo beste ez nekien ezer, baina aukera ona izan zen ezagutzen nituenak ematen zituzten diskoteka bazen.

Nire lagun berriarekin dantza eta edarien artean buru xoratzen ari nintzen. Biak arinki jantziak elka-

rrren gorputzak ferekatzen genituen eta buruek elkar laztantzen. Gure azken aldia zen, eta gure beste kezka guztiak eztiki itotzen genbiltzan, biharamunari ez pentsatu nahiz.

Chaska, gauerako Waira bere lagunarekin erretiratzen zela esan ondoren, ez dakit nola, ez eta zergatik nire Yawar boliviarr gizona limatar neskaren ohean eseria zen eta biak besarkatu ginen. Oraingoan ez nintzen hari atsegin ematen egongo, nik plazerra hartu gabe; eta goxoki laztan bidez elkarri atsegin ematen jakin genuen.

Ez genuen hitz egiteko gogorik izan. Bost axola zitzaidan jakitea non eta nola bizi zen. Unean unerako bizitzen ikasia nuen. Garbairik gabe, bestearen helbidea galdetu barik, bakoitza gure alde, azken besarkada isil batez goizean bereizi ginen. Chaskari jaialdirako prestatu zidan gona luze goxoa itzuli nion eta orduan behin behinean mailegatu larrua uzten nuela iruditu zitzaidan.

Wamotera itzultzean zer leizea biltzarreko amets eta dantzak eta egunerokotasunaren artean! Orain hobeki so egiten dun besteak nola jantziak, nola aterpetuak, nola bizi diren. Bada zer hobetu eta zer eskaini, Estatu Batuetarako (Yoni herrirako) eta Europarako joanera amorru horrekin, herrian ezaxola eta zabarkeria nagusitzen zaizkigunean.

## XXII

### ARUPU ZUHAITZAREN ITZALERA ITZULI HAIZ

Amerindiarren Nazioarteko Biltzar horren ondotik berri lazgarri batek sakonki inarrosi nau. Eskutitz batean nebak kontatu dit nola Nafarroan bizi diren Ekuadorrekoek elkarte bat sortu duten, baita xehetasun franko emanaz zelan elkarte horrek bizitzen laguntzen dieten eta gorabeherak erremediatzen. Harridura izan dut gutunaren amaieran idatzi baitit, halako batean kontatu ziotena Felipe izeneko mestizo bat aurkeztatu zela. Berriro Iruinen egon zenean, Pidruri gizon hori Ekuadorrera itzuli zela aipatu zioten. Aste latzak joan zaizkit berri zain eta ez erotzeko, zer nahi barrundatzen eta ez naizela alargun zuria. Etsi eta luzazegi berantetsi dut. Felipe ala Phillip? Bost aldiz Pidruren gutuna irakurri dut.

Halere, aspaldian nire erosketa bidaiak Alausira ematen banituen, joan den hilean hasita Riobambara banoa. Hala erdi erotua senarraren enpresa aurretik inguruka nabil, goaitatzen eta ezin bulegotara sartuz. Halako batean Aparecidarengana joan nintzen eta haren alarguntzeak hurbildurik ulertuko ninduela. Hark nire ibilera alferrak eta azkenean nire eta haurrentzako mingarriak izango direla, erantzun eta gaineratu,



bospasei urteren buruan senar batzuk, ibiltari ibili ondoren, andrearengana itzultzen direla eta guk ezagutzen genituen bizpahiru kasu aipatu dizkit. Etxera sartu naiz, burua lainoz beterik.

Azkenik ere, Internet herrian badugu, baina ez dut hartu. Ez dakit egiaren jakiteak erokeria baten egitera ez ote nauen bultzatuko. Hobe nuke bai, etxean igurikatzea senarra berriro ager dadin, ezen baldin badauki burutik oraino sano naizela, errazago izanen zaigu berriz elkarrekin bizitzea. Eta ez balitz niregana itzuli nahi? Beste asmo batek burua egosten dit: benetan, Phillip itzuli balitz lankideek balekikete eta abisatuko nindukete.

Amak eta seme-alabek lagunduxe naute. Gogoaren gaitza dudalako estutasunarekin Antuñu Amaguañari bisita eman diot eta hark kokaz beste ezagutzen duen min eztingarri belarra eman dit. Hasieran, amets harri-garriak ikusi ditut eta jarrera geldo, barraskilo batean igeri ibili. Arian-arian, ordea, berretu nuen belar hori zela-eta, agian ere, lanak sorgortu ninduelako, Phillipen oroitza eguneroko laino gogo baketzaile bihurtuko zitzaidala.

Gure bi haurrek, azkenekoz, “beren gizona” aurkitu dute: amaren neba gazteena, gure osaba Marku erbestetik itzuli zaigu eta umeek harekin beti sartuak dabilta. Ez naiz bekaizten. Aitarik ezean gizon batekin ibil daitezen ez dut begi gaiztoz ikusten, lanak ez didalako astiune larregi uzten haur pasetzeko.

Osaba hori mendigoizalea da, hamabi hamasei urte arteko ikastetxeko gazteekin txangoak antolatzen ditu. Gaztei eskiak eta elur orrazeak, erraketak erosi dizkie. Gure bederatzi urteko seme koskorrari bere

neurriko oholak erosi dizkiot eta mutil handiagoe-  
kin setatsuki, harro harroa ibili nahi da. Harritzekoa bada  
ere semeak beste mendizale lagun zaharragoak ederki  
jarraitzen ditu. Gora joanaz elur orrazeak oinetan eta  
eski txikiekin jaitsiz, gizontxoarena egiten du. Beste  
lagunek diote trufaz, errazago duela ibiltzea: Wayna,  
txikerra delako haizeak ez duela berdin inarosten ez  
eta galgatzten.

Andre zaharrek ez dute kirol berri hori begi onez  
ikusten: alegia mendian galduko, zaurituko eta izoztu-  
ko direla. Abiatzean aspergarriki esaten zitzaien: Kasu  
erori gabe! Bitxi zen erori egitera hain ohituak ziren  
andrengandik horrelakoak entzutea. Gazte batek or-  
katilan zaintiratua eduki zuelako, ezbairik gabe amona  
batzuen eraginez taldea hamalautik zortzira jaitsi zen.  
Osabak kirolarekin jarraiki, eta hala diotenez baldin-  
tza hobetan.

Handik urte zenbait alaba bide berean ibiliz men-  
digoizale bilakatuko zaigu. Maiz, amets alferrez gogoe-  
tatzen dut Phillip itzultzen bazaigu, bi haur mendita-  
rrez harroa izanen dela. Lainopean galdu mendigoizalea  
irudi zero ainube baten erdian banabil. Biharra lauso.  
Bitartean lurrean bizi behar. Urruntasun beharrik ez  
dut gure umeen betebeharrekin eta lanarekin bizitzera  
bideratua, bizitzera behartua eta barrena isilaraziz la-  
saitzen naiz.

Riobambako irratian bart zorion adigaiak emanki-  
zuna entzun dugu. Zeinen nekea den gure hizkuntzan  
zorion adigai arraro hori argitzea! Amama atseginal-  
diez mintzo zitzaigun, ez zorionaz. Oraintxe, oroitzen  
naiz berresaten zigunaz, bizitza dela aldi txar eta aldi  
onen kate etengabea; betegintzarrea ideia okerra dela.

Bidenabar bizitu ditudan gorabeherekin haren gisa dakusat bizitza aldi on erpinetatik aldi okerren leizetara jaistean tarte luzeak badirela, hots zelaiak betebeharren lainoek gandutuak, ostarre kolore gabekoak eta badi-rudi honelako zelai hitsean nabilela orain. Ez al naiz burujopez horretaratu? Oxala, bihotzeko eguzkia pitz balekit! Baina bizirik baldin bada Phillip zergatik ez zait itzultzen?

Senarrari egin hiezaiokenan ohore handiena, oroi-men gisa utzi dizkin bi umeak –umezurtzak ote– bera bezain onak izatea. Ahaleginduko haiz, bada-ezpada ere, aita itzul balekie beren gisako kultura eta jendetasuna eduki dezaten. Garbaiek eta ezintasunek etsipen leize ertzean gogoia atezatua eta erdi hila utzi haute.

Goiz eder honetan eguna argitzearekin, amari esan diot, ez delako denda irekitzeko ordua, mendira txango bat egin gura dudala. Mendirako jantzi, ur eta pasak hartu eta aurrera. Lasterregi abiatu naiz eta harri zabal batean jarria nago. Hor nagoen hegiaren bestaldean antzina alorren tapizeria berde, hori eta marroiak zeuden lekuan orain... txabolak. Bazekin txabola horietan zein diren mendietan gehiegi sortzen diren jendeak, goseagatik jaitsiak. Egunkari batean jende ez axolek Wamote inguruko mendiak biluztu dituztela irakurri dun. Estetismo erreza: ez al dute dirurik ez dutenak gas erosteko egurraz baliatu behar?

Zutitzen haiz. Hire paisaia gain gainetik ikusi nahi dun. Urratsa mantsoago bahoia. Eta lehen zaldiz iristen hintzen gailurrean hago. Tini horretan harritzen hau Wamote zer bilakatu den: goi zelai guztia etxez bete dagon. Oroitzen haiz Punganineneko haurtzaroan solairu bakarreko etxeak baizik ezagutzen ez hitueneino

nekez asmatzen huela nola solairuak elkarren gainean pilatzen ziren eta orain Riobamban ikusten diren bezain handi, hor beherean. Adreiluzko basilika bezainbat handiak ditun Wamoteko etxe eta hotel berriak. Norentzat? Zertarako?

Phillipek gauzak goibelki ikusten zituenean, zuzenean zegonan, baina haren gisa erdi ezkor izan arren bizitzen eta hire gisa borrokatzen jarraiki behar dun. Ea gure nortasuna galdu gabe hiritartzen garen?

Gaur ere Wamote zalapartatik ihesi, hire begiratokira, hire talaiara igo haiz. Mendia laino, galetsita arupu zuhaitzaren itzalpean hago.

Nor da? Hurbiltzen dena zein da?

Phillip ote?... Bai. Phillip begien aurrean zaukanat.

Bizirik? Hilik?

Ez haiz mugitzen, ametsa balitz berehalakoan... itzal bailitekeen betirako.

## *EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO*

### BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*
13. Mikel Ibarguren: *Bide batez esanda.*
14. Antonio Casado da Rocha: *Islandiera ikasten.*
15. Txomin Peillen: *Nina Waita.*